EGAN

3-4

1985

Suplemento de Literatura del Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País

Redacción: Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», Palacio de la Diputación Foral de Guipúzcoa

Patrocinio: Excma. Diputación Foral de Guipúzcoa

SUMARIO

	Pág.
EGAN — 1984 (Adierazpenez)	5
BI EUSKAL ANTZERKIGILEREN MENDEURRENA (X. M. Munibe eta Amundarain)	9
AIPAMEN LLABUR BAT HARITCHABALET JAUN APEZAREN GAINEAN: J. B. Constantin	13
LORAMENDI OLERKARIA: I. Etxebarria	45
ARTE EREMUETAKO ZORROZKERIA HIZBIDEZ: J. San Martín	77
OLERKIAK	
SEI POEMA GALEGO: F. García Lorca - G. Aresti ...	83
BERTSOLARIAK PENA: L. M. Mujika	91
ZELAIN ALDEAN: L. M. Mujika	93
HARIZTIAN: J. Baez	95
EGAN NAHI NUEN: J. Baez	97
ZEZEN LARRUA (Jarraipena): S. Espriu - Otsalar	99
KONTU KONTARI	
UR-OTZA... UR-DUINA: F. Krutwig	107
HAMALAUGARREN AFALDIARRA: C. Manzoni - P. Zabaleta	119
DADO IRATXOA ETA NIRE HATZAK: S. Calleja eta X. Monasterio	127
SAGASTI GAZTE, SAGASTI ZURI: I. Mujika Iraola ...	153
PIKA ETA LIPUA: X. Arbelbide	167
HIZKIRIMIRIAK: J. A. Arana M.	181
ADABAKIAK	
Euskara = vascuence: J. S. M.	185
Lapsus, J. V. Echegaray zenaz: J. S. M.	186
Errenteriaz zenbait ohar: J. S. M.	187
Deia bai, deialdia ez: Kamiñazpi	190
G. Aresti eta bitan banatzen den elkarrizketa: J. S. M.	191
G. Arestiren azken agurrean: J. S. M.	192
Aritzeta eta Aritxulegi: J. S. M.	193
LIBURUAK	
PATRI URKIZU	197
PAKO ARISTI	201
JOSE M.ª VELEZ DE MENDIZABAL	203
FRANÇOIS BUCHER	206
M. ETXEBERRIA, I. GLEZ. GARAY, B. MENDIGUTXIA, J. RUIZ eta A. STÜRTZE	207
KOLDO IZAGIRRE	213
ANTZERKIA	
ALEJANDRO TAPIA PERURENA EUSKAL IDAZLEA (Aurkezpena): J. M. Satrustegi	217
KATTALIN UMEZURTZA: A. Tapia Perurena	221

EGAN

SANZ-ENEA UDAL LIBURUTEGIA
1018553
891.69 EGA
1985 3-4

Comité de Redacción:

ANGEL LERTXUNDI
LUIS MICHELENA
JUAN SAN MARTIN
ARANTXA URRETAVIZCAYA

EGAN

SUPLEMENTO DE LITERATURA DEL BOLETIN
DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS

Dirección: Luis Michelena y Juan San Martín

Redacción: SEMINARIO URQUIJO DE FILOLOGIA VASCA
Palacio de la Diputación Foral de Guipúzcoa - SAN SEBASTIAN

II Epoca | Vol. XLVI | Mayo-Agosto 1985

ISSN 0422-7328. Título Clave: EGAN
Depósito Legal: S. S. 289 - 1958

Gráficas Echeverría - Easo, 47 - San Sebastián 1985

ADIERAZPENEZ

Esan beharrik ez dugu *Egan*-ek euskal literaturan zer nolako hutsunea betetzen duen; euskararen erresuman soil xamar agertzen dena bait da. Jose Manterola donostiar idazle argiak erdarazko errefrau haren gisara esango zuenez: «Obrak dirade amore, ez itz onen kolore».

1984. urtean 600 orrialdetaraino burutu ditugu 23 idazleren lanak lagun. Horiez gainera, herbesteko 5 autoreren lan euskaratuak ere eman ditugu. Bestalde, lehenagoko ohiturara hurbildu nahirik, 3 ale argitara eman dira, heuretako bakoitzean antzerki bana sartuz.

Hori izan da, orokorki begiraturik, igaz agindutako kopurua beteaz aspaldiko martxa hura berriztatzea. Eta, hara hemen burutu ditugun hiru aleon zenbait xehetasun: 1-2 zenbakia, 173 orrialdekoa, 15 autoreren lanez, beretarik 4 beste hizkuntzetatik itzuliak; 3-4 zenb., 203 orr., 11 autore, 2 itzuliak; eta, 5-6 zenb., 221 orr., 12 autore, 1 itzulia.

Aldizkariaren edukinezko egitura igazko aurkezpenean agertu genuena bera da [1].

Baina, zenbakizko kopurua azaltzea ez ezik, gure gogoa, kalitatezko hobekuntzak eskaintzea ere bada. Horregatik aitortu

---

1. Ikus *Egan*, 5-6 zenb., 6. orr.

behar dugu, zerbait aurreratuagatik, ez dela guk nahi haina. Zeren, jabetzen bai gara, azken finean gertatzen dena, helburu anitzetan bezala: nolako egite, halako pagu.

Badira pentsatzen dutenak baliozko literaturgintza heurak egiten dutena dela, eta arrazoia dute, gu zeharo bat ez bagatoz ere. Guk orotariko literaturgintza nahi dugu, dogmarik gabekoa eta pluralista, era klasikoetatik abanguardiako azken modetaraino, eta guzientzat ateak idekirik ditugu. Inor ez dugu bortxatzen zertaz eta zelan idatzi behar duen. Libertate osoa du bakoitzak literaturaren alorretako garapenean. Inoiz ontzat hartu ezinezkoak, gai extraliterarioak direnean.

Badakigu euskal literaturgintzako arazoak berez direla oso konplexoak, idazleek ez dutela ekintzarako aukera gehiegirik gurean ere, hedapen tipidun hizkuntzak berengan dituzten eragozpen guziak leporatuak dituenez. Arazoa buruz-buru begiraturik edonor ohartuko da azalezko aldakuntzak ez gaituela horrenbeste kezkatzen, baina horri ere uka ezinezko deritzagu.

Lehenik, aurrera begira, beste urrats bat eman beharra ikusten dugu: Noizbait lanak zerbait ordaintzearena eta zabalkundea kiosko eta liburu-dendaz behar bezala egitearena. Azken hau, behar bada, Diputazioko Kultur Sailak edo Euskara Zerbitzuak leporatu behar lukeela iduritzen zaigu, zabaltzaile etxeren batekin harremanetan jarriaz.

1954ko «Asmo berri»ko helburuak bete zituen *Egan*-ek, 1984ko azken alearen atarikoan adierazia ere bai. Baina gure kultur aurrerakuntzarako ez da aski. Urrats kualitatiboak emateko garaian ilunpean eta ahal bezala ari gara. Horregatik diogu, egiten dugunarekin ez gaudela hain konforme; eta horren zergatiaren argitasuna honako hau da: Harrigarria badirudi ere, euskararen normalkuntzarako hainbeste ekintza eta lanbide sortu direlarik, euskal idazlerik bat bera ere ez da bizi sorkuntzazko lan propioetatik. Hainbeste euskarazko irrati, Telebista eta argitaletxe martxan dauden garaian, inor ez bai da bizi sorketazko literaturgintzarako liberaturik. Egoera honi gauza larria deritzagu eta horrela ez dago gure kultur ondasuna behar haina eta behar den moduan lantzerik.

Egungo egoeran, neurri bateko burujabetza dugunean, burugabekeria iduritzen zaigu sorketazko literaturgintzarako ahalmena dutenak hobeto ez aprobetxatzea. Orain ere gu, zaietan zuhur eta irinetan ero. Oroi autonomia baten eskubidea edukitzeko gure hizkuntza eta kulturaren berezitasunagatik dela, eta horiek ez baldin baditugu behar bezala zaintzen autonomiaren jabegotzarako arrazoiak galtzen ari garela.

Gaur egun, idazleak, ogibidezko lanorduetatik kanpo egin behar ditu literatur lanak eta hori urri gelditzen da. Idazleetarik asko irakaskintza, speaker, alfabetatzaile, itzultzaile eta era horietako langintzetan jardun behar du bizimodua aurrera ateratzeko, edo hobea ez den lantegiren bateko enplegadutzan, bere gogozko girotik urruti, beste askok bete ditzazken lanetan denbora galtzen, euskararen eta euskal kulturaren kaltetan.

Hedakunde urridun hizkuntza batean, sariketak on dira idazle berrien promoziorako, baina ez dute balio idazlearen bizibidea soluzionatzeko eta askoren engainagarri bihurtzen dira sariketok.

Badakigu hauek ezin direla soluzionatu *Egan-en* bidez edo aldizkari hau laguntzen dutenengandik, baina aurkezpen honetan egoki iduritzen zaigu euskal idazlearen arazorik larriena plazaratzea, gure artean sorketazko literatura oso egoera txarrean dela eta kontzientzia hartu beharrean garela. Hizkuntzak bereizten gaitu eta hizkuntzak ematen nortasuna. Hizkuntzaren kultur ondasuna literatura dugu eta edukin hori belaunik belaun landuaz jarraitu beharra zerbait izaten iraungo badugu «...edo-ta ats emaiogun ontan iraun dezan».

J. S. M.

BI EUSKAL ANTZERKIGILEREN MENDEURRENA

Laburki bada ere, *Egan*-en orrialdeetan aipaturik utzi nahi genuke bi antzerkigileren oroitzapena aurten beren mendeurrena betetzen denez: Xabier Maria Munibe eta Antonio Amundarain.

Xabier Maria Munibe (1723-1785)

X. M. Munibe, Peñaflorida kondea, Azkoitian jaio zen eta Espainian eta Frantzian ikasketak osatu ondorean bere sorterrian kokatu zen. Bere adiskide Altuna eta Egia lagun zituela sortu zuen Euskal Akademia, gero Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País deituko zena eta kulturgintza lanetan sartu zen buru-belarri, musika eta literaturatik hasi eta zientzietara arte. Zientzia mailan fisika eta kimila ere hezkuntzaren disziplinetara eroan nahirik sortu zuen Real Seminario de Vergara aipatua eta bere garaiko Espainian Real Sociedad Económica haieri bidea eman. Ekintza horiegatik ez zen hain ongi ikusia orduko Eliza eta Unibertsitatearen aldetik. Aita Isla zenak, erdi txantxetan bederen, «Caballeritos de Azcoitia» deitura zabaldu zuen eta M. Menendez Pelayok heterodosoen artean sartuko zituen *Historia de los Heterodoxos* 1an ospetsuan. Hala ere, agurtuz hartu zutenik ere bazen,

Jovellanos bezala, baina hau ere «afrancesado»-en artera eroango zen. Garaiak haiek ere.

Dena dela, jakitun trebea genuen Munibe eta euskaldunon historian abantailarik handienak eskaini zituen gizona noski. Unibersal-egia zelako bihurtu ziren arerio orain inor baino unibersalago agertu nahi dutenen kideak.

El borracho burlado (Opera cómica en castellano y bascuence), Bergaran argitaratu eta aurkeztu zuen 1764an. Frantzes Erdi-Aroko *farce* haien taxurako lan bizi eta entrenigarria.

Gavon-sariac (1762), *Otsaldi* edo antzirudiak, aintzinako klasikoen erara eginak, zeharo antzerki ez bada ere, publikora agertzeko (eta hala agertu ziren) jostirudi horietakoa da. Sor Luisa izenpean agertu zuen, baina Jose Manterolak antz eman zion Peñaflorida kondearen 1an bezala. Mitxelena bera ere uste horretakoa zen eta Telletxea Idigoras eta L. Akesolok argitu zuten egiletza.

Beste zenbait lanen artean hiztegigintza ere bultzatu zuen, Azpitarte hortara jarriz.

Gaur egun, osperik inork ez dio ukatuko eta horrekin batean bihoa gura oroitzapena.

Antonio Amundarain (1885-1954)

Gure idazle ahantzien arteko bat dugu Antonio Amundarain elduaiendar antzerkilaria. Aurten bere jaiotzaren mendeurrena denez, behar bada une egokia zaigu ezagutzera emateko. Euskaldunok ez bai dugu literatura gehiegirik inor bazterrean uzteko.

Antonio Amundarain Elduaienen jaio zen 1885eko apirilaren 25ean. Gasteizen apeztu zen 1909. urtean eta bere lehenengo destinoa Arabako Baroja izan zuen. Gero Zumarraga eta Donostiako Santa Marian koajutore. Mojen kapeilautzan eman

zuen bizitzarik gehiena, Txomin Agirre bezala, literatura jeneroz Bittor Garitaonandiagandik hurbilago ibili bazen ere. Antzerkigilez gainera musikaria eta olerkaria zen. Besteak beste, berak egina bait da «Ostian bizi zera» delako kanta.

Literaturagintzak baino ospe handiagoa eman zion 1926. urtean serora gisako ordena berri bat sortzeak, «Alianza en Jesús por María» deritzana. Gaur egun ordena hori oso zabaldua bait da Ecuador, Venezuela, Chile, Puerto Rico, Argentina eta Dominicana Errepublikan Hego-Ameriketan eta Europan bertan Frantzia, Italia eta Portugalen.

1954. urtean hil zen Madrid-en.

Antzerkigintzan zenbait sari eroan zituen gure mende honen lehen partean eta horietarik lau dira argitaratuak, laurak Donostian. Erlijio gaidunak dira, kristau moralari hertsiak eta bereziki neskentzat eginak.

Bertan goxo (1913), ekitaldi bateko eresidun jostirudia; *Uste diñat!* (1914), ekitaldi batekoa, «Baserritar neskatzak kalian mirabetzan zer irabazten eta zer galtzen duten ikusteko eta ikasteko jolas-gertaketa»; *Egin zak on...* (1921), 1920an Donostiako Udalak saritutako antzerkia; eta *Lore bat loitan* (1932), hiru ekitaldikoa, neskatxak soilik egitekoa.

Horiez gainera beste bi utzi omen zituen argitara gabe: *Arrosarteko arantzan* eta *Umezurtza*, baina gaur egun ez dakigu non direnik. Galdurik ote?

Erdarazko antzerkitxo bat ere idatzi omen zuen, *La martir del diablo* izenburuduna, baina honen berririk ere ez dugu. Zeren, erdaraz ere maiz idazten omen zuen, elizgaiez, eta «El Esclavito» izenordea erabiltzen omen zuen.

AIPAMEN LLABUR BAT
HARITCHABALET JAUN APEZAREN GAINEN

J.B.Constantin SantaGraztarrak eginik

AINTZIN HITZALDI BAT

Lübürüsko huntan Haritchabalet zenaren gainen ekarten dügün aipaldiak behar zükian agertü gure nahiala, diala urte parrasta bat. Hersatu ginen *Eskualdunari,* hartan zatika zatika ezar-erazteko jaun apez haren bizia. *Eskualdunak,* behin behin hun-hartü zian gure galtua, bena bertan dolütürik, ützi güntian erraiten zeikülarik: Bego ixilik halako apezaren oritzapena! *Eskualdunaren* bürü zen jaun apezak, Hiriart-Urruty zenak, etzian arauz seküla Haritchabalet-en gainen entzün mihi lüziek erabili dütien eletarik zerbait baizik.

Hortan baratü zen gure lan hasia. Geroxiago haatik, *Eskualduna* esküz kanbiatü zelarik, berriz ere hari bürüz abiatü ginen, aitzineko xede berian. Lehen aldian bezala, bigerrenian ere *Eskualduna* hasi zen Haritchabalet-ez mintzatzen; bena bizpahirur hoillatan jaun hura aipatü onduan, kaseta üskaldünak hetsi zeikün borta.

Eskualdunak ogen üken dü lehen aldian eta bigerrenian. Diala hamabost bat urte, Üskaldün, Haritchabalet-en gainen ezpaina azpiltüz mintzo ziren eli batek ikusiren zien zuinen gaizki ezagützen zien egiazko apez jakitate handiko baten bizia. Hamabost urte huntan hanitx apez eta hanitx besterik hil

dira Üskal Herrian Santa Graziako erretor zenaren gainen egia jakin gabe.

Dügün erran hau haste hastetik: Haritxabalet jaun apezaren gainen ele lazü hanitx hedatü dira denboraz.

Mündia behatzen da gezürrari, eta behatzia beno haboro ere mündiak egiten düzütsiala, igaran-erazten dü gezürra aitzina, ez bentüraz beti norbaiti ogen egin nahiz, bena gezürrak bere gozoa dialakoz.

Haritxabalet jaun apezaren bizitzetik dakigüna heben agertüren dügü ahalaz xeheki, eta lotsarik gabe deusetan kolpatüren dügüla apez entzun haren oritzapena.

Irakurtzaletan minberenak ez dira kexatüren zonbait elaldi erri egin-erazteko heben edirenik ere.

Haritchabalet zenaz mintzatzen ahal gira ezagütü bagünü bezain ontsa zeren hari huillan bizi izan denaren ganik entzünik beitütügü dakitzagünak oro.

J. B. C.

Egiliak lerrotto horik izkiribatüz geroz, hur untsatto igaran da Atharratzeko zübü pian: urtiak jin dira eta juan. Zunbat nahi lüzaz Santa Graztar zaharra sento egon den eta lerden, izpiritia zorrotz, lüma agüdo, heriuak gerokoz plegatu deikü orozbakoz Xiberutar idazle edo izkiribaino bixkorra. Basabürü orotan lüzaz etxekirik izanen da haren entelegü argi, batzare eder eta ele goxuaren orimentxa.

Egün Constantin jaun zenaren paperetan edirenik lan txipi hau ezarten dügü argitara. Fida gira *Eskualduna*-ren irakurzalek ezagütüko dien bai eta gozatüren Constantin zenaren üskara garbi eta xotila, hala hala bost erri eginen Haritchabalet-en gertakarieki.

Pierre Lhande.

(Eskualduna, n.º 1376, 13 avril 1926)

I. ATHARRATZE HARRIXABALETA

Ziberoan, Basabürüko etxalte hoberenetarik bat izan da sekülaz geroz Atharratze Herrixabaleta.

1760 an sortü zen etxe hartan haur bat, bateiarrian *Dominika* deitürik izan zena. Haur hura, Errebolüzione Handiaren ühülgien gatik apeztüren da eta apeza, Errebolüzioneko odol ixurten gatik, gogorki egonen da apez.

Dominika Haritchabalet-ek korpitzez azkar eta bürüz hun izateko abioa bazian. Bost, sei urtetakotz ageri zen zer entreñatako eta zer jitetako gizona izan zaitekian. Baratxu gaitz zen, bena etzian gaxtokeriarik. Ordünkoz txasko egiteko jaidüra bazian eta jaidüra hura jarraiki zeron denbora orotan.

Aitak eta amak, ezagütürik haurraren jite ederra eta, bere ezin egona gatik, otoitzialako zian süia, hitzartü zien behar ziela herriko jaun erretora mintzatü eta behar ziela ikusi harekin Dominika-etarik ez ote zienez apez bat egin behar.

Jaun erretorak ontsa hartü zian Harrixabaletako nausi-etxekanderen xedia. Eta, hantik bertan hasi zen Dominika-ri lati letzione emaiten.

Ordü beretik mündiak erran zian «Dominika Haritchabaleta-koa apez gei da».

Nor nahi etzen apez gei hun-hartzen; ihur etzen abiatzen latiaren ikastera, ordenala heltzeko elian, non etze ezagütürik barnetik baziala apezgoalako ekardüra osoa.

«Eta orai bezala arauz?», erranen deitade, ozen ozena, hantik eta hebentik.

—Bai, bai, orai bezala. Xoilki, denbora batez, jente gora eta aberatsean, apezak batzutan egiten ziren nula nahixe, bokazionia edo barnetikako deia jinik ez bazen, jineko zelakoan.

Herroka apaletan aldiz, popülü xehian, ikare batekin baizik etze üzten haur bat eliza-gizon sartzeko bidiari lotzera, bel-

dürrez etzükiala bentüraz Jinkoaren zerbütxialako deia behar zen bezain egiazko eta azkar.

Dominika Haritchabalet etzen ezbaiekoetarik: «Nahi niz izan apez eta apez saintü», erran zian, lehen egünetik.

Hatsarrian hiriko jaun erretorak eraits-erazten zian Dominika, astian berritan, letzioniaren hartzera. Frantzesik etzakialakoz, gizon gaztia nekez lotzen zen lati gramerari; bena jaun erretorak ezagützen zian tai gabeko zela haurraren ikasi nahia, eta erraiten zian: «Behin abiatüz geroz joanen da süia bazka idorrian bezala».

Egün batez, Dominika letzioniaren hartzen ibilirik, etxerat jinik zen doi doia. Ama, sü eder baten aitzinian, talo edo pastex egitera abian zagon. Erran zeron semiari: «Ikasten düka hanitx Dominika? Eia badakianez latirik?».

Mottikoak ihardetsi zian amari:

«*Rosa* ikasi düt behin;

«*Rosae*-k eman deit zer egin;

«*Rosis* igaranik nago;

«*Rosae*-tan ez gibelago;

«*Rosarum* joan da aitzina;

«*Rosis* biharko latina».

Besoak altxatürik, ama hasi zen: «Dominika guriak badaki jadanik latia *paterra* bezala».

Izanen da irakurzaletan sinetsiren ez dienik osoki Dominika apez geiak, zian adinian, hitzez hitz ihardetsi ahal üken ziala amari erran dügün moldian. Ezar dezagün *Rosa, Rosae, Rosis, Rosae, Rosarum, Rosis* zütüzkiala eman herrokan, eta beste üskara büztanak lati hitz horier norbaitek eretxeki dütiala.

Eta ez haatik, ihurk ez dütü eretxeki, bai izaritan ezari.

Joan ziren urtiak: lanak eman zian beria. Dominika Haritchabaleta-ko seme apez geiak sakolan zian lati gramera. Horrek erran nahi beitü hari nausitürik zela, hura ikasirik ziala *paterra* bezain ontsa.

Atharratzeko jaun erretorak, hatsarrian, zonbait pitzaldi builtaz erran üken zeron Dominika-ri: «Büria Erretzü-ko arroka bezain gogor ote düka?».

Haritchabalet-ek ihardesten umen zian gogoz jaun erretorari: «Ene büria ez da Erretzu-ko arroka bezain gogor eta ene bokazionia hanitxez hura beno gogorrago da.

II. OLORU-KO SEMINARIOA

Jin zen seminarioan sartzeko tenoria. Dominika joan zen gogo hunez Oloru-ko seminarioalat. Langile handi eta hartze hun zelakoz, denbora orotan, jakitatez bere lagünen aitzinian egon zen.

Oloru-ko seminarioan aitzindari eta eskolierek estimü handitan etxekiten zien Haritchabalet. Bena apez geiek, estimiaz kanpo, balin bazen lagün alagera eta bihotz gozoko haren etxekimentü behex bat, aitzindariek etzütien ontsa hartzen Dominikaren txasko eta ützüliak oro. Eta aitzindarien beldürra zen apez gei üdüriz haitüko hura etzela seküla ordenala heltü ahal izanen.

Bakotxak ikusiren dü eia Haritchabalet-ek zonbait ele eta ützüli arinen gatik, gaxki hartürik izatia merexitü dianez egündano.

Huna lehen bakantzak.

Atharraztarrek etzien ikusi ordiala artino Haritchabalet sotenarekilan. Zer mutikua! Zer gizona! Zer apez ederra! Barnetch-ek erran zian: «Seminarioko apez gei Biarnesek ez ahal deroie horri eria südürpian igaraiten!».

Haritchabalet haatik azkar eta odol bero bezain bakezko eta ororen adiskide zen. Etxera heltü zelarik, amak besarkatü zian eta potez abantzü jan. Gero eman zeron edatera. Godaleta etzen txipi, ez handi ere; laborari godalet bat.

Hüstü bezain sarri, krakez, Dominikak eror-erazi zian godaleta sotena mahankalat eta esküz lotü zen züntzürrari, üdüri zerbaitek itotzen ziala. Ama hasi zen oihüz: «Zer dük?».

Haritchabalet-ek egin zian: «Deusere, deusere orai: godalet txar hura erori zait ahualat eta gaintitü düt.

Ama harritü zen. Egün berian erosi zian Atharratze Martxantenian ,barnez gatülu tarro baten heineko godaleta, seme jaunarentako.

Dominikak etzian besterik galtegiten. Seminarioan Haritchabalet-ek kuntatu zian lagüner amari egin txaskua.

Karkazaz hant-erazi zütian apez geiak. Aitzindariek aldiz ediren zien hor ezagütze eskaz bat amaren eretzeko.

Haritchabalet etzen amaz trufatü nahi izan huillanik ere: amak erri eginen zian ezagütü balü semiaren ützülia.

Haritchabalet handi eta azkar zela badakigu. Ez da sinesteko lagünek beno haboroxo jan behar ziala. Eta denbora haietan seminarioko bizigarria mehe eta xuhur zen. Norbaitekin hitzartürik noiztarik noiz hiritik hel-erazten zeroien jateko amiñi bat.

Bazakian noiz zen anhua egüna. Gaian egürükiten zian tenoria. Leihotik behera igorten zian soka hari estekatzen zien zaretto bat, eta bertan zaria sartzen zen seminarioan. Sailla ontsa zoan. Bena zer egiten ahal da lüzaz aizuek jakin gabe? Seminarioko aitzindarien beharrietaratü zen Haritchabalet-ek egiten zian lana.

Süperiürrak begia etxekiten zeron Üskaldün handiari. Arrats batez, zerbait zotükü nabaritürik, jarri zen haren alde peko kanberan. Eta zaria abiatü zelarik gora bürüz, leihoa zabal-eta hatzeman zian soka. Soka muztü zian eta zaria bere ganat bildü.

Horra Haritchabalet seminariotik kanpo ezaririk izateko bidian.

Biharamunian Süperiürrak bildü zian kontseillia eta deitü zian Haritchabalet haren aitziniala.

Haritchabalet sartü zelarik kontseillia bildürik zen barne hartara, hasi zen hasperenez, iharrausiz eta ezin egon batekin bezala zagon, ülün eta erreüs.

«Zer dügü Haritchabalet?», erran zeron Süperiürrak haizü etzen erkaitza batekin.

Ez da haizü ihurtzaz trüfatzia; ez da trüfatü behar bera beno apalago batez ere. Bestalde Haritchabalet ogendün ekarririk zen, bena ez orano ezagütürik egiazki ogendün zela.

Haritchabalet-ek ihardetsi zian Süperiürrari: «Barda egin düt amets bat eta amets harek zainetan ezari deitadan izialdüra etzait orano ere igaraiten. Beste mündian nintzan zelüko loriaz gozatzen ari. Arima gaxo bat hasi zait oihüz Pürgatoriotik: «Salba nezazü! Salba nezazü». Igorri derot soka bat. Lotü da sokari eta zelietarat igaran-erazten nian. Bena aingürü bat jelki da oldarrian borta batetarik, hatzeman dü soka, bildü arima bere ganat eta lotsa niz urtiki diala ifernialat».

Süperiürra eta haren lagünak egon ziren algarri so apur bat. Ikusirik apez gei gaizoak etziala egin, ororen bürian, jateko buxi baten, erran ahal daiteke ogi azal baten kontrebanda baizik; oritürik Haritchabalet-en enteligentziako gizonak bekan zirela, ützi zien bakian estüdianta.

Haritchabalet-ek etzian gezürra maite. Erraiten zian: «Gezürra bekatü da eta gezürrak txipitzen eta ezdeusten dü gizona. Erakar ditzazke ere nahigabe, destorbü eta itxuskeriak».

Bena bada haatik gezür eta gezür.

Xüxenka edo üngürüz norbaiti ogen egiten edo egiten ahal dian gezürra ez da haizü

Libertitzeko, ihur demendrenik kolpatü gabe erraiten den gezürra ez da arauz bekatü handia.

Bere büriaren edo adiskide baten urrats gaxto batetarik edekiteko erraiten den gezürra, gezür harek ez dialarik besterik ihuri ere okerrik egiten, zer heinetan da bekatü?

Aldi batez Haritchabalet-ek behar ükan zian gezür bat biribilkatü bere büriaren garbitzeko. Aitortzen zian ogen handia üken ziala gezürraren erraiteko beharrüniala eroriz, bena

etzian sendi barneko minik. Kontzentzia bakian ezaririk zian seminariotik jelki gabe ere.

Huna zer gertatü zen: Ateraldi edo promenadatik apez geiak ützültzen zirelarik, Haritchabalet-ek ardüra artia hatzamaiten zian botilla bat ardu xuriren eros eta sakolan sartzeko.

Egün batez hatzemanik izan zen: gehien batek ezagütü zian haren ützülia. Etzian ezkapürik. Berak ziuan: «Ala txoria!! uste zieia igorten nündiela berhala ahar-zain Maidalena serralat».

Seminarioan estüdiantak sartü bezain sarri, Süperiürra abiatü zen kanberetan iker-aldi baten egitera.

Haritchabalet-ek bazakian zer egin zian eta zer atekan edireiten zen. Etzen egon ezbaian: zunbat itzikiz edan zian botilla ardua eta ezari zian ohe pian botilla erdikalaxe beterik... bere huretik.

Erran behar da, denbora haietan, estüdiantek etziela gaiazko untzirik eta jeiki beharrian gertatzen zenak juan behar ziala, laster edo ürratsian nula ere manatürik beitzen, zoko ülüntto batetan zen barne hartara.

Süperiürra, üngürükaz, heltü zen nuzpait Haritchabalet-en kanberala. Hasi zen han xokuen ikertzen. Bazakian botillaa barne hartan zela eta haatik etzian edireiten. Azkenian horra nun ikusten dian botillaa ohe pian. Hartzen dü eskietara. «Zer da hau?», galtegiten dü. Haritchabalet-ek ihardesten dero: «Jauna badakizü ez dügüla gaiazko untzirik; untziaren ordari botilla bat etxekiten düt; goiz huntan ez düt hüstü botillaa; orai ikusten düzü zer den».

—«Bai?», egin zian Süperiürrak, eta ber denboran abiatü zen bere ustez ardu xuria zelako haren ürrintatzera. Etzian botillaren südürriala hüllantü beharrik ükan. Bertan ezagütü zian. Haritchabalet egiaz mintzo zela. Süperiürra kexü gaitzian zen haatik. Profezürak etxekiten zian azkarki ikusi ziala Haritchabalet botillaren sakolan sartzen, bena kontzentziari minik egin gabe etzirokian besua altxa erraiteko botillaa beterik zela.

«Ez gira argi bila juanen seminariotik kanpo, erran zian Süperiürrak, seminarioko gora beherak heben berian behar die xüritü eta bardintü. Haritchabalet-ek dio zer beharrünetako zian botillaa. Nihauk ere badakit zer zian botillak barnen. Izan dira beste ützül üngürü, Haritchabal batek baizik ozketan ezar ahal ez liruanik? Agian ez. Gezürra bekatü da eta bekatian denaren lekürik ez da seminariuan».

Süperiürra bortizki mintzatü zen, bena nulako etzen izanen haren bihotz mina bortxatü izan balitz Haritchabalet-en seminariotik kanpo ezartera. Maite zian Haritchabalet eta bazian sineste handia harek apezgoalako zian ekardüran.

Hortan baratü zen egitekua.

Seminarioko denborak ere igaraiten dira. Lüze kausitzen dütie apez gei haboruek. Zerentako ote? Ez lüke üdüri debeiatzeko arterik han badela. Orenak oro hartürik dira. Ez da oren herrestakorik.

Bena zerbait... Nun ez da zerbait?

Haritchabalet debeiatü zena seminariuan? Ez ahal: lana zinez maite zian eta pausü artetan bazakian besten eta bere büriaren liberti-erazten. Bere txasko txipi eta handi ororen gatik etzian üken deus nahigaberik.

III. SANTA GRAZIA-KO BIKARIA

Eta orai horraa nun den Haritchabalet ordenala heltürik: horraa nun den apez. Adinez hogei-eta-hamar urtetara huillantürik da. Bi asteren bürian jaun apezküpiak izendatü zian Haritchabalet Santa Grazia-ko bikari.

Hartxilon gora zoalarik erran ümen zian: «Ala txoria! Errege etzaikü jinen ikustera». Etzian goguan igaraiten Erregek zer behar zian ikusi.

1790 an arren, Haritchabalet juan zen bikari Santa Grazialat.D'Esquer zen ordian hanko erretora.D'Esquer-ek egin zeron gaihaie hun Haritchabalet-i.

Denbora haietan Frantzian baziren zotükü gaitzak: Errebolüzioniaren herotsek aranatzen zütien bazterrak. Lege berriak egiten zütien eta oro popüliaren hunetan, bena ezagün zen lege egilen artian bazirela gogoan errabia zienak. Ageri zen zer egünetara zoan Frantzia eta hartakoz mündü oro erreüs bizi zen.

Goberniak ezari nahi üken zütien Elizaa eta Elizako gizonak *Constitution Civile* zelako lege berri baten pian. Lege haren arabera, popüliak behar zütian botzez haitatü apezküpü eta erretorak. Elizari kendü zeitzoien bere huntarzünak oro, bena Frantziako goberniak behar zütian eman eliza gizoner huntarzün haien entresak soldata bezala.

«Ala txoria!, erranen zian Haritchabalet-ek, bizi izan balitz egün orano, Errebolüzioneko gizonak oraiko Errepüblikakuak beno xüxenago ziren; bazien hoiek beno kontzentzia haboro: hartü zütien Elizaren huntarzünak bena etzien txerkatü apezer gosez arnega-eraztia. Soldatak eman zeitzen».

Aita saintiak etzian onetsi *Constitution Civile* zelako lege berria. Apez zunbait aldiz hari jarri ziren. Egiazki untsa edireiten ziena, ala lotsak erabilten zütian?

Apezek behar zien zin egin lege hura untsa hartzen ziela. 1791 an D'Esquer-ek eta Haritchabalet-ek egin zien zina, Santa Grazia-ko plazan, bai eta dantzatü *Karmañola* han berian.

D'Esquer zahartüttorik zen ordünkoz. Haritchabalet-ek egiten zian D'Esquer-en dantzatzeko ihikina: gizagaxo erretor xaharra hatsa juanik üngürükatzen zen ahal bezala, sotena hegalak herrestan.

Lege berriaren araberako apez bezala ezari zien Haritchabalet Ligi-n erretor. Hantik bertan igorri zien Larrañe-rat.

Larrañen ümen zian Haritchabalet-ek kantatü hainbestetan aipatürik izan den prefaziua.

Larrañen ümen zian Haritchabalet-ek kantatü hainbestetan aipatürik izan den prefaziua.

Axuri denbora igarantxerik zen; ahüñiak hasirik. Igante hartan haatik, ez axuririk ez ahüñik, ihurk etzian ekarri apeztegialat. Haritchabalet-ek, beti bezala bazütian kümitak. Eta Mañaña gelariak etzian deus handirik bildü ez adelatü, sasu hartan bazkari geiak ez beitzian hütsik egiten jitia. Erretora juan zen elizalat, erraiten zialarik Mañañari: «Jinkuak zerbait eginen din. Eta hik ere harekin».

Meza hasirik zen. Horra nun laborari batek ekarten dian ahüñe bat ederrik. Mañañak nahi üken zükian Haritchabalet-i jakin-erazi baziala harakeia, harakei gazte eta gizena.

Larrañen ordünko apez etxia elizari huillan huillana zen eta leiho batetarik ikus zaitekian altaria. Ez dakigü orai hala denez.

Mañañak hartü zian ahüñ-kia besapian eta jarri zen leihuan altarialat so. Erretorak, ützüli zelarik popüliari bürüz, *Orate fratres* erraiteko, ikusi zian Mañaña keinüz ahüñiaren erakasten ari zerola. Ordian Haritchabalet-ek prefazio hau kantatü zian:

«Mañaña, o Mañaña, badügia ahüña! Ikusi diñat, keinü egitian, bat badüñala besapian. Abia hadi bertan prestatzera, gerrenian erdia ezartera. Beste erdia ezar-an saltsan, ederki jan dezagün bazkaitan».

Zer erranen die irakurzalek prefaziotto horrez? Haboruek erri eginen die, eta behar ere. Ez deia izanen bat edo beste sinetsiren dianik Haritchabalet-ek hori kantatü diala Larrañeko elizan?

Balin bada bat bera, harek erranen dü: «Haritchabalet etzen apeza; arnegatü bat baizik etzen izaten ahal; elizaa ostatü baten bardin etxekiten zian eta ordena zankopetan ezarten».

Haritchabalet apez fede handikua zen eta eliza gizon ederra eta seriusa. Ez dü seküla elizan kantatü prefazio hori. Kantatzen zian elizatik kanpo, adiskide untsa ezagütü zunbaitekin zelarik. Bena adiskide untsa ezagütietarik behar zien izan. Beste nur nahik egiatako hartüren zütian. Haritchabalet--ek libertitzeko, jiten zeitzon bezala, burrustan emaiten zütian ele auher, erri gozo egin-eraztekuak.

Haritchabalet laket zen Larrañen. Eta haatik Santa Grazia maitiago zian. Ardüra juaiten zen, Lexartsün gainti D'Esquer--en ikustera.

D'Esquer ülüntto zen aspaldian. Ikusten zian nula zoatzan Frantziako gora beherak; herritik ihesi juan behar ükenen zialako lotsan bizi zen. Haritchabalet-ek kentzen zeron ahalaz lotsa hura: Haritchabalet gazte zen; gaztia ez dü geruak izitzen.

Ez jakin D'Esquer-ek etzianez bere barneko mina zeren lege berriari jarri zen.D'Esquer-ez eta Haritchabalet-ez besterik ez ahal zen hanbat zin egin zienik eskualde huntan.

Elizaren zerratzia jin zen. Apez zin eginak eta bestiak, oro bardin ezari zütien. Etzeren haizü, ez agerian ez gordeka, erligioneko eginbiden betatzia. Hanitx haatik, biziaren galtzeko bi-

detan, bazabiltzan gaiaz haur bateiatzen, ezkuntze benedikatzen eta Elizako heltüren erier emaiten.

Deusek etzian kordokatü Haritchabalet bere fede azkarretik, bena ez beitzian zertarik bizi, sartü zen mandozain, armadako bizigarri karreiazale. Sotena ützi behar üken zian.

Mandozain lagünetan hanitx baziren erligioniaz erri egin nahi zienik. Haritchabalet-ek erraiten zeren: «Orit zitie Jinkua gain hartan dela eta lekü orotan; hura dela güre nausia; ikusten dütiela gure ibilbide eta solasak oro».

Gütiz bestek hartzen zien Haritchabalet-en eretzeko bestiak beno haboroxe den bati zor den errespetia.

Haritchabalet-ek orori ele huna emaiten zian beti. Bena gertatzen bazen ezin eden bat, nausa eta gaxtokeriak gaintika zütiana, Haritchabalet jauzten zen ozketik eta lagün hortz gaxtoko hari, lepo zakütik har-eta ,emaiten zeron ilasaldi bat.

Egün batez uhuin bat jelki zeron Haritchabalet-i bidiala: «Bizia edo mursa!» —«Ez bata ez bestia». Haritchabalet-ek etzeron ützi uhuinari armaren hartzeko denboraa: makila ükaldü batez hautse zeron ükaraia. Gero ezari zian mandon gainen eta eraman zian minaren hersteko lekiala. Etzian ützi juaitera ontsa sendatü artino. Ordian eman zeron libertatia erraiten zerolarik: «Habil eta bizitzez kanbia hadi!». Ihurk etzian jakin zer bidetako gizona zen.

Haritchabalet-ek etzükian mandozain bezala mulde hun handirik. Lagün zunbaitek, egün batez, erri egin zeroien zaldien kargatzen ikusi zielarik.

«Nahi düzie jokatü zerbait enekin zuinek lehen ezar mando baten bizkarrian hirur kintale?», erran zeren Haritchabalet-ek.

Bat jeiki zen: «Bai eta bai!, egünko bien bazkaria».

Lotü ziren lanari, edo, hobeki erraitera, mandozainak begi ükaldü batez behexi zütian bi zahagi ardu: zahagietarik bata

jadanik mandon gainen zien; bestia laster hari üztartürik izateko bidian zen.

Ordian Haritchabalet jauzi batez igain zen mandon gaina eta gozo gozuan erran zeron bestiari: «Irabazi düta?».

Mandozaina, egonik ixilik apür bat, ez jakinian zuin gainti har, gaitzitürik, kexian sartzeko halako errakia batetan, mintzatü zen eta erran zian: «Bai, partidaa irabazi düzü: üken diokezü hirur kintale pezü».

Haritchabalet-ek pakatü zian bazkaria.

Hanitxek bazakien Haritchabalet apez zela. Bestalde, lotsarik gabe, berak hori erraiten zian goraki.

Soldado aitzindari batek uste üken zian behin büria apal-eraziren zerola. Erran zeron erkaizta gaxto bat ezpainetan: «Mandozain sartü aitzinian, zer zen zure ofiziua?».

Demendren ükorik gabe, Haritchabalet-ek ihardetsi zeron: «Apez nintzan. Egün apez niz eta, hil artino, izanen niz Melchisedech-en legiaren araberako apez».

Ofizierak ezagütü zian Haritchabalet etzela, ordünko denbora gaitzen gatik, lotsak gorderik egon nahi zienetarik. Haren hain garbiki mintzatziak eman zeron estimü handi bat mandozain apezaren.

Errebolüzione handiko gizon torpenak erori ziren haatik. Frantzia ützülixe zen bakialat. Elizak zabaltü zitien.

Berria agertü bezain sarri Haritchabalet-ek ützi zian mandozaingua eta galtegin zian Elizaren zerbütxian berriz sartzia: Bigerren aldikotz Santa Grazia-lat bikari igorri zien. Han egonen da bere denbora orotan bikari D'Esquer erretora hil artino eta D'Esquer-en ondotik erretor 27 urtez.

IV. SANTA GRAZIA-KO ERRETORA

Zunbat nahi Santa Grazia bortü zoko den, zunbat nahi denbora haietan hanko bidiak gaitz ziren, kanpotiarrak juaiten ziren saldoka herri hartarat, haboruak debozionez, bena hanitx Haritchabalet jaun apez entzünaren adiskide bezala, edo harekin ezagützen egitia gatik.

Haritchabalet-ek batzarri ederra zian mündü ororen: Adiskider gaihaie handi egiten zian eta ikusliarren eretzeko ezinago largo zen.

Beti erranik izan da, Haritchabalet-en botz ederraren entzütia gatik, herriz kanpoko hanitx juaiten zirela igantez Santa Grazialat. Hortako astegünez juaitia bardin zatekian: Haritchabalet-ek kantatzen zütian Prefaziua eta Paterra, besta, igante ala astegün, bere botz nasai eta eztia erabiliz beti üngürü eta hedadüra berian.

Aldi batez nurbaitek laidorioz hantzen zian Haritchabalet bere botzaren gainen.

«Behar deizüt kuntatü zer gertatü zaitan orai berri, erran zeron apezak. Ari nintzan peredikiaren emaiten. Ikusi nian eliza ezkaratzeko xoko batetan Behigorküko etxekandere xaharra ari zela nigar eta nigar. Ebanjeliotik mintzo nintzan eta ez nian deus ere lazgarririk erraiten. Hartü nian bürian behar niala jakin zerk emazte gaxo hari nigar zipa hurak oro jauz-erazten zeitzon».

«Meza urrentu bezain sarri giltzaina kargatü nian Behigorküko etxekandere xaharrari erran zion ikusi eta mintzatü behar niala; elizatik jelkitian jin zedin apez etxiala. Emaztettua jin zen. Zerbait har-erazi neron jateko eta edateko. Ez nintzan berehala atrebitü emaztiari galtegitera zerk hala nigarretan ezari zian eta edüki meza denboran. Ez neron berehala aitor-erazi ahal üken egia. Bena ezagütürik etziala hoberik, erran zeitan:

—«Jauna, jakinen düzü hala nahi düzünaz gainen, bena otoi ez düzü behar kexatü. Baginizün asto bat hunik. Zaltübian larrütü ziküzü. Egün, zure botzaren entzütiari, üdüri zitadazün astuaren orrua entzüten niala. Eta asto gaxuaz oritürik nigarrez arizan nüzü».

Haritchabalet-ek maite zütian lagün gozuak bena etzen laket laidoria egilekin: «Ala txoria!, erraiten zian, holako berakatüxek uste die orano bestiak berakatüxago direla».

Eriak ere, ahal zien bezala, juaiten ziren Santa Grazialat. Hertsatzen ziren hanko patrona saintari, arateko hartüz, sineste handi batekin, Haritchabalet jaun erretora. Haritchabalet-ek emaiten zütian ebanjeliuak erien osagarriaren eskatzeko. Bazütian bi ebanjelio eli: Elizako lübürietakuak eta Zaragozakuak.

Denbora haietan bazen behargabedün hanitx. Haietarik zunbaiten ixil eta ekürü egon-eraztia neke zen. Sobera gaizten zirelarik, Haritchabalet-ek, lübüria zerra-eta, bilo zamarretik hartzen zütian eta iharrausten zarpa bezala. Eta behargabedünak axuria bezain ezti jarten ziren bertan. Behargabedün gaitzer emaiten zutian ilasaldi hurak Haritchabalet-ek deitzen zütian Zaragozako ebanjeliuak.

Haritchabalet, beste apezak oro bezala arauz, mahanka largo zen bekatore txipien eretzeko. Emaztetto batek kofesiuan aitortü zeron zunbait porrü ebatsi zütiala. Haritchabalet-ek etzian hanbat gaizkitü emaztia. Erran zeron: «Haurra hori bekatü txipia dün. Ez din laxüki holako uhuintza txar baten aipatziak balio».

—«Bena Jauna, ihardetsi zeron emaztiak, zure baratzian ebatsi ditit porrü hurak».

Haritchabalet ixil egon zen apür bat. Gero igorri zian penitenta erranez: «orit hadi arrastan badela porrü eta porrü...».

V. KONTRABANDIST ETA GARDEKIN

Ekarriren dügia heben zer ützülia Haritchabalet-ek jauki zian bost kontrebanda haxeren salbatzeko?

Bost haxero, bost kontrebandist sartü ziren gaiaz, kafez kargatürik Urdaiten behera. Eraintzeko portillotik igaran nahi izan ziren, bena gardak han gainti zirela jakinik, behar üken zien Urdaiterat bürüz ützüli. Bidia lüzatzen zien hanitx, ezi Oloru-rako alderat abiatürik ziren, bena zer egin? Baratü ziren Drundan, han egünaren igaraiteko.

Bena gardek jakin zien kontrebandaa sartü Athororat eta han zela nunbait gorderik. Bost kafe haxiain Drundako sabaian ziren eta Drunda erreüs zen beitzakian herriko karabineruak oro Athoron zabiltzala etxez etxe bordaz borda, zokoz zoko. Juan zen Haritchabalet-i kuntatzera zer gertatzen zen eta hari erraitera galdia zela kontrebandaa haren etxen gardek edireiten bazien.

Haritchabalet-ek berehala hatzeman zian Droundaren galbidetik idokiteko ützülia: «Habil, erran zeron, eta orotan heda-eraz ezak etxekandere xaharra hil zaizielako berria eta haren ehortzeta bihar izanen delakua».

Drundak egin zian Haritchabalet-ek mánatia. Bihamunian aizo eta askaziak bildü Drundala. Athoro oso osua han zen. Bost haxiak ezari zütien karkanuetan; hil oihalaz untsa tapatü zütien. Gero, Drunda bürü bürian, kürütxe bat eta ezko kanderak eskietan, haren ondotik Athorotar kontrebandistak, kunderak erietarik txilintxan, hila lau gizonek bizkarrian eta gibeletik emazte tramada bat, kapotxinaz gorderik, zunbait nigarrez, bestiak otoitzian, horra hila eta ehortzetaliarrak eraisten Athoro gainetik herroka lüze batetan.

Erranik izan da Haritchabalet bere giltzain, beretter eta kantatiarekin, juan zela Drundala hilaren txerka eta bidian kantatü ziala *Miserere mei...*

Hori ehortzetari itxura habororen emaiteko ezaririk izan den emendio bat da. Ez da egia. Haritchabalet apez zen, osoki apez; deuseren gatik etzian elizako zeremonia baten errespetia galdüren. Bestalde Santa Grazian, sekülaz geroz etxauetako hilak ekarten dütiela apezik gabe karrikala. Karrikala juaiten da apeza ehortzetako ofiziuen hastera.

Eiheramendi-ko bortan ziren gardak kafe haxiak karkanuetan han igaran zirelarik. Ordünko kargülantak, nahiz Errebolüzioniaren aranak orano ezagün ziren, etziren oraikuak bezain hotz erligioniaren eretzeko; eta hil batek emaiten beitü nuri nahi ere bortxazko gogueta ülün eta latz bat, gardak, herrokan, belariko jarri ziren kontrebanda igaran zelarik.

Espilaga-n Athoro-tar ehortzetaliarrak eküratü ziren. Bost gizonek hartü zütien kafe haxiak eta, denborarik galdü gabe, lotü ziren bidiari.

Oren bat eta erdi etziren eman Garate-ko lepuala heltzeko. Garatialaz geroz etzien Santa Grazia-ko garden beldürrik.

Biarnes gardarik ere etzen gertatü Goillertze üngürünetan. Zokoz zoko, haxeruak eraitsi ziren ezagützen zütien bidexkez eta sartü ziren Senpe-ko oihanian.

Beti izan dira bekaxti eta salazaliak: Gardak ari zirelarik Athoron Garai-ko etxolaren ikertzen, berria heltü zen haien beharrietara bost kontrebandist igaran zirela Zalthondo-ko ibarra gora. Gardek jakin zien ere egün hartan etzela izan ehortzetarik Santa Grazian.

—«Haritchabalet-en kolpia!, erran zian garden aitzindariak, herenegün Athoron sartü kontrebandaa Oloru-rako bidian da. Haren aitzinian belarikatü gira; laster egin dezagün orai haren ondotik».

Abiatü ziren bena berantegi. Etziren juan elizatik gorago.

Beren errabian mehatxuz hasi ziren Haritchabalet-en kontre. Haritchabalet kanberako leihotik so eta beha zagon garder.

Gardetarik batek hartü zian bere arma illabürri eta sü egiteko bezala jarri zen Haritchabalet-i bürüz.

Haritchabalet-ek erran zeron: «Ala txoria!, eia emak!; ez nezala haatik hüts egin; bestela hire larria saltzeko izanen dük». Hain sarri hartü zian eskietara bi kolpetako suharrizko arma eta, erriz zaguelarik, hura erakatsi zeron gardari. Gardak hartan juan ziren.

Hantik bertansko, garden kapitaina, ardüra egiten zian bezala, juan zen Haritchabalet-ekin bazkaitera: Adiskide handi ziren.

Kapitainak nahi uken zian erran zerbait gaizki apezari: «Zer zü kontrabandisten alte? Hori da egin düzün lana!» — «Xo!, ihardetsi zeron Haritchabalet-ek, ez otoi iratzar-eraz lo dagon erbia. Nahi düzia entzün zerbait kuxelüz? Zunbaiten ustekia da zük zihauk batzütan lagüntzen dütüzüla kontrebandistak».

Kapitaina hain zen kexian jarri nun nahi izan beitzen abiatü adiorik erran gabe ere. Bena Heritchabalet-ek bazakian balakatzen eta biltzen: Kapitaina eztitü zen. Egia da bazkaiteko tenoria zela ere.

Espanul arduak ezari zian kapitaina lürreko izate gozo gozo batetan. Ordian etzütian hain gaizki hartzen kontrebandisten ützüliak:

Eiherazain bat, oro irin, batu zian egün batez, elge zolan, zorro gaitz bat suinian: «Zer dügü hori? — Ez badüzü ezagützen zer den hau? — Nurentako da? — Jaun erretoraren. — Jaun erretorak ere jan behar dü arren? — Bai eta edan ere. — Errozü goraintzi nik etxi. — Untsa düzü; bena zü nur zira? — Garden kapitaina. — Parka ene muldegaizkeria, ez nakizün nur zinen. — Zuatza, zuatza bakian! — Bai, arren bai!».

Zortzi egün zütian eiherazainaren ikustiak eta egün hartan zian kapitainak jakin eiherazaina kontrebandist bat zela,

espainul arduz kargatürik. Hain xuxen ardu harek zian ezari kapitainaren papua epel epela.

Abiatzeko tenoria jin zelarik, Haritchabalet-ek erran zeron kapitainari: «Badütüt heben Ereta-ko erretoraren jin-erazirik lau ofizioko lübürü ttipi. Ez dakit nula hel-erazi behar deitzotan. Etzüntüzke eramaiten ahal?».

—«Bai; eta aisa!, ihardetsi zeron kapitainak. Lübürüsko horien pezia ez da handi izaten ahal. Gaur berian, bide hunez, eskütik eskiala emanen deitzot gure erretorari». Ez düt orano erran garden kapitaina Eretan egoiten zela.

Kapitainak eraman zütian, ez ofizioko lübüriak, bena bai berrogoi-eta-hamar zigarro espainul, untsa eijerki emanik paper azkar batetan eta lübürien heineko muldian.

Gai berian kapitainak eraman zeitzon zigarruak Ereta-ko erretorari. Erretorak egon-erazi zian kapitaina berarekin aihaitan. Aihal onduan eskentü zeron zigarro bat. —«Nurat nahi juanik beti kontrebanda, egin zian kapitainak. Zigarrua nun da eta ene ixilik Espainatik jinik da». — «Ez da zure ixilik jinik, ihardetsi zeron erretorak. Kontrebandako zigarrua bada, kontrebandista zu zira. Santa Graziako erretorak igorri deizkit berrogei-eta-hamar zigarro egün zurekin».

Kapitainak büria bi eskien artian hartürik erran zian: «O Haritchabalet!».

VI. APEZ - ETXEKO BERRI

Nurk ez dü entzün aipatzen *tourne-broche* baten gainen Haritchabalet-ek erran zian ele üngürüzkua?

Haritchabalet-ek ele hura erran zialarik Jaun Apezküpiari, ez berak ez Jaun Apezküpiak etzien goguan igaran halako ahapaldi xoil, gaxtokeria gabekuak ehün urte irainen ziala kalomniaren muldian. Huna bi hitzez zer igaran zen eta zertarik hasi zen konder tzar lüzaz mündiak erabili diana. Jaun Apezküpia Santa Graziaren konfirmazioniaren emaitera juanik. Ofiziuak ürrentürik, mündia kalostrapetan eta hilerri üngürünetan zagon. Bazen jentez Sentak eden ahala. Jaun Apezküpia, Haritchabalet eta beste apezak erretor etxeko bortan zauden.

—«Zer popülazione ederra!, erran zian Jaun Apezküpiak. Oro laborariak dira?».

Haritchabalet-ek ihardetsi zeron: «Haboruak laborari; hanitx artzain; saldo bat jualtero; oro agüdo; oro *tourne-broch*-az aberats». Azken hitz horik Haritchabalet-ek erran zütian botza apaltüxez eta Jaun Apezküpiaren beharriala igorriz.

Tourne-broche izen horrek Jaun Apezküpiaren eman-erazi zeron begi ükaldia süialako gaintiala: ikusi zian süpazterrian putiko bat, gorri gorria, ari zela gerren handi batetan zikiro laurden baten erra-erazten. Ützuli zen erretorari bürüz eta erkaizta ezti batekin erran zeron: «Jinkuak benedikatzen dütü familia handiak». Hori da egia oso osua.

Haritchabalet-ek jaun apezküpiari entelega-erazteko Santa Grazia-ko etxetan bazela haurrez gaintika, hartü bazian üdüriz arruntxegi zen üngüria, ogen ûken ziala nahi dügü. Haritchabalet-en berjitia ezagützen zianak ützi zian mintzamulde hura igaraitera arrankürarik egin gabe. Jaun Apezküpiak berak etzian batere gaizki ediren.

Haritchabalet-en gelaria, Mañaña xaharxetan hasirik zen. Juan erretorak hartü zian Mañaña-ren suineskail, Graxi bere illoba, Harrixabaletako alaba.

Graxi gazte zen orano. Ezkunt adinala haatik heltüxürik.

Denbora hartan Santa Grazian elizako giltzaina Berriets zen. Berrietsian bazen primia, Dominixe. Dominixe etzen izan beretter, bena elizan, gazte gaztetik, kantaderian zabilan. Botz hun bat zian, ez bete bete bena odeietara gora.

Erran dügü Dominixe etzela izan beretter. Aitak nahi zükian meza zerbütxari sar-erazi, bena huna zerentako mutikuak ützi zian kargü hartara heltzeko abiua: Egün batez Berriets ari zen lür ützültzen. Dominixek behiak deitzen zütian. Aitak nahi üken zeron erakatsi nula elizan erabiltzen zien intsentsatzekua. Denbora haietan eta geroz ere, bereterrek etxekiten zien intsentsatzekua katiaren gain gainetik eta intsentsatzen zien besua lüzatüz, eliza bobedala huillan hel-erazten zielarik sü untzia. Oraiko intsentsatze muldia hanitxez xotilago da.

Berriets-ek nahi zian arren semiari intsentsatzen erakatsi: Hartü zian pegarra eta ezari zeron büilür bat. Horra intsentsatzekua. Bera jarri zen apezaren lekütan. Dominixek behar zian intsentsatü. Putikua lotü zen lanari besogainka. Hain sarri büilür txarra eten zen eta pegarrak jo zian bürian Berriets eta urtiki. Egün hartarik aitzina Berriets-ek etzian deusetan nahi üken entzün semiaren beretter egiterik.

Erran dügüna, Dominixe elizako kantari zen eta holaz bazian zerbait zuzen apez etxian zunbait sar-jelkiren egiteko. Ardüra gertatzen dena gertatü zen ordian ere: ezkuntzeko adiniala diren bigek algar ikusi eta biek algar untsa hartü.

Harrixabaletako nausiak hitzemanik zian alaba besteri. Osaba apezak nabaritü zialarik Graxik Dominixeri egiten zian sua, haro zerbait eraiki zian; libertatiak illobari hersatü zeitzon eta borta erakatsi zeron Dominixeri.

Horik oro auherretan izan ziren. Gai batez Arbeleneko eta Santa Eskereko baratzen artian zen mühüillü ondo gaitz bati Haritchabalet-ek tiratü zian tiro bat, uste zialakuan mühüillü

ondo hura Dominixe Berriets zela. Bazakian zer ari zen bena etzakin haatik Dominixe mühüillü ondua beno hüillanago zia-la: leiho eretzian zen, etxe mürriari josirik, hatsaren hartzeko herotsik ere egin gabe. Behin beno haborotan entzün derogü Dominixeri: Ala jin posibilia!, uste nian gai hartan zela ene mündütik juaitia.

Graxi sartü zen Berrietsian etxekandere. Bena zunbat nahi Berrietsia bizigü huna zen, denbora lüze gabe etxaltiak ützüli gainti egin zian.

Nuren ogena izan zen? Mari Menddi Berrietseko alabak erraiten zian kotalüxen ürgüilliak ezari ziala etxaltia lürrian. Kotalüx, Santa Graztarrek deitzen zien Graxi. Izen garaitiko hori eman zeroien arauz bestiak beno pilda hobexiaguan zabi-lalakotz.

Dominixek ützi zian laborantxaa eta lotü zen jualteroguari. Graxiren dotia ez baitzen galdü sos harekin. Dominixek eta Graxik erosi zien karrikan Püntenia. Üken zütian haurra; eraiki zütien haurtxoak ere; bizi izan ziren, ez beti bakian, bata ez bestia ez beitziren berjitez maitagarri, bena beharrak eskerniatürik izan gabe, 80 ra urtetara hüillan.

Haritchabalet ihizlari handi zen: Biga bost orkatz eta basahüntz eraitzi dütü bortütik. Hura bezalako tirari güti zela ziroien: Bere leihotik, Maidalenako kürütxiala balaz igaraiten zian makila bat aldikal. Hori emendatüxerik izan daiteke. Hunki zütian makila behin edo behin. Aldi oroz makilaren heineko xuri baten zilatzia tregua hartan, nekeztto dela üdüri dü. Bortol Kürütxagako zenak, Haritchabalet-en ihizlari lagünetarik beitzen, baietz ziuan beti.

Ihizekan egiten zütian lasterrek eta han hartzen zütian akidüra eta izertaldi handiek goizik ezintü zien Haritchabalet. Hiruretan-hogei urtetakoz erreumatisma gaxto batek eskazatü zian. Nekez baizik etzaitekian haboro zotüka: txankarik gabe etzirokian egin ürratsik. Oinaze handirik etzian haatik. Barnia untsa zian eta betiko irrigüra gozua jarriki zeron.

VII. IKUSLIARRAK, KANTARIAK, MEDEZIA ETA HARITCHABALET-EN HERIOTZEA

Ardüra apez ikusliarrak jiten zeitzon Haritchabalet-i. Ajia apeza, atharraztarra, Ligi-ko erretora hoberenetarik zian. Ajia hunkoi handi ümen zen. Mehe egünez etzen Santa Grazialat agertzen. Hura jiten zenian Mañañak behar zian oillua tipiñan ezari. Maidalenako kürütxetik aldi oroz Ajiak oihü egiten zian Santa Eskernialat bürüz: «Mañaaaña! Hoilli deia salda gaaaña?».

Oihü hori entzün bezain sarri Haritchabalet-ek erraiten zion gelariari: «Zartagiña zaharra hor diñagü».

Zartagiña zaharra etzen seküla bortüzale bera juaiten. Santa Graziako bide lüze eta gaitzen igaraiteko hobe zen hanitxez zunbait lagün algarrekin izan zitian. Aldi oroz Ajia eküratzen zen Apez-jauzkagian. Nahi zükian jakin zertarik izen hori emanik izan zen lekü hari.

—«Ala txoria!, erraiten zeron Haritchabalet-ek, nihauren hunetan ere behar diat hola mintzatü, bena otoi, ez dezaziela sobera hürrüpa nafartto huntarik, ez dezazien hor nunbait egin Apez-jauzkagi berri bat».

Beren mandoskuetan xüxen haatik Haritchabalet-en ikusliar apezak igaraiten ziren gora eta behera.

Elguebarne zen denbora hartan Santa Grazian elizako kantari eta herriko izkiribaino. Bazian jakitate apür bat. Latia ere bazakian bere ustez. Apez gai izanik zen. Bazakian seminarioko zerbait berri. Bena soldado behar üken zian juan, eta armadatik libratü zelarik, etzen haboro ützüli eskolalat. Ez apeztekoz, ez dakigü zerentako etzen jarraiki soldado zerbütxiari, ezi ofizier zen, eta bazian aski eskola aitzinatzeko.

Etchegoyhen Ainharbiarra eta Elguebarne Santa Graztarra, bi apez geiak algarrekin ibili ziren soldado; biak aitzindari ziren eta konpaina berian: Etchegoyhen kapitain eta Elgue-

barne lotinent. Etchegoyhen-ek ere ützi zütian armak bena berriz seminariuan sartzeko. Apeztü zen eta Maulen hil da artxipretra.

Etchegoyhen juaiten zelarik Haritchabalet-en ikustera, Elguebarne bazkaitan zen haiekin eta bi aitzindari ohiek behar zütien ordian soldado denborako gora beherak elez arraberrikatü.

Beste hanitxek bezala Elguebarnek maite zian mahatsaren hura. Ageri zen nuiz zian papua epeltzen hasirik. Ordian gizagaizua oritzen zen lehenago hartü letzionez eta latiala erortzen zen .

Xüxen zabilano Haritchabalet-ek erriz «tzur, tzur», üzten zian juaitera, bena behaztapotzen zelarik, erraiten zeron: «Hori Espainako ermitainaren latia da».

Zer zen Espainako ermitaina?

Erran dügü Etchegoyhen eta Elguebarne soldado izan zirela algarrekin: Espainan ziren Vitoria-ko hirian. Egün batez haien konpainaa igorri zien ikuska mendiska baten üngürünetara. Naba xoko batetan ikusi zien ermita edo elixa bat. Huillantü ziren hara eta han ediren zien apez bat. Espainul amiñi bat beitzakien, ele egin zien apezarekin. Erran zeroien apez geiak zirela bena behar üken ziela seminariua ützi soldado juaiteko.

Apezak apezari hunkijin beitero, nun nahi batürik eta zuin nahi nazionetako izanik, ermitain edo elixa-zainak arristiri-askari hun bat adela-erazi zian eta Frantzes bi ofizierak untsa tratatürik izan ziren. Jin zen Elguebarnerentako latiz mintzatzeko tenoria. Gazte danik bazian geruan azkarki üken zian erraitekuaren hastapena: Gizagaxo ermitainak behar üken zian aitortü etzela latian trebe, etziala ikasi latirik elizako otoitzen entelegatzeko doia baizik. Zer bürian hartü zien eta hartü azkarki Etchegoyhenek eta Elguebarnek? Espainako apezek etzakiela latirik.

Vitorian, hiriko apez etxiari aitzinez aitzin zien bi ofizierek beren egongia. Ikusten zien egün oroz bazkal onduan, galerian, erretora hara hunaka. Vitorian, karriketan, bi gainti-

tarik eta goratarzün berian, etxek orok badütie galeriak. Etchegoyhenek eta Elguebarnek hitzartu zien egün berian behar ziela galeriatik galeriala, hiriko apez-nausiarekin ele egin. Elguebarne zatekian haste, harek beitzian boronte gaitza. Etchegoyhenek joren zian aitzina, Elguebarne beno hanitxez azkarrago beitzen latian.

Vitoria-ko erretora etzen haatik erran delako ermitainaren herrokakuetarik: latian etzen herratzen eta teologian azkar zen. Elguebarnek bertan ixiltü behar üken zian. Etchegoyhen juan zen aski hürrûn, bena ezagützen zian etziala haboro biderik: Vitoria-ko erretorak eskolier berri baten heiniala ezaririk zian; halako galto batzü egiten zeitzon eta etzakian nula ihardets.

Elguebarne ez beitzen bürments eta ikusten beitzian kapitaina zer atekan zen, oihüz hasi zen barnetik: «Etchegoyhen! haigü bazkaitara, hire haidürü gütük...». Etchegoyhen-ek ordian, bizkarra konkortüz, gürrak egin zeitzon espainul apezari erranez arragret ziala bena lagünek bazkaitara deitzen ziela.

Bi ofizier latinistek erran zien algarri: «Frantzian eta Espainan, jakitanta jakitant eta deusere ezdakiana ahal den bezalako».

Haritchabalet-ek entzün zian gertakari hori aipatzen hanitx aldiz. Hartakoz erraiten zeron Elguebarne-ri, bide emaiten zerolarik: «Bego ermitainaren latia!». Elguebarne-ri etzeron hanbat laket ele horien entzütia Goihenetx eta Ardatx kantari lagünen aitzinian: Ikusten zian bi beretter haiek halako so bat egiten ziela algarri, erran nahi üken balie bezala: «Bere handiusgua ororen gatik, ez dük hori ere üdüri-erazi nahi lükian bezain hürrün latian heltzen».

Elguebarne, Goihenetx eta Ardatx, hiruak elizako kantari lehen herrokakuak ziren: Elguebarne bürü, bestiak haren peko. Elguebarnek botz artekotto bat zian, aski mulde oneko; Goihenetxek botza idor zian; eta Ardatxek belatxa bezain arin. Hirurak untsa trebatürik ziren *Plain-chant*-ian. Kantü

notak eta haien gora eta beherako jauziak untsa ezagützen zütien. Saihetseko kantari zunbaitek hüts egiten zielarik, bazakien, so batez, haien gibel egon-erazten. Filipe Luro, Haltzepo, Dominixe Berriets, Anbroxi Elixalt eta beste zunbait heinian zauden jaun handi haien onduan.

Igante batez, Pettarreko gizon bat debozionian jinik zena, bere herrian elizako kantari zatekiana arauz, huillantü zen kantaderiala. Elguebarnek gogoz gainti bena halarik ere, eman zian gizon arrotzari, *Introït* eta besten hasteko onuria.

Pettarrak botz ederra zian eta haren kantatzeko muldiak odola bekatxez piztürik ezari zütian Elguebarne, Goihenetx eta Ardatx. Bena horra nun gizagaxo Pettarrak ofertoriuan nota bat faltsu emaiten dian osoki. Hain sarri Elguebarnek, mündü orok entzüteko heinian, egiten dero saihetsetik: «Eskolalat! Eskolalat!».

Goihenetx eta Ardatx hasi ziren keinüz eta erriz, bi haur bezala. Pettarra, ahalkez gorritürik, jelki zen berehala kontaderatik eta hürrüntüxe zen beren bürüez hainbeste hartürik ziren gizon haietarik.

Haritchabalet-ek erran zeien, egün hartan bere elizako kantarier bi hitz zorrotzik: erran zeien *Plain-chant*-eko oso zirela, bena gizatarzünez zinez eskaz. Elguebarnek behar üken zian büria apaltü; aleta lepua gogor zian eta elia bizkor berjitez.

Erramüz, Santa Grazian, Pasionia kantatzen zien mulderik ederrenian: Herri osua juaiten zen egün hartan elizalat Pasioniaren kantatzen entzütia gatik. Elguebarne altariala eraiten zen kantaderetik. Goihenetxek emaiten zian goraa. Egün hartan Haritchabalet-ek üzten zütian xaramelak eta ezarten zian bere botz nasai arrabitaren sonia bezain ezti. Bi oren behar ziren Pasioniaren kantatzeko eta mezazaliak etziren debeiatzen.

Dominixe Berriets aspaldian Pasioniaren kantatzeko uhuriala heltü nahirik zen. Goihenetxek etzeron orano üzten aldirik: «Nik üzten düdanian hik emanen dük goraa», erraiten zeron. Dominixe berantetsirik zen.

Jin zen Erramü. Elizaa jentez beterik zen gaintika. Elguebarnek hasi zian Pasionia. Goihenetx, lünetak argitürik, haien südürran gaina biltzen ari zen. Dominixe Berriets Goihenetxen gibelian zagon. Elguebarne gibelian zelarik hitz horietara: *Dicebant autem*, Dominixek, Goihenetxi ahuaren zabaltzeko denbora ützi gabe, eliza bobedaa iharrauziz, ihardetsi zian: *Non in die festo, ne forte tumultus fieret in populo.* Goihenetx ahalketürik gibeltü zen eta Dominixek kantatü zian lehen aldikoz Pasioneko goraa.

Goihenetx etzen nahi izan arranküratü Haritchabalet-i Dominixek egin zeron lan tzarraz, beitzakian jaun erretora bere illobaren senarraren kontre etzela jarriren. Hartan erori zen Goihenetx: ützi zian elizan kantatzia.

Izan zen haatik haren ordari kantaderian sartü zena. Primü egin zian bere illoba Anttoni Burguburu. Anttonik bazian botz bete hun bat. Ikasi zian ere *Plain-chant*-a aski untsa. Osabaren lübüriak hartü zütian eta jarraiki da bere denbora orotan elizan kantatziari.

Elguebarne etzuan azkartüz. Constantin errejent gaztiak hartü zian haren lekia. Ützi zeron, juan ahal zeno, lehen urratsa kantaderian eta merako lanetan. Azkentsialat Elguebarnek etzian lüma etxekiten ahal nun etzian aitzinetik botilla bat ardu edaten. Gaiaren hun igaraiteko hartzen zian arrats oroz, ohialat sartü onduan godalet handi baten bete aigardent.

Ardatx ere bere bi lagünak bezala, ixiltü zen. ützi zialarik kantore egitia, mündiak erran zian: «Adio Ardatx!». Ari izan zen haatik orano askitto lüzaz, negian, gaiazko eskola egiten lehen kominiankarier, katiximaren erakasteko. Etzian eskolaa kario paka-erazten. Letzioniaren hartzera jiten zenak, behar zian ekarri aldikal, sü egiteko eskail bat. Egürra gabe jiten zenaren etzen borta zabaltzen. Bortan joiliari Ardatxek egiten zian: «Eia leña?». Bazian halako ahalke bat üskaraz erraiteko: «Badeia egürra?».

Aipatüren dügu igaraitian Haritchabalet-en adiskide bat, Ganosse medezia: Ganosse Tarbe-ko zen. Jin zen gazte gaztia, eskolak ürrentü bezain sarri Ereta-rat egoitera.

Eretan zagon neskato, laborari etxe batetan, Santa Grazi Gillemeneko neskatila eder bat. Ganossek ezagützíak egin zütian neskatila harekin. Hain zeron goguan sartü non emaztetako hartü beitzian. Eta hantik bertan jin zen egoitera Santa Grazialat. Han bizi izan da lüzez eta han hil 57 urtetan, 1832 an.

Haritchabalet-ek kumitatzen zian ardüra Ganosse bazkaitara. Medezi bezain ere bazian zunbait aldiz haren beharra: Adin azkarrian erremátismek hartü zien, bestalde, ihurk hanbat etzakialarik, bazian estomak xiluan etendüra gaitz bat. Ganosse-k erraiten zian bere üskararik hobenian: «Jaun erretora azkar dela hartza bezala, bena badela doloria handi. Eta gero txoria? Txoria badiat pantzoillian habia. Lana ez, pausia bai».

Haritchabalet-ek bazian Ganosse beitan sineste osua. Ardüra ziuan: «Nula holako gizon jakintsüna izan da hain kopetx arin, gabezia gorrian sartzeko, eta hain ahül bizi orotan, han itorik egoiteko».

Ganosse-k egin ahal zükian ezkuntze eder bat, bena zunbat nahi emaztia deus gabe zen, bürü huneko jelki balitz, ezin biziak etzian eskerniatüko jaun hura, ezi lan hanitx bazian herrian eta hanitxez haboro herri aizuetan: Ardüra deitzen zien Biarnorat. Denbora haietako irabazten zian sos ederra, bena haren etxen ari ziren «jina juan».

Haur saldo bat ere Ganosse-k üken zian. Haurretarik bat beizik etzen jelki zerbait balio zianik: Bizar egile, basa barber, ostalari eta sonü joile hura bizi izan zen Eretan. Zerbait huntarzün ere, eta oro ützi, aitaren gainditik Tarban zütian askazier. Haurridek etzien deusere üken: oro edale eta bürüments zien ere. Zankuak hun zütien haatik: nuiz nahi bazuatzan huinez, Tarba-ko askazien ikustera. Bazen haientako han beti xokorra. Kosiak anaia beno hobe ziren. Bada bide Santa Grazia-rik Tarba-ra.

Haritchabalet etxekiten zen zinez Ganosse-ri, bai eta haren familia errenbesari ere. Aldi batez, Eretan zagon Ganosse semiari erran zeron: «Aisan zira. Ez düzü haurrik. Lagüntüxe behar züntüzke haurride gaxo horik».

Haritchabalet ixiltzera dua. Ez dü haboro izkiribatzen ere. Constantin herriko errejentak egiten dero segretarigua. Harek behar deitzo leterak irakurri eta haien arrapostiak egin. Elia bekantziari begitartia ülüntüxe zaio. Segretariak zunbait aldiz, Haritchabalet-i erri amiñi bat jauz-erazteko, galtatzen dero hau edo hura kunta dizon. Nekeztto, bena Haritchabalet hasten da: «Egün batez lagüntü nia Ganosse Harrigiliala. Han bazia emazte bat eri gaizki. Nabaritü zialarik medezia kanberan sartzen, eria hasi zia oihüz: «Jaun barbera egarri! — Eta ene haurra edan! — Bena jauna, lotsa nüzü! — Eta ene haurra, ez edan! ». Hortan Ganosse-k ützi zia eria.

Haritchabalet-en azken erri eletarik hau ere: «Ibarbürüko süpazterrian mündia jarririk. Apa Maria zena xokuan ziagona ixil ixila. Sü murratik inkatz bat har-eta, piztü nia pipaa. Emazte xaharra eni so ziagoia xüxen xüxena. — «Zer da Apa Maria? galtegin nioia. — Eta hi ere pipatzen düna gizuna bezala? — Eta, ala txoria!, eniza gizuna? — Bai, bai, gizuna, bena apeza behintzan». Apa Maria Biarnorik jina zen ezkuntzaz Ibarbürila.

Haritchabalet zinez apaltzen ari zen. Halako korpitza, halako indarra ,eroririk ziren orozbakoz. Laxague bikariak, lotsak hartürik, galtegin zeron etzütianez nahi azken sakramentiak errezebitü. — «Nahi nündükek igorri, bena ez ditiat orano botak urintatürik bidaje handialako. Nihauk erranen deiat nuiz datekian tenoria», ihardetsi zeron.

Hantik laster haatik Haritchabalet-ek deitü zian Laxague kanberala: Orai behar diat untsa adelatürik jarri. Bertan dükek Jinkuaren aitziniala ene agertzia eta nahi nük izan Jundane Juhane lilia bezain xuri nausi handiaren besuetara juaiteko».

Haritchabalet hil zen 74 urtetan, 1834 ian.

LORAMENDI OLERKARIA

Igone ETXEBARRIA

I. LORAMENDI

«Loramendi» Juan Arana ta Ezpeletaren ezizena da. 1907an Bedoñan jaio zen. Kaputxino egiteko Altsasuan egon zen bost urtetan, gero Zangozan nobiziadoa egiten, eta azkenez Hondarribia eta Lizarran egin zituen Filosofiako ikasketak. 1930-ean Iruñako ikastetxera joan zen Teologia ikastera. 1933an hil zen, Lizardi hil zen hilabete berean.

Irakurle amorratua zen Loramendi. Euskal idazleen artean, Lizardiren olerkiak ondo ezagutzen zituen. Arreseren *Txindor* eta Jauregiren *Biozkada*k ere irakurriak zituen. Hauezaz aparte erdal idazleen lanak ere irakutzen zituen: Fernán Caballero, Verdaguer, Fray Luis de León, Francis Jammes, etab.

Loramendik batez ere poesia idatzi zuen. Hala ere baditu prosaz egindako lantxo batzu: «Agur tontorrak!», «Lo ta amets» eta beste batzu, *Zeruko Argia*-n argitaratuak «Aletxoak» izenez.

Poesia lanen artean bi azpimarratu behar dira: «Barruntza-leyoan»: 1932an Ernaniko Eusko-Olerki-Eguneko saria irabazi zuen; «Arrantzalien Arrats-Otoitza».

Bi hauek garrantzitsuenak badira ere ba ditu beste batzu: «Illargitara», «Guztiz ederra», «Banoakizu...», «Maitasuna ez da maitatua», «Enada Beltza!...», «Antzekia», «Usoekin gora», etab.

II. LORAMENDIREN POESIAREN GAIAK

Loramendik bere olerkietan tratatzen dituen gaiak ezberdinak diren arren puntu batetan denak datoz bat: poema guztiak erlijioaren inguruan mobitzen dira, eta gaiak ere bide batetik edo bestetik erlijiora doaz.

Erlijioarekin lotuta, gehien darabilen gaia maitasuna da. Honetaz Julian de Yurrek bere eritzia ematen du:
«Olerkari yainkotia da ben-benetan. Andra-Mari gozoari ere, biotzak eraginda, eresirik ederren-ederrenetarikoak zuzendu zizkion». (DE YURRE, J.: «Aurreitza» *Loramendi, olerti ta idatzi guztiak* 9 or.).

Loramendiren olerkietan agertzen den maitasuna, mistikoa dela esango genuke, barnekoa, ezagutzen ez den pertsona batenganako maitasuna. Pertsona hori normalean Ama Birjina da.

Loramendiren olerkietako pertsonaietan hiru eratakoak bereiztu behar dira:

a) Pertsonaia erlijiosoak
b) Naturatik hartutako pertsonaiak
d) Olerkaria bera.

a) Erlijioaren munduko pertsonaien artean, Maria, Ama da garrantzitsuena. Pertsonaia honek olerki hauetan konnotazio bereziak ditu: emakume ideala, perfekzioaren sinboloa, edertasunaren irudia. Hau da, Hinterhäuser-ek «emakume prerrafaelita (edo prerrafaelista)» deitzen duena. Berak honela definitzen du pertsonaia hau:

«La mujer frágil, etérea y espiritualizada, que llegó a ser incluso sospechosa de santidad».

Hinterhäuser-ek XIX. mendearen bukaeran gertatutako fenomenoa azaltzen du:

«El culto a la Virgen se ve dotado de una nueva fuerza de atracción que contribuyó de modo decisivo a la concepción

de la mujer ideal prerrafaelita. Su condición «inmaculada» y su proximidad al «Redentor» son el principal motivo de esta especial atracción».

Azkenez, pertsonaia honen izaera kontestu honetan azaltzen du:

«En el polémico contexto de la condena del naturalismo materialista y el esfuerzo por lograr un enaltecimiento de la vida mediante el espíritu, es donde las mujeres prerrafaelistas encuentran su primera y más general explicación».

Loramendiren olerkietako emakumea Ama Birjina da, eta pertsonaia hori emakume prerrafaelitari buruz esandakoarekin identifikatzen da.

Adibidez: «Antzekia» olerkian, olerkaria bera bakarrik mintzatzen da, berak Amari hitz egiten dio baina inolako erantzunik hartu gabe. Olerki honetan, olerkariak Ama lorearekin identifikatzen du, eta, erleak lorea bezala berak ere, Ama maite du.

«Illargitara» olerkian zehar errepikatzen den leloan oso argi agertzen zaigu Amaren irudia emakume prerrafaelita bezala:

¡Sortzetik, Miren, Erruge zera,
Ama ta Birjin biak batera!

Olerki honetan Ama ilargiarekin konparatzen du: «Pulcra ut luna...» Ilargiaren argiak uraren gainean Birjinaren amatasuna eta garbitasuna ekartzen dizkio gogora.

Ama Birjinaz aparte pertsonaia erlijiosoen artean badira gehiago ere.

Adibidez: «Onatx, Erletxoak» olerkian Andre Miren eta Josephen ondoan Josutxu da pertsonaia nagusia. Erleek Josutxo lore batekin erratu dute eta zauritxo bat egin diote espainean. Hemen ere, Andre Miren gauza guztien gainetik ama da.

«Maitasuna ez da maitatua»: oraingo hau San Frantziskoren inguruan eginda dago, San Frantzisko bera izanik olerkiaren motiboa.

b) Naturako pertsonaiek, normalean, simboloen funtzioa dute. Honetaz Zarayak dioenarekin bat gatoz:

«Baña, beste nonbait zuen iturburu onena. Gazte-gaztetatik ederrak subera, lur-inguruetako izaki bakoitzarekin zegokien izkuntzaz itz egiten oitua, Confontaine-k bezela esan zezakeen: «Izaki bakoitza mintzo zait bereziki, ta biotz ondorañokoa det».

(JAUREGI: «Loramendi olerkaria» *Euskera)*

Pertsonaia hauek besteak baino ugarioagoak dira. Olerki guztietan daude:

erleak: «Antzekia», «Onatx, Erletxoak»
enara: «Enada beltza»
karnaba: «Antzekia», «Barruntza-leyoan»
usoa: «Usoekin gora»
xoxoa eta sugea: «Maitasuna ez da maitatua»

Lehen esan bezala, pertsonaia hauek sinbolo funtzioa dute. Olerki hauetan benetako pertsonaiak ez dira agertzen ia azkeneraino, baina guri, haien berri sinbolo hauen bidez ematen zaigu, beraz, pertsonaia hauek benetakoen ordezkoak dira.

Aurreko zerrendan ikusten den bezala, sinboloak txoriak dira. Txoriek izpirituaren, arimaren sinbolo dira, izaeraren goi maila adierazten dute. Kasu bakoitzean, erlea, karnaba, urretxindorra Ama edo olerkariaren ordezkoak dira. Pertsonaia hauen bitartez benetako pertsonaien sentipenak azaltzen zaizkigu.

d) Loramendiren olerkietan ez dago pertsonarik bera ezik. Olerkariak olerki gehienetan parte hartzen du. Batzutan pertsonaia erlijiosoekin agertzen da, beste batzutan bakarrik ani-

maliekin, edo baita denak nahasturik ere. Batzutan maitasun emailea da, bestetan hartzailea.

«Antzekia»: olerkariak (= erle, urretxindor) Ama (= lore, ilargi) maite du.

«Usoekin gora»: hemen olerkariak usoei hitz egiten die, haiekin zerura igo nahi duelako.

«Enada beltza»: adibide honetan enara olerkariaren laguna da, olerkaria hemen maitasunaren hartzailea da, aditzetan ikusten den bezala: bazetorkidan, abesten zidan, atsegin zemaidan.

Olerkariaren protagonismoa argiago ikusten dugu beste bi olerki hauetan:

«Nor eta zer naizen?»: olerki hau, bere lehen meza emateko zegoela bere amari dedikatu zion. Bertan, bere buruaz mintzatzen da, ahapaldi hau errepikatzen duelarik:

Oi ama, oi ene ama neurea,
zer eta nor naizen?...
Oi ama, benetan, zure semea
ez daki iñork zer den!

«Banoakizu...!»: honetan ere bere burua jartzen du gaitzat. Olerki hau argitaratzerakoan ohar honekin agertu zen: «Igarle olerkari bezala bere laisterko eriotza nabaritu zuala, olerki onetan dirudi, gure 'Loramendi' zanak».

Azken bi hauetan benetako ama aipatzen du. Baina momentu batetan badirudi «ama» bi gauza dela: alde batetik bere ama, eta bestetik Euskal Herria.
«Banoakizu...!» olerkian amari agur esatean beste bertso hau dakar:

Agur Euskal - Erria,
zugandik banoa;
maite bazaitut ere
maitago Yainkoa.

Ahapaldi hau badirudi honen aurreko ahapaldi guztien laburpena dela, eta Euskal Herria, lehenago aipatzen duen amaren izena dela. Julian de Yurrek Loramendik darabiltzan gaiei buruz dioenez: «Ta olerki ta idatzi oiek Euskeraganako ta Euskalerriganako maitasunaz ta biotz-atxikitasunaz apaindurik oi daude beti».

(DE YURRE, J.: «Aurreitza» *Loramendi, olerti ta idatzi guztiak* 9 or.).

Behar bada honek argituko luke Euskal Herriganako sentimendua olerki honetan.

Olerki horretan ere Loramendik bere buruaz zera diosku:

Ta ixilik doa egatu naiez
euskaldu-uso txuria;
ta aurrera beti, beti garaitsu
usotxoaren kabia.

Euskal Herria aipatzen duen kasuak gutxi badira ere agurra eta heriotza sarriago agertzen zaizkigu Loramendiren olerkietan.

Batzutan heriotza argi azaltzen zaigu. Adibidez:

«Enada beltza...!»: Enara hil egiten da, eta honela dio: «Ilotz... ilotzik dakust, ai!».

«Otoi, Adiskide...!»: olerki honetan adiskidearen heriotza olerkiaren motiboa da eta honela hasten da: «Il intzan il i ere...!».

«Banoakizu...!» olerkian ez da heriotza bera aipatzen, baina egiten duen agurra badirudi heriotzarakoa dela.

Kasu guztietan heriotza edo agurra maitasunarekin lotuta doa. Gai nagusia maitasuna da eta horren ondoren heriotza edo bizitza dugu.

Loramendirengan heriotza ez da gauza triste bat, baizik eta Jainkoa eta Ama Birjinarengana heltzeko pausua. Horren atzean itxaropena ikusten du.

«Enada beltza...!» olerkian, elurrak enara hiltzen duenean:

¡Zeru berberak ordaindu zion
lagun on batek ziñez zor dion
atsegiñezko ilobia
Atseden adi, enada beltza
egin zak, bai, lo gozoa!

Bizitza eta heriotzaren gainetik maitasuna dago, eta heriotza ondorengo bizitza Loramendirengan pozgarria eta maitasunez beteriko mundua da.

III. ESTILOA

III. 1. *Metrika*

Loramendik olerki bakoitzean estrofa mota ezberdin bat darabil. Bere garaiko beste olerkariek bezala, arlo honetan berrikuntza nabari du honek ere. Esan dezakegu Loramendi ez dela bertsomolde batetara lotu.

Normalean forma irregularrak darabiltza, egitura libreak. Dena dela, bere estiloa pixka bat markatzen duten ezaugarriak ageri dira.

a) Adibidez, hainbat olerkitan darabiltza bertso luze eta laburren arteko konbinaketak:

«Ilargitara»: olerki honen ahapaldi baten egitura litzateke:
10 silabatako bi bertso luze
5 silabatako lau bertso labur
10 silabatako bi bertso luze.

«Usoekin gora» olerkian egitura hau erakusten zaigu:

lau bertso (13 silabatakoak)
hiru bertso (5,5,8 silabatakoak)
hiru bertso (5,5,8 silabatakoak)
lau bertso (13 silabatakoak).

Ba dira beste olerki batzu ere hauen antzeko konbinaketez.

Ikus ditzagun orain beste bertso egitura batzu:

b) Loramendik ba ditu egitura guztiz homogeneoa duten olerkiak ere:

«Onatx, Erletxoak»: ahapaldi bakoitzak lau bertso ditu, eta bertso bakoitzak hamabi silaba.

«Barruntza — leyoan»: 39 ahapaldi, ahapaldi bakoitzak lau bertso duelarik, honela osoturik: 5 — 5 — 5
5 — 5 — 4
5 — 5 — 5
5 — 5 — 4

d) Azkenez, egitura libreetatik aparte ba du zortziko nagusiaren egituraz egindako olerki bat ere, «¡Banoakizu...!» deritzona. Hasieran, sarrera legez zortziko txiki baten neurriari jarraituz, lau bertsotako ahapaldi bat dago, eta erdia baino gerotxoago ba dago beste bat ere, olerkiak etena egiten duenean, lehen parteari amaiera emateko. 10 — 8 silabatakoak badira ere, ez dira zortziko nagusiak lau bertsotako ahapaldiak baitira.

Beraz, esan dezakegu Loramendik egitura edo bertsomolde berriak eta zaharrak darabiltzala. Alde batetik bertso luze eta laburren arteko konbinaketa ezberdinak, eta bestetik zortzikoen neurriez egindako bertsoak.

Egitura berria duten olerkietatik bi ezaugarri edo ondorio atera ditzakegu:

— Batzutan homogeneotasuna: ahapaldi guztiak metrika eta konposizio berdina dute;

— Bestetan simetria: bai ahapaldiz-ahapaldi, bai olerki osoak simetrikoak bihurtuta, bertsoak (luzeak eta laburrak) direla bide.

Zortzikoen egitura duen olerkitik ere beste ondorio bat atera dezakegu: Loramendi olerkaria dela eta ez bertsolaria, nahiz eta herri literaturaren eragina agertu.

e) Puntua edo errimari dagokionez, sarritan ez da batere erreza jakitea zein den.

— Batzutan ez dago ahapaldirik, olerki osoa bertsoen jarraipena da, neurri ezberdinetako bertsoak dira. Kasu hauetan ez dakigu zeintzuk bertsok rimatzen duten. Adz: «Maitasuna ez da maitatua».

— Beste batzutan puntua badagoen arren, olerkian ez dauka baliorik, pobrea da. Adz.: «Antzekia»: rima egiten duten hitzak hauek dira:

kunkurrunkun — burrun-burrun
esango — kukuriko
diozu — marmaritsu.

— Baditu Loramendik puntua argi ageri duten olerkiak ere, aurrekoak baino balio handiagoa dutenak:

«Banoakizu...!»: *ayotsak — biotzak*
garratza — arratsa
jabetza — ametsa.

— Puntuari dagokionez, orijinalena edo baliorik handiena duena «Usoekin gora» da. Guztiz simetrikoa ez bada ere, nahiko metrika simetrikoa jarraitzen du:

AABB DDE FFE BBAA.

Loramendiren olerkigintzan hau dugu gauzarik nabarmenena, olerki guztietan konstantea baita.

a) *Sinbologia*

Loramendik bere olerkietan sinbolo asko darabil. Ia gauza guztiak sinboloen bitartez azaltzen ditu. Sinbolo gisan gehien agertzen diren elementuak hauek lirateke: txoriak, erleak, loreak, ilargia.

Sinbologia honek sarritan metafora mailan funtzionatzen du. Hau da, Loramendik batzutan, elementu hauek benetako pertsonaien ordezko bezala erabiltzen ditu. Adibidez lore — erle arteko jokoa bi olerkitan agertzen da:

«Antzekia»: honetan joko hau hasieran azaltzen zaigunez, hor bukatzen dela pentsa dezakegu. Baina bukaeran, olerkariak horren esanahia jakin arazten digu: erlea = olerkaria, lorea = Ama. Beraz, hemen metaforaren papera betetzen dute.

Gauza bera gertatzen da «Onatx, Erletxoak» olerkian: Joseph-en erleek lore bat ikusi dute eta hara doaz denak. Baina gero horren sinbolizazioa azaltzen zaigu: lorea Josu da, eta eztia haren odola. Sinboloen bitartez hiperbolea egin du Loramendik: Jesus hain polita da ezen erleek lore batekin erratu bait dute.

Sinboloak Loramendirengan errepikatu egiten dira. Adibidez ilargia beti Amarekin identifikatzen da. Erlea agertzen denean beti lorearekin lotuta doa.

Sinboloak normalean txoriak, lorea, ilargia eta erleak dira. Lau elementu hauek sinbologia zehatza eta ezaguna daukate:
Txoriak: espirituaren, arimaren sinbolo dira, izaeraren goi maila adierazten dute.

Erleak: kristau munduan erlea, ardura edo arreta eta elokuentziaren sinbolo dugu.

Lorea: alde batetik udabarria, gaztetasuna eta denboraren iraupena sinbolizatzen ditu. Eta bestetik «gunea» da, beraz, arimaren irudi arketipikoa.

Ilargia: sinbolo honetaz Cirlot-ek zera dio:

«Nuestra Señora se representa sobre la luna para expresar la eternidad sobre lo mudable y transitorio».

«Un componente significativo de la luna es el de su estrecha asociación a la noche (maternal, ocultante, inconsciente, ambivalente, por lo protectora y peligrosa) y el que dimana del tono lívido de su luz y del modo como muestra, semivelándolos, los objetos. Por eso la luna se asocia a la imaginación y a la fantasía, como reino intermedio entre la negación de la vida y el sol fulgurante de la intuición». (CIRLOT, Juan-Eduardo: *Diccionario de símbolos,* págs. 283-5) [1].

Beraz, sinbolo bakoitzak bere zentzua dauka Loramendiren olerkietan.

Sinbologia honekin lotuta *personifikazioa* aipatu behar da. Sinboloek pertsona zehatz batzuren ekintzak egiten dituzte, eta gero sinbolo hauek pertsona horiekin identifikatzen dira. Adibidez: «Antzekia»: erleak loreari hitz egiten dionean personifikazioa daukagu, nahiz eta gero jakin sinbolo hauen azpian benetako pertsonaiak daudela, kasu honetan olerkaria eta Ama.

Behar bada, fenomeno hau izendatzeko «identifikazio» hitza «personifikazio» hitza baino egokiagoa litzateke.

b) *Konparaketak*

Irudi hau asko darabil Loramendik. Behar bada, bi maila bereiztu beharko genituzke konparaketaz hitz egiterakoan.

b.1. Alde batetik sinbologiarekin lotzen dena.

Olerkariak konparaketa baten bitartez azaltzen digu kontatu nahi duena. Konparaketa moeta honek olerki osoa edo ia osoa hartzen du. Adibidez: «Onatx, Erletxoak»: Erle batek,

---

(1) *Aldizkari honen Zuzendaritzaren oharra:* Euskal mitologian ere ilargia emakumezkoa da eta amonatzat sinbolizatua. Ikus: J. M. Barandiaran, *Obras Completas* (1972), I, «Ilazki» 103. orr.; 271-272. orr.; eta 387-388. orr. Ikus baita ere *Egan-en* bertan (1956), 2. zenb., Aita Donostiaren «Euskal-Erriko Otoitzak», 34-52. orr.

lore batetara joan eta hau jan egiten du. Baina oraingo honetan lorea ez da lorea izan, Jesus baino. Beraz, erle batek Jesusi ezpainean eztena sartu diola esateko erle-lorearen adibidea erabili du. Konparaketa baten bitartez azaldu digu.

Ekintza hau deskribatzen duten bertsoak hauek dira:

Egalda zaio bat: ezarri da tentte
ezpain-marrubian, —arrosa arek uste—.
Ziztu du ta, ene! odol tanta atera
kutuan, miztuta, berriz egatu da.

b.2. Konparaketak egiteko bigarren mailan, gauza edo hitz baten definizioa emateko, edo ezaugarriren bat azpimarratzeko egiten direnak sartuko lirateke.

«Maitasuna ez da maitatua»-n eguzkiaren irudi bat emateko urrea eta taloarekin konparatzen du: «euzkia, «urrezko talo ederra».

«Usoekin gora» olerkian usoen hego zuriak zilarra eta esnearekin konparatzen ditu:

Eguzkira zilarra dixurite egoak
ta aizeaz jolastean esne-pipiltxoak.

Batzutan, konparaketak ez dira parean jarritako elementu biren harremana, loturarik gabe, ikusitako adibideetan bezala, baizik eta esaldi konparatiko arruntez egindako konparaketak:

«Antzekia»: *Ta ilargitara karnaba lez*
zugana nago maite minez.

«Barruntza-leyoan»: *Ta aize biguñak daragiten arrosa bik lez*
amets dagigu buruak gurka laztanean.

Ta ipar beltzera lore-pitxia barruntzen dan lez
gure gogoa, ekin gaiztora, ximurtzen da.

Loramendik konparaketak errepikatu egiten ditu, esaldi eginak bezala darabiltza batzutan.

Batzutan konparaketaren motiboa errepikatzen du:

Maitasuna ez da maitatua: «Ostendu zan euskia, urrezko talo ederra».
«Barruntza-leyoan»: «Euzki urrea dirdai-oztin».

Beste batzutan konparaketa bera egiten du:

«Maitasuna ez da maitatua»: «kulunka sarats-gerrian».
«Antzekia»: «sarats-itzalen kulunera».

Eta azkenez, hitzak, esaldien egiturak errepikatzen ditu olergi ezberdinetan:

«Antzekia»: «txiruliruka gaua beste».
«Barruntza-leyoan»: «maite... ilargiak kuku-igaria gauan beste».
«Banoakizu...!» «Indarra zera ta indartsua naiz».
«Antzekia»: «Erletxoa naiz, lorea zu».

d) *Aliterazioa*

Loramendiren olerkietan aliterazioak garrantzi handia dauka. Ikusi dugunez, pertsonaien ordez txoriak, erleak eta antzerakoek funtzionatzen dute. Hauek pertsonen paperak betetzen dituzten arren bakoitzak bere hizkera berezia dauka. Hizkera berezi hau hots-hitz ezberdinen bitartez azaltzen zaigu, eta hots-hitzok aliterazioan oinarritzen dira. Soinuek garrantzi handia daukate. Garrantzi hau bi mailatan ikus daiteke:

— alde batetik soinuek olerkiari ematen dioten musikaltasunean

— bestetik, Loramendik txori eta antzekoan soinu edo zarata bereziak imitatu nahi dituelako. Horretarako erabiltzen ditu soinuak eta hots-hitzak.

Adz.: «Banoakizu...!»: Malkoak datorzkit→txirristaka.
«Antzekia»: urretxindorrak ilargiari hitz egiten dio→txiruliruka.

Pentsa dezakegu, Zarayak dioenez, izaki bakoitzarentzat bere hizkuntza berezia erabili nahi duela.

Hau ikusteko adibiderik onena «Enada Beltza!» dugu. Enadak okasio bakoitzerako txio ezberdin bat egiten du:

— enadaren hizkera: *«txo-rro-txo-txio»*
— «Esnatzen niñun *pipir alaiez*»
— *«Txio zorrotz* bat eman ondoren»
— «¡Ikusten niñun bila ezinik! (...) *¡Txio gaiztoa...!*»

Beraz, aliterazioaren funtzioa Loramendirengan hirukoitza da:

— alde batetik olerkien musikalitatea lortzen du
— bestetik naturako izakiei nolabait berezko nortasuna ematen die
— eta azkenez, mundu fantastiko eta sinboliko hori errealitatera hurbiltzeko ere balio du.

Behar bada, aliterazioek, sinboloekin batera, munduaren edo errealitatearen alde musikala, polita eta erromantikoa adierazten dute Loramendiren olerkietan.

e) *Errepikapena*

Hau ere konstante bat da Loramendirengan. Ez dauka aliterazioaren garrantzia, ezta funtzionaltasun argirik, baina frekuentzia handiaz agertzen da.

Hau ere maila desberdinetan gertatzen da:

— Hitzen errepikapena:

bertso baten hasiera eta amaieran hitz bera jarriz:
«Otoi, Adiskide...!»: min ariaz ari da josten min-oiala».
«Antzekia»...!: «lore-beraren nini-lore»;
bi bertsoak hitz berdinez hasiz:

erakus zaidazute, zuek usotxoak
erakus zaidazute zabaltzen egoak.

— Bertsoan errepikapena: orden bat jarraituz errepikatzen diren bertsoak:

«Enada Beltza!...»: lehen partean hasiera eta amaierako bertsoak errepikatzen dira:

Ura, bai, zala lagun zintzoa
leyo ertzeko enadatxoa!...

«Antzekia»-n errepikatzen diren bertsoak hauek dira:

«Zer ote dio, zer lioke» eta «Zer ote dio, zer esango».

Bertso bakoitza bi aldiz errepikatzen da, tarte bakoitzean hiru bertso direlarik.

— Ahapaldien errepikapena: ez da sarri gertatzen ez bait dira asko ahapaldiz egindako olerkiak.

«Banoakizu...!»: hemen ahapaldi oso bat errepikatzen da egitura simetrikoa jarraituz: errepikatzen den ahapaldi hau lehenengoz 15garren ahapaldian agertzen da, eta bigarrenez zazpi ahapaldi geroago. Baina bigarren honek ere, azkenetik hasita hamabostgarrena egiten du.

Ba dago beste adibide bat ere: «Illargitara». Olerki honetan ideia bat hiru aldiz errepikatzen da, baina ez hitzez-hitz:

«Sortzetik, Miren, Erruge zera
Ama ta Birjin biak batera!».
«Ta ala bedere, Erruge zera,
Ama ta Birjin biak batera!».
O Miren Eder!, Erruge zera,
Ama ta Birjin izar antzera!

Ezin dugu leloa denik pentsatu, baina badauka horren oihartzuna.

IV. HIZKUNTZA

Loramendik darabilen hizkuntza erreza da ulertzeko. Herrikoia dela ematen du, baina pixka bat landua da.

Honetaz, bere olerkigintza ezagutzen duten batzuren eritziak jarriko ditut:

Aitzol: «Loramendik nagusiro erabiltzen zuan euskera. Ez noski Lizardik bezin buruz eta sakonki, euskeraren erri-erraietan murgildua bait zan Lizardi, baño bai errez ta naro, gurasoen izkera ederki ikasi eta landua izaki. Aditz irabiazale bait-zan, orren bidez apainki tinkotzen zituan neurtitzak, itz ugari aberatsez yantziz-eta». (AITZOL: «Aurré-itza» *Eusko Olerkiak* XVI.orr.).

Orixe: «EUSKERA. Ugaria ta ederra. Arrigarri da, gaxte gaxte komentura sartu ta andik irten ez, eta oinbeste euskera nola irakurri zuun, eta buruan eduki» (ORIXE: «Loramendiren olerkia» 30.orr.).

Izurtza: «Loramendik irudimen mardula zun, baita iturri baten biotzondo-etorria. Euskera ere atsegiña du» (IZURTZA: «Loramendi» 22.orr.).

Loramendiren hizkuntzan, baita hiztegian ere, hiru arlo bereiz ditzakegu:

a) Aditzak
b) Naturako elementuak
d) Hots-hitzak.

a) Loramendik ez du, beste olerkariek egiten duten bezala, aditza eliptiko egiten bere olerkietan. Normalean aditza osorik jartzen du, laguntzaile ta guzti, behar diren kasuetan.

Ikus dezagun adibidez «Barruntza-leyoan» olerkian nola darabiltzan aginte erako laguntzaileak: ar bitza, beude, otsera bitez, erna bekio, loretu bedi, uxari ditzala, bil nadin, yo ditzaiodan, urtu dezala, zabal bekio.

Baina aditz sintetikoek hauek baino garrantzi handiagoa dute, bai frekuentziagatik eta bai erabileragatik.

Loramendiren olerkien bilduma prestatu zuen Julian de Yurre-k honela dio liburuaren sarreran:

«Eleizalde euskaltzain yakintsu zanaren liburua *Morfología de la conjugación vasca sintética* (Bilbao, 1913) ondo ikasia zuela ta aren iritzikoa zala, laster ageri da naiz olerkietan, naiz yarein-idatzientan euskal aditzari buruz, sakon ta, erabatez, argi idatzi izan da liburu eder ura.

Orobat aditzaz beste ohar bat Azkuek dakarrena: «Hay zonas en B. como B. — aram — legut — leintz — mond —, en que por lo menos en gran parte de las formas verbales, no se usa partícula pluralizadora...» Ola «Loramendi»k ere badu leku batzutan aditza singularrean, pluralean ordez. Naiz aditzean, naiz itzetan maiz arkitu oi dira bizkaierak. Ez da arritzeko. «Loramendi» yaio zan tokian bizkaieraz egiten baita». (17-18 orr.).

Aditza soilak nola erabiltzen dituen ikusteko, adibide ugari daukagu olerki gehienetan:

«Banoakizu...!»: darorzkit, banoakizu, bazakust, demaidan, dagert, bekit, indazu.

«Enada beltza!...»: bazetorkidan, zemaidan, damate ,daramatzi, dario, dakust.

«Barruntza-leyoan»: noake, nabilke, baitigart, digarozkidan, badantzuizkiot, daragitala, zaudeke, dakuste, lerorzken, lekarzkiguke.

b) Naturako elementuak.

Naturako elementuek Loramendiren olerkietan arlo semantiko oso zabala osatzen dute. Klasifikapen bat egiten badugu, lehenengo aipatu behar duguna erlea da. Erlea olerki askotan agertzen da, eta normalean lorearekin batera:

«Antzekia»: «Lore begian kunkurrunkun
erle gorriztak burrun-burrun».

«Onatx, Erletxoak», «Banoakizu...!».

Honen ondoren gehien aipatzen direnak txoriak dira. Baina hauen artean txori ezberdinak dira ere: urretxindorra, karnaba, usoa, xoxoa.

Animalietan, hauek aparte, sugea agertzen da: «Maitasuna ez da maitatua» olerkian.

Animaliak ez diren beste elementu batzuk ere ba dira naturatik hartuta:

Lorea: lehen esan bezala, normalean erlea agertzen denean, hau ere agertzen da.

Ilargia eta eguzkia: ilargia bi olerkitan dago:

«Antzekia»: olerki honetan ilargia Amarekin identifikatzen da.
«Illargitara»: hemen ez da identifikatzen, baina ilargiaren erreflejoak itsasoan olerkariari Birjina gogoratzen dio, eta «Pulcra ut luna» esaten dio olerkariak ilargiarekin konparatuz.

Eguzkia «Maitasuna ez da maitatua» eta «Barruntza-leyoan» olerkietan aipatzen da.

Loramendik bere olerkietan denborarik zehazten ez badu ere, urte sasoiak sarri aipatzen ditu.
«Maitasuna ez da maitatua»: «Udazkena zan» (lehen bertsoan)
«Enada beltza!...»: olerki honek lau parte ditu. Lehenengoan: «¡Udaberriro bazetorkidan!»; bigarrenean aldiz: «Eldu zitzaigun negute otza».

«Usoekin gora»: *Ta alkarrekin udaran joaz gurutzera*
negutean zerurantz aldatuko gera.

Guzti honek Lizardiren «Ondar gorri» gogorarazten du, urte giroak deskribitzen dituenean.

d) Hots-hitzak

Hots-hitzak oso ugariak dira olerki hauetan. Loramendik txoriak eta erleak izendatzeko bi era darabil:

— izena bera esan: urretxindorra, karnaba, etab.

— txoriek eta erleek egiten dituzten soinuak eta hotsak imitatu, hots-hitzen bitartez.

Aliterazioei buruz hitz egiterakoan aipatu ditugun hots-hitzen funtzioei beste bat gehitu behar diegu: izenen errepikatzea ebitatzeko tresna edo bide izatea.

Adz.: «Antzekia»: kunkurrunkun, burrun-burrun, marmaritsu, kukuriko, txiruliruka,

«Banoakizu...!»: txirristaka, txiruliruka, pirpirriz, dir-dir.

V. BESTE MUGIMENDUEKIKO HARREMANAK

Loramendirengan beste mugimendu batzuren eragina ikus daiteke. Ikus dezagun zeintzuk diren mugimendu horiek, eta zertan datzan beraien eragina.

V. 1. *Sinbolismoa*

Sinbolismoaren eragina ikusterakoan banaketa bat egin behar dugu.

a) Sinboloak eurak sinbolismoarekin erlazionatuta daude. Honetaz hitz egiterakoan, Loramendik gaiak sinboloz azaltzen dituela esan dugu, eta gero sinbolo horiek pertsonaiekin identifikatzen dituela.

Loramendik darabiltzan sinboloak topikoak eta errezak dira, baina honetan bere olerkigintza nahiko aberatsa da. «Aberatsa» esatean zen esan nahi dugu: asko erabiltzen dituela, eta gozotasuna, eztitasuna sortzen duela.

Beraz, sinbolismoaren eragina puntu honetan ikusten dugu, nahiz eta betiko topikoak izan, inpresio lirikoa sortzen bait dute.

b) Entzumena eta ikusmena oso desarroilatuta daude Loramendiren olerkietan. Aurrerago soinuek garrantzi handia dutela aipatu dugu. Hauek, entzumenari dagokionez inpresio berezia sortzen dute. Izaki bakoitzaren hizkera edo kantua imitatu nahi duela ere esan dugu. Honetan ikusiko genuke, beraz, sinbolismoaren eragina. Adibidez, enadaren kantua deskribitu beharrean kantua bera imitatzen saiatzen da. Arlo honetako espresioak hots hitzak dira.

Hau entzumenari dagokionez, baina ikusmena ere oso desarroilatuta dago olerki hauetan. Koloreak, ez asko baina poemetan aipatzen dira. Soinuetan gertatzen zena, hemen ere ikusten dugu. Koloreak aipatu baino gehiago, koloredun gauzak erabiltzen ditu, eta erabiltzekotan, zertzeladak bakarrik ematen ditu. Adibide batzuren bitartez ikusiko dugu:

«Usoekin gora»: *Eguzkira zilarra dixurite egoak*
ta aizeaz jolastean esne-pipiltxoak.

Hemen, usoen egoak zuriak direla azaldu nahi du; horretarako «zuri» hitza erabili beharrean zilarra eta esnearekin konparatzen ditu, zuriak diren gauzekin.

Beste adibide batzutan aipamenak ez dira hain argiak: «Antzekia»: «erle *gorriztak* burrun-burrun».
Ez da guztiz gorria, olerkariak adjetibo honekin inpresio bat eman nahi digu.

«Banoakizu...!»: *Berriren berriz odol-loreak*
ezti-jarioz daude-ta.

Miztu arretaz biotz-lorea,
ozpiña bezin garratza.

Odol-lore, biotz lore = lore gorri. Nahiz eta beste konnotazio batzuk ere ba dituzten, kolorearena argi dago aipamen bietan.

V. 2. *Erromantizismoa*

Honen eragina Loramendirengan sinbolismoarekin lotuta dago.

a) Loramendik darabiltzan sinboloak naturatik hartuta daude: urretxindorra, erlea, lorea, enada, karnaba, ilargia, eguzkia... Hauen erabilerak olerkietan giro erromantikoa sortzen du. Adibidez: «Antzekia»: olerki honen amaieran olerkariak Ama maite duela esaten du. Baina hori baino lehenago beste joko batzuk egin ditu: lore-erle, ilargi-urretxindorraren artean. Joko hauek, maitasun horri benetako maitasun erromantikoaren inpresioa emateko giroa prestatu dute.

Sinboloak naturatik hartuta daude, eta izadi ideal bat aurkezten dute, kasu honetan bezala. Normalean gaiarekin lotuta daude, hau da, gaia holakoa giroa halakoa. Honengatik izadi ideal hori pixka bat moldatu egiten da. Adibidez:

«Maitasuna ez da maitatua»: hemen suge batek xoxo kume batzu hartu ditu jateko asmotan. Hau gertatu baino lehen Loramendik giroa prestatzen du izadia deskribituz. Olerkia honela hasten da:

Udazkena zan. Odol tantozko
ezti-margoa
eguzki-galdak zixurin

Hasieratik ikusten dugu natura-gaiaren arteko erlazioa.

b) Natura eta sinboloak ez ezik, *gaia* bera ere erromantikoa da Loramendiren olerkietan. Orokorrean gaia maitasuna dela esan dezakegu. Gai hau lirikoki tratatuta dago, aurreko puntuan ikusi dugun natura gaiarekin lotuta dagoelarik.

Orokorrean gaia maitasuna bada ere, olerki bakoitzean, gai hau ezberdin azaltzen da.

«Enada Beltza...!»: olerkaria eta enadaren arteko adiskidetasuna.

«Antzekia»: olerkariak Ama (Birjina) maite du.

«Maitasuna ez da maitatua»: xoxoak bere umeak maite ditu; San Franziskoren ontasuna.

«Banoakizu...!»: olerkariak bere ama maite du.

Kasu guztietan maitasuna erromantikoa da. Ideala da, ez haragizkoa. Olerkariak enada, Ama, ama, maite ditu, baina ez da haragizko maitasuna, espirituala baizik, ideala, azken baten erromantikoa.

V. 3. *Ahozko literatura*

a) Ahozko literaturaren eragina batez ere *irudietan* ikusten dugu. Aurrerago aipatu dugu soinuen garrantzia bai aliterazioetan, eta bai hots-hitzetan. Hau ahozko literaturan ere oso garrantzitsua da.

Bestalde, *galdera* asko darabil:

«¿Nor eta zer naizen...?»: *Ots, Andra Mari berbera*
ni aiña bai ote?...
Ta Ama au gozo ezpada
nor gero litzake?...

Ez galderak bakarrik, *esklamazioak* ere ugariak dira:

«Enada Beltza!...»: *¡Ura, bai, zala lagun zintzoa*
leyo ertzeko enadatxoa!...

Guzti honek, eta batez ere txorien, soinuen munduak, ez bakarrik ahozko literatura, baizik eta umeen mundua ere gogoratzen digu. Badirudi olerkiak umeentzako kantak eta olerkiak direla.

b) Ahozko literaturak *hizkuntzan* ere eragin handia du. Loramendik darabilen hizkuntza herrikoia eta ulerterreza da.

Batzutan herri esaera antzeko espresioak darabiltza, hala nola:

«Illargitara»: *!Noruntz dijoan*
aruntz darabil...¡

«Banoakizu...!»: *Orru ta marru*
«Otoi, Adiskide...!»: *Aurrari «pa» eta «pa»!*

Hizkuntza literarioari dagokionez ere, erreza da, irudimena eta sinbologia erabiltzen dituen arren, errez ulertzen dira, eta horrez gainera normalean berak azaltzen ditu.

d) *Bertsolaritza*

Loramendi ez da bertsolaria, olerkaria baizik. Baina bertsolarien arauak jarraitzen ez baditu ere, badauka bertsolaritzaren eragina.

Hau metrikan ikus dezakegu. Normalena ez bada ere, inoiz edo behin bertsolarien neurria darabil:

«Banoakizu...!»: 10 — 8 silabatako bertsoak egiten ditu, baina ezin dugu zortziko nagusia denik esan, lau bertsotako ahapaldiak baitira. Olerki hau da metrikaz bertsolaritzara gehien hurbiltzen dena.

Beste olerkiek metrika ezberdin eta irregularrak jarraitzen dituzte, eta sarritan puntua ere ez dago batere argi.

Ikus ditzagun Loramendi bertsolaritzarekin lotzen duten beste puntu batzu:

— Pentsa daiteke, Loramendik, bertsolarien teknika jarraituz, eman nahi duen mezua, adierazi nahi duen ideia bukaerarako uzten duela. Honen oihartzuna nabari da olerki batzutan. Adibidez: «Antzekia»: olerkian zehar olerkaria maitasun bati buruz mintzatzen da, baina azkeneraino ez dakigu maitaleak bera eta Ama direnik.

Dena den, kontutan hartu behar dugu olerkiak direla, beraz, bertsolaritzaren teknika honen aztarna susmatu arren, erabilera desberdina da. Olerkietan klimaxen ondoren konklusioa *(desenlace)* betetzen da. Bertsoetan, azken bertsoraino klimax hori prestatu egiten da, azken bertsoan ziria sartuaz.

— «Antzekia» olerkiaren amaierak Bilintxen «Bein batian Loyolan» bertsoetako amaiera gogorarazten digu. Biak dira ateraldiak: Loramendirena: «Jakina ba!».

Bilintxena: «Ja, Jai!».

— Bestalde, gauzak argi eta bat-batean esaten ditu. Batzutan hasierako bertsoetan zertaz hitz egingo duen aurkezten du. Adz.:

«Enada Beltza!...»: *¡Ura, bai, zala lagun zintzoa*
leyo ertzeko enadatxoa!...

«Otoi, Adiskide...!»: *Il intzan il i ere...! Eraman induten...*
Ire itzalak ordea ni baitan dik lurmen.

Hasiera hauek lehen aipatutako Bilintxen bertsoarena gogoratzen didate:

Bein batian Loyolan
erromeria zan
antxe ikusi nuben
neskatxa bat dantzan.

edo ta beste hau:

Pasaiako herritik dator notizia
zezen bat izan dala genioz bizia
kantatutzera noa bistan ikusia
alegratzeko triste dagoen guzia.

Hasierak antzekoak dira ,«in medias res» deitutakoak, arazoa planteatzen dute eta gero desairrolatu.

VI. BERE GARAIKIDEEKIKO ERLAZIOAK

VI. 1. *Lizardi*

Loramendi, Lizardi hil zen hilabete berean hil zen, eta hau zen euskal idazleen artean maisutzat izan zuenetariko bat.

Aitzol-ek Loramendi eta Lizardiren arteko konparaketa egiten du:

"«Lizardi»ren besterakoa genuen «Loramendi». Aren eta onen bideak alkarren aurkakoak ez ba dira ere, oso dira banakoak. «Lizardi» zaintsua, gogai sakonak soil yalkitzen zituana, irudi bakan-bakan aukeratuak gorri-yator ematen zekiana, esan diteke irudimena buruaren mendean lotzen zuan gizona zala. «Loramendi»k ostera yarei darabil irudimena ta bere gazteiturburuko etorria ibaika dioakio neurtitz oparo ozenetan» (AITZOL: «Aurre-itza» *Eusko Olerkiak*, 1932, III, XVI. orr.).

Loramendi eta Lizardiren artean bi berdintasun, edo antzekotasun nagusi daude:

a) Loramendik, sinboloak erabili eta gero, sinbolook azaldu egiten ditu, pertsonekin identifikatuz. Adibidez:

«Onatx, Erletxoak»: erleak loreari eztena sartzen dio, baina lorea Jesus da.

«Antzekia»: urretxindorrak ilargiari hitz egiten dio. Urretxindorra olerkaria da, eta ilargia Ama.

Lizardik gauza bera egiten du bere olerkietan.

Dena den, Loramendik ez du beti berdin jokatzen. Adibidez: Enada Beltza!...»: hemen ez da ezer azaltzen, ez bait dago sinbolorik, enada enada da.

b) Bigarren hau zehatzagoa da, lan konkretuak hartu behar ditugu kontutan.

«Otoi, Adiskide...!»: Jauregik dio: «Xamurra, osoa, ta borobilla, gure Lizardi aundiaren jarioaz eta tankeraz igurtzia. Giñartsuagoa degu Lizardi oraindik ere, baña aren idaz-tankeraren kutsua nabaritzen diot, nik beintzat olerkitxo oni» (JAUREGI, L.: «Loramendi olerkaria» *Euskera*, 1960, V, 239 orr.).

Behar bada, honetan baino argiago ikusten da Lizardiren antzekotasuna beste honetan:

«¡Enada Beltza!...»: Lizardiren «Ondar Gorri» gogoratzen du:

Zenbakiz markatutako lau partetan banatzen da. Lizardirena bezala, hemen ere lehen partea besteak baino luzeagoa da. Olerki bien arteko berdintasunak ugariak dira:

— bietan urte sasoiak aipatzen dira. Lizardik bakoitzari bertso batzu egiten dizkio. Loramendi udaberriaz hasten da, eta hurrengo negua.

— Lizardiren olerkian gaia bizitza-heriotza arteko eztabaida da. Hemen neguarekin batera heriotza heltzen da.

— Biek erabiltzen dituzte aditz soilak: Lizardi: bekusat, bebilt; Loramendi: zemaidan, damate, daramatzi.

— Motiboak txoriak dira: Lizardi: urretxindarra, txoriak; Loramendi: enada.

Berdintasuna ez da puntu hauetara mugatzen, estilo antzekotasuna ere nabaritzen da.

VI. 2. *Lauaxeta*

Lauaxeta eta Loramendiren arteko erlazioak ez dira Lizardirenak bezain argiak, baina ezaugarri berezi batetan teknika berdina jarraitzen dute.

Lauaxetaren teknika hau da: lelo bat errepikatu hitz batzu aldatuz, eta azken leloan hitz klabea sartu.

Loramendik antzerako gauza egiten du baina ez hain borobilduta.

«Illargitara»: olerki honetan hiru aldiz errepikatzen ditu bi bertso, ideia bera errepikatuz:

¡Sortzetik, Miren, Erruge zera,
Ama ta Birjin biak batera!
¡Ta ala badere, Erruge zera,
Ama ta Birjin biak batera!

O Miren eder!, Erruge zera,
Ama ta Birjin izar antzera!

Ezin daiteke leloa denik esan. Hiru aldiz errepikatzen da, baina ordenarik gabe. Dena dela, badauka leloaren oihartzuna. Ikusten denez, hitzak aldatzen dira ere, batzuk behintzat, eta azkenean ideia nagusia azaltzen da: izarrarekin konparatzen du.

Beste olerki honetan behar bada argiago ikus daiteke: «Antzekia»: hemen ere ez dugu lelorik, baina bai honen itxura duten bertsoak:

Erle gorrizta: zer diozu
lore begian marmaritsu?
Urretxindorra: zer diozu
ilargipean txiruliru?

Hauetan, gaia sinboloen bitartez azaltzen zaigu. Baina hauen ondoren, mundu errealera pasatzen denean, eta sinboloak azaltzen direnean, hauekin lotzen diren beste bertso batzu daude:

Zer diotsudan, Ama, Zuri,
lore ta Ilargi zeran orri?

Hemen joko bera jarraitzen du, baina identifikazioa egin da dago, eta orain benetako pertsonaiak agertzen dira.

Bertso pare bakoitzeko aktanteak aldatuz doaz, eta azkenean bukaera arte uzten joan den ideia agertzen da. Beraz, lehen aipatutako Lauaxetaren teknika nolabait betetzen da.

Hala ta guzti ere, honek ez du Lauaxetaren eragina suposatzen Loramendirengan. Bakarrik konstatatu nahi izan dugu olerkari bien teknika beraren erabilpena.

VII. ONDORIOAK

Loramendiren olerkiak gai nagusi baten inguruan mugitzen dira: maitasuna. Gai hau olerki guztietan konstante da. Normalean maitasun hau Loramendik Amari zuzentzen dio. Baina, zer da Ama Loramendirentzat bere olerkietan? Batzutan txori, lore bestetan, edo ilargi; hau da, natura.

Baina ez bakarrik hau, Ama emakume ideala edertasuna, perfekzioa da ere; hau da, emakume prerrafaelita.

Inoiz edo behin aberriarekin ere identifika dezakegu.

Beraz, Amarenganako maitasunak hiru puntu ezberdinetara garamatza: Amarengana, naturara, eta aberrira.

Beste olerki batzutan maitasunaren ondoren agurra edo heriotza sortzen da. Baina honek ez du tristurarik suposatzen, poza baizik, heriotzaren bitartez Jaungoikoarekin bizitzera heltzen bait gara.

Loramendiren olerkigintzan gai hauek azaltzeak formak baino garrantzi handiagoa dauka. Horregatik ez du errima asko zaintzen, irudi literarioen erabilera ere gaia azaltzeari poetikotasuna lortzeari baino gehiago lotzen zaio.

Loramendik ez du normalean bertso molde batez idazten, forma librea darabil, bertso luzeak eta laburrak konbinatuz. Dena den, honelako olerki gehienetan simetria gertatzen da ahapaldi edo bertsoen konbinaketa dela bide.

Bestalde, badu egitura homogeneoa erabiliz egindako olerkiren bat ere. Eta zortzikoen neurria jarraitzen dutenak ere.

Guzti honen ondorio bezala esan dezakegu Loramendik herri bertsogintzaren eragina duen arren, batez ere olerkaria dela. Bestalde, bere garaiko beste idazle eta mugimenduen arauak edo berrikuntzak jarraitzen ditu.

Baina Loramendik darabilen teknikan eta bere estiloaren inguruan gehien nabarmentzen dena sinbologiaren erabilera da.

Sinboloak errepikatu egiten ditu olerkietan zehar: garrantzitsuenak hauek dira: erleak, txoriak, lorea eta ilargia.

Sinbolo hauen erabilera nahiko mugatua da, normalean binaka agertzen dira, honelako bikotetan: erleak-lorea, txoriak--ilargia.

Erlea eta txoriak mugimendua adierazten duten motiboak dira, eta zaratak edo soinuak egiten dituzte. Hauen azpian normalean olerkaria bera ezkutatzen da.

Lorea eta ilargia, ordea, estatikoak eta ikustekoak dira. Sinbolo hauen bitartez olerkariak Ama izendatzen du.

Beraz oposaketa sortzen zaigu:

alde batetik mugimendua eta soinua (entzumena): olerkaria bestetik estatismoa, ikusmena: Ama.

Elementu hauetariko bakoitzak gero bere esanahi berezia dauka, sinbolizatzen duten pertsonaiaren ezaugarriak adieraziz.

Sinbologiaren erabileraren ondorioz, eta honekin lotuta, beste irudi literario batzuk darabiltza Loramendik, baina beti sinbologiak eskaturik.

Personifikazioa esaterako, sinboloek benetako pertsonaien paperak hartzen dituztenean betetzen da.

Txoriek, bestalde, beraien soinuak egiterakoan hots-hitzak eta aliterazioak sortzen dituzte olerkietan.

Beraz, arlo honetan dena dago sinbologiaren menpean: Loramendik sinbolo batzuk jarri ditu, eta horien erabilerak beste irudiak eskatzen ditu.

Honek hizkuntzan ere eragin handia du. Alde batetik olerkietako arlo semantiko oso zabala sinboloen izenei dagokie. Batez ere txorien izenak azpimarratu beharko lirateke: karnaba, urretxindorra, usoa, enada...

Beste aldetik txorien «hizkerak» beste hiztegi bat suposatzen du: kasu honetan hots-hitzez osotutako hiztegia.

Guzti hau ikusi ondoren Loramendiren olerkigintza honela labur dezakegu:

Garrantzitsuena gaia da, normalean maitasuna. Maitasun honetako aktanteak olerkaria eta Ama dira. Gai hau azaltzeko irudiak eta sinboloak darabiltza. Sinbolo hauek forma aldetik beste gauza batzuk eskatzen dituzte: personifikazioak, aliterazioak, konparaketak hizkuntza berezia.

Honen ondorioz olerki politak ditugu, euskera ederrean eginak, ez oso konplikatuak. Olerkariak beti Amarenganako maitasuna agertzen duen olerkiak.

BIBLIOGRAFIA

ARIZTIMUÑO, J. (AITZOL): «El poeta Juan de Arana». *Yakintza* 1933, 1. «Aurre-itza». *Eusko Olerkiak* 1932, III.

ARRUE, A.: «Antonio Arrue Jaunaren itzaldia Bedoñan: 1959 iraillaren 20an». *Euskera* 1960, V.

CIRLOT, Juan-Eduardo: *Diccionario de símbolos.* Ed. Labor, S. A. Barcelona, 1982.

DE YURRE, Julián: «Aurreitza». ORIXE: «Loramendiren olerkia». *Loramendi, olerti ta idatzi guztiak.* Itxaropena, Zarautz, 1960.

HINTERHAUSER, Hans: *Fin de siglo, figuras y mitos.* Ed. Taurus. Madrid, 1980.

IZURTZA (Zaitegi, J.): «Loramendi». *Euzko Gogoa,* 1950, I (n.° 1) (Ilb.).

JAUREGI, L.: «Loramendi olerkaria. Bere poesia-lanaren azterketa, bera bizi izan zan garaiari buruz-buru». *Euskera* 1960, V.

LORAMENDI: «Banoakizu...!». *Yakintza* 1935, III (266-269 or.).

«Enada beltza!...», «Usoekin gora», «Antzekia», «Otoi, Adiskide...!», «Ilargitara»; «Onatx, Erletxoak». *Yakintza* 1933, I (335-339, 251 252 or.).

«Maitasuna ez da maitatua», «¿Nor eta zer naizen...?». *Euskera* 1960, V (243-244, 254-256 or.).

«Barruntza-leyoan». *Euzko gogoa* 1950 (Ilb.) I (n.° 1) (18-22 or.)

ARTE EREMUETAKO ZORROZKERIA HIZBIDEZ

Juan San Martín

Uztailaren haseran Donostiako Altxerri erakustegian Julio Caro Barojak bere obraren mostra bat aurkeztu zuen eta jaun baten kritika agertu zen uztailaren 6ko *El Diario Vasco* egunkarian, «Los devaneos de un rigorista» izenburuz. Hein batean merkatal sailean sartzeagatik mindurik, baina bere eritziak haruntzago eroanaz, «zapatariak beude beren zapateri» edo holako zerbait adieraziz.

Idazki horrek ematen digu honako hizbide hau, arte eremuetako zorrozkeriari buruz. Etnologo eta historiagile dena zergatik sartu da pintatzaile? Aduaneroaren haina eskubide duelako. Alajaina!

Henri Rousseau inork ez du ukatzen. Manierismoaren eta ondotiko akademisten arau hertsiak indarrik gabe gelditu zirenetik, eta sorketa mugatu ezinezkotzat jotzen delako. Hori ere historiak ekarri diguna da. Leonardo da Vinci-ri maisu zuen Verrocchio ahalegindu zitzaion berak baino hobeto pintatzen, baina nork esan zion ezer eskultore, arkitekto, ingeniari, biologo, musikari, idazle eta filosofo izateko? Jakituria guzi horrek eroan zuen asmatzaile bikaina izatera. Nork mugatzen du bere ahalmena eta nortasuna? Zientzia liburuez gainera hor utzi zigun pinturari buruzko bat ere: Gioconda eta Azken afaria ez dira nolanahikoak. Gure garaiko Max Ernst, medikua

izanik, zergatik sartu ote zen pintatzaile? Baina Ernst-en kasoan, pinturan hainako ona ote zen medikuntzan?

Bakoitzak beretik, bere gogotik, gaien mugaketari ihes egiteko eskubide osoa du. Rousseau-k leihoa ideki zion naïf deritzaion estiloari, jarraitzailerik izan du handik hiperrealismora arte. Baina estilo bati leihoa idekitzea hainakoa izan zen koloreen ugaritasunera eman zuena. Bada ostadarrak sei kolore dituela uste duenik. Zenbat ditu?: bost, sei, zazpi...? Bakoitzak bere optika ahalmenetatik ikusten ditu koloreak. Hil berria dugu bere etorria folklorean zuen Marc Chagallek, hortaz bere ikuspegia hain zabala zenez, ez dakigu ziur zenbat kolore erabiltzen zituen ere. Kolorekariok berrehunen bat erabili omen zituen. Ugaritasunez gainera horien armonizatzeaz nabari duen poesia kutsuan datza Chagall-en nortasuna. Izana den guziak ez du izenik, Chagall-en koloreen arabera. Euskaldunok mugatuak bai ditugu koloreen sailak eta sail bakoitzeko -kariak ez dira horrenbeste: gorrizkariak, urdinzkariak, berdezkariak, horizkariak, ñabarkariak, zurizkaritik belzkarira eman ditzazken guziak ere hesparru tipia dute edo Chagall-en baletak azti batena iduri. Gure begiak ez dira gauza kolore guziak ikusteko. Doinu hots guziak entzuteko ere jaio egin behar. Entzumenaren gorreriak bere mailak dituen bezala, begiek lausoan. Eta horietarako berezko doaina duenak ere, Xalbador bertsolariak esango zuenez, lurrik hoberenak ere landu beharra.

Pintorerik ez dela odontologia klinikaren zuzendari? Zer aldia dago ogibidez artegintzaz ari denaren eta zaletasunez pintatzen duanaren artean? Nork erabakitzen du eta zein arauera erakusketak egitea? Hori galdetuko nioke Karlos Etxarriri, salerosketa kontua bakoitzaren baitan dagoenez.

Biktoriano Juaristi, eleberrigintzan Victor Ivan bezala ezagunagoa, antzerkigilea, arte ikerketetan oso ezaguna, bereziki esmaltegintzan, musikaria eta kirurgia klinikako zuzendaria Irunen eta Iruinean. Inoren eskubiderik behar ote zuen?

Ez du merezi aipatzerik ere Karlos Ribera odontologoaren lanez Donostian 1976an egin zen erakusketa.

Julio Caro Barojak etxetik bai zekarren gai soil batera mugatu ezina. Aitona Serafin nork ezagutzen zuen meategietako ingeniari bezala? Bere oroitzapenik badugu bertso, antzerki eta opera idaztetik dugu. Osaba Piok medikuntza utzi eta okin bezala porrot egin, lehendik zekarren idazletzari oratu zion buru-belarri eta ondoreak denon bistan daude. Osaba Rikardo ordea, pintore ona zen, eta bere garaian beste inor ez bezalakoa aguafortegintzan, baina idazle bezala egin zituen saioak kontutan hartzekoak dira. Dario de Regoyos bera ere, idazle bezala hain nabarmena ez bazen ere, aski ona zela erakutsi zuen Emile Verhaeren-ekin egin zituen bidaiak lekuko. Bestalde, uste dut, Unamuno, filosofiara zuen zaletasunagatik libratu zela pintore txarra izatetik, Antonio Maria Lekuonaren eskolan ez bai zen aurrelarietakoa .

Garai honetan J. Caro Barojaren artea berez zorrotza den baten erokeriak direla pentsatzea zentzugabekeria litzake. *Cuadernos de campo*-ren bigarren argitalpenari egin nion hitzaurrean, 1981ean, esaten nuenez gerraurreko *Anuario de «Eusko Folklore»*-an erakutsi zuen Juliok dibujorako doaina, lanabesak ez ezik arkitektura adierazpenezkoa ere esku-aidez ederki egiteaz. Duela hogetaka urtean oriopinturaz egin zituen laukiak motelak baldin badira ere, egun ezin dezakegu esan holakorik. *Fauve* joerazko koloreak piztu dute bere lana, zuhaitz, mendi eta jauregi edo gaztelu egitean erromantiko mugimenduen kutsua erakusten du, baina espresionista izaki. Batez ere komika erara egiten dituenetan agertzen du espreziozko indar hori. Gaur egun artean ikusten diren korrenten aurrean ez dute lotsarik. Gaiak, gehienetan, gizartea kritikatzeko dira, eta bere burua lan horietako batean identifikatu duenak min izatea ez da harritzekoa. Gaiaren aldetik flamendar eskola zaharrekoen itxurak ditu, lehenago Jose Arruek bezala, baina Bosco-gaindik baino hurbilago Bruegel-egandik dabilela esango nuke. Hala ere, guzien gainetik oso berea den sigiloa ageri da eta edozein artistak lortu ezinezkoa da hori.

OLERKIAK

F. García Lorca

SEI POEMA GAILEGO

(Gabriel Arestik itzuliak)

Oharra: Lorcac poema intellectual batzuc scribatu cituen gailego intellectual batetan. Nic, eçagutzen dudan heuscararic intellectualenean jarri nahi ukan ditut, Leiçarragaren heuscaran. (G. A.).

Akal Editor-ek 1974. urtean X. Alonso Montero-ren zuzendaritzapean galegoz, gazteleraz, katalanez eta euskaraz egin zen argitalpenetik hartua da.

Euskaldunon artean ezezaguna dugun lan hau *Egan*-en birargitaratzea iduritu zaigu Gabriel Aresti poeta itzultzailearen heriotzako 10. urteburuan, bere oroitzapenez. (J. S. M.).

JAUNDONE JACUECO HIRIARI MADRIGALA

Jondone Jacuen euria,
ene maite eztia.
Airearen camelia çuria
lanho-artean dirdiratzen da eguzquitara.
Jondone Jacuen euria,
gau ilhunean.
Cilharrezco eta ametsezco belarrec
ilhargui hutsa estaltzen dute.
Carrican ilharguiari beha ieçoc,
harrizco eta crystalezco auhena.
Haice galduan beha ieçoc,
heure itsasoaren itzala eta hautsa.
Heure itsasoaren itzala eta hautsa,
Jondone Jacue, eguzquitic urrun;
Goiçaren ur çaharra
ene bihotzean ikaratzen da.

ONCIAREN AMA VIRGINAGANA
ROMERIA

Virgina tipiaren
eta haren onciaren
ronda!
Virgina tipia cen,
cilharrez çuen coroa.
Bere, gurdian ceramaten
lau idiac horiac ciren.
Menditic euria
beirazco usoec cecarten.
Lanhozco guiçon-andre hilac
hibarretatic heltzen ciren.
Amatxo, utz eçan heure aurpeguia
behien begui bigunetan,
heure mantuaren gainean eraman itzan
veztimendaren loreac!
Galiciaco burutic
jaucica dator eguna.
Virgina itsasoari dauca beha
bere etxeco athetic.
Virgina tipiaren
eta haren onciaren
ronda!

DENDACO UMEAREN CANTICA

Cilharrezco Hibairen gainean
gaita bat du Buenos-Airesec;
bere aho ilhun bustiarequin
ifarreco haiceac jotzen du.
Ramón de Sismundi gaisoa!
Han, Esmeralda calean,
escobarequin escoba,
estanteetan eta caxetan hautsa.
Bukaeraric gabeco caleetan
gaileguac paseiatzen ciren,
pamparen celhai verdean
haran impossible baten ametsetan.
Ramón de Sismundi gaisoa!
Urezco muiñeiraençun çuen,
ilharguizco çazpi idi bere orhoitzapenean
bazcatzen ciren artean.
Hibaiaren bazterrera joan cen,
Cilharrezco Hibaiaren bazterrera.
Saratsec eta çaldi mutuec
uraren beira hausten dute.
Gaitaren deithore malenconiatia
etzuen aurkitu,
gaitari handi-gaitzac ahoa nola
hegalez loratzen çuen etzuen ikusi;
Ramón de Sismundi gaisoac,
Cilharrezco Hibaiaren bazterrean,
arrats ilhunean ikusi çuen
lohizco murru gorria.

MUTHIL HILAREN NOCTURNOA

Isilic goacen hibiaren bazterrera,
muthil ithoa ikustera.
Isilic goacen airearen baztertxora
hibai horrec itsasora eraman baino lehen.
Haren arima tipi eta çaurthuac negar eguiten çuen
lertxunen eta belarren usainen azpian.
Ilharguitic ur hamildua jausten cen,
mendi bilucia liliz estaltzen çuela.
Haiceac itzalezco cameliac uzten cituen
haren aho tristearen arguiçagui eiharrean.
Menditic eta celhaitic çatozte, gazte bilo-horiac,
muthil ithoa ikustera!
Basotic eta haranetic çatozte, jende ilhuna,
hibai horrec itsasora eraman baino lehen!
Gorthina çuridun itsasora eraman,
berta urezco idi çaharrac baitoaz eta baitatoz.
Ene, nola cantatzen çuten Silgo çuhaitzec
ilhargui verdearen gainean, dambolin batec beçala!
Muthilac, goacen, çatozte, sarri, laster,
hibai horrec itsasora baitaramaquit!

ROSALIA CASTRO HILARENTZAT
SEHASCA-CANTA

Jaiqui hadi, adisquidea,
egunaren oilarrac ençuten baitira!
Jaiqui hadi, maitea,
behi batec beçala marruma eguiten baitu haiceac!
Goldeac badoaz eta badatoz
Jaundone Jacuetic Bethleema.
Jaundona Jacuetic Bethleema
aingueru bat doa onci batetan.
Cilhar finezco onci bat,
Galiciaren mina cecarrena.
Galicia etzan eta gueldia,
belar tristeez muthatua.
Hire ohea eta hire biloen ithurri belça
estaltzen duten belarrac.
Itsasora doacen biloac,
bertan baitute hodeiec bere uso-habia.
Jaiqui hadi, adisquidea,
egunaren oilarrac ençuten baitira!
Jaiqui hadi, maitea,
behi batec beçala marruma eguiten baitu haiceac!

JAUNDONE JACUEN ILHARGUIAREN DANÇA

Beha ieçoc galai çuri hari,
beha ieçoc haren gorpputz çaurthuari!
Hilotzen Basa-herrian
dançatzen duen ilharguia dun.
Beha ieçoc haren gorpputz çaurthuari,
itzal eta otsoengatic belça.
Ama: Ilharguiac dançatzen din
Hilotzen Basa-herrian.
Loaren athean bertan,
norc çaurtzen du harrizco çaldia?
Ilharguia dun! Ilharguia dun,
Hilotzen Basa-herrian!
Beguiac hodeiez betheric dituela,
norc behatzen deraue ene begui ilhunei?
Ilharguia dun!, Ilharguia dun,
Hilotzen Basa-herrian!
Urrhezco loreequin ametsetan,
ohean hiltzen uztan.
Ama: Ilharguiac dançatzen din
Hilotzen Basa-herrian.
Ene alhaba, ceruco haicearequin
bat-betan çuritzen naun!
Eztun haicea, ilhargui tristea dun
Hilotzen Basa-herrian.
Norc eguiten du incirina,
idi handi-gaitz eta malenconiatiaren ancean?
Ama: Ilharguia dun, ilhargia dun
Hilotzen Basa-herrian.
Bai, ilharguia, ilharguia,
erratzez coroaturic,
dança eta dança eta dança,
Hilotzen Basa-herrian!

BERTSOLARIAK PENA

Luis M. Mujika

Bertsolariak pena
bertso bustitan dena

Arrats makurren erreguz,
oroi zaharren sentimenduz
abots mingotsak sekretu,
euskal koblariak pena
eresi bustitan pena
uda bihurtuz negu...

Bertsolari, bertsolari,
kitar zaharrarekin larri
zer ahozkatzen zara ari,
euskal koblariak pena
eresi bustitan dena
gozoa itzuliz gazi.

Bertsoak doinua erraz,
uda doalarik beherantz
alegria, baina, eskax,
euskal koblariak pena
eresi bustitan dena
xirula mindu baten antz.

Zergatik beste notarik
(beltza bihurtuaz argi)
kitartxo umilak ez dari...,
euskal koblariak pena
eresi bustitan dena
herri hautsiaren graziz...

Bertsolariak pena
kopla bustitan dena

Kitar-doluaren eresi
(joan behar ta ezin geldi)
ur sakonetara da jeitsi
eta zure barneak erre
(aih, aih, zer, zer?),
penaz baizerade leher...

Bertsolari,
zure kopla makurrak
pena baino ez dari...

ZELAIN ALDEAN

Luis M. Mujika

Leiho atzetik beztura
ta adar bilutsen nahaspil,
azil negubera hontan
aldapa-behera nabil,
(saiatzen naiz *udazken* hau
ber-*udaberri* dadin...).
azaro etsiezinak
neguaren eraskin,
han-hemen mantxa nagiak
herio-giroz amil,
Zelain-go bide-sasian
habi beltzen hondakin
habia urratuta dago,
belar-izpitan zarpil,
linea iheskorren zehar
oroiek mila asmakin,
Ipintza aldera bi bele
garraisiaz ta arin,
kristal hitsek sugeritzen
zer senti, zer eragin,
gelako kristalen barna
mindura nik emagin...

HARIZTIAN

Josu Baez

Euri tantanak goizez,
zuhaizpean apal,
haur makurra pentsati,
gerokoa zabal.
Hariztiko pakea,
kanpo giro ahal,
haur makur egizale,
egoera makal.

Urte gozoak ditu,
pentsakor jezarri,
geroa ilunari
emateko larri.
Hosto eta adarrak
basoak egarri,
harizti paregabea,
umeak igarri.

Begiak lainoturik,
goruntz orlegia;
bihotzean sentitu,
ahal zuen egia?
Ortzadarra azaltzen,
hosto arte gia;
hosto hezetasuna
gorputza goria.

Besoak altsatuaz,
adarrean oskil,
txori aske zirudin
lirain eta sotil;
harizti oso bere,
ortzadar borobil
kolorez ezin ase,
maliziaz kikil.

Gizaki gosetua
begiratu haurra,
malizirik gabeko
izate apurra,
harizti babesean
hain bihotz xamurra,
gizaki gosetua
entzun haur agurra.

EGAN NAHI NUEN

Josu Baez

Ibilzentzu galdurik
egan egin ametsi,
txori eder bezala
hautsi nahian ertz,
baina kalean nintzen
ke arte berantetsi,
bihotz itoa nuen
hezur eta saihets.

Madarika bat batez
nintzela hasiko,
egunero leher zoriz
ametsa betiko,
ukapen egunero
askatasun begiko,
kalipotezko kale
ibilzentzu ito.

Egan nuen gosea
ihesa eskatu,
hatzamar lehertzaile
ez nireganatu.
Eta berriz loturik?
egin naiz abstraktu,
ezagupera ezak
ninduen zoratu.

Askea izan eta,
ezjakina barne,
kanpoko itxuraz zin
huskerien berme,
deabrua ote zen
ez nendila erne,
dariola iturri
ta isurtzen zorne.

Amorruz asetako
gorputza elbarri,
zalaparta frankorik
arrastaka larri,
irtenbiderik ote?
ba al da mugarri?
kalipotetan dehadar:
nadila itzarri.

Gorputz eta arima
egan nahi hasi,
hazi zikina noiz
bihurtu zen sasi?
aspaldian delarik
orain garrasi,
gorputzaren arima
askatu arazi.

Eta egan sentitu,
eta egan nahi...

ZEZEN LARRUA

(Jarraipena)

(S. Espriu-ren *La Pell de brau* Otsalarrek euskaratua)

XXXI

Sar zazu titiriteroa,
arratsalde arinaren
hutsunetik,
zakudun gizona.
Kapelak erdizka
estaltzen diola begien
agurra. Aldiz,
bideetan itzala
utziz doan
mamu mudurria,
uzta guziak
galduko dira
eta itxaropendun sabelak
hilaurtuko.
Alogerarik gabeko hitzarmenez,
zarpazahartuz
haizearen kantak
eta eroango du
zilar guzia osoki
basotik.

Sepharad-eko
agertoki honetan,
hari mugikorretatik zintzilik
esku izkutuak
eta txukun puntuztatuz
dantza zarpaila.
Lehorraizeak inguratzen duenean
alorren gainetik,
itsas-haize boladak
hondoratzen dira
oihal tintatuaren
papel hauskor guziak.

XXXII

Itsasotik iritsi den haizea
oihuka preso kainaberen hesian.

Guk urrutirantza begiratzen genituen
haize bideak, itsas bideak:
itxaropen ontziak itsastatuko ditugu.

Zilarrezko zuhaitzak urrutirantza doaz
denbora geldi honen amets barnean.
Eta gainditutako oroitzak jaisten dira,
gure jaso ezinezko adinetara,
mihilu usainez, hesietatik,
txara eta ezpeletatik, sabel bigunekin,
arranbletatik, muskerrak bezain nagi.

XXXIII

Uhinak ere musker edo suge,
uhinetan ere denboraren hondarra.

Aho sutsuak edan dute jadanik
uraren malenkonia kedun pegarretan.

Lorategi hedatuko euri ura,
jadanik isildu zen iturriaren zurmurra.

Egarriaren mihia iristen da
pentsamen makurraren iseka miazkatuz
gatzaren amiltegi bustian.
Egarri makilatik zintzilik den mihiak
gure oinaze putzua neurtzen zuen,
zirikatuz hilketaren sustrai lehorretan,
hondoratzen zen nere oihu idorrean.

Haizea kainaberetan katibu bezala,
gu, gu eta gure buztina,
betiko preso urteen oroitzapenean.
Liburu itxian irakurtzen genuen gaur:
«Ez negarrik hilari, zuen seme horri,
baizik mingoski joan zenari
Sepharad-go zeru eta ametsetatik urruti.
eta lur onera inoiz itzuliko ez denari».
Gorrotoen lur ona, odolez blai
gure egarrien eternitate iturri dena.

XXXIV

Xarabe lodiz
engainatzen dugu egarria.
Zenbat gehiago nahastu,
hainbat argiago dago:
erraz da sinestea
egia dakizula.

Apezpikuar alki
sendoetan iserita,
leiho ostetik
langa begiratuz
atsedenduko garen
hilerri geldiarena.

Era berean
hondartzan aurkituz,
jendetzaren erdian,
txistada gabe dantzan
ijito artzarekin
kontrapas txar hau?

Panderojotzaileak hasten du
erritmo bizkorra.
Eta, barrezka, negarra jario
odol malkoz.
Misterioaren sakonera
inoiz ez zineten iritsiko.

Poliki-poliki irtetzen ziren
portutik ontzi lerdenak
esperantzaz. Uhinetan,
agian hondoratuko dira.
Itsas gainean, altuan,
txori zuriak hegaz.

XXXV

Altutik igaroz doaz hegoaldera hegazti zuriak,
gaur, egun luze honen argi zabaletik,
eta poliki-poliki burutzen dira jabalaldizko bideak,
itxitzen direnez askatasunaren azken ateak.
Orain larrututako eskuak jotzen duten panderoa,
eta ezpain meheak esaten digute «haviv»,
ikaragarrizko maitasunez, etengabeko dantza eta dantza
gure oin nekatuek diharduten artean
eta barre eraginez eta barre jarioak malkoz,
alaitasun kezkatiaren muturreraino.
Haize pitin bat dabil mahastian, zipresetan,
mihilu ondoan, eta beti itsasoak, eta hegoek
argi gehiago zabaltzen digute, gogo gehiago iratzartzen
zeru elizkoi eta handi, Sepharad-eko zeru berrian.

KONTU KONTARI

Haren etxearen parkearen aurrean ethorri ginenean' hor zegozen zuhatzeak, bai eta andriantak ere, oso bertzelakoak agerten zitzaizkitan. Hunela bere etxearen parterrean dagoen saloin baterat joan ginen, eta diêgêtu nahi zerauzkitan gauzak ongi entzuteko eta hurlertzeko, berehala gathilu bat dutearen egitera joan zen.

Itzuli zen baikoz hasi zen: «Zuk ongi dakizunez» Biela hiri huntan egoiten dago Oropa hierona. Bainan saindutegi hau' hieron bat baino askozaz gehiago da, zeren eta behar bada epokha neolithikoa danik hemen megalitho batzu bait dagotza Oropa izenak ere nola bait soinu atopoa daduka. Bainan orain erraiten dutenez berriro hor eta haren inguruetan lamiak edo hunelako phantasmak agerten dirateke. Hau guztia berez lilura ttipi bat baizik ez lizateke eta guztia phantasi dêmotikoaren ekhoizpen bat izan liteke, herriaren phantasmagintzak bethi bait daki hunelako izaikari aeroak plasmatzen, Hauk hylêaren gabe khronoak eta lekhuneak menperatzen dakitelakotz. Bainan hau ez da aski. Zuk dakizunez Oropako haranari parallelki dioa, Don Iban kapera ta saindutegia dagoen harana. Egun batzu duela nik neuk ere' hor mendian dadukan baithara joaiten nintzelarik' bidean ahots atopoak entzun nituen, batez ere hor bidea dagoen mairu-baratzearen hurbilgora heldu nintzela, eta ezagutzen nuen ahots bat entzuten nuela pentsatu nuen. Eta haspaldian Fonternarmoran ezagutu genuen neskatila hura entzuten nuela enthymetu nuen, bainan geroz horrelakoa ez zela nabari zitzaitan, zeren eta ahotsa nolabait zuhatzen burutik zethorren, nahiz eta ongi non zegoen topothetzen ez nekien. Baithara heldu nintzen eta sua izeki, zeren eta bakhean egon nahi bait nuen, interesatzen ninduten gauza batzu irakurri nahi bait nituen. Ez dakit zergatik, hala ere, hor nedukan Odyssearen exemplare bat hartu nuen, eta lehen ôidêaz hasi nintzen, non eta Homerok Musak parakaletzen bait ditu, gizon polyploko horren historia diêgê lezaten, joan zen lurraldeak konta zitzatentzat, eta hunela ezagutu ukhan zituen hiriak eta genteak. Batez ere phiztu ziren neure gogoan Homêrork deitzen dituen lekhuak, non eta erraiten bait du nola Odysseu Kalipsôk berarekin erykatzen zuen *en speesi glaphyroisi* bai eta zazpi urthe iragan zenaz gero. Orduan ohearen gai-

nean etzan nintzen, eta loak hartu ninduen. Uste dudanez Odyssearen parte hunek nire interese phiztu zuen, zeren eta hura' gure herrialde huntan Urhotzen Ganearen elhurren azpian ezkutaturik datzan hiriaren legendaz erkidetu bait nuen. Hemen ere legendaren arauera harpe batzu ba dagotza Kolypsôren spelaioen modukoak. Atzarri nintzela irudi zitzaitan, bainan ez nengoen orain Don Ibaneren kaperaren inguruetako nire baithan, baizik eta harpe atopo batetan, zeru urdinkarakoa zeinen ormek argi ahul bat antaugazatzen zuten. Behar bada' guztia indigokarakoa izan zatekeen. Hemen berriro gure adiskidesa Fortenarmarakoarekin aurkitzen nintzen; ohidura zaharretara jantzita zegoen, nahiz eta osotoro garaiko anzotarakoa izaiten ez zenarren, zeren eta zirudienez bere bekhokiaren gainean atzeherritar hegaztinen hegatsez eginikako diadêma bat bait zeraman. Dakizunez asko ansiatu naiz kanpotar hizkuntzen ixtudioaz, eta halakotz sumerkaraz mintzo zitzaitala uste nuen. Berhain gure adiskidesa Fontenarmarakoak ez daki sumerkaraz. Bainan phantasmak' ber bera Gardunaldekoa zela erran zerautan, bai Ganeko urhotzen azpian biziaren garra zaindu zuten herrikoa. Gero Garaluari buruz mintzo zitzaitan, eta hura Ur duina zen hiri baten hurbilgoetan zegoela erran zerautan. Goizean atzarri nintzen, eta nire Odyssearen liburuaren aldamenean bertze liburu bat zegoen. Berhain neu ez nintzen orhoitzen liburu hori nehoiz ere erosi egin nuenaz. Geroagoz' Enriko gure adiskideari erakhutsi neraukon liburu berri hau, eta biok elkharrekin hura interpretatzen saiatu ginen. Bilblio huntan hitz egiten zen Nerua ibaiaren ibarretan zegoen Ur izeneko hiri bati buruz.

Han geratu nintzen bigarren egunean berriro opsei hau ageri zitzaitan. Orduan itsas-urdinkarakoa zen saloin huntan, erdian zegoen mahain anzoko bômo baten gainean etzan-arazi ninduten, eta orduan aphezesak bere khideak deithu zituen, eta kontatu zerautan nola mintzatu hizkuntzaren differentziak hulertzeko musikê bat zegoen. Eta orduan neskatila batzu ageri ziren auloz jotzen, nehoiz ere lehenago entzun ez nituen doinuez. Eta hola nire adiskideak erran zerautan ezen urhotzen azpian izekiten duen garraren berphiztean ari izan behar nuela».

Hunela Burtxathe mintzo izan zenean, diêgêtu zerautana' amets eder bat zela erran neraukon. Bainan Arnulfok erantzun zerautan: «Bainan Ur hiriari buruzko liburua eta bertze gauzak' nork ekharri zerauzkitan?» — «Eta zuk ba hal dadukazu liburu hori?» — itaundu neraukon. — «Bai, zinez, eta orain berton erakhutsiko derautzut!».

Liburua ekharri zerautan. Zekhor larruz azaleztaturik zen, eta estalkaiak elkharrekin lotzekotz hede batzu zituen, antxinako liburekin egiten zen arauera. Liburua ideki zuenean, Alkhêmiaren obra zahar bat izan zatekeen, garaikaraz iratzita, bainan haren kaligraphiaren erara zeinuak' kopto zirateken. Burtxatek zabaldu zuen liburua, Ur hiriari buruz mintzatzen zen tokian... eta itzulpenean gora-behera, hunela zioen: «Hor, non eta Nerua ibaia jariatzen den, hura bait da Nerio jainkoasaren neba, itsasaldean daduka Burdinezko Gane bat, eta geroz ithurrirantz joaiten, Ur hiria dago, Ur berria, Ur zaharraren duina. Ur duinerantz ibaia erorten da katarrhakta batetaz, eta Ganetan dago Garetako Elua, hau bait da Garalua, zeina bait da, Garraren Alua; bait generraken Garobela. Eta hemendik Ekhialderantz behatzen Adar bat benaz estalita, eta Gor hunen hegoirantz athera liteke Burdina, hau bait da orduan Gor-duina, eta labaren suaren azpian sortzen da». — «Dirudienez hau alkhêmisten hizkuntza da» — erran neraukon... «behar bada hitz batzu bertze batzuez heien ahaikoez ordeztu behar dituzkegu». — «Bai Adar benaz bethea, Gorbena da, bere forma zaharrean, edo orain Gerbena dioitenez» — «Gerbena, edo Gorbena bait da nik orain neure aurrean dadukan mendia... italiarrek *Cervino* eta frantsesez *Cervin* izeneztatzen dutena, bainan alemanoentzat *Matterhorn* dena». «Ikhusten duzuenez hemen ba dugu *adarra* edo *gora*, *Horn* alemanarazko hitzean» — «Bainan mendi huntatik dathorren ibarretan dagoen burdina zein lekhutan legoke?» — galde egin nion. — «Neuk' Goñi dela uste dut, zeren eta herrixka huntan burdinmehatzak bait dagotza... eta herrixka hau ez dago Gorbenatik hurrun».

* * *

Hunela mintzo zitzaitan Arnulfo Burtxathe, bainan erraiten zerauzkitan logo guztiak, amets batetik atheraiak ziren nitzat. Biok orduan berriro Bielaren hiri parkera joan ginen. Gero' egun batzu nire ikhustera Cerviniara ethorri zitzaitan Musikêan interesaturik zegoen Kalolimênos nire adiskidea, zeren eta egun hartan berant egin bait zitzaitan eta ezin ikhus niroen. Persona hau oso jakintsu zen thêma musikologoetan eta batez ere ikhertu nahi zuen Musikêak antxinako sinhismen zaharrekin eduk zitzazken elkhardurak. Gure hizketan ethorri behar nintzen Burtxathek diêgêtu zerauzkitan pragma atopoetaraino. Kalolimênosek' guztia prosokhêaz entzun zuen eta ihardetsi zerautan»: Berez Musikêa pragma atopoa, guztiz atopoa da. Literaturarekin batera kalitekhnê akustikoa da, bainan pragmarik guti elkharrenganik hoin urrun egon litezkela nabaritzen zaiku, nola bait dira Musikêa ta Literatura. Huntara Literatura askotan Andriantagintzari hurbilago dagoela iruditzen zaiku. Burtxatheri buruz erraiten derautazuna, ia sinhistezina da, zeren eta guk bait dakigu nola adiskide hunek nehoiz ere ezein droga hartzen ez duen, ez eta alkoholik ere gehiegi. Hark diêgêtzen duen guztia, punkturik askotan musikê polyphônikoaren anzokoa da, batez ere Rinascimentoarena. Batera bi plano paralleloetan bizi dela lirudike: bata' alêtheian lizateke, hau da Musikêan kantu firmueren anzokoa, eta geroz harentzat bertze gauza batzu bertzelako plano paralleloetan gerthatzen ari dira. Behar bada biak, bata bertzea bezain egiazkoa dateke, eta goikoek kantu firmuari bezala beren aberastasuna emaiten deraukote. Berhain gizon normalak ez daki hauiei buruz ezer ere erraiten, bainan nehoiz ere egotzi behar ez genduke nahiz eta irrealak direla pentsa dezagunagatik. Kalolimenosen hitz hauk entzuteaz pentsatu behar nuen, nola sumerkara bezalako hizkuntzek realitateari buruz bertze planoetan gerthatzen diren gerthakarien jakinaraztekotz grammatikazko erak dituzten.

Cervinian egun hortan, gora-behera eguraldi ona zegoen, zeren eta udaren bihotzean bait gengozen, eta gu bizi ginen garaiera hauietan, bere 2000 m. eta goragoetan bethi erran behar dugu beroa nehoiz ere handiegia ez dela. Poreia baten egitera kanpora joan ginen, herrigintza moderno hunen kaleetan barna.

Eta Burtxatherekin egun hauietan eduki ukhan nituen hizketari buruz ari ginen. Berhain guztia ametsa bat baizik izan ez ziteken, baldin eta alkhêmiaren liburu atopo hori egon ez ba litz, zeren eta huni buruz Burtxathe nehoiz ere hura non eros zezakeenaz orhoitzen ez bait zen. Bainan atopoena zen nola guzti hau Pyramide anzoko gane huntaz lothurik zegoen, zeinaren oinetan gu geu mementu huntan ibilten bait ginen. Kalolimênos geroago eta intesatzenago zen Musikêaren Philosophia izenezta genitzazken hunelako pragmetan. Egun hortan guri ere Physian bezala gerthatzeko zen, zeren eta Physikêan bezala gauza guztiak mementu batetan eta nukleu batetan konzentratzen bait dira, nahiz eta hunen inguruetan hutsuneak eta hutsune ezin neurtuzkoak baizik egon ez litezenarren. Eta hunela Cerviniako kale batetan restaurant-bar batetan sartzer gengozenean Agnesia Balmatzerekin topatu ginen. Neskatila hau autokhthonoa zen eta bere sortze herrixka legenda mageikoen toki bat zen. Dena dela hastekotz galde egin neraukon egun hauietan zer egiten zuen, eta erantzun zerautanez munduaren ezagutzekotz bidaie batzu egiten ari izan zen eta Kanarien Uharteetarat joana zen, eta hortara diêgêtzen jarraiki zen: «Bidaiean adiskide handiak egun ditut, hauietan oso axiologo diren neskatila batzu, ez dakit zer ziren, angloak ala austriakoak, bainan Erroman bizi ziren». — «Eta nola?» — galde egin neraukon — «heiekin nolabaiteko harreman konservatu duzue?» — Eta hemen ixtorio edo behar bada iphuin berri bat kontatzen hasi zitzaikun Burtxathek diêgêtu zeraukunaren komplementa izan zitekeena. «Erromara heldu ginenean beren etxerat joan nendila gomitatu ninduten. Nitan interesaturik zegozen, menditarra naizela jakin zutenetik. Askotan diaskedazaten ziren. Oso aphailaturik zegozen beren egitekoetan. Halarik ere' beren jaietarat ia nehoiz ere gizonik ez zen agerten. Egun batetan jauregi bateko saloin batera joan ginen. Hura andere Perknopoliarena zen eta hemen askotan ethorten ohi ziren dantzan egitera. Ez dakit eia dantza klasikoa zen ala behar bada dantza mageikoa. Saloinaren erdian piedestal baten gainean harri beltz handi bat zedukaten. Hunen alde batetan belatz edo arrano handi bat glyphaturik zegoen. Hegaztin hau bere atzaparrez suge edo ophi bat oratzen zuen.

Hura Harbelnoren symboloa zela erran zarautaten. Dantzaren musikêa oso biguina zen eta ganbararen kara ôidêtzen zutela aldatzen zen. Hatsarren guztia argi biguin eta urdinkarakoan lethaturik zegoela erran ziteken, geroago ta gorritzenago zen guztia. Orduan dantza lasterragotzen zen, bainan argia khentzenago, ia desagerten zela. Orduan neskatilak elkharri besarkadak emaiten zeraukoten, eta erraiten zutenez argi hori Perknoarena zan. Bainan geroz guztia argitzen eta, eta argia gure mendietako urhotzen gainean dizdiratzen duena bezalakoa bilhakatzen zen. Galde egin nerauen eia talde feminista bat ziren, bainan erantzun zerautatenez hunelakoekin ez zuten zer-ikhusirik. Hau baino gehiago erran zerautatenez hunelako bilkura feministetan bakharrik emakume kretinoak biltzen ziren zeinek gizon izan nahi bait zuketen, bainan beren emazteki-egokeraz phenatzen zutenak. Huni aitzi' Harbelnoren dantzarisek pozik zegozen beren emazteki izaiteaz, eta hortakotz ere gizonak nehola ez zituzten gorrotatzen. Horrexegatik erakhutsia zerautaten nola beren dantza-lekhu zen saloin huntan gizonezko andrianta ttipi bat zedukaten zeinen izena Dumu-Zi zen, hau da Biziaren Semea, eta hura heiek gurtzen eta proskynetzen zuten. Oso pozik zegozen emazteki izaiteaz, bainan erraiten zutenez Perknoa Harbelnon ensômaturik zegoen, eta hau Ortzi ogdoadaren goiko punta zen. Heien egitekoa biziaren hazia ber-iraunaztea zen, ber ber hau Ziaren Dumua bait zen, eta ber haren ethorkiari harzara eman behar bait zioten» — «Eta geroz zer?» — galde egin neraukon Agnesiari. «Egun batzuetan persona hauiekin egon nintzen, eta nire visitatzerat hunat ethorriko zirela erran zerautaten». — «Eta hoietan atopoa den pragmarik ez zenuen ikhusi?» — «Ez, nehola ere ez. Behar bada hauietarik bat, dantza gidatzen zuenak nunbait bere larruminтzean bertzeak baino ferdeago zen, bainan hau effektu optiko bat zela uste dut, argien aldakuntzen aitiaz». — «Ez hal zenuen zuk erran nola Burtxathe ere diêgêtu zuenez urdinkarakoa zen harpe batetan sartu zen?

Eta ez hal zenuen pentsatzen Urhotz-Ganearen azpian krypturik dagoken hiri legendakoaz?».

Egun batzu geroago Bielan Butxatherekin egon ginen. Bere etxeko parkean ulboak dantza egiten zegozela uste genuen zuha-

tze-khoroêtan. Burtxatek berrikiago ikhusi zuena kontatu zeraukun, batez ere Arnulfok Gordeli-Haraneko persona bat ikhusten zuenean bethi pozik egoiten ohi zelakotz, eta orain gurekin Agnesia zegoen ber. Berriro harpe ferdeskêz amets egin zuen, eta nola gurekin Agnesia bait zegoen, halatan hitzdunago bilhakatu zela uste dut... eta diêgetzen zeraukunez Kalypsô personalki agerten zitzaion bere *speesi glaphyroisi*. Azken aldiz aphezesa bat ekharri zuen, eta harekin neskatila talde bat... bainan azken aldiz hizkuntza ainigmatikoez mintzo zirela erran zuen guztia *kalyptu* hitzaren eta syllabêen gyroan azaltzen zen. Erran zuenez: Neskatilla hiero hauiek *kalyko* bat erakhusten ziotela, hura edozein arrosaren *kalykôsi* baino ederrago zela ziotsaten. Eta hunela kalyko hortan edan zezantzat' ambrosia eman zeraukoten, bainan edari hori bere begien gainean *kalymma* bat bezala erori zen, halarik ere laister egiazko *apokalymma* bat ethorri zitzaion, eta ezin-hilezko suaren basileian sartu zirela uste zuen, bainan hau' guztia nola *Gardunaldekoak* zirela erran bait zuten oso normala irudi zitzaion. Eta orduan Burtxatheri ere bere personak garrak aktinoboletzen zituela ageri zitzaion, eta hauk nolabaiteko *kalyptêr* batetan biltzen ziren. Geroz bere konorterat itzuli zen harpe erythroaren froga hunen ostean. Kalypsô Homêrok erraiten zuenez orduan ere «*lilaioménê pósin eînai*» zegoen, eta hunela prophetizatzen zuen hiereusak erran zeraukon: «Orain zure ekthlipsia kaniskion batetan kanêphorietarat heldu da». Eta Arnulfok erran zeraukunez hau guztia ez zuen ongi enthelegatu, zeren eta Kenêphoriak Dêmeteren jaiak bait ziren, eta huntara gerthatu zitzaiona apokalypsi eleusino bat bai lizen diermêneu zezakela. Bainan huntaz gainera ba legozke kaniskion batetan ediren ziren heroi hok, Moyses bezala. Bainan nire ekhthlipsia askozaz zailago enthelega niroen, hylêzkoa ala psykhêzkoa izanarren, zeren ideien hazia izan bait ziteken, eta halaber hazien ideia».

Kalolimênosek jainkozko ekthlipsi huntan bethizkozko rhythmo berri baten dêmiurgetzea ikhusten zuen, Indiko Jainkoa nabusiena den Shiva Nataraddaren ttunttunetik iltkhitzen direnak bezalakoak, hauk ere kosmoan gainti hedatzen bait dira, bainan heien hypostasia musikêzkoa izaitez «Hemen ere

indioen arauera rhythmo kreatzailea» suzkoa da, eta bere bidea hasten da egiten ambientza ilhunean gainti, behar bada Ezer-Ezean gainti, eta hedatzen delarik lekhunea dêmiurgetzen du. Huntara bizia eratzen du nahiz eta programma tinketzarengabe izan ledinarren, zeren eta batera skôriarik asko eratzen bait du, zeina batera ere deusezten bait du, bainan dêmiurgêma huntan bere argietatik, bere garretatik eta skôriatik noizbehinka theiozko pindar batzu sortzen dira, Shivaren orkhêma ikhus dirotenentzat. Huntara Kanêphorietako typoko ekthlipsi bat bethi dêmiurgetzailea izaiten ohi da. Huntaz Burtxatheri erran nahi zeraukon ezen bere emaitza psykhêzkoa edo hylêzkoak karpoak emaiten zituela.

Mementu huntan ba zirudien ezen, Burtxathe bertze gauza batzuez orhoitzen zela' erraiten jarraiki zen.

«Hunela ikhus nezakeen nola nigandik dorre bat jaikitzen zen eta haren puntan mykêto bat sorthu zen. Pindarrak sortzen ziren eta orduan harpearen lekhu urrunetatik hegaztin beltz batzu ethorri ziren, erran zerautatenez Perkno basilikoak, eta hauiek amoroto handiaren akmêtik iltkhitzen ziren amoroto ttipiagoak hartzen zituzten eta beren hegaltadan goititzenago zituzten. Egiazko belatz-hierakoak ziren zeren eta spelaio beltz hunen hamaieran zegoen ekhitara hegaz egiten zuten, eta begiak hersi gabe Ekhiari behatzen zeraukoten.». — Eta orduan Burtxathek bere diêgesia hamaitu zuenean erran zuen nola Perkno hauiei buruzko iphuin hau, ahaiko zen, Perknopolian dantzatu zuen orkhêmaz.«Egiazko perknoak ziren, beren mokoetan Dumu-Zia bait daramate berriro Harri Beltzean integratzekotz, hau bait da heien, bethikozko ama». Eta hitz hauk entzunaz geroz Agnesia peithaturik zegoen, ezen jainkozko apostoloak ezagutu ukhan zituela, lekhu ez-ezagunetik ethorri zitzaizkionak. Orduan Kalolimênosek erran zerauen: «Gauza guztietan, bethiere rythmo paralleloak dagotza, eta huntara, *soprano* baten ahotsa jainkozko sphairetan higitzen da, bainan *bassoa* lurraren gainean bertara dioa. Ametsen eta apokalypsien heroi guztiak Gilgamex bezalakoak dira, bi heren jainkozko, eta heren bat anthrôpino. Guk hemen geure baithan bilha dezakeguna heren anthrôpinoa da, bertze herenak jada-

nik eman bait derauzkiketzue». eta huntara ahantzi egin behar ez genuke ezen Gilgamex Uruko hiriaren semea zela, non eta justuki irazteko tekhnêan epheuretu bait dute, tekhnê hau thaumastoa bait da nola haren bidez khronoaren jariatzearen gainean nabusitzen bait da. Halakotz Ur eta Uruko duina den hiria Gane edo Gara Beltz baten hurbilgoan bilhatu behar dugu non eta, huntaz gainera, hyparkhetzen bait da burdinaz eginikako bertze gane bat. — «Orduaan zaila iruditzen zait behar dugun Gane Beltza Gorbena dela erraitea zeinen oinetan gu bait gara, nahiz eta gure ibarraren ibaia Padu dela erran diteken, zeren eta ibai hunen benêtan, benetarrak bizi izan direnagaitik hemendik burdin beharrezkoa oso urrun bait legoke, eta Leobenera joan behar bait genuke. Eta Nerua ibai hori dudarik gabe Nereu Poseidonena bizi dateken lekhua dateke, eta halakotz lurra inguratzen duen ôkeanoraino joan behar dukegu».

Huntara guztiok nolabait Kalypsôren harpean erykaturik gagozke Kalpeganearen aurkhaz-aurk dagoen uharte hortan.

* * *

Exêgêsi alkhêmikoa:

Hunela zortzi (ortzi) urtheak bietan iragan ziren eta zazpi (azpi) urtheak kyklo batetan, hau bait da Gilgamex biziaren meroak bezala, bi jainkozko ogdoada (zortzikon) eta gizonezko hebdomada (zazpikun), bat zeinak huntara batera.

2 x ortzi plus 1 x azpi bait dira, halakotz harginen baithetan bezala 2x JAKINTZA plus 1x BIHOTZA, eta guztia theiozko stêlêen bidez symbolizaturik, zeren eta Maixuak (didaktôreak) eta lagunak (syntrophoak) jakintza bait dira, eta hastekotz mathêtêek (ikasleek) bihotz izan behar bait dute.

Burtxathe hunela bere spelaio glaphyrotik athera zen, eta Ithakêra ere itzuli nahi zuen, hunela bere baitha urdinkaratik iltkhi zen eta hiriko etxe gorrira joan zen, eta hemen bere bi-

dekhide berriak aurkhitu zituen, eta orduan hauiei bere entolêa eman zerauen, Skheriarat joan zitezentzat. Burtxate bitartean Zumeak bizi diren herrira joan zen, hemen haukiez kaniskion bat ehutzekotz... eta hemen mendietako ithurrietatik dathorren ur gardenak edaten zituen. Bainan laister ageri ziren hortik hurbil Germoskoak eta Germothilak, eta Ganaben jainkozko oiharzunak hedatzen hasi ziren. Haukiek baitha gorrio utzi zuten, eta nola hunela gardunak bilhakatu bait dira, esku batetan *khardu* bat daramate eta ezkeraldekoan Borthuetan harturikako *bortusaiak*. Hunela Skheriarat joan baino lehen' Germoskoek *Arrosa* gorria hartu zuten, eta Burtxatheri eman zeraukoten, hau *gurutz* bat bilhaka zekiontzat. Burtxathek, arrosa gorriaren ondoan *amorotoak* erein zituen, eta erdian, andreia sorthu zen, andrianta bat bai lizen eta mykêtoek kyklo bat egin zuten, non eta erdian zutharri bat goititzen bait zen, Oropako saindutegian bezala, eta inguruetan amorotoak' mairu-baratz baten harriak bezala harrizko gizonak ziren. Hau berez Areopago bat bilhakatu zen. Bainan belatz urdinak, laister aztoreak izaitetik Belatz Beltzak bilhakatu ziren, geroago eta gorago igon bait ziren Belatz Handi eta Zuriak izaitekoak ziren. Ganaben beren hitza galdu bait zuten, hitz galduaren bilha joan behar zutela ikasi zuten. Eta hau Ainê handiko ekhintza zen, batera garaiko Psykhêa ta Garaldeko elhea. Hunela sorthu ziren Aineko Jaunak.

Eta Ur-hotza... Ur-duina bilhakatzen ari zen.

HITZAK:

ainigmatiko: enigmático // **akmê:** punto, filo // **aktinoboletu:** lanzar rayos, irradiar, estar iluminado por rayos // **andreia:** virilidad, bravura, miembro viril // **andrianta:** estatua // **antaugazatu:** alumbrar, iluminar, reflejar la luz // **antitypetu:** resistir, rechazar // **anthrôpino:** humano // **apokalymma:** revelación // **apokalypsi:** revelación // **atopo:** raro, extraño, absurdo, insensato, extravagante // **aulo:** aulo, flauta, caña // **autokhthono:** autóctono // **axiadun:** importante // **axiologo:** memorable, notable, estimable // **basileia:** reino // **basiliko:** real // **bômo:** altar // **dêmiurgêma:** creación, producción // **dêmiurgetu:** crear // **diaskedazatu:** divertirse, entretenerse // **diêgêsi:** narración, relato // **diêgetu:** narrar, relatar // **diermêneutu:** interpretar // **ekthlipsi:** secreción, emanación // **enthymetu:** pensar, meditar // **erykatu:** retener, detener, apartar, impedir // **erythro:** bermejo // **ephereutu:** inventar // **exêgêsi:** exégesis, explicación, interpretación // **glaphyro:** excavado // **glyphatu:** tallar // **gyro:** giro // **hiereusa:** sacerdotisa // **hiero:** santo, sacro // **hieron,** templo, santuario // **hylê:** materia // **hyparkhetu:** existir // **hyperphysiko:** supranatural // **hypostasi:** substancia // **kallitekhnê:** bella arte // **kalyko:** cáliz // **kalykôsi:** capullo // **kalymma:** tapadera // **kalyptêr:** caja, estuche // **kanêphoria:** caneforía // **kaniskion:** cesta // **karpo:** fruto // **katarrhakta:** catarata // **khrono:** tiempo // **kyklo:** círculo, ciclo // **logo:** palabra, razón // **megalitho:** megalito // **mero:** parte, miembro // **mykêto:** seta, hongo // **ogdoada:** ogdoada // **ôidê:** oda, canción // **ôkeano:** acéano // **ophi:** culebra, serpiente // **opsei:** vista // **orkhêma:** danza // **parakaletu:** invitar // **parallelo:** paralelo // **peithatu:** convencer // **perkno:** águila negra o halcón negro // **phantasi:** fantasía // **polyploko:** complicado, embrollado, diestro // **poreia:** paseo // **pragma:** asunto: // **proskynetu:** adorar, postrarse // **prosokhê:** interés // **psykhê:** alma // **rhythmo:** ritmo // **skôria:** escoria, desecho // **spelaio:** cueva, gruta // **sphaira:** esfera // **stêlê:** columna // **syllabê:** sílaba // **tekhnê:** arte. técnica // **thaumasto:** admirable // **theiozko:** divino // **thêma:** tema // **topothêtu:** ubicar, colocar, emplazar // **typo:** tipo //

HAMALAUGARREN AFALDIARRA

Carlo Manzoni-rena
Pello Zabaletak euskaratua

Umore ederra zegoen gau hartan Signore Usuelo Basco Fredoren etxean. Gaua benetan lasaia zihoan. Signore Usuelori alde guztietatik umorea zerion eta bere andrea Dona Entusiasta distiratsu zegoen. Inguru guztiko afaririk bikainena zen huraxe. Entusiasta berak maniatua zuen. Plater berri bakoitza eiagora alai eta harrituz ongietorria zen, elikadura bakoitza duintasun osoz ohoretua. Emakumezkoek Europako haragi errerik onenaren zehaztasun teknikoak eskatu zituzten; gizonezkoek janariak destatzen zituzten, bakoitzaren gustoak beren aho-sabaietan harridura berri bat sortzen zielarik.

Dona Entusiasta berak zerbitzen zuen mahaian. Inori ez zion sukaldean sartzen uzten. Dena prest zeukan; prestaturiko janariak eraman eta zerbitu bakarrik egin behar ziren. Egun horretan etxeko morroiek libre zuten eta Dona Entusiastak sukaldaria etxean ez zegoela aprobetxatuz, bere sekretuzko platerak prestu zituen.

Afaldiarrak ere etorriak ziren, eta afaria hasi zen, jarraitu eta bukatu zen denen pozean.

Goitik beheraino dena garaipen bat izan zen, bere gailurra ordea Oilarra tertziplelo gainetan ekarri zuenean eta azkenik

tabakoerreak zerbitzatu zirenean. Ondoren, gozokiak, gazta, frutuak eta izozkia, zegoen.

Kaferakoan Entusiasta zurbil jarri zen bapatean. Afaldiarren iladari begiratu eta geroz eta zurbilago jartzen zen. Berriro begiratu zien eta, zuriago ezin jarri zitekeenez gero, konorterik gabe erori zen.

Signor Usuellok besotan hartu zuen, eta afaldiar guztiak etxeko-andre eroriaren ingurura bildu ziren.

Dona Entusiasta bere onera itzuli zenean, afaldiarrei mahaian esertzeko berriro eskatu zien, eta bere senarrari belarrira zezeldu zion:

—Konta itzazu!

Signor Usuello Basco Freddok bertan zeudenak isilpean zenbatu eta bere emazteari begiratu zion.

—Hamahiru gara, —esan zuen—. Ezkerretik eskuinera eta eskuinetik ezkerrera zenbatu ditut. Hamairu gara.

Dona Entusiastak baiezkoa egin zion.

—Hamairu, hain zuzen —esan zuen berak—. Hori txarra da. Gaizki egin dugu segituan ez zenbatzearekin, orduan sahiestu zitekeen.

—Nola baina— —galdetu zion senarrak—. Ezin bidal genezakeen gure adiskideetako inor.

—Baina bai hamalaugarren afaldiar bat gonbidatu —esan zuen Dona Entusiastak—, orain okerra egina dago.

—Ba, kosta ahala kosta, zuzendu behar dugu —esan zuen Signor Usuellok—, nire ustez, mahaian ez lukeela inork hamairugarren izan nahi...

—Baina nola zuzendu okerra, afalduta gaudela —erantzun zion Dona Entusiastak—. Nork daki zelako zorigaitza etorriko zaigun etxera!

Usuello jauna zutitu egin zen.

—Jaun-andreok —esan zuen—, tamalez oraintxe konturatu naiz hamairu garela.

Marmario bat altxatu zen gonbidatuen artean. Corinna Cartonaggi nigarrez hasi zen. Gismondo Asciugamano ile zuri mototx bat atera eta mahai azpira bota zuen.

—Gutariko batek alde egin behar du —hotsegin zuen Domenico Frosesik eta zalantzaz beterik zutitu zen.

—Beranduegi da —esan zuen Usuello Basco Freddo jaunak— afalduta gaude degoeneko.

Baldo Moribondo kontea altxatu zen orduan eta esku-keinu batez isiltzeko eskatu ziren. Denak isildu ziren.

—Irtenbide bat dago —esan zuen—. Mahaia jasoko dugu, berriro jantziko eta berriro afalduko dugu. Baina hori, noski, aurretik hamalaugarren afaldiar bat aurkitu ondoren.

Benetako poz garraisiak sortu zituzten hitz hauek. Dona Entusiastari, lasaituaren lasaituz, begiak malkoz bete zitzaizkion. Altxatu eta sukaldera lerratu zen.

—Hori segituan egiten da —hotsegin zuen, jantokira berriro azalduz—, pila bat geratu zaigu sobratan. Ekin, mutilok! Sukaldean berriro maniatuko ditut, zuek lagundu garbitzen eta mahaia jartzen.

Denak ekin zioten sutsuki lanari.

Usuello jauna telefonora azkartu zen eta Telefono-liburuko orriak pasatzen hasi zen. Handik hamar minututara erabat zuri eta jota itzuli zen.

—Ordu honetan denak afalduta daude —esan zuen eta lurjota eskuak elkartuta buruaren gainetik jaso zituen. Gonbidatuak zur eta lur geratu ziren.

—Norbait bilatu behar dugu —esan zuen Baldo Moribondo konteak—, norbait, edozein. Hamar minutu barru, hamalaugarren gonbidatua mahai honetan eserita edukiko dugu. Hitzematen dizuet, neuk inguratuko dudala.

Baldo Moribondo kontea esegitegira joan, bere berokia hartu eta kalera abiatu zen.

Hamar minutu geroago itzuli zen. Gizon batekin. Berrogeitamartsu urteko bat, jantzi ilun elegante bat zuena. Men egin zuen eta azkenik arnas hartzen hasi ziren gonbidatuak agurtu zituen.

—Alticcio Rovinastri doktorea —aurkeztu zien Baldo Moribondo konteak. Alticcio Rovinastri doktoreak denei irribar egin zien eta horrekin batera umorea berpiztu zen etxean. Denak mahairatu ziren berriro, eta sukaldetik, pozez gainezka, Dona Entusiasta etorri zen Sopa lapikoaz.

Alticcio Rovinastri doktoreak begiratu egin zion.

Orduan alfonbran estrapozu egin eta eskotetik barna zopa guztia ixuri zitzaion andreari.

—Ez dio inportik —esan zuen irribarrez—. Kontua da hamalau garela eta ez hamahiru. Ezerk ez du etxe honetako umorea hondatu behar. Orain ziur gaude, hemen gaudenetako inori ez zaiola kalterik sortuko. Eskerrak Alticcio Rovinastri doktoreari, gurekin jan nahi izan duelako.

Denak txaloka egin zioten Rovinastri doktoreari, eta Rovinastri doktoreak irribarre egin zuen.

—Ordu honetan, benetan, oraindik afaldu gabe zaude? —galdegin zion bere eskuinetan eserita zegoen Corinna Cartonaggik.

—Afaldu gabe nago, bai —erantzun zion Alticcio Rovinastri doktoreak—. Benetan gaur gauerako gonbido pila bat neukan. Lehendabizi Arturo Brescia Periferia kontearen deia onartua neukan. Baina mahaian esertzerakoan, konturatu gara hamahiru ginela. Gonbidatu guztiak niri begira jarri zaizkit. Orduan, altxatu agur esan eta joan egin naiz. Bettino Rivadestra industriagizonari deitu diot orduan, gonbidatu egin bait nau. Oso poztu da nire deiarekin eta segituan joateko esan dit. Baina mahaian esertzerakoan konturatu gara, hamahiru ginela. Denak niri begira hasi dira, eta nik aldegin behar izan dut. Berandu egin zait, baina halere Spesso Seduti Markesei dei-

tzen ausartu naiz. Esan didate, ahalegin guztiak egin dituztela nire bila, beren deia onar nezan, are gehiago, azken momentuan konturatu zirelarik hamahiru zirela. Ahalik eta azkarren joan behar nuela, janaria mahaian zegoela-eta. Segituan joan naiz hara. Sartu naizenean. ongiezik jarri berri zen gonbidatu bat ateratzen ari ziren. Beraz, ni izango nintzen hamairugarrena. Denak begira jarri zaizkit itun, eta nik aldegin dut.

—Baina zergatik izan behar zenuen zuk beti aldegin behar zuena? —jakin nahi izan zuen Domenico Frosesík.

Alticcio Rovinastrik irribarre egin zuen.

—Ikusi duzue nola etxekoandreak bere zopa paparrean behera ixuri duen?

—Bai, —esan zuen Domenico Frosesìk.

—Zoritxar-ekarle handi bat naiz —esan zuen Alticcio Rovinastri doktoreak.

—Bai ongi! —hotsegin zuen Dona Entusiastak—. Neure bizitzan bat ikusi gabe nengoen. Nola egiten duzu zuk?

Alticcio Rovinastrik bizkarrak mugitu zituen.

—Ez dakit neuk ere —esan zuen—. Nik nahi gabe gertatzen da. Aldegin dezadan nahi baduzue, ez dizuet eragozpenik batere jarriko. Badakit ez dela oso gozoa zoritxar-ekarle bat mahaian edukitzea.

Denek protesta egin zioten.

—Inola ere ez —esan zuen Usuello Basco Freddok—. Zuk aldeginez gero, hamairu geratzen gara, eta nor daki zer gertatuko ote zaigun orduan.

—Milesker —esan zuen Alticcio Rovinastri doktoreak—, hala nahi baduzue, bertan geldituko naiz.

Janari guztiak, denen umorearen artean, ekarriak izan ziren. Afaldiar guziek apetitoz jan zituzten eta etorberriarengandik jakin nahi zuten ea zeintzu kalte sortu zituen bera bertan egon zelako bakarrik. Alticcio Rovinastri doktoreak gogo onez kontatu zizkien.

—Ni ez naiz superstiziosoa —esan zuen Rubaldo Bloccasterzok—. Egia esan, hamairu izanak ezer inporta ez zion bakarra, neu nintzen. Eta zoritxar-ekarleak hartan sinesten duenarentzat bakarrik bizi dira.

Alticcio Rovinastri doktoreak irribarre egin eta argiei begiratu zien.

Une bereran askatu zen sabaitik eta zarata handiz mahaiaren gainera erori zen.

Denak zutitu era hotsegiten hasi ziren: «Harrigarria! Ezin sinetsizkoa!

—Bravo! Nola egin duzu? —galdetu zion Dona Entusiastak.

—Barkatu —esan zuen Alticcio Rovinastri doktoreak lotsaturik—, joateko esan nahi badidazu...

—Ezta pentsatu ere —hotsegin zuen Usuello Basco Freddokzu joaten bazara, hamahiru gara berriro!

—Ez zaitez tontoa izan, orain hemendik aldegiteko! —esan zion Corinna Cartonaggi andereñoak—, orain, azkenik irtenbidea asmatu dugunean!

Telefonoak jo zuen. Usuello jauna pasilora atera zen hartzera.

—Telefonoan behar zaituzte —esan zuen jantokiko atean zutik eta Domenico Forsesí-ri keinu bat egin zion.

Domenico Frosesík, itzuli zenean, aurpegia erabat odolik gabe zekarren .

—Erabat porrot egin dut —esan zuen—. Nire enpresaren porrotaren berri eman didate puntuan.

—Bai sentitzen dudala benetan —esan zuen Alticcio Rovinastri doktoreak eta zutitu egin zen—. Ni banoa.

—Kontuz ibili, neri, zauden lekutik mugitzen bazara! —hotsegin zion Baldo Moribondo konteak—. Gertatu dena, gertatu da. Zuk aldeginda ere, Frosesí jauna behea jota geratuko da, eta gainera horrela hamahiru geratuko ginateke.

Alticcio Rovinastri eseri egin zen berriro eta gaua beste munduko gertakizun apartekorik gabe joan zen, alde batera uzten badira telefonoz gonbidatuei aldian-aldian etorri zitzaizkien albisteak: Rubaldo Bloccasterzoren linea guztietako autobus guztiak bazterra jo zutela; Baldo Moribundo kontearen lur sail guztiak urak eraman zituela; Corinna Cartonaggi andereñoaren etxeko bainerako sutegia lehertu egin zela; Gismondo Asciugamano armadorearen lau untziak itsasondora joan zirela. Eta beste txikikeria batzuk, hemen zertan aipatu beharrik ez daudenak.

Bitartean, ordubiak ziren. Puska bat bazen afaria bukatua zela, eta gonbidatuak aldegiten hasiak ziren. Norbaitek hanka okertu zuen Alticcio Rovinastriren besotik zihoala, baina Usuello Basco Freddo jaunak azkeneraino adeitsu jokatu nahi zuen.

Garajea ireki zuen eta kotxea atarira eraman zuen.

—Etxera eramango zaitut —esan zion Alticcio Rovinastri doktoreari eta Alticcio Rovinastri kotxera sartu zen.

Poliki abiatu zen kotxea. Kurba baino lehen Usuello Basco Freddo jaunak atzera begiratu zuen ispiluan.

Bere villako leiho guxtietatik su garrak ari ziren. Itsumustu batetan indartu ziren inolaz ere garrak.

Ustekabea izan zen? Izua? Auskalo. Kotxea eseka hasi zen, irauli zen eta horma baten kontra jo zuen indar guztiz.

Rovinastri doktoreak, atea ireki eta atera zen.

Orduan hondakinetara makurtu zen. Burdinen artetik ahots ahul bat irten zen.

—Nork daki zer gertatuko zen, mahaian hamahiru geratu izan bagina —esan zuen Usuello Basco Freddo jaunak—. Edozein modutan, eskerrik asko...

Eta Usuello Basco Freddok bere azken arnasa eman zuen.

DADO IRATXOA ETA NIRE HATZAK

Seve Calleja
eta
Xabier Monasterio

(1985eko Lizardi Sarian lehena)

DADO IRATXOA

Amak ekarri zidan egunetik, nire gela magiaz bete zuen Dadok. Nire ama Kasinoa garbitzen zuen andrea zen. Bezeroak joandakoan, mahaien artetik erratza pasa behar zuen eta aulkiak beren ohizko tokian jarri.

Erratza pasatzean, amak kolperen bat jo zion, nonbait, etxera heldu zenean, ertz bat maztailduta baitzekarren. Niri hori ez zitzaidan batere axola, hala ere.

Ongi baino hobeki zekien nire amak zenbateraino zitzaidan atsegin errege, erregina eta peoiekin jolastea. Horregatik, sarri askotan gelan geratzen zen, lerroka antolatzen nituen eta alde batetik bestera mugierazten nituen bitartean. Nik primeran ulertzen nuen errege eta peoien mintzaira. Eta haiekin hitz egin ezezik, aginduak ere ematen nizkien, beraiek txintik atera gabe betetzen zituztenak.

Amak Dado ekarri zidanean, berehala ohartu nintzen izaki harrigarri eta berezi samarra zela. Hortaz, poz handia hartu nuen amak eman zidanean.

Goiz batean izan zen, gosaria bukatu berria nuelarik. Une hartan eztabaida bizian ari nintzen Ezpata Txankarekin.

Txanka harroputz hori bere errege-erreginentzat jauregi bat eraiki nezan eskatzen ari zitzaidan. Luzaroan ihardun zuen bereak zirela errege-erreginarik indartsuenak, harmaturik zeudela eta holako txotxolakeriak esanez. Zer axola ote zidan horrek niri? Ezin nuen holako bereizkeriarik onartu, niretzat errege guztiak berdinak baitziren. Eta, bestaldetik ez nengoen prest errege bakoitzari jauregi bana egiteko, karta jokoaren lauak eta xakearen biak baturik, sei jauregi izango baitziren. Ohea eraikuntzaz beteko nukeen! Eta, ziurrenez, geroztik beren erresumak murrailatzea eta soldadu zaintzaileak egitea eskatuko zidaten. Ezta pentsatu ere! Ezetz erantzun nion, beraz, ez nengoela prest egunak eta egunak artaziez murrailak ebakitzen eta jauregietan kartoizko almenak ipintzen igarotzeko. Nahita ere, ezingo nukeela egin, nire beso geldia zela eta. Azken aitzakia Martak ez zidala hainbeste lanik egiten utziko izan zen.

Marta zaintzen ninduen erizaina zen, ama kanpoan zegoenean.

Eta une hartan bertan amak Dado eman zidan. Usain txarra zeriola iritsi zen, tabako usaina, nik uste, zigarrokin artean ibili izan bailitzan. Hain horiskatuak zituen aurpegi guztiak, ezen hepatitisak jota zegoela baitzirudien. Eta kontu horietaz nik beste inork baino gehiago nekien.

Izan ere, izararen ertzaz igurtzi nuen eta gero laztandu egin nuen, txakurkume bat laztantzen den bezala. Luzez egon nintzaion begira.

Halako batean berak ere begiratzen zidala begitandu zitzaidan.

Hasieran nik ez nuen sinesten bost puntutako aurpegi zapal hark irribarre egin ziezadakeenik. Ez nekien oraindio Da-

do iratxo antzeko bat zenik, itzulipurdiak ematen zituena eta sekretuak gordetzen zekiena.

Ordurarte peoi kaskarinekin eta errege harroskoekin tratatzen ohituta nengoen. Txonkak izaten ziren bihurrienak, ordea. Beren erregeei zieten leialtasunagatik edo nik al dakit zergatik sarri oldartzen zitzaizkidan, haiek defenditu nahian eta aurrerantzean ez zidatela jaramonik txikiena ere egingo mehatxatuz. Nik behin eta berriz errepikatzen nien gaiztakeriak egiten jarraitzen bazuten, kutxatilan sartuko nituela betiko eta sekulako. Zaldiak, aldiz, guztiz jator, dotore eta moldagarriak ziren.

Goi mailako jendearekin tratatzen ohiturik nengoenez. Dadorekiko adiskidantza aise lortuko nuela iruditu zitzaidan.

Laster ohartu nintzen berarekin mintzatzeko aurrez aurre eta gainetik so egin behar niola. Lehenbiziko egunetan adi-adi egon behar izaten nuen hark zer mugimendu egingo. Eta mugimenduok kontaezinak zirenez gero, akordio batera iritsi ginen elkar ulertzeko: berak bost puntutako aurpegiaz begiratuko zidan eta nik berari daukadan bakarraz, noski baino noskiago. Iratxoa zenez, ezpainetan irakurtzen jakingo zuela pentsatu nuen.

Gero betileak eta bekainak marraztu nizkion eta baita aho zabal barregarri bat ere. Eta. erregeentzako gazteluak egiteari uko egin nion arren, Dadori kartulinazko etxetxo bat egitea erabaki nuen, lorategia eta guzti. Hantxe biziko zen, nirekin ez zegoenean.

Bai, aitortu beharra daukat lehenengo egunetik beretik nire kuttuna izan zela.

Honek Dadorenganako mesfidantza piztu zuen gainontzekoengan. Dado inguruetatik baldin bazebilen, txutxumutxuka hitz egiten zuten euren artean eta keinuka begiratzen zioten elkarri. Ezin zuten beren inbidia ezkutatu.

Laster jabetu zen Dado egoera hotz hartaz eta lehenbailehen konpontzen saiatu zen. Iratxoa zen eta bazekien hoztasun hark

kalte egingo ziola. (Ezin esan zitekeen honenbesterik alfil morokil batez, txanka luzaska batez edo peoi berekoi batez. Bistan zen Dado gainerako guztiak baino askoz ere azkarragoa zela). Gainera, Urre Zaldia bera baino dotoreagoa zen. Eta iratxoen artean iratxoena. Hau guztiau erakusteko itzulipurdika eta erreginen aurrean gurkerak egiten hasi zen. Nire eritzian, denen oneriztea irabazi nahian zebilen. Nik neuk bufoi itxura hartu nion. Horregatik, txilinadun txanotxo bat egin nion eta aurpegia merkrominaz pintatu nion.

Zaldiak izan ziren hurbildu zitzaizkion lehenengoak. Zomorro arraro bat bailitzan hasi zitzaizkion usnan. Zaldien ondotik peoiak hurreratu zitzaizkion, buru makur eta eskuak sakeletan.

Halako batean, eta oraindik ez jakin nola, sekulako burutazio ona eduki nun denak aho zabalik utzi zituena.

—Dado, baloia! —oihukatu nion masailak puztuz, hobeto uler zezan.

Ni, orduan, partidua antolatzen hasi nintzen. Lau dorreak atetzat jarri nituen eta Basto Erregea arbitro izendatu nuen. Ondoren futbol taldeak osatu nituen. Zelaiaren alde batean zuriak zeuden eta beste aldean beltzak, elkarri golak sartzeko prest.

Baina alfilak ez ziren ikusle soilak izatearekin konformatzen eta partidua hasi bezain laster, zelairatu egin ziren. Nahaspila ederra sortu zuten jokalarien artean! Ez zituzten futbolaren arauak ezagutzen eta berdin zitzaien baloia eskuaz nahiz oinaz jotzea edo alde baterantz nahiz besterantz botatzea. Jokoa geldierazi nuen eta zelaitik irten behar zutela adierazi nien. Sutan jarri ziren nire aurka, han egoteko beste edozeinek bezainbeste eskubide zeukatela esanez. Alfilentzat saskibaloia askoz kirol egokiagoa zela, egunen batean saskibaloia partidu bat antolatuko nuela, partidu horretan beraiek bakarrik jokatuko zutela eta holako beste mila aitzaki-maitzaki erabili nituen futbolzelaitik irtenerazteko, baina denak alferrik: ez zuten inolaz ere amorerik ematen. Azkenean ordezko jokalarien aulkian geratzea proposatu nien, inor zauritzen bazen edo, ha-

ren ordez irteteko. Zorionez, onartu egin zuten. Ez nuen istilu gehiago nahi eta, badaezpada ere, tribuna antzeko bat prestatu nuen errege, zaldun eta txankentzat, protestaka hasiko zitzaizkidan beldurrez. Partiduak aurrera segitu zuen.

Egia esan behar bada, jokoa ez zen oso ikusgarria. Ez zeuden futbolean jokatzen ohituak eta txitean-pitean faltak egiten zituzten eta baloia zelaitik kanpora bidaltzen zuten. Hala eta guztiz ere, ikusleak pozarren zeuden eta biziki txalotzen zituzten jokaldi guztiak. Ni neu ere txunditurik nengoen ohe gaina betetzen zuen ikuskizun haren aurrean.

Partiduak hogei minutu iraun zituen. Hogeitabakarren minutuan Marta heldu zen. Begira gelditu zen eta haserre aurpegia ipini zuen. Ez zuen ezer esan, baina «Zelako nahaste-borrastea» pentsatu zuen. Seguru nago horixe pentsatu zuela. Gero bere ohizko «Tira» batez besoa biluzteko agindu zidan.

—Jo! Itxaron apur bat! —esan nion.

Eta erlojuari begiratu zion, deus esan gabe.

Marta puntuala eta jasangaitza zen.

Ondo ezagutzen zutenak berehala desagertu ziren, badaezpada ere. Dadok lehen aldiz ikusten zuen Marta eta horregatik, burukoaren azpian ezkutatu nuen. Dakizuenez, iratxoa zen eta ikaratzen baldin bazen, hegoak atera eta hegaz joan zitekeen agian.

IRATXOA ETA NIRE HATZAK

Egun batzu geroago eskuetan aurkitu nuen Dadorekin mintzatzeko era egokia. Aurrerantzean nik ez nion oihurik egin beharko eta berak ez zuen nire aurrean itzulipurdi gehiago eman beharko.

Esan nahi dudana da ordurarte nik «Zatoz hona!», «Hasi bueltaka!» eta holako txotxolokeriak besterik ez nizkiola agintzen. Eta bera nire aginduak betetzeaz konformatzen zen, primeran ulertzen zidala erakustearren.

Baina era horretan ezin genuen zentzuzko elkarrizketarik eduki, nahiz eta batak bestearen pentsamenduak irakurtzeko gai ginen.

Iratxoen artean iratxoena izan arren, ordurarte Dado ez zen niretzat txino bat, aleman bat edo ume jaioberri bat baino gehiago, ezin bainizkion neure sekretuak kontatu.

Horregatik, bere mailara jaistea eta bere konfidantza irabazten saiatzea erabaki nuen.

Izan ere, nire erpuruari aurpegi bat marraztu nion eta eskuineko eskuan Dadok bere aurpegietan zituenak bezalako puntutxoak pintatu nituen.

«Honekin eta asmatu dudan Dadoera-Euskara / Euskara-Dadoera hiztegiarekin nahikoa izango dugu elkar ulertzeko», pentsatu nuen.

Egin nuen lehendabiziko gauza neure burua aurkeztea izan zen, horretarako behar handirik ez bazegoen ere.

—Hauxe naiz ni.

—Eta hauek nire laguntzaileak dira.

Aurkezpenak egiteko hatzamar bakoitza piura desberdin batez janztea bururatu zitzaidan.

Dado gizajoa guztiz harrituta geratu zen halako tropela ikustean O.N.U.-ren biltzarre batean, U.N.I.C.E.F.-en jaialdi batean

edo Lantzeko Ihauterietan zegoela pentsatu zuen, antza, zeren ez zen jauzika eta itzulipurdika hasi, pozik zegoenean ohi zuen bezala. Oso korteski bere sei aurpegiak banan-banan makurtu zituen nire hatzamarren aurrean, ministroek eta presidenteek Atzerrira joaten direnean egin ohi duten antzera.

Aurkezpenak luze joan ziren.

Hatzamarrekin berba egin ahal zuela konturatu bezain laster, zera esan zien:

—Bazen garaia zuek niri zenbait azalpen emateko. Lehenik, nola deitzen den mutikoa eta guzti hori; bigarrenik, zergatik ez den sekulan ere ohetik jaikitzen eta azkenik, zertarako diren ohearen ondoan daukan magnetofoi antzeko horren botoiak eta kableak.

—Astiroago, txo! —moztu nion nik—. Jakizu hatzamarrak nireak direla eta haiei hitz egiten diezunean, neuri hitz egiten didazula. Hatzamarrak interpretariak edo, nahiago baduzu, itzultzaileak besterik ez dira. Beraz, galdetu nahi duzuna neuri galdetu egin behar didazu. Ulertzen?

Goraki eta ahoaz esan nion. Hain haserre nengoen, ezen une batez pentsatu nuen beharbada ez zidala gehiago hitz egingo. Gainera, orain bazuen norekin mintzatu.

Eta bere begiradak Marta erizainaren begirada gogorazi zidan. Zerbait ulertzen ez zuenean, Martak kokola aurpegia jartzen zuen «Mutiko hau gaizki dabil ganbaratik» esanez bezala. Alabaina, Dadok ez zuen inolako komentariorik egin.

Lasaixeago ikusi ninduenean, neure burua berriro aurkezteko eskatu zidan.

Hasieran ez zitzaidan batere erraza gertatu itzultzaileen bitartez mintzatzea. Txitean-pitean hiztegira jo behar izaten nuen eta esaldiak antolatzerakoan egindako okerrak zuzendu behar izaten nituen.

—G-u-i-l-l-e-r-m-o-d-e-i-t-z-e-n-n-a-i-z (Uf, bai zaila!) e-t-o (hemen huts egin nuen) t-u-r-t-e-d-a-u-z-k-a-t.

(Oraingo honetan ez nuen hutsik egin. Nire isilpeko kodigoan «9» zenbakia eta «t» letra berdin idazten ziren eta horregatik, «9 urte» neuzkala esan beharrean. «t urte» neuzkala esan nuen. Baina xehetasun hauek kontatzeak luze joko luke eta Dadoren istorioa geroko utzi beharko nuke. Gainera, kodigoaren gorabehera guztiak azalduko banitu, jadanik ez litzateke isilpekoa izango. Aurrerantzean dena zuzen-zuzen itzuliko dut, astunegia gerta ez dadin).

Ordu asko eman nuen hiztegia idazten eta ia koaderno osoa bete nuen. Sobran gelditu ziren orrietan esaera mordoxka izkiriatu nuen. Horrela denbora aurreratzen nuen eta, bestaldetik, ez zitzaidan hizpidea mozten.

Okerrena izan zen orriak laster asko bukatu zitzaizkidala. Bestela aspertu arte segituko nukeen «Goazen», «Afaltzeko garaia da», «Egunon», «Egon geldi», «Gaur eguzkia atera da» eta antzeko esaerak idazten. Nire amak eta Martak ere horrelako esaera mordoa erabiltzen zuten mintzatzerakoan eta primeran ulertzen zitzaien. Nik hitz egiteko modu horri Euskara Turistikoa deitzen diot, oso praktikoa baita, eta Euskaltegira astean bi orduz joaten diren euskaldunberrien euskara gogorazten dit. Baina adiskide batekin era horretan mintzatzeak guztiz aspergarria izan behar du, noski. Niri ez zidan balio.

Hiztegiarena ideia ona izan zela uste dut.

Dadok eskatuta, txikitako oroitzapenak kontatzen hasi behar izan nuen .Egia esan, ez neukan zer kontaturik asko. Non jaio nintzen, nortzu ziren nire gurasoak, zenbat lagun eduki nuen normala nintzenean eta nor ote zen harako Marta hura.

Berehala ohartu nintzen, iratxo bat izan arren, nahiko ongi konprenitzen zituela gizakien gauzak.

Lehenbiziko egunetan geldiro-geldiro hitz egiten nion. Bururatzen zitzaizkidan hitzik laburrenak aukeratzen nituen eta unean-unean «Ulertzen al duzu?» galdegiten nion, Dado kokoloa bailitzan. Baina ez, ez zen kokoloa, haintzat hartzen ninduen eta dena ulertzen zidan benetazko iratxoa baizik.

Ondo gogoan daukat zer nolako ahaleginak egin behar izan nituen ohe ondoko tramunkulu hark zertarako balio zuen azaltzeko.

Behin eta berriz errepikatu nion, baina alferrik: iratxo kankailu hark ez zuen inola ere ulertzen zer arraio esan nahi ote zuen «dialisis» hitz bitxiak.

Amari egongelako hiztegi lodia ekartzeko eskatu nion. Orduan Dado gizajoak irakurtzen ez zekiela konturatu nintzen. Beraz, goraki irakurri behar izan nion:

«DIALISIS»: Iz. Elkarri itsatsirik urtu diren koloideen eta kristaloideen banapena.

Egia esan, hiztegiak zekarren azalpenak ez zeukan batere zerikusirik amak eta sendagileak eman zidatenarekin.

«Hau idatzi duenak — pentsatu nuen nirekiko —dado batek baino gutxiago daki».

Eta hiztegia utzita, neure aldetik azaltzen saiatu nintzen. Oraingoan adibideen bitartez egingo nuen.

—Auto bat zer den ba al dakizu?

—Bai — erantzun zidan.

—Eta nola dabilen?

—Halan-holan — esan zuen.

Niri gauza bera gertatzen zitzaidan. Nik ere halan-holan nekien. Banekien, hori bai, kotxeek giltzak, pedaleak eta halakoak edukitzen dituztela. Edonola ere, kotxeaz hitz egiten jarraitu behar nuen, sendagileak amari eta bioi hitz egin zigun bezala. Oroitzen naiz egun hartan amak negar egin zuela. Nik ez nuen negarrik egin. Gutxien gustatzen zitzaidana, auto bat banintz bezala, tailer batean sartuko nindutela eta piezak aldatuko zizkidatela pentsatzea zen. Kotxeei hori ez zaie axola. Jabeei bai, ordea. Amari antzeko zerbait gertatu zitzaion, nik uste, sendagileak ni matxuratuta nengoela adierazi zionean...

Dadok ondo ulertu zuen zer zen matxura bat.

Gero karburagailu bat zer zen ba ote zekien galdetu nion.

—Halan-holan — esan zuen.

—Eta «delko» bat?

Oraingo honetan ez nion erantzuteko betarik eman, neronek ere ez bainekien zer zen eta amaren hiztegian ere ez baitzetorren. Medikuaren ahotik entzun nuen lehen aldiz eta Martari esanahia galdetu nionean, «Ez ezazu txorakeriarik galdegin!» erantzun zidan.

Dirudienez, «delko» delakoa tresna korapilatsu samarra da. Oraindik ere behin baino sarriago itauntzen diot neure buruari zergatik sartu nuen hain hitz ezezaguna nire isilpeko kodigoan.

Baina Dadorekin ari nintzen:

— Niri antzeko zerbait gertatzen zait giltzurrunetan. Astiroegi doazela, alegia.

—Nik dakidalarik, giltzurrunak geldi daude eta ez dute ez astiroegi ez azkarregi joan behar.

— Ez dudala txiza egiten esan nahi dut. Ulertzen al duzu orain?

—Aizu! Ez da holan jartzekoa! Gogorik ez baduzu, ez dizut beste galderarik egingo eta kitto!

Egia santua esan nion, baina berriro haserre nengoela pentsatu zuen Dado gizajoak. Ez da harritzekoa. Buru koadratua zeukan eta humorea falta zitzaion. Dialisia zer zen ulertuko bazidan, hitz egokiagoak aukeratu behar nituen.

Dadori makina ikustean gertatzen zitzaiona bisitan zetorren jende gehienari ere gertatzen zitzaion. Inortxok ere ez zituen nire azalpenak ulertzen eta txoratu egiten ninduten galdezka.

Martak dialisis saioen bitartean gelan bisitarik onartzen ez zuenez gero, ez zuten inoiz martxan ikusten. Horregatik,

batzuk ekipo estereofoniko bat zela uste zuten eta beste batzuk, aldiz, ea konputagailu erraldoi bat ote zen galdegiten zidaten.

Marta kurtsi samarra zen eta metafora bat ikasterazi zidan makinari buruz zerbait galdetzen zidatenei erantzuteko. Hauxe esan behar nien: «Bizitzarekin harremanetan jartzen nauen irrati bat da».

Esan beharrik ere ez dago niri metafora hori zozokeria galanta iruditzen zitzaidala eta ez nuen behin ere erabili. Nire ustez, bakoitzak gogoak ematen diona pentsatzea da onena.

Makinari Maria Dolores deitzen nion. Ezin nezakeen izen egokiagorik bila.

Baina hau ezin nion Dadori azaldu. Hitzez, hatzamarrez eta behatzez ahalegin handiak eginda ere, ez zuen inola ere konprenituko zer lotura egon zitekeen tramankulua eta izenaren artean.

DADOREN DUDAK

Marta erizaina goizero etortzen zen makina piztera. Gelan sartzeaz batera, leihoa zabal-zabal egiten zuen. Nahita egiten zuen, goizeko argitasunak bapatean iratzar nintzan.

Honela esaten zidan beti: «Ea, ba! Esna zaitez, loti handi hori!». Nik orduan banekien zortzi t'erdiak zirela.

Eta hau gutxi izanik, gero eskuak maindireen artean sartu eta oinetan kili-kiliak egiten hasten zitzaidan. Ondo zekien berak oso kilibera nintzela.

Argi zegoen hau denau ni izorratzearren egiten zuela. Eta amak oraindik atsegina izan behar nuela Martarekin!

Ahapeka «Marta Kanoilaria» deitzen nion. Marta lanbidez erratu zelako uste osoa neukan. Askoz zoriontsuagoa izango zatekeen Beiruteko Gerran tanke baten barruan kanoikadak hara eta hona jaurtikitzen. Holaxe imajinatzen nuen nik erdi ametsetan. Gainera, sarjentu aurpegia zeukan, nire aitak gauza horiek esatea itsusia dela esan arren.

Maria Dolores piztu ondoren, oraino lo nengoela ikusten baldin bazuen, erlojuari begiratu eta ustekabean eraso egiten zidan. Lelo berbera errepikatzen zidan goizero: «Gaur ez dizu minik egingo. Ikusiko duzu!».

Eta minik ez egin arren, ni oihuka eta intzirika hasten nintzen, berari arrazoia ez ematearren.

—Itxaron, Marta. Dadok zein ausarta naizen ikustea nahi nuke.

Dadok nirekin lo egiten zuen, pijamaren sakelan ezkutaturik. Gero maindirearen gainean ezartzen nuen eta Martari ez zitzaion axola. Eta nire hatz zirrimarratuak ikustean, ea nongo ihauteriak ote ziren galdegite zidan. Tuntuna halakoa!

Hamaikatxo aldiz adierazi nion nire itzultzaileak, nire bitartekoak, nire ordezkariak zirela... Gero eta izen inozoagoak

bururatzen zitzaizkidan nire hatzamarrak izendatzeko. Martari bost axola; ez zidan ulertzen.

Berak nahi zuen gauza bakarra ni ustekabean harrapatzea zen, orratza zainean bapatean sartzeko.

—Ai! —kexatzen nintzen ni.

Zorionez, Dado orratzari begira-begira egoten zen eta ez zen nire kexuez konturatzen.

Eta egunak aurrera zihoazen. Martak eta Maria Doloresek —makinak— nire onetatik ateratzen ninduten, baina nik plantak egiten nituen Dadoren aurrean.

—Esan al diozu zure laguntxoari laster eskolara joan ahalko zarela?

—Galdetu zidan behin amak.

—Oraindik ez dut betarik izan. Gaur bertan esango diot. Hurbilduko al didazu fitxen kutxatila, ama?

—Ez. Lehenbizi gosaria hartu behar duzu.

Ongi pentsaturik, hobe zen bakarrik egon arte itxarotea.

Prentsaurreko bat emango nuen eta berria denei batera emango nien, horretarako arratsalde osoa behar izan arren.

Baina, ezer baino lehen, Dadorekin aurrez aurre hitz egin behar nuen. Zerbait proposatu behar nion.

Baldin eta, berak zioenez, edozein animalia pintadunez itxuraldatzeko gai bazen, marigorringo batek bezala hegaz egiteko eta arrubio baten antzera ohe gainetik narraz ibiltzeko eskatuko nion eta sekulako sustoa emango genien txankei. Ederki pasatuko genuen. Horren trukez, berarentzat ezkutuan eginak neuzkan eskulanak emango nizkion. Aspaldi samarretik neuzkan opari hauek, baina hainbeste hitz eta mitzekin, zeharo ahaztuta nengoen. Botoiz eta poxpolo kaxa batez egindako kotxe txiki bat, zotzez egindako zabu bat eta paperezko untzi bat ziren.

Eta gainerakoak ez ernegatzearren, goiz hartan bertan zirko ekitaldi bat izango zen gelan.

Lehenengo eta behin, jokalekua mugatu beharra neukan. Horretarako domino fitxak erabili nituen eta haien inguruan ikusleak eserrerazi nituen, garaieraren arabera. Dado arduratuko zen gainerako guztiaz.

—Errege-erregina agurgarriok, zaldun eta zaldiok, peoi ar eta emeok, agur t'erdi! Bihotz-bihotzez ongi etorriak gure zirkora! —esan zuen Don Gustabok.

Aurkezlea nire ezkerreko erpurua zen, ikuskizunak dirauen bitartean Don Gustabo izena hartuko duena. «Don Gustabo» nire eskolako zuzendariaren izena zen, nahiz eta guk «Don Klin-klon» deitzen genion, apoen antzo, txikitxoa eta potoloa zelako eta mintzatzean, zipristinak botatzen zizkigulako. Eskuineko hatzei ere maisuen izenak jarri nizkien: txirkandari Don Esteban ipini nion Matematikazko maisuaren omenez. Don Esteban jantzi arrea eraman ohi zuen gizontxo erkin bat zen. Luzeena Leo izenaz bataiatu nuen, holaxe esaten baikenion Doña Leonorri, Hizkuntzako andereño pertxentari. Hatz erakuslea Don Mariano zen, izen bereko maisuaren itxura zeukalako. Betaurrekoak erabiltzen zituen, erdi burusoila zen eta bizar gorria zeukan.

—...Ongi etorriak, bada, San Nikolas zirkora...!

San Nikolas eskolaren izena zen, baina zirko batena ere izan zitekeen, bertan zirkoan bezain ondo pasatzen nuelako, eskolara joan ahal nintzen garaian.

Dakizuenez, zirko batean musikak eta argiak garrantzi handia daukate. Tamalez, une hartan ez neukan ez danborrik ez linternarik. Danborraren hotsaz eta gela erdi ilunpetan egonik, ikuskizunak asko irabaziko zukeen. Nolanahi ere, nire ikusleek ez zuten txikikeria hauetan erreparatzen.

—...Zuen aurrean zirko bateko jokalekuan inoiz den basapiztiarik ikaragarriena, Ikararen Aintziratik zuei erakusteko zuzen-zuzenean ekarria! — esan zuen Don Gustabok, hezitzailez mozorrotzen zen bitartean.

Orduan Dado arrubio bihurtu zen eta denak aho zabalik geratu ziren, dinosaurio bat zelakoan.

—Ooooo! —oihu egin zuten, arras liluraturik.

—Egin jauzi! — agintzen zion Don Gustabo erpuruak.

Kopa Erregina zorabiatzear zegoen, ikararen ikaraz.

Bigarren emanaldia «Akrobata Kamikazea» zen.

Dadok, guztiz kiribilduta, airetik irten behar zuen jokaleku erdian jaisteko.

Arrakasta erabatekoa izan zen. Ikusle guztiak zur eta lur gelditu ziren. Baina jokalekuaren erdian erori beharrean, makinan sartu zen. Kable eta botoien artean ikusmiratu nahi zuen. Banengoen ni gaiztakeriaren bat egingo zuela.

— Dado! Zatoz hona oraintxe bertan! —agindu nion oso haserre—. Argindarra oso arriskutsua da.

Dialisia bete-betean ari zen eta nik ez neukan jaikitzerik. Eta Martari deituz gero, neronek sartu nuela pentsatuko zuen eta errierta egingo zidan.

—Dado, oraintxe ez bazatoz, ez dizut sekula gehiago hitz egingo. Eta giltzapean sartuko zaitut betiko ¡Zeuk erabaki!

Ikusleei barkatzeko eskatu behar izan nien, noski. Zirko emanaldia bukatua zela esan nien eta gero kutxatilan gorde nituen.

Handik lasterrera Dado makina barrenetik irten zen eta jauzi eginez, neure besoan pausatu zen.

—Dena hondatu duzu, kirten alena ez bestena! Ez zaitut makinaren inguruan ikusi nahi! Ez da gurea eta puskatuko balitz, ospitalera itzuli beharko nuke. Ulertzen?

Mila barkamen eskatu zidan. Beharbada zakarregi egon nintzen berarekin. Gehiegitxo aztoratu nintzen agian, baina makina zeinen beharrezkoa zitzaidan argi eta garbi agertu behar nion. Gero nola funtzionatzen zuen ikusteko sartu zela esan

zidan eta karburagailuaz eta «delko» delakoaz kontatu niona ez zidala tutik ulertu.

—Zelako iratxoa zara orduan? Jakintsuagotzat zintudan. Baina, ikusten dudanez «Dado iratxoa» deitu ordez, «Dadotzar» deitu beharko dizut gaurdanik.

Izen xelebre hau Nafarroako ihauterietan azkenean errekara botatzen duten Zanpantzar izeneko mamutzar kankailuarekin zuen antzagatik bururatu zitzaidan, baina «Pinotxo» izena ere etor zekidakeen burura, berau ere erdi kokoloa zelako eta beti aldrebeskeriak egiten zebilelako.

Pinotxoren istorioa amak kontatu zidan, niretzat erositako ipuina berak irakurri ondoren. Nik ez nuen astirik izaten liburuak irakurtzeko.

Nire komentarioek nahiko minduta utzi zuten, nonbait, zeren segituan bizkarra eman eta haserre aurpegia ipini baitzidan, hau da, biko aurpegia, hau da, lepoko aurpegia.

Beraz, orain neronek eskatu behar nion barkamena. Gero berriz saiatu nintzen gauzak behar bezala azaltzen.

—Ba al dakizu zer dagoen gizakion gorputzean? —galdetu nion—. Hara. Gure gorputza odola deritzan likido gorri batez betea dago eta organo pilo bat dauka, odola alde batetik bestera mugierazten dutenak, zikintzen dutenak eta garbitzen dutenak. Nolabait esan, odola merkantzi tren bat bezalakotsua da — zer besterik esan niezaiokeen bestela? —. Zikina dagoenean, ez dabil ondo gorputzean zehar eta jendearen azala horiska bi hurtzen da. Bueno, more ere jar daiteke. Baina horiska, batez ere. Giltzurrunak odola garbitzeaz arduratzen dira eta greba egiten dutenean —ez dut uste Dadok «greba»-k zer esan nahi duen ulertu zuenik—, hau da, gelditu egiten direnean, honelako makina bat behar da. Bestela hil egiten zara. Ulertzen? Hiltzea mugitzeari zeharo uztea da...

Egia esanda, nik neuk ere ez nekien lar ondo zer zen hiltzea. Zerbait oso desatsegina izan behar zuen, nik uste. Norbait hiltzen denean, jendea arrenkuratsu ibiltzen da eta askok buruz beherakoa edukitzen dute. Horretaz ongi ohartu nintzen.

—Hiltzea gauza arras serioa da. Ulertzen al duzu orain?

—Halan-holan — erantzun zidan kordoka.

Kordoka hasten zenean, dudaren bat zeukalako seinalea izaten zen.

—Eta zu zerez zaude egina? Zer daukazu barruan?

—Ez dakit —erantzun zidan—. «Dadina» beharbada.

Lehenengotan dadina dadoen odola izan zitekeela pentsatu nuen, baina laster konprenitu nuen bere asmakeria bat besterik ez zela, egongelako hiztegi lodian ez zen agertzen eta.

Aitortu behar dut aspalditxotik Dado barnetik ezagutzeko irrikitzen nengoela. Behin baino gehiagotan sentitu nuen neure baitan maindireen artean ustekabean harrapatu eta bere aurpegiak atzazalez edo hortzez harraskatzeko gogo bizia, barruan zer zeukan ikusteagatik. Eta okerrago dena: inoiz edo behin neure indar guztiez lurraren kontra botatzea ere pentsatu nuen, ea mila puskatan zatitzen zen. Zorionez, ez nuen inoiz halako astakeriarik egin. Neukan lagun hoberena galtzeko beldur nintzen.

—Zer deritzazu batak bestea aztertzeari? —proposatu nion behin batez.

—Zer? —galdetu zidan.

—Ea zer iruditzen zaizun bata bestearen barruan sartzea zerez gauden eginak ikusteko.

—Ondo iruditzen zait — erantzun zuen.

Hala ere, ez bera eta ez ni ez geunden prest gure gorputza bestearena baino lehenago aztertzen uzteko eta zotz egin genuen.

Baina hona arazoa: zelako zozketa egin daiteke dado batekin?

Askotxo pentsatu ondoren, era honetara egitea erabaki genuen: berak zenbait itzulipurdi emango zuen airean eta nik eskua itxiko nuen. Lurrera erori baino lehenxeago, hatzamar

batzu luzatuko nituen eta gora begira geratzen zitzaion aurpegiaren puntuak eta nik luzatutako hatzamarrak berdinak baldin baziren, berak irabaziko zuen.

Eta berak irabazi zuen, noski.

Amorru handia eman zidan, baina bistan zen Dado iratxo bat zela eta marroak egiten ere ni baino askoz trebeagoa.

—Orain irentsi egin beharko zaitut —esan nion—. Eta nahi izanez gero, mastekatu ere egin ahal zintuzket.

—Ez nauzu izutzen. Mastekatzen banauzu, ezin jakingo duzu nolakoa naizen barrutik. Gainera, batak bestea aztertzeko ideia zeurea izan da.

Luzez aritu ginen nire barrenera nola sartuko zen hausnartzen. Nik baldintza bakarra jartzen nion: ez zedila supositorio bihur; ez ditut agoantatzen.

—Zergatik ez zara goxoki bat bilakatzen? Oso gustokoak ditut pintadun goxokiak!

Pentsati geratu zen.

—Badakit! —esan zidan—. Itxi begiak eta zabaldu ahoa. Zenbat eta arinago sartu, orduan eta arinago irtengo naiz.

—Gutxienez, agur esango diogu elkarri badaezpada ere, ezta?

—Ireki ezazu ahoa —erantzun zuen urduri samar—. Edo beldur al zara?

—Ni zure beldur? Ja, ja! Barregura ematen didazu —esan nion.

Eztarritik behera zihoala, hizketan somatu nuen oraindik. Han barruan leku erosoren bat aurkitzen bazuen, bertan bizitzen geratuko zela zioen. Adarjole aparta zen Dado. «Irentsi txua» izan zen entzun nion azken esaldia.

Begien itxi-ireki batean barneratu zitzaidan eta, zoritxarrez, ezin izan nion, asmoa nuen bezala, gehiegi berandutzen bazen, Martari esango niola. Martak sendagileei kontatuko

zien eta beraiek indarka aterako zuten. Niri sendagileek ez zidaten batere beldurrik ematen eta gainera, Dado burugogor hura ateratzen bazidaten, nire gorputzean nahi zutena egiten utziko nien.

Ez dizuet esan, baina hain presaka barneratu zenez, kontrako zulotik joan zitzaidan eta itotzeko zorian egon nintzen. Gorriak pasatu nituen! Eta, bestaldetik, hainbeste presaz, ze azkenean ez nuen jakin zer bilakatu zen, goxoki edo zer.

Hori bai, eztarritik pasatzerakoan, halako zirrara nazkagarri bat nabaritu nuen. Kafesnean igerian dabilen esnegaina irensten duzunean bezala. Edo olibaran hezur bat irenstean bezala. Ez, hobe esnegaina.

ADIO DADO

Hurrengo egunetan sarri oroitzen nintzen Dadoz. Dialisis saioak irauten zituen orduak luzeagoak eta aspergarriagoak egiten zitzaizkidan.

Izan ere, kezka bat neukan nire barruan (kezka bat eta dado bat ere bai, zehatzago esan): noiz itzuliko ote zen, inoiz itzuliko bazen?

Larregi berandutuz gero, peoi bat bidaliko nuke haren bila; edo alkohol dzangada batzu edango nituzke ea ipurdia erretzen zion; edo, bestela, Martari kontatuko nioke.

Egun osoa tripan, zangoetan eta besoetan hatz eginez pasatzen nuen, eskuak hara eta hona eramanez, giltzak galdu dituen jendeak egiten duen antzera. Kili-kiliak nituela zirudien.

«Non igaroko ote zuen gaua?» —galdetzen nion neure buruari—. «Ez dut uste bihotzaren inguruetan ibiliko denik. Hor dagoen burrunbak itzela izan behar du. Eta biriketako zoko-moko batean ezkutatu baldin bada?».

Orduan txakurreztulka hasten nintzen puro erretzaile baten antzera. Edo arnasari eusten nion ia more jarri arte. Airerik gabe uzten baldin banuen, ez zuen beste erremediorik izango ahal bezala irtetea baizik.

Dadoren txangoak iraun zuen aste luze hartan egunean-egunean bi litro ur edo gehixeago edaten nituen.

Marta pozarren zegoen, bere ustez, hainbeste ur edatea oso onuragarria zelako nire giltzurrunentzat. Jakina, nik ez nuen neure osasunagatik egiten, Dado erdi ito larrian ipintzeagatik baizik. Iratxoa izanda ere, seguru asko ez zuen igerian jakingo.

Dena intentatu nuen. Nire gorputzaren plano bat ere marraztu nuen Dadok erabili ahal zituen bide guztiak zehatz-mehatz ezagutzeko.

Asteazkenean arrakasta segurtatua zeukan plan bat asmatu nuen. Eztul eta eztul hasten banintzen, eztul eta eztul aspertu

arte, medikuari hots egingo zioten eta erradiografiak aterako zizkidaten. Erradiografia horietan Dado ikusiko zuten medikuek eta gero nola edo hala aterako zidaten.

Sukarra igoerazteko tranpatxo bat ere ezagutzen nuen. Horretarako aski zen bustitako galtzerdi pare bat janztea.

Baina plan hark ere huts egin zuen.

Marta kezkati zegoen nire osasunaz eta azkenean amari esan zion.

Jarabe melenga bat edanerazi zidaten. Okerrena ,ordea, zera izan zen: sei ordurik behin obusak diruditen supositorio madarikatu horietako bat hartu behar nuela.

Martak oso paziente ona nintzela esaten zuen eta nitaz fidatzen zen. Gaitzerdi!

—Oso mutil zintzoa zara —esan ohi zidan halakoetan.

Martarentzat «mutil zintzoa» izateak «gaiso zintzoa» izatea esan nahi zuen. Postura egingo nuke nitaz eta ospitalekoez bestalde ez zuela beste neska-mutikorik ezagutzen.

Supositorioak hartzeko ordua iristen zenean, Marta eta ama joan arte itxaroten nuen. Orduan gaumahaitxoaren gainean egoten ziren orratzetako bat hartu eta supositorioetan mezuren bat idazten nuen nire lagun iratxoari bidaltzeko.

Aurrenekoan zera idatzi nuen: «Dado, itzul zaitez lehenbailehen! ». Eta ez zidan jaramonik egin.

Bigarrenak honela zioen: «Oraintxe itzuli edo agur t'erdi! ».

Hurrengo hiru mezuetan irain egiten nion.

Eta gainerakoetan: S.O.S.

Zain eta zain, zazpigarren eguneko arratsaldean iritsi zen azkenik ere. Une hartan kartekin jolasten ari nintzen eta, konturatzeke, hatza sudurrera eraman nuen. Hazkura neukan. Amak oso ohitura itsusia zela eta gehiago ez egiteko esaten zidan beti. Eta hantxe agertu zen Dado sudurtziloan behera, ehunzango irristakor bat bihurturik.

Mukizapian ipini nuen eta bertan zapaltzekotan egon nintzen ,amorruaren amorruz. Alabaina, hobeki pentsatu nuen eta hatzak berriz pintatzea erabaki nuen, astebete igarota, pintura nahiko ezabaturik baitzegoen.

—Bazen garaia! —oihukatu nion—. Ikusi al duzu zelako itxura dakarzun?

Benetan haserre nengoen arren, eskuez laztandu eta lehenbailehen onezkoak egiteko irrika bizian nengoen.

—Inoiz egin dudan bidaiarik liluragarriena izan da. Orain zin-zinez esan dezaket ondo ezagutzen zaitudala! Eta egia esatea nahi baduzu, kanpotik ederragoa zara.

Jarraian nire gorputzean barna egindako ibilaldi luzean ikusi zituen alderdi guztiak zehatz-mehatz azaltzen hasi zen.

—Zure barruan ikusi ditudan bazter batzuk terrorezko ipuin batetik atereak dirudite. Kalexka ilun eta estuak, leizezuloak eta errekastoak. Dena den, ez dut bazter guztiak ikusterik izan. Apika hurrengo aldi batean...

—Bai zera! Ez da hurrengo aldirik egongo —esan nion.

—Aizu, jaso al duzu lehengo ostiralean bidali nizun postalea?

—Zer postale eta postale oste! Ez txorakeriarik esan gero!

—Argi dago ezetz. Ahaztu. Ez du axolarik.

Berak esan zidanez, lehenbizi begietan barna ibili omen zen eta kanpandorreetako erlojuen mekanismoa gogorazi omen zioten. Geroztik nire burmuinaren Aulki Turkiarrean eseri omen zen (bai, to! Jendeak bere ideia maiteenak esertzen dituen aulkitxo hori!). Neroni erabat, ezezagunak zitzaizkidan lekuei buruz hitz egiten zidan.

Niri, orduan, tratua ez zela bidezkoa izan iruditu zitzaidan. Bera askozaz ere txikiagoa zen eta seguru asko kolpetik aztertuko nuen. Ez nion ezer esan, ordea. Pentsatu baino ez nuen egin, berak hizketan jarraitzen zuen bitartean.

—Zure belarritik irtetekotan egon nintzen, zu konturatu gabe. Halako batez hatz bat belarrian sartu izan bazenu, bertan harrapatuko nindukezun.

«Txantxetarako gogoaz itzuli da, antza» —pentsatu nuen nik.

Aitortu behar dut batzutan belarrietan hazkura nabaritzen nuela, baina zelan igerri dena Dadoren erruz zela? Belarrietako hazkura mundu guztiak edukitzen du inoiz edo behin.

—Behin baino gehiagotan egon naiz tentatuta zure nerbioez txirikorda bat egiteko ea ahoa zabalduta gelditzen zitzaizun edo ea eskua txingurritzen zitzaizun. Halako bihurrikeriak ugari etorri zaizkit gogora, ez pentsa! —esan zidan.

—Eta zer dela eta itzuli zara hain berandu, jakin badaiteke? Ez al zenuen aski bizpahiru egunetako txangoa? —itaundu nion.

Dadoren aurpegiera aldatu egin zen orduan. Bere aurpegiak orain era lasaiago eta goibelago batez mintzo zitzaizkidan:

—Eske luzaroan gelditu naiz zure giltzurrunetan. Horrexegatik etorri naiz honen berandu. Duda mordo bat neukan... Zure matxura aurkitu egin dut... Erremintak eraman banitu, arrania!

—Ez kezkatu orain horretaz. Matxura ospitalean konponduko didate laster. Ez zenekien, ezta? Eske ez dut astirik izan kontatzeko. Gero kontatuko dizut. Baina esadazu: zer daukate nire giltzurrunek?

—Ez nekike xuxen azaltzen... Ahalegindu egin naiz konpontzen, ez pentsa, baina orain ez nuke asmatuko zer daukaten esaten. Medikuntza kontuetan ez nago oso jantzia.

—Jakin egin beharko zenuke, ba, iratxoa zaren aldetik! —oihukatu nion.

Dado, baina, nire esku ahurrean ezker-eskuin balantzaka hasi zen. Honelaxe erantzuten zuen ezetz, zerbait ulertzen ez zuela edo zerbaitekin konforme ez zegoela.

Une hartan bere aurpegietako puntu batzu ezabatuta zituela erreparatu nuen.

—Zer gertatu zaizu hor? Neure erruz izan al da? —galdetu nion.

—Ez. Ez da ezer.

Triste zegoen eta ez nion berriz galdetu. Azkenean berak moztu zuen isiltasuna:

—Tira, ba! Zeure txanda da. Orain zerorri dagokizu ni arakatzea. Ea nola moldatzen zaren!

Esan beharrik ere ez dago irrikan nengoela zerez egina zegoen ikusteko.

Beste edozein dado izan balitz, ez nintzen hain interesatuta egongo. Errege eta txankekin ere beste horrenbeste gertatzen zitzaidan. Nire aginduak betetzen zituzten eta nahikoa zitzaidan. Baina Dado berezia zen. Beti esan izan dut.

—Eta ustekabean apurtzen bazaitut?

—Hor konpon, Mari Anton...! —erantzun zuen—. Tratuak tratu dira beti, ezta?

—Bai, noski... tratu bat zen.

Ezin dut ukatu Dado zerratzeak beldur handia ematen zidala. Baina behin ondo ikusiz gero, berriro kolatuko nuen eta kitto.

Okela zatitzeko uzten bazidaten hagindun ganibetaz hasi nintzen zerratzen.

Zerratu eta zerratu, erdiraino ebakia neukanean, indar egiten hasi nintzen, baina alferrik. Bai dado gogorra! Gainera, ez zuen protestarik egiten. Azterketa osoan zehar ez zuen tutik ere esan.

Ahalegin haietan murgildurik, Dado gaumahaitxoaren gainean jarri nuen eta ganibetaren kirtenaz kolpeak emateari ekin nion. Kolpe haietako bat beste guztiak baino dexente gogorragoa izan zen, nonbait. Dado gizajoa mila puskatan sakabanatu baitzen lurrean zehar.

Ez nekien zer egin. Negarrari emateko gogoa neukan, baina amorruak ez zidan negar egiten uzten.

Ongienik gogoratzen dudana da txizalarri izugarria sortu zitzaidala. Hori ez zait sekula ere ahaztuko.

—Ama! Ama! —hasi nintzen deiadarka ero baten antzo—. Txiza egin nahi dut!

Handik lasterrera, amak pixontzia ekarri zuen eta benetan txiza egiten nuela ikustean jarri zuen aurpegia barre egiteko modukoa izan zen.

Hurrengo egunak nire bizitzako egunik tristeenak eta, aldi berean, zoriontsuenak izan ziren.

Gainerakoez guztiz ahaztuta, bete-betean ekin nion Dado konpontzeari.

Puska guztiak itsatsi nituenean, itsas hondoan aurkitu eta berriztatu ondoren, arrunt arraildurik geratzen diren anfora horietako bat zirudien. Kristalezko kutxatila batean ezartzen diren antigoaleko anfora horietako bat, inork iku ez dezan.

Tamalez, dado, itxuraz hondatuta geratzeaz gainera, mutu ere geratu zen. Mutu betiko. Edo, gutxienez, hala zirudien.

Nik banekien, arteka eta zirrikitu guztiak ongi estali arren, ez zena inoiz ere lehengo bera izango.

Orain ondo damu dut Dado zatitu izana.

Berarekin betiko eta sekulako bukatu ziren dialisis saioak eta ohe gaineko jolasak. Oraindio gordetzen dut etxean jolas haietako pertsonaiez betetako zapata kaxa bat.

Amak behin eta berriz errepikatzen dit, Martaren eta medikuen ustez, nire bapateko sendatzea mirari bat izan zela. Ni, aldiz, seguru baino seguruago nago dena Dadoren egitada bat izan zela. Baina hau bion arteko sekretua da, beste inork ezagutzen ez duena.

Maria Dolores ez nuen inoiz gehiago ikusi.

Marta Kanoilaria oso noizetik noizera ikusten nuen, etxera bisitan etortzen zitzaigunean bakar-bakarrik.

—Mutiko ona zinen. Zoro samarra batzutan, baina ona —esan ohi zidan—. Jainkoari eskerrak dena amaitu da. Amaitu dira dialisis saioak eta zure umekeriak.

Oker zebilen granatez jantzitako erizain neskazahar hura, nire irudiko, gero eta aurpegi alaiagoa zuena eta poliki-poliki kanoilari itxura galduz zihoana. Geroztik ere ez du jakin Martak egia. Ez daki, esaterako. Dado kutxatila batean gordeta daukadala mukizapien artean eta goizero-goizero, kalera irten aurretxotik, «Kaixo, Iratxoa» esaten diodala. Gero eta komentzituagoa nago ulertu egiten didala, erantzun ezin badu ere.

Martak ez dakien beste gauza bat da lantzean behin gauez ohean txiza egiten dudala. Jakingo balu, barre egingo luke. Edo errierta egingo lidake, lehen ohi zuen bezala. Martak ez gintuen sekula ulertu... ez Dado eta ez ni...

SAGASTI GAZTE, SAGASTI ZURI

Inazio Mujika Iraola

(1985eko Lizardi Sarian aipamen berezia jaso zuen).

«Sagasti gazte, sagasti zuri inguma atsegintokia iduri elurte arian geldia!».

LIZARDI

Bestela ez zait inporta.

Baina etxe hori inguratzen duen baratzeko harresi bajua ikusi orduko, kakalea sartzen zait. Eta inork ez daki, baina niri kakalea sartzen zait, Eguzkitzako leiho kristal gabekoa ikusten dudan bakoitzean.

Auzune guztirako telefono bakarra, gure etxean jarri zutenean, ixtantean sumatu nuen niri tokatuko zitzaidan lana. Eta niri bost ajola errekadistarena egin behar badut. Baina zenbait lekutara... Ezin...

Ez zen halere denbora gehiegi igaro, lehenengo abixua ematera joan behar izan nuen arte. Ordutik, etengabe nabil hara

eta hona errekadu emaile. Asteasuko txekor ixkoa Arrazpira ekarri behar dutela Santu Guztien egunerako; Intxurbiko agureak Leaburuko Joxe zain daukala Tolosako Agustinenean, ferira joateko; Perretxekoei izeba monja datorkiela ata apeaderora bila azaltzeko kontuak; tabernako pedidoak eta beterinarioa datorrela Olateara inularreko zortzitan...

Oso gizon jatorra da beterinarioa.

Karameloak ematen dizkit. Eta amak «ez biezaio horrelakorik eman umeari Don Benantzio» esaten dio. Baina berak beti ekartzen dit zerbait eta orain ezkutuka ematen dizkit. «To, hau behiari ixitsa eusteagatik. Ez geo amari eakutsi» Eta amak ikusi aurretik, anixedun karamelo urdina luzatzen dit. Klaro, eske amak ikusiko balu, niri horrelakorik ez emateko esango bait lioke, baina berak ezkutuka luzatzen dizkit. Oso jatorra da Don Benantzio eta nik eskarrikasko esaten diot oso pozik bere kuatroele beltza martxan jarri aurretik.

Horregatik hartzen ditut gogoz beterinarioaren errekaduak; bestela ez lidake-eta karamelorik erregalatuko. Baina Eguzkitzarakoak...

Bestela ez zait inporta.

Baina etxe hori inguratzen duen baratzeko harresi bajua ikusi orduko, kakalea sartzen zait. Eta amak-eta ez dute koprenitzen, baina niri kakalea sartzen zait, Eguzkitzako leiho kristal gabekoa ikusten dudan bakoitzean.

Gainera, ama, jolasean gustora nabilenean etortzen zait jeneralean abixuarekin. «Inaxio, junari eztakit nora eta esaiek etxekoei halako eta halako» eta orduan hain juxtu, bada paro suertatzen ez nintzela lehenbiziko aldia izan eta ezin nik ezer egin. «Oraintxe jun ber al det?» eta amaren «bai» errukiberaren zain gelditzen naiz.

Baina baietza ez da nire zain egoten.

Niri, tabernarako abixuak gustatzen zaizkit bastante. Ez abixua emateagatik, ez. Igual bada pikoak, azeitunak edota melokotoia eta sagarra ere, ematen didateko baizik. «Klaro,

han denetatik daukateeta». Horrela esaten du aitak, han denetatik daukatela, alegia. «Baina geo oolki ordainetan ezin guk ezer askorik bueltatu...». Horrela esaten du aitak.

Baina niri, bastante gustatzen zait harantza joatea.

Eta gainera, harako abixua izanez gero, edozein adiskide suertatzen zait bidelagun.

Eta ez orain bezala Eguzkitzarako bidean... bakarrik...

Joxeluk behintzat, taberna hitza aditzen duen bakoitzean, ipurdia galtzen du nirekin joateko, «igual galduko balu eskola ikasteko!». Hori esaten dio señoritak bere amari Joxelurengatik, gustoko gauzekin ipurdia galtzen duen bezala, igual galduko balu eskola ikasten, alegia, beste oilar batek kantatuko liokela. Izan ere, beti bait dago izkina batetan kastigau, zinta arroxa ilean katiaturik duela eta guztiok farre egiten diogun bitartean. Baina hori bai, berak ipurdia galtzen du nirekin tabernara korrika batean heltzeko.

Baina ni nazkatu naiz! Basta dut!

Hurrengoan ez diot azeitunarik emango. Hor konpon diola! Tabernara bai ezta? Baina beste lekutara, zer? Orduan Luixa bakarrik prestatzen ez zait bada!

Eta Eguzkitzara ezta Luixa ere...

Nik koprenitzen diot bai. Eta nola beste guztietan beti prestatzen zaidan, bada barkatzen diot.

Ona da Luixa.

Eta gainera asko ikusi duenetakoa. Donostian ere izana omen da bere osabak-eta han bizi direlako. Eta Abuztuko Amabirjinetan joaten omen zaie egun batzuk pasatzera. Gainera, itsasoa ikusi omen du eta plaian bainatu. Eta gainera kaballitoetan ibili da eta gainera frunikular edo gora eta behera dabilen kajoi batetan ere.

Berak esaten dit, Tolosatik auzuneraino horrelako kajoi bat jarriko balute, diferentzia egingo lukela gureak, jendea

etorriko litzatekela-eta, kaletarrak... Baina malkartsuegia nonbait gurerainokoa.

Eta karreterarekin hainbeste istilu ibili dituztenerako, zer ez lukete izango frunikularrarekin!

Ni oso triste jartzen naiz Abuztuko Amabirjinetan.

Ez dakit zergatik izango den.

Uste dut, Luixa maite dudalako dela. Hala esan dit Milianek. Eta Milianek asko daki ere, Eskolapiotan ibilia delako bi urtez.

Bai. Nik maite dudala uste dut.

Zergatik ikusten dudanean, bola bat bezala jartzen bait zait hemen barruan eta irrifarrez joaten natzaio diosala egitera. Berarekin nagoenean hitz-totelka hasten omen naiz beherealakoan.

Horrela esaten dit Milianek. Eta Milianek asko daki. Bolarena ere, berak esan zidan. Eta egia da. Zergatik Luixa ikusten dudanean, bola bat sentitzen dut-eta.

Luixak laguntzen nau Intxurbiraino sarritan; nahiz eta badakien ondo asko jakin ere, ordubeteko bidea badagoela Intxurbiraino. Berak, estrata bazterreko gerizondo japoniarra ikusteko joaten dela esaten dit. Asko gustatzen zaiola azukrea bezain txuria jazten denean.

Baina nik ez diot sinesten.

Gerizondoa, aste pare batez bakarrik egoten bait da txuriz jantzia. Gero gorrituz doa, azkenean berde soila geratu artean.

Eta neguan bilutsik...

Horregatik uste dut berak ere maite nauela ni, bestela ez litzateke Intxurbiraino nirekin etorriko. Hori esan dit Milianek eta Milianek asko daki, Eskolapioei esker. Nik ere joan nahi izan nuen Eskolapiotara, bi urtez besterik ez balitz Milian bezala, baina aitak muniziorik ez dagoela eta elizpeko eskola ttikira joan behar izaten dut. Nik, ordea, muniziorik

aurkituko banu, Eskolapiotara joango nintzateke, Milianek bezala asko jakiteko.

Asko bait daki Milianek.

Oraingoan, lagunak hasiak zaizkit zimintarioko paretetan bihotza eta fletxarenak dibujatzen Luixa eta bion izenekin. Baina niri igual-igual zait.

Ahora ke, Luixari, ez dakit... Zergatik bera gorri-gorria jartzen bait da hura leitzerakoan eta niri orduan sortzen zait maite ote nauen, ez ote naueneko zalantza. Baina «hi tontoa haiz» esaten dit Milianek «gorria jarriko eztekpa! Eztakik bestela lotsagabetzat hartuko genikela» Eta neuk ia gorria jarri behar ote dudan Luixa bezala, galdetzen dudanean, berak, mutilak beste kupeleko txotxetik atereak garela eta ezetz erantzuten dit.

Eta horregatik ez naiz gorria jartzen.

Milianek esan didalako...

Eta mutilak bada... beste kupelako txotxetik atereak garelako, hain zuzen ere. Hori esaten dit Milianek eta asko daki; ez dut dudarik.

Atzo, esaterako, gure etxean egon zen naximendua jartzen eta berari okurritu zitzaion azukrearena. Elurraren ordez azukrea jartzearena, alegia.

Eta gezurrezko elurrak benetazkoari deitu izan balio bezala (nik ez diot enkargurik eman halere!) gaur goizean hasi da elur xehexehea, baina ugari-ugaria, ezeri-ezerian erortzen.

Beherealakoan loditu du.

Eta gu asko poztu gara. Aita-eta, ez ordea. Ez dira poztu. «Bideak ixten bazaizkigu ikusiko duzue» esan digu aitak, haserre antzean.

Baina niri igual zait bideak ixten bazaizkigu ere, zergatik erregeak berdin-berdin etorriko bait dira. Eta aurten, aspaldiko partez, nik eskatutako Niño Jexux hura ekarriko didate.

Eta pakea emango dut.

Hori esaten du amak behinik behin.

Nik txistorra mutur bana utziko diet Erregeei sukaldeko zintzailuaren gainean eta ezingo dute berriro Niño Jexux hura eraman. Hemen utzi beharko dute, nik pakea ematea nahi badute behintzat.

Joxeluk haber Erregetan sinesten ote dudan bota dit burlaka bezala. Eta nik ez dakit zergatik dioen txorakeria hori.

Edo bai, badakit...

Berari ikatza ekartzen diotelako seguruago. Joxelu oso bihurria bait da! Nire amak eta bereak ere horrela esaten dute ahobatez, bihurria dela oso eta ez duela gauza zuzenik egiten, gaiztakeria besterik, eta horrela Jesusitoren bihotzari orratzak sartzen zaizkiola-eta... Ikatza ekarriko ez diote bada! Señoritak ere horrela esaten du «gustoko gauzetan ipurdia galtzen duen bezala, igual galduko balu eskola ikasten!». Eranegun ere, txerria hil genuen goizean, izotza egin zuen; eta han ibili zitzaigun izotz-kristalak puskatzen eta oinetakoak blai egiten. Gero sumina omen zuen hanketan eta nigarrez joan zitzaien etxekoei, txerria hil genuen goizean.

Txerri gaixoa!

Nik ezin dut txerri-karraxirik jasan eta almohadapean jartzen naiz ezer ez aditzeko. «Isitsatik heldu beharko diok» esan zidan aitak, bezperan tipola txikitzen ari zelarik, baina nik ez diot heldu nahi ,nahikoa nozitzen bait dut kakotik zintzilik ikusten dudanean, bizirik nola hiltzen duten ikusten iharduteko...

Baina gero odolkiak partitzen bai, ibiltzen naiz, oso gustora gainera, zergatik dirua eta gauza goxoak ematen bait dizkidate baserrietan eta munizio asko sartzen badut eltxetxuan, igual Eskolapiotara joango naiz bi urtez besterik ez bada, Milian bezala. Oraingoz aitak ez bait du muniziorik, berak sobra ere, hori esaten du...

Eta gaur elurra egin duenean eta ohetik jaiki eta oilategialdea txuri-txuri ikusi orduko, iuff egin dut salto, kontentuz betea. Denbora asko daramat-eta elurrik ikusi gabe eta elurrarekin oso ondo nola pasatzen dudan bada iuff egin dut salto eta aitaren lepotik zintzilikatu naiz xaguxaharrak arboletatik bezala, eta «aita, elurra», «aita, elurra» egin diot karraxi nire larruan ezin kabituz, eta berak «beherealakoan nazkatuko haiz» bota dit «kaminoak ixten direnean... ikusiko dek orduan».

Baina nik ez dut uste nazkatuko naizenik.

Kalera atera naiz segidan, Milian, Niko, Luixa, eta besteen bila. Eta Osinetara abiatu garenean Milianek, aurrenak egiten duen arrastoetan zapaltzeko besteek ere, esan digu. Hartara ez dugula suminik izango.

Eta egia esan du.

Milianek asko ikasi bait du Tolosako Eskolapioetan. Baina Joxelu bihurria nola den, bada ez du kasorik egin eta berriz ere, eranegunekoa gutxi izan balu bezala, suminak harrapatu du. Eta bere amak ez du oinetarako haina egiten eta hanka moztuko diotela hurrengoan esan dio.

Eta deskuidatzen bada, moztu egingo diote, gainera...

Bere aita oso astoa delako-edo. Hori esaten du nireak, baina nik, ostera ezin diot ezer esan Joxeluri, aitak erabat debekatu didalako: «Ezta attature Joxeluren aitarik Inaxio».

Eta ni besterik ez jakin, baina esanekoa izan.

Batez ere Erregeak Izaskundik behera jaisteko gertu diren garai hauetan...

Gaur gainera, apustua egin dugu Joxelu, Niko, Milian eta laurok Pixa egin dugu elur gainean eta irabazlea, elur gehiago urtuz, zulo inguru zabalagoa sortzen zuena genuen.

Luixak eta Kontxik egin dute juezarena.

Baina gu pixa egin bitartean ez zuten begiratu behar. Keba. Elizara begira jartzen ziren eta far algarak egiten zituzten kilimak balituzte bezala.

Kontxik, halere, tranpa egin du. Nik ikusi diot.

Baina ni lasai nago, niri ez dit ezer ikusi. Izatez gerotan Nikori... Berak irabazi du azkenean, beldurtzeko moduko zuloa eginez elur zuriaren gainean; belar agertu berritik, lurrin fina igotzen zelarik. Eta Joxeluk, «hoi dek maskurie, hoi» esan dio.

Eske egia da.

Egia izango ez da bada! Behintzat, bi harra terdiko ingurubira urtu du-eta. Harena bai maskuria!

Oso ondo pasatzen ari ginen denok elkarrekin, baina buleketan hasi garenean eta hain juxtu eta behingoz, basta zen ni paro ez izatea ama etortzeko, telefonoa zela eta Eguzkitzara joan beharko nuela azalduz, begirada errukibera batez. Eta «oraintxe jun ber al det» galdetu diot bere ondorengo «bai» segurua, aldez aurretik igarriz.

Eta niri bestela ez zait inporta.

Baina etxe hori inguratzen duen baratzeko harresi bajua ikusi orduko, kakalea sartzen zait. Eta inork ez daki, baina niri kakalea sartzen zait, Eguzkitzako leiho kristal gabekoa ikusten dudan bakoitzean...

* * *

Dagoeneko hasia naiz Eguzkitzako teilatu zuritua ikusten, eta ves! Kakalea sartu ez zait bada! Halere nahiago dut kaka kanpoan libratu, komunean baino; komunean denbora asko pasatuz gero, sugea etortzen bait zaigu pixaren zulotik. Eta ikuiluan, behiei esnea xurgatzen dien bezala, bada guri ere peskadillatik heldu eta xurgatuko liguke «entre sol y sombra». Hori esaten du amak behinik behin. Denbora asko ez egoteko komunean eserita, alegia. Horregatik da kanpoan nahiago dudala libratzea...

Artotza baten erdian esaterako...

Bai. Eguzkitzako teilatu zuritua ikusten hasia naiz. Izan ere, hala bait dago elurrez betea, non orain ez bait du kontrasterik egiten paretetako zuriarekin. Nola orain dena den kolore igualekoa...

Mendikute ere, txuri-txuria dago.

Baina orain erreparatzen duzu baserrietako pareta zuriak, ez direla uste bezain bat zuriak. Ezta gutxiagorik ere. Beste zuri batekoak direla oso...

Ederra halere.

Aitak ezetz esango luke, baina ni kontentu nengoke, Eguzkitzara joan beharrik izango ez banu...

Gaur ezer gutxi mugitu da Joxelu laguntzeko. Klaro, berak tabernara bakarrik nahi du. Horrek ditu potroak, horrek, aitak esaten duen legez. Nik ahopeka diot, badaezbadaere; bestela Erregek entzungo balute, ez lidateke aspaldiko partez espero dudan Niño Jexux hura utziko.

Eta orduan ez nuke pakerik emango etxean.

Luixa ere ez da prestatu laguntzera. Baina ez naiz harritzen. Koprenitzen diot. Izan ere, Eguzkitzara joateko potroak behar bait dira eta nola beste lekutara joateko prestatzen zaidan, bada nik barkatu egiten diot. Eta honela nago, bakarrik eta Eguzkitza bidean.

Eguzkitzan Matias bizi bait da.

Eta horregatik sartu zait kakalea, Matias bizi delako bertan. Eta seko erotuta dagoelako, hain zuzen ere.

Edozein urreratzen zaiola bere etxe ingurutara eta hor ateratzen zaio «hor da karretera», «hor da karretera», «karretera hor da» karraxika, guk zerbait egin izan bagenio bezala.

Eta guk ez diogu ezer egin.

Berak ditu kulpa guztiak. Hori esaten du aitak behinik. Lehengoan kontatu zizkidan lizar azpian sega pikatzen ari zela, Matiasen zorotasunaren arrazoiak.

Ez omen da gaur goizeko kontua.

Karretera egin zutenekoa baizik.

Eta horretaz badira hamar urte. Ni oraindik jaio berria igual. Hiru urte besterik ez. Orduan egin zuten gure auzunera Tolosatik datorren karretera. Orain, itxiko ez itxiko, aita beldurrak hartuta daukan hori, alegia.

Ordurarte, hilak ere gurdian edo bizkarrean bestela, eramaten zituzten Tolosako Santa Mariraino eta Kanpo Santura ondoren.

Baina, sasoi hartan, karretera egin zuten auzune bertaraino eta guztiontzat izan zen mesedea. Hori esaten zidan behintzat aitak, sega pikatzen ari zela, sega mailuarekin txingura joz behin eta berriro. Eta guztion konformidadea jasotzeko Eguzkitzara joan zirenean, ni orain noan legez, Matiasen ezetz borobilarekin topatu ziren. Ezetz eta ezetz, ez zegoela konforme eta ez zela egingo. Eta guztiontzat zen mesedea.

«Eta beretzat handiena» esan zidan aitak behingoz burua jasoz sega mailutik, nire aurpegi aldera.

Eta beretzat zen mesederik handiena. Zaharra bait dago orain eta edozein atxakea izanez gero, nola jaitsi gorputzar hori Tolosaraino? Legan, Gurutzeagako Inaxi zena bezala? Hori zen aitak esan zidana.

Hori eta Niño Jexux haber espero nueneko kontua.

Baina hori nola seguru dudan, bada berriro ekin nion galdetzeari, aitaren desbideratu nahiei jaramonik egin gabe. Eta aitak pelma ez izateko estrainekoz, baina gero kontatzeari lotu zitzaion eta inpentsan luzatu zidan nola karreterak Matiasen barruti eta sailetatik pasatu behar zuen eta nola erabat zatitzen zituen terrenook, baina ez zegoela beste erremediorik, guztiontzat zela mesedegarria, horrela esan ziotela Matiasi...

Eta berak ezetz eta ezetz...

Barruti guztiak debalde emango zituela eta behar izango balitz lur-soroak; eta baratza behar balitz, baina Uheta gaine-

ko sagastia ez zuela aitaren semerik ikutuko. Hala esan omen zion Matiasek etxean azaldu zitzaion gizalarru bakoitzari: Apaiza, señorita, alkatebarrioa... Zein ez zitzaion joan? Guztiontzat bait zen mesedegarria. Baina «que si quieres arroz Katalina» ez zutela Matiasen firmarik lortuko, meta-haga baina sendoago lotuko zitzaiola erabaki horri eta kitto orduan.

Horren besteko komeriak! Zer, eta sagasti batengatik.

Baina ez zen edozein sagasti Matiasentzat, geroago aitak argituko zidan bezala sagasti hura guztia, sagarrondoz, sagarrondo bere alaba bakarra eta bion artean landatutakoa zen. Eta horregatik bera bizi zen artean, hango mihurarik ere ez zuen ikutzerik nahi.

Matias orain bakarrik bizi bait da, baina garai batetan bere alaba bakarrarekin bizi zen; egun trixte hartan, Uhetako sagastiaren inguruko leizezulo batetan amildu zenerarte, aita-alabak babarrunetarako pardak, urritza baten aldamenean, mozten ari zirelarik.

Alabaren hilotza ezin izan zuten leizezulotik atera.

Eta diotenez, gelditzen zitzaion oroimen bakarra sagasti hura nola zen, bada hura gorde nahi zuen. Ditxosozko karreterak, bestalde, leizezuloaren gainetik pasa beharra zeukan nahi eta nahiez, zergatik goikaldetik, terreno tupatsua bait zegoen eta behekaldeari berriz, ezin zitzaion lekurik lapurtu.

Eta beste leku batetik joateko munizioa behar.

Ni Eskolapiotara joateko behar dudan baino majo gehiago. Eta ez ziren gerra pasa berriko sasoi haiek munizio izatera zaletuak, arto koskola bat aurkitzea denuntzia gai zenerako. Eta gau batetan, sagasti guztia zilipurdika bota zioten Matiasi. Bere firma izan ala ez izan igual-igual zela, eta karreterak ezin zuela itxoin, bat zela hamaiken kontra, baten kutiziak ezin zuela besteen beharra mugatu eta horrelako hamaika arrazoi aipatu omen zuten.

Hamaika eta guztiontzat mesedegarria zelako kontua aidanez. Eta beretzat lehenen...

Zer egin behar zuen gaixotuz gero? Eh? Legan jaitsi behar al zuten bada, Gurutzeagako Inaxi bezala?

Ez zen bada mutilkoxkorra koprenitzeko!

Hori zen aitak esan zidana. Eta arrazoia zuen. Baina uste dut Matiaxek ere bazuela arrazoi pixka bat ere.

Pixka bat besterik ez balitz ere.

Bere alaba bakarra eta bion artean landatutako sagasti hura hankaz gora ikusi zuenean, hasi bazitzaion burua joaten; ez omen zen ezer izan, Uhetako leizezuloa harri txintxarriz bete eta gainean galipota zabaldu zuteneko une haren aldean. Alabaren hezur biguinak galipot beltzarekin nahasiak sentituko balitu, hasi omen zen karraxika kamineroen aurrean, konortea galdu aurretik...

Eta iadanik, gaur, ez da Eguzkitzatik ia ateratzen. Eta ez du karreterarik ikutzen ere urte guztian zehar, biharko egunean ezezik. Eta ez du inor bere etxera inguratu dadin uzten, berehala hasten bait da «han da karretera», «han da karretera», «karretera han da» hor daukazue zuen inbentoa, honantza ez etorri esanez bezala...

Eta urtero bezala, niri tokatzen zait aurten ere abixua ematea...

Eta bestela ez zait inporta.

Baina etxe hori inguratzen duen baratzeko harresi bajua ikusi orduko, kakalea sartzen zait. Eta inork ez daki, baina niri kakalea sartzen zait, Eguzkitzako leiho kristal gabekoa ikusten dudan bakoitzean, orain parez-pare ikusten dudan bezala, galtzak belaun pareraino jaitsita, alboko artotzatik begira hankak makurtuta, kokoriko.

Eta ez naiz askoz barrurago sartuko.

Gainera, Joxelu behin, jo egin omen zuan. Klaroke Joxelu oso bihurria nola den, bada... ez naiz harritzen. Bere amak eta nireak ere esaten dute oso bihurria dela, baina halere belarrondokoa eman ziola egia omen da eta haginetako minez egon

omen zen bizpahiru egunetan, luzatu zion zartakoarekin sagardo boteila hotza masailetik kentzen ez zuelarik...

Eta ni ez naiz askoz barrurago sartuko.

Milianek, ez gehiegi hurbiltzeko kontuak aipatu bait dizkit eta Milianek asko daki; Eskolapioek ez dute-eta alferrik lanik egiten. Klaroke hori jakiteko ez da asko ikasi beharrik, Matías ezagutzearekin basta da.

Eta ni ez naiz askoz barrurago sartuko.

Luixak, berriz, kontuz ibiltzeko esan didalako, eta barkatzeko laguntzen ez baninduen. Ni harro sentitu naiz eta barkatu egin diot irrifar zabal baten opariarekin.

Atarira iritsi naiz eta rau atera zait Matias akuiluarekin korrika batetan «han da karretera», «han da karretera», «karretera han da» hor daukazue zuen inbentoa, honantza ez azaldu esanez bezala. Eta bere aurrean korrika egiten nuen bitartean, bota diot arnas estuka hotsetan abixua:

—Telefonoz deitu dute zuretzat Matias, urteroko larrosa gurdikada haber noiz jasoko duzun. Presto daukazula dagoeneko...!

«Agur Matias» bat bota diot baratza inguratzen duen harresitik, etortzerakoan lur elurtuan egindako arrastoetan hanka sartuz, suminik sartu ez zatzaidan erreparatzen.

Eta bitartean, Uheta inguruan eta leizezulo zaharraren parean, ea nori tokatuko ote zaion Tolosara lanera autoz doalarik, urteroko larrosa-meta baztertzea, etorri zait burura.

Kanpoko hotzak ez ditu berduko azpian babesten zaizkidan belarriak ikutzen, halere.

PIKA ETA LIPUA

Xipri Arbelbide

(1985eko Lizardi Sarian aipamen berezia jaso zuen).

—Aita, zergatik erraiten duzu gure auzoaz, lipua bezain tzarra dela?

—Hala baita!

—Gure auzoa tzarra dela, bai! Bainan lipua? Zergatik erraiten duzu, lipua tzarra dela? Neure ganberan badira lipuak ezkaratzean, barrokian, zelauruan ere bai; gain guziak lipuz beteak dira, dena sare. Lipuak non nahi badira gure etxean eta nihori ez diote gaizkirik egiten. Zergatik erraiten duzu beraz «lipua bezain tzarra»?

—A! Hori duzu jakin nahi? Erranen dizut bai. Aspaldiko ixtorioa da. Ene etxondoan, Kataritze Legartxaroan, ximinei gaineko ezpata hura ikusia duzu?

—Bai, bai! Giderra kobre horiz duen ezpata zahar hura?

Zure attittoren osebarena?

—Bai, hura eta ber bera! Badakizu neure attittoren oseba Napoleón inperadorearekin ibilia dela gerlan, Egiptoan eta Rusian gaindi, bai eta beste leku askotan?

—Bai! Amatxik erran dit behin, hotzarekin, eskuko bi erhi moztu zizkiotela ,eta oinez itzuli zirela Rusiatik.

—Beste ixtorio ainitz ere konda liezazuke amatxik, han bizi bazina, eta egun batez harekin hilabete bat pasatzerat igorriko zaitut, amatxiren ixtorioak ezagutzeko, beti telebixtari beha egoiteko orde.

—Amatxiren ixtorioei beha egon naiteke gogotik, telebixta ahantzirik.

—Bainan jin gaitezen berriz lipura. Attittoren osaba hark kondatzen zituen hor gaindi, eskuin eta ezker entzunak zituen ipui batzu, gure herrian ez dakizkigun batzu, ez baitira Euskal Herrikoak. Eta hark zituen gure etxean irakatsi lipuaren ipuiak. Eta zergatik hoin ardura erraiten dudan «lipua bezain tzarra», esplikatuko dizut.

Aspaldiko ixtoria da. Attittoren osaba ez da oraikoa eta hark ere erraiten zuen aspaldikoa zela. Pentsa beraz! Denbora haietan, lipua mintzatzen zen, behi eta ardi eta oilo eta beste guziak bezala.

Lipu bat bazen beraz, beltz beltza, gorputz guzia dena bilo. Badakizu, Santso zapatain zaharra nolakoa den, papotik eta denetarik jalgitzen baitzaizkio bilo beltz luze batzu? Gure lipua ere hala halakoa zen.

Zapatain zaharrak esku gainak biloz estaliak dituen bezala, lipuak ere bere lau zango pare luzeak dena bilo zituen. Izigarri itsusia zen.

—Aita! Bainan amatxik dio zapatain zaharrak, bere bilo luzeekin, Euskal Herriko nexkato pollitena izan zuela emaztetzat.

—Bai, amatxik erraiten duen bezala, «buru bazenbat aburu»! Batentzat itsusia dena, beste batentzat pollita. Norbait bada beti pollita hatzemaiten zaituena eta beste bat berriz, itsusitzat zauzkana.

Gure lipuari ere gauza bera gertatu zitzaion. Itsusia zen. Ezin uka! Baina lagun bat bazuen, pika hain zuzen, xuri eta

beltxa, bera baino miletan pollitagoa. Eta amari entzuna diozu erraiten «pika bezain ergela».

—Bai! Amak erraiten du zapatainaren emazteaz pika bezain ergela dela!

—Badakizu beraz zer den ergela izaitea!

Ipui honetan ikusiko duzu zer gatik erraiten den «pika bezain ergela». Ergela zelakotz zuen eta, lipuak adiskidetzat hartu. Dolutu behar baitzizaion!

Egun batez beraz ,lipua joan zen pikaren etxera eta galdatu zion:

—Zure bizian, behin ere gertatu zaizu, barnatik hunkitzen duten oinaze handi hoietarik izaitea?

—Oinaze ainitz izan dut ene bizian, bainan egia erraiteko, aitortu behar dut, axaletik baizik ez nautela hunki.

Zinez barnetik hunkitzen duten oinaze handi hoietarik ez dut behin ere ezagutu. Ez dakit zer den.

Eta lipuak erran zion.

—Zato nerekin. Egun erakutsiko dizut, zer den barnetik hunkitzen duen oinazea. Besteak bezenbait izaiteko, gauza hori jakin behar duzu baitezpada.

Lipuak alportxak eman zizkion pikari, berak ere beste batzu hartu zituen, arto buru bat barnean sartzen zuela, baina pika ez zen ohartu lipuak bere alportxetan zerbait sartu zuelakorik. Zer den txori buru izaitea bestenaz!

Joan ziren beraz biak, iraztor batean barna, malda bati goiti. Iraztor haren buruan pagadoi bat baitzen, han sartu ziren. Eta zer ikusten dute? Bi harzkume josteta ari!

Batean punpeka eta jauzteka. Gero borroka eta itzulipurdika. Azkenik, lasterka, zoin gehiagoka. Loria bat zen haiei so egoitea.

Bainan pika izitu zen.

—Goazen hemendik! Sekulan hartza jiten baldin bazaigu, bere umeen ondoan ikusten bagaitu, hilen gaitu.

—Zaude ixilik zoza! —erran zion lipuak—. Zer zara hartzaren beldur? Ez da hartza bezain trunkorik! Ikusiko duzu zer jukutria eginen diodan!

Ez du indarrak egiten norbaiten balioa, bainan «horrek».

Eta hori erraiten ziola, zango batez burua erakusten zion.

Pikak egin zuen bere baitan:

—Egia da! Lipuak, izigarri abila delako fama du. Alabainan, gizonen etxetan bizi da eta gizonek ere ez dute segeretu-rik neure adiskidearentzat.

Bere beldurra ahantzirik, adiskideari jarraiki zitzaion.

—Zinez, ama batek zozoa izan behar du ba, bere umeak, hoin ttipiak izanki eta, hola, bakar bakarrik utzi eta joaiteko! Ikasiko diot nik bizitzen, gizagaizo horri! Erran zuen lipuak.

Bi ume haietarik bat hartzen du eta bere alportxetan sartzen. Bestea eskuan harturik, pikari emaiten dio.

—Har ezazu hau zuk, eta sar zure alportxetan.

Ez da fida baino gehiago gure pika, bainan hartzkumea lagunaren eskutik hartzen du eta bere alportxetan sartzen.

Eta biak badoatzi aintzina, oihanean barna.

—Nik nahiago nuke oxtian bezala, iraztorran barna ibili, ezinez eta oihanean! Larrazkeneko iguzki hori laket zait. Negua heldu eta, domaia liteke, itzalez itzal ibiltzea, iguzkiaren azken pereketaz baliatzeko orde.

—Aita! ikusten duzu, pika ez dela arras ergela! Hartzaren beldurrak zion hori erran erazten. Lipuari, egiazko arrazoia ez baitzion aitortu nahi!

—Seme, errana dizut gizonik itsusienak ere baduela zerbait pollitik norbaiti gustatzeko. Gisa be-

rean, den ergelenak ere zerbait onik badu buru barnean. Izanikan ere ergeletan ergelena, pikak ere zerbait badu bere muinetan.

Beraz pikak lipua gomitatu zuen oihanetik ateratzera, bainan hau berehala ohartu zen, iguzkiaren hori, estakuru bat baizik ez zela pikarentzat, eta hartzaren beldurra zuela, bere egiazko tripako mina:

—Ez ahal duzu hartz zozo horren beldurrik? Zer nahi duzu egin diezagun? Nik hasteko batere ez dut haren beldurrik. So egizu zer egiten dudan?

Alportxak bi eskutan harturik, bihurdikatu zituen, «kursk» egiten zuela zerbaitek barne hartan.

—Ikasiko diot nik hola, umeak beren gisa uzten. Hila emanen diot!

—Aita, zer du harzkume pollit hura hil?

—Zaude ixtan bat, seme. Ez duzu jakin nahi zergatik den erraiten «lipua bezain tzarra»?

—Bai, zinez tzarra da. Ez gaixtoa ez, tzarra! Ume gaixo hori horrela hiltzeko, arrazoinik gabe gainera!

Eta lipuak pikari erran zion:

—Hil ezazu zuk ere zurea!

—Bai, egia duzu. Zuk bezala eginen dut.

Pikak ere, alportxetan zuen umea hartu zuen eskutan eta bihurdikatu. Harzkumea kurrinkaka hasi zen. Bihurdika aintzinera, bihurdika gibelera, berriz aintzinera, harzkumea ari zen, «kuin» eta «kuin» eta «kuin». Azkenean hil zuen.

—Gaizo inutila! Ez baitzara ume ttipi baten hiltzeko doia ere? Untsa gibela zara! Jestu gutiagoz hil dut orizu nerea! erran zion lipuak pikari, trufatuz.

Eta joan ziren aintzina oihanean barna, lurrera eroriak ziren hostoetan, urrats bakotxak, «pruxk, pruxk» egiten zuela.

Ez zen bost minutarik, bi harzkumeak hilik joanak zirela, hartzarekin buruz buru egin zutelarik.

Pika dardaran hasi zen, negu mineko ipar haize mehe batetan buluz gorri ezarri balute bezala. Lipua aldiz, gostuan zegoen. Irri maltzur batekin erran zion hartzari:

—Nora joana zinen, zure ume gaixoak, bakar bakarrik utzirik, zernahi gertatzen ahal zitzaiela?

—Ihizira, lipu beltza, ihizira. Ama batek ez ote die bere umeei jatera eman behar? Bi erbikume hatzeman dizkiet. Hona non diren! Ez ote dute bazkari on bat eginen holako haragiarekin?

Eta bi erbi ttipiak erakutsi zizkien. Lipuak erran zion:

—Zure bi umeak oihanetik jalgiak ziren. Nigarrez hipaka ari eta norbaitek hilen zituen beldurrez, urrikaldurik, gure alportxetan bildu ditugu.

Eskua alportxetan sarturik, ume bat atera zuen eta hartzari eman zion.

—Aita! Ez baitzuen hila?

—Ez, seme, ez! Ez zara orroit, alportxak hartzean, arto buru bat ere sartu zuela barnean? Pikari, umea hiltzen zuela sinets arazteko, arto burua zuen eskutan hartu, eta arto buruak zuen egin «krusk», iduri harzkumearen hezurrak karsakatzen zirela. Eta pika, ergela, erran dizudan bezala, kurrinka bat ere ez zuela egin ez zen ohartu. Orai bai, ikusten zuen zerbait pasatu zela, eta, lagunak, aldi bat gehiago izorratu zuela.

Eta lipuak segitu zuen erranez:

—Honek bere erbia jana izanen duelarik, pikak emanen dizu bere alportxetan daukana, harek ere jan dezan bere partea.

Pika ikaran zegoen, sekulan baino gehiago, beldurrarekin. Luma beltzak ere xuritzen hasi zitzaizkion naski!

—Oi, ei, ama maitea! egin zuen bere baitan. Zer gertatzen zait niri, egun! Zer eginen dit gaitzeko hartz horrek? Nere azken ordua etorri zait bai oraikoan — ari zen gogoeta pika ergela.

Artean, lehen harzkumeak jan zuen bere erbia eta ezaupenei milika eta milika ari zen. Lipuak erran zuen:

—Iduriz, hori asea da. Orai bigarrenaren aldi! Bere aldia berantetsia duke alportxa barnean!

Eta pikari so:

—Hea, hea! Emaiozu hartzari bigarren umea, jan dezan horrek ere! Segur naiz, alportxa barnetik, erbia usnatua duela, eta ezin egonez, zalapartaka ari zaizula.

Bai, bainan pika ez baitzen mugitzen, pentsatzen dukezuen bezala. Han zegoen, tente potente, isil isila, zer egin ez jakin.

—Jalgi ezazu bada ume hori alportxetarik! Zer mila debruren beha zaude hor?

Eta gure pikak umerik ez jalgitzen! Batean lipuari so, bestean hartzari, eta umerik ez ageri!

—Zeren beha hago bada — galdetu zion hartzak?

Bainan hartzaren galdeak ez baitzuen erantzunik izan! Hartza haserretzen hasi zen. Pika txar horren zai egon behar zuela! Kopeta ximurturik erran zion:

—Hire onetan, jalgi ezak berehala ume hori alportxetarik, jatera eman diezaiodan. Berehala gero!

Pikak eskua alportxetan sartu zuen. Sartu bai, bainan jalgitzera ez baitzitekeen mentura!

Esku hura alportxetan baitzegoen!

Lipua zitzaion orduan mintzatu, oxtian aipatu dizudan irri maltzur harekin.

—Hea, hea! Erna zaite hortik, joan gaitezen hemendik! Ez ahal duzu urte bat egon nahi hemen, hartzari beha, zure alportxak bizkarrean?

Zer egin? Ez zen haratik ez honatik! Atera bide bakarra, ihesari emaitea zen. Bere alportxak firrindika botarik, «ttirrittitti» abiatu zen gure pika, korrika, ziuriketan, joan ahala joan.

Hartza eta lipua, alportxetara joan ziren. Lehenik heldua eta lipuak harzkumea jalgi zuen.

—So egiozu honi! Zure umea hil du! Ez da harritzeko, ez baitzuen eman nahi!

—Zer! Neure umea hil! Neure umea hil! Ez daiteke holakorik izan! Urde zikina! Hori pagatuko dit! Eta kario!

Hartzak baitzekien lasterka, pikaren gibeletik abiatu zen. Ez ziren ez hartzaren urratsak pikarenak bezain zaluak! Hartzak urrats bat egiteko artean, pikak hamar egiten zituen. Bainan hartzaren urrats bakar batek, pikaren hogoi bali baitzituen! Joan zitzaion beraz gibeletik, «patapa, patapa».

—Aita! Zer gatik ez da airatu pika? Hartza ez da airatzen ahal! Ez du hegalik! Airez aire, hartzak ez zuen nihondik ere hatzemaiten ahalko.

—Seme, errana dizut jadanik, pika ergela dela. Aldi bat baino gehiagotan! Ikusten duzu egia erraiten dizudala!

Pika eta hartzaren arteko eremua, gero eta gehiago ttipitzen ari zen. Zonbait urrats oraino eta pikarenak egina zuen!

Izanikan ere ergela, lipuaren laguna zen eta lipuak ez zuen nahi hil zedien. Barnetik hunkiko zuen oinaze bat zer zen, erakutsi nahi zion bakarrik, ez gehiagokorik.

Pitotx baten ziloa baitzen pikatik bi metretan, oihu egin zion:

—Sar zaitez zilo horretan! Zilo horretan hor! Zilo horretan!

Aldi bakar bat entzutea aski izan zitzaion! Besteak soberakin izan ziren. Brixtez sartu zen eta ziloaren zoko zokoradino! Oraino barnago joan ahal izan baldin bazen joanen zitekeen!

Zolari kontre kontre zegoen ,tinki tinkia, pusatu nahi izan balu bezala, iduri eta horrela pusatuz, barne hura oraino barnago joanen zen. Salbatua zen. Bainan hartz animale horrekin, nork zekien zer gerta zitekeen?

Hasarre gorrian sartu zen hartza, lipuaren kontra. Zer, Pika txar ergela hura ,umea hila zion pika ustel hura, bi urratsetan zuelarik, lipu tzar horrek behar baitzion erran non gorde zitekeen? Bizia salbatu behar baitzion?

—Zer egin didan ikusi eta, horren alderdia hartu behar baitzinuen? Zaude! Zuri nazaizu mendekatuko orai.

—Batere ez zara hartza! Batere ez zara! Ni zure etsaia naizela uste duzu ala? Ez! Horrek ez du itxurarik ere! Aspalditik badakizu zure adiskide mina naizela araiz!

—Neure adiskidea zarela? Eta zergatik erran diozu bada ziloan sar zedien, harrapatzeko punduan nintzelarik?

—Zer gatik erran diodan lur pean sar zedien? Baina, zuk aztaparra luzatzea salbu, airatuko baitzen! Den bezalako ergela ez balitz, lehenago ere airatuko zitekeen. Orai zilo barne hartarik ez daiteke nihondik ere aira! preso dago hor!

—Eta nik, nola eginen dut barne hortatik, pika tzar hori jalgi arazteko?

—Ez ote duzu basurderik oihan hontan? Ez ahal dira zure beldur? Manatzea salbu, berehalaxe obedituko dizute eta zilo hori zabalduko dizute. Zer zara arrunt tontotu holako zerbait gogora ez jiteko orai?

—Egia duzu! Egia duzu! Nire ume maite horren galtzeak egiten didan minarekin ez dezaket gogoetarik ere egin gehiago. Oraixe kurutzatu dut basurde pare bat. Deituko ditut.

Hartza oihuka hasi zen:

—Basurdeak! Basurdeak! Zatozte honara berehala! Berehala! Zuen beharretan nago!

«Tirripiti tirripiti», lasterka etorri ziren berehala bi basurdeak.

—Zer da? Zer da? —galdatu zioten umil umila.

—Ikusten duzue pitotx zilo hori? Pika txar bat barnean gorde zait, ene bi umeetarik bat hil ondoan. Zilo hori zabaldu behar didazue, pika hori har eta hil dezadan, merezi duen bezala. Berehala gero!

—Bai, bai! Jestu gutiz eginen dizugu lan hori. Josteta bat izanen da guretzat.

Eta biak hasi ziren aintzineko bi aztaparrez ziloa zabaltzen, ehun mila debruren aiutean. Aldi bat hartzari kausitzeko parada izanki eta ez zuten segur huts egin nahi. Nork zekien ez ote zitzaien egun batez baliatuko!

Pikak, biper eta gatz poxi bat bazuen sakelan, eta bi basurdeak zilo zolarat heltzen ari zirelarik, erran zien.

—Jalgi zaitezte honara bi minuta, ikus dezadan pika ergel hori non dagoen gorderik! Hatsaren hartzeak ez dizue kalterik eginen zuei ere!

Hartzak gelditu ziren eta lipua, buruz beheiri sartu zen ziloan. Zolara heltzearekin, pikari erran zion:

—Orizu gatz eta biper hau. Basurdea ondo ondoan izanen duzularik, bota iezaiozu begietara. Erreko dizkio, jalgiko da, eta hartza ufaka ariko zaiolarik, askiko duzu hemendik eskapatzea.

—Aita! Hartza ez baita deusetaz mesfiatu, lipua barnean sartzearekin?

—Seme, hartza ez da behin ere abil haietarik izan. Gorputza handiago eta buru muinak ttipiago, zonbaitetan gertatzen den bezala! Bere buru muinak ez ditu sekulan gorputzaren araukoak izan!

Beraz lipua jalgi zen eta basurdeei erran zien.

—Hor dago, hor dago! Hogoi zentimetrotan zarete.

Kokorikaturik dago. Ez da mugitzen ere. Iduri luke hila!

Bi basurdeak sartu ziren eta hasi egundainokotan beren bi aztaparrez, karraka eta karraka. Loriaturik zeuden, behin bederen hartzari kausituko ziotela. Artetan gelsitzen ziren, heian pika ergel hura nonbait ageri zen.

Hola gelditurik, begiak zabal zabala so zeuden batez, pikak bota zion bati, delako gatz eta biperra, erdiz erdi begietan kausitzen zuela.

Ikusi bazenu zoin laster jalgi zen basurdea zilo hartarik, kurrinka eta kurrinka!

—Baina, debruak hartua haiz? Zer gertatzen zaik? —galdetu zion hartzak.

—Zikin zerbait erori zait begietara. Ufa ezazu eta garbi iezazkidazu. Erretzen naute!

Hartza hurbildu zen eta basurdearen begietara ufaka hasi. Hain zen hurbiletik ari non, basurdearen begitik nigar xorta bat ezpain gainera erori baitzizaion. Mihiaz xikatu zuen.

—Hummmmmmm! Zer gauza! Gatz eta biperra duk hau!

Eta hasi zen basurdearen begiei milika eta milika.

—Zer zozoa egiten dudan nik bestenaz! ¡Holako gauza ona eskutan izanki eta pika horren gibeletik nabilak. Hori bezain ergela nauk bai ni!

Beste basurdea harriturik lagunari so zegoen.

—Behar luke ene anaia jan!

Zuzen ikusia zuen!

—Hire begietako nigarra hoin gozoa baldin bada, zer daiteke hire haragia, nigar hori hartuz saltsatzat!

Ez dakit nola egin zuen, baina basurdea brixtez eskapatu zen hartzaren besoetarik eta bi anaiak joan ziren, behin ere ibili ziren baino lasterrago, tirripiti, tarrapata, tirripiti, tarrapata.

Hartza ere, bere umea ahantzirik, abiatu zen bai haien gibeletik, patapa patapa, patapa patapa, zangoak ahal bezenbat luzatuz. Bainan basurdeak zinez zaluagoak baitziren! Laster amor eman zuen eta jin gibelera.

—Eta artean txoria eskapatu aita?

—Bai, seme. Hori eta bera!

—Ikusten duzu, lipua ez dela hain tzarra!

—Nola, ez dela tzarra? Gutik egin ahal du, pika ez baitu hartzak jan. Bere azken jokoak ez balu nahi zuen bezain ontsa erreusitu, ausiki batez irentsiko zukeen!

—Baina pika akort zen! Bizi guzian, aldi bakar bat ez zitzaiola gertatu, barnetik hunki zuen zorigaitz edo oinaze bat ezagutzea. Hortarako zen lipuarekin joana.

—Bai seme, bai. Bainan ez da horrela eta horrela hirriskutan emaiten norbaiten bizia. Eta gainera ahantzia duzu harzkume haietarik bat, lipua gatik hil zela, ez zelarik, mikorik ere, deusetan hobendun! Basurdeak ere pasatuko ziren bai, hartzarekin izan duten istorio hori ezagutu gabe. Bat jaten du hartzak!

—Egia duzu bai aita, Harzkume ttipi haren hiltzeak nau gehienik hunkitzen ni. Bainan halere! Eman dezagun aldi bat gaixtoa izan dela lipua.

—Gaixtoa ez, seme. Tzarra, zuhaurek jaoixtian erran duzun bezala. Hartzaren ume gaixo hura bihurdikatuz, kurrinkaka hil araztea, gaixtakeria baino gehiago da: tzarkeria hutsa!

—Bai aita! Bainan aldi bakar batez tzarkeria bat egitea aski ote da, norbait errotik tzarra dela erraiteko?

—Lipuaren abilezia gustatzen zaizu seme! Eta abilezia horren gatik, bere malezia barkatu nahi zenioke? Ez uste izan aldi bakar bat baizik ez duela tzarkeriarik egin. Attittoren osabak kondatu beste ipuin asko erraiten ahal nizuke lipuaren tzarkeriaz. Bainan bego hortan egungo! Funtsean, Kataritze Legartxaroko amatxik, nik baino hobeki kondatuko dizkizu lipuaren ipuiak.

HIZKIRIMIRIAK

Gernikako bi abade kafetxo bat hartzera sartu ziren kafetegira, telebistatik bideo «porno» bat ematen zirelarik. Ugazabak, bi abadeak ikusikeran, bideoa aldatu egin zuen, beste dezentetxoago bat jarriz. Irribarrez eta aldakuntzarekin konturatu ez zirelakoan, abadeengana hurbildu zen. Elizmutila izandakoa zenez, amoltsuki galdetu zien:

—Arratsaldeon, jaunak. Zer nahi?

—Kafesne paretxo bat.

—Atsedenaldi bat egiteko era duzue, telebista bitartean ikusiz, eguraldia ona ez baita.

Eta eskatutako kafesneak prestatzera joan zen lasai ugazaba. Abade zaharrenak orduan esan zion besteari:

—Lehen geuk ukatzen genien halakoak ikustea, eta orain heurek ukatzen digute berbera. Beraz, zorra ordainduta zegok!

* * *

Ama batek seme bat bakarrik zeukan, nahiz eta gaztea eta aberatsa izan. Bederatzi urtekoa edo zen mutila, lehen Jaunartzea egiteko sasoikoa. Eliztiar sutsua izan ez arren, haurraren aginkizunekin zehatz arduratzen zen ama eta besteak bezala hurrengo Jaunartze jaiaildian partaide izan beharko zuela semea burutu zitzaion amari, iñork baino etxeko jai eta bazkari hobea antolatzeko asmo harroputzetan. Eta igande batez meza nagusira joatea erabaki zuen abadearekin hitz egiteko.

Beluko meza ostean sakristiara doa gure ama kotor hau eta abadeari galdetzen dio:

—Jauna, haurren lehen Jaunartzea noiz izango da?

Eta abadearen erantzun zorrotza:

—Eta, zure bigarrena noiz?

Semeagatik ala Jaunartzeagatik esan ote zion? Hau izan zen amaren kezka.

J. A. A. M.

ADABAKIAK

EUSKARA = VASCUENCE. Portugaletetik F. Martínez jaunaren galdea jaso dugu, *euskera* edo *euskara* erdaraz *vascuence*-tzat erabiltzea zuzena den ala ez galdetuz, *El Correo de la Unesco* aldizkarian 1985eko urtarriletik, hizkuntzen zerrendan *vascuence* datorrenez aldizkari hori gure hizkuntzara itzulirik *Unesco-ren Albistaria* izenburuz hasia delako.

Hortarako *Egan*-en 1983ko ale bakarrean 197. orrialdean «Vascongado»-z idatzi genuenak balio du: *vascongado* = *euskaldun* den neurrian.

Unesco-k euskarazkoan *euskara* jarri badu eta erdarazkoan *vascuence*, eritzi zuzenez ibili da.

Argitasun gehiago eta zehatzagoak jakin nahi dituenak, deituren jatorriak ere argituz, Durvan-en *Gran Diccionario Enciclopédico* delakoan Antonio Tovar-en lan batean aurkituko du, edo oraintsu Koldo Mitxelenak zehatzago eman duen lanean (ikus RIEV, año 32, — Tomo XXIX, N.º 1, 9-29 orr.).

LAPSUS, JOSE VICENTE DE ECHEGARAY ZENAZ.—Inoiz gauza harrigarrienak gertatzen zaizkio bibliografia munduan ari denari. Adibidez, Auñamendi Argitaldariak, 1969. urtean *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco* deritzan sailean, «Cuerpo B» delakoaren lehen alea kaletaratu zuen *Literatura* izenburuz. Bertan, 609. orritik 612.erako Jose Vicente de Echegaray (1773-1855) zenaren nortasunez eta lanez eskainia dator. Ondo merezia zuen 1832an «Festarik bear bada, bego Donostia...», beste lan askoren artean sortu zuenak.

Baina, hau da parabola, *Enciclopedia* berean, hamar urte geroago, «Cuerpo A» delakoan, *Diccionario Enciclopedico Vasco* (vol. X) tomoan ez dator Echegaraytarren artean, ezta XII. tomoan Etxegarai bezala ere.

Ordenadorea ez erabiltzearen hutsa noski, baina ordenadoreak ere ongi klasifikatu ezik holako hutsak egiten badakite. Hurrengo eraskinen batean osatu beharrezko hutsa, zeren Jose Vicentek horrenbeste merezi zuen.

Donostian, XIX. mendearen lehen partean pertsonaia ospetsua izan zen. Sonatua, egungo donostiarrek esango luketenez. Ez gero pentsa, sonatua, erdarazko «estar sonado»-rekin ezer ikustekorik duenik, ez horixe.

Jose Vicentek, garai haietan berdin idatziko zituen kantak ihauteri konparsentzat edo elizkizunetarako. Horien artean, bere Eguberri kantak zabalkunde handikoak izan ziren.

San Lukas edo San Mateo Ebangelioa ere itzuli zuen, Jose Manterolak zionez, eta L. L. Bonaparte printzearen eskuetara joan zela uste da, baina Printzearen argitalpenen eta eskuizkribuen artean (naiz bereak eta berak bilduak) ez da agertzen, Carlos González Echegaray-k egin ikerketen ondorioz argitaratua den katalogoan (ikus *Catálogo* delakoan, Euskaltzaindiaren *Euskera* agerkaria XXIX, 1984, 23-184 orr.).

Bertso guziak, *Festara* izenburuz, A. Zavalak bildurik Auspoa-n argitara zituen 1964. urtean.

ERRENTERIAZ ZENBAIT OHAR.—Errenteria hitza euskalduna den ala ez zalatzan jarri duenik ere bada. Azaleko itxuraz hori ematen bai du. Baina Azkueren Hiztegia begiratzean, honako hau irakurriko dugu: «*Errenteria* (B, G), aduana, douane. (??) *(Zeinbat itzaiñak, ikatzak olara eroaten, errenterietatik mea ekarten?* ¿cuanto (no ganan) los boyeros, llevando carbón á la herrería, trayendo mineral de las aduanas? *combien (ne gagnent pas) les bouviers, en apportant du charbon à la forge et du minerari des douanes?* (Per. Ab. 129-4). Mogelek *Peru Abarka* liburuan erabiltzeko arrazoirik aski izango zuen, ola-zaharrak bizi zeuden garaian eta Ondarruako Errenteria Markinatik nahiko hurbil zuenez.

Fielato edo *aduana* gisa erabili zen Bizkai-Gipuzkoetan foruen garaian, Espainiako erresumaren aduanak Ebron zeude nean. Horregatik, izen hori bere sustraiz latinetikakoa bada ere, hemen, euskararen bidez, mamitua da. Eta ez da batere harritzekoa Bizkai eta Gipuzkoaren itsas-hegalean, ibaiak itsasoruntza irtetzen diren inguruetan kokatzea. Bilbo, Bermio, Gernika-Axangiz, Ondarroa eta abar. Bereziki Gipuzkoan, hiri batek izen hori hartu duenez.

Badakit izen honek auziak sortu dituela, baita ere badakit karismak zer diren, «Plaza eta Enparantza ez dira gauza bera» *(Egan,* 1984, 1-2 zenb. 121 orr.) idaztean agertu nuen bezala. Hala ere, arrazoizkoa deritzadanari ez diot ukorik egingo.

Gainera, batak bestea ez du ukatzen. Edonork daki, bazela toki bat Orereta, eta oso ongi zioen «Orereta gure herriko izena da» hormetan iragarri zuenak. Beste gauza bat da herriaren izena izatea. Herriko eta herriaren ez bai dira gauza bera. Hala ere, aitor dezadan saltsa horietan sartzeko gogorik eza. Bai hordea hor zehar barreiatua den liburuxka bategatik zenbait argitasun ematea.

Lehenik Errenteria hitzaren euskalduntasuna agertuz eta gero historiako zenbait ohar eskainiz.

Xenpelarren ez zuen kezkarik eta axolarik gabe barra-barra erabili zuen bere bertsoetan. Ba ote zekin Orereta zer zenik?

Renteria Euskal Herrian sortzen den deitura da. Besteak beste, aski ospetsua Errenteriaren historian, 1526. urtean itsasoetan buruzagi agertuz Barbaroja-ren armada autsi zuena Ibizan, Martín de Renteria Uranzu errenteriarra; egintza horregatik 1529an Karlos V enperadoreak etsaien galeoiak armarrian jartzeko baimena eman zion hura.

Nonbait, Bizkaian lehenagotik ziren deitura horretakoak. García Carraffa anaiak *El Solar Vasco-Navarro* deritzan obran diotenez, Bermio, Bakio, Axangiz eta Ondarruan dira Renteria deituren jatorriak. Guk ezagutzen dugunik zaharrena ordea Bakioko Iñigo de la Renteria da, 1422. urtea hil zuten hura, Lope García de Salazarek *Las Bienandanzas e Fortunas*-en dakarrez (Lib. XXII, fol. 85, c. 2.ª). Eta Gorgonio Renteria (1868-1940) Bizkaiko euskal idazlea oso ezaguna da gure literaturaz zerbait arduratu garenontzat.

Gauza hauek behar bezala bideratzeko alderdikerietan politizatzea ez da modurik egokiena, talde batentzat arrazoi guziak alde batera doazenez eta beste batentzat guztiz bestaldera. Eta tontoenak ere badaki hori ez dela arrazoizkoa.

Oreretaren alde erabili diren aburuak, maizenik, beren laneri Renteria edo Errenteria izenburuz edo tituluz erabili dutenenak dira. Titulu hautaketa horrek bedorrek ez ote dio Errenteriari arrazoia ematen? Zeren egile horiek ez bai zuten hiriaren identifikatzerako aukera hoberik.

Ez dut jo beharrik Ptolomeo-ren aipamenezko *Oeason*-era, ez eta ere Plinio-ren *Olarso*-ra, baina bai historia aldetik aztertzeko hain oinarrizkoa iduritzen zaidan K. Etxegarairen *Investigaciones Históricas referentes a Gipúzcoa* (1893) lanera, zeren hor bai dator 162tik 214ra bitarteko orrialdeetan «Renteria» deritzan kapitulu bikain bat. Hor jasotzen dira Juan Ig. de Gamón eta J. Vargas Ponce-ren artean gai horri buruz gurutzatu zituen gutun ageriak. Oiarso edo Oiarson harana Bidasoa ibaitik Urumeara artekoa omen zen, baina aintzinako lurralde hura mugatzen hasi zirenean haranak bere titulua galdu omen zuen Oiarsoko Kontsejuarena hartzeko: «Cuando comen-

zó a limitarse la extensión del Valle de Olarso, y perdido este título, se llamó Concejo de Oiarso».

Gero, 1320an errege San Fernandok hiri-bildutzaren forua ematean «Concejo de Oiarso» horrentzat izan zen, Renteria edo Orereta zen lekuan «fue en tiempos más antiguos el asiento del Concejo de Oiarso» dio 164. orrialdean. Segidan beste honako hau gehituaz: «Explica cómo nuestro Pueblo, además de Orereta ó Rentería, tuvo el nombre de Oiarso u Oiarson». Hala ere, behin eta berriz aipatuko da aintzinatik eta anitz urtez «Villa de Rentería y tierra de Oyarzun» bezala ezagutu direla.

Gauza bat dago argi, Errenteria herriak aranzel eskubideak zituela bere lonjarekin eta hortik eman zitzaiola izena («lonja y arancel de derechos de la villa» zelakoaren 1497. urteko aipamen bat liburu berean dator 170. orrialdean). Izen hori euskalduna ez ezik Euskal Herriak bere foruen zuzenagatik hartua da. Hori da historiaren arrazoia, baina baita ere garai haietatik bai herritarren artean eta bai kanpokoetan iraupenaren berezko indarraren jabe izatean.

Nere aburuz, Errenteriaren ordez Oiarso jarri nahi izatea ere zentzunezkoagoa zen, aspaldi galdua eta zalantzazkoa den Orereta baino. Alderantziz, inork ezingo du ukatu Errenteria ez denik.

DEIA BAI, DEIALDIA EZ.—Euskeraz beti izan dira «aldia» atzealdean daroen berbak: eguraldia, astiñaldia, itzaldia ta abar. Ta dirudianez, berba barriak sortzeko balio andikoa da. Beintzat ormetan-da ipinten diran esanetan berba orregaz egindako ugari arkitzen da: ibillaldia, dantzaldia, jaialdia, ta abar. Ez dot ezer euren aurka. Baiña ba-da orratio orrein antzeko berba bat nire ustez egokia ez dana: deialdia. Udalak-eta erderazko «convocatoria», «aviso» ta olakoen esanaian erabilten dabe euskeraz. Ta ez; berba orrein esanaikoa «deia» da, olantxe luzatu barik.

Ondarru'n len, gure ume eta gazte denporetan eta Jaungoikoak daki noiztik, asko erabilten zen berba au. Arrantzaleai egunero deitu egiten eutsen itxasora besigutara juateko neguan. Egualdi txarra izan ezkero ez ziran itxasoratzen eta lotan lagaten eutsen; baiña egualdi ona zanean edo txarra ez zanean, zeregin ori euken seiñeruak izeneko iru edo lau lagunek (eurak be arrantzaleak eta itxasora joaten ziranak) erri guztian kale bakotxean iru edo lau tokitan maillu batekin atari edo beko atea mailluagaz joten eben, bakotxean iru ots emonaz; dan-dan. Ta arrantzaleakaz batera beste asko be esnatzen zituen goizeko iruretan, lauretan, edo egun aretako itxasorateari ondo etorkion orduan.

Ta ori «deia» zan, ondarrutarrez «dexe». «Ez dot deirik entzun gaur», «Berandu jo dabe dexe» ta antzekoak asko esan eta entzuten ziran orduan.

Berba au orduko beste kontu bat agertzeko be ba-zan: «deiko mezea». Orduan igande ta jaietan be juaten ziran arrantzara itxasora. Ta neguan urten aurrean mezea izaten zan arrantzaleentzat esan doguzan orduetan eta zazpireun-zortzireun gizon itxasorako jantzita eta oiñetan zarata andia ataraten eben olezko bota-traskuak zituela juango ziran mezatara ta eliza guztia beteten eben.

Ta meza aren izena «deiko mezea» zan, «deiko mezí» ondarrutarrez.

Ta onenbestegaz, asieran esandakoa barritauaz amaituko dot, zera erderazko «convocatoria», «aviso», «llamada» ta olako berben esanaia euskeraz «dei» (deia) berbeak dabela.

Beraz «deialdia» iñork ez leuke erabilli bear.

Kamiñazpi

G. ARESTI ETA BITAN BANATZEN DEN ELKARRIZKETA.—Igaz, Bilboko *Zurgai* aldizkariak zenbaki berezi bat eskaini zion Gabriel Aresti zenari, Karlos Garaikoetxea lehendakari ohiaren sarrerazko hitzekin, euskarazko eta gaztelerazko zenbait idazleren lanekin, argazkiz eta marrazkiz ongi eta txukun hornitua.

Aldizkari horren 34-37 orrialdeetan Arestiren eskuizkribu argitara gabekoa aurkezten zuen Jon Juaristik, elebitara, «Topet-Etxahonen kontrako judizio berria - El nuevo juicio contra Topet-Etchahoun». Aresti eta nere artean erdi elkarrizketa gisako gogoeta ematen du. Sarrerako hitzetan Juaristik dionez: «Ez dago fetxaturik, baina ziur aski Juanito San Martinek jakinen du noiz eskribatu zen».

Egia esan, nik ez nuen idazki horren berririk, naiz eta elkarrizketa gisara ari diren bietako batek nere izena eraman. Lantxo hori bere kabuz egina zuen Arestik, baina antz ematen diot noizkoa den. 1966an, Eibarren egin zuen egotaldian, bion artean euskal poesiaren antologia hautatua egitea pentsatu genuen. Lizardi eta Etxahun zaharraren balioak neurrizgain jartzen genituen zalantzak zituen Arestik eta bi poeten laneri buruz luzaz mintzatzen ginen, beren poesiak irakurriaz eta aztertuz. Lizardiren kasoan laster amor eman zuen, baina Etxahun ez zuen hain gogoko. Jon Juaristik aurkitu eta aurkeztu duen eskuizkribuan elkarren artean erabili genituen ideak eta aburuak datoz, naiz eta neri erasten didan guzia zeharo berdina ez izan. Eta, data egitekotan, 1966. urtearen azkenaldean edo 1967.aren lehen partean jarriko nuke.

Elkarrizketa gisako idazki hori, unetan bakarrizketa dela esango nuke, zeren Arestik berak nik zer pentsa nezakeanaren usteak ere gaineratzen bai ditu.

* * *

G. ARESTIREN AZKEN AGURREAN.—Aresti zena oroitzean, honako gertakari hau maiz bururatzen zait. Hara: Gagrielen azken borondatea betetzeko, 1975eko ekainaren 7an bildu ginen Derioko hilerrian. Ehortze zibil haretan seglar haina elizgizon bazen, zeren gizonen arteko maitasun borondatetsuak ez bai du mugarik. Azken batean,Aresti berak zionez, bihotza ezkerraldean dugu eta bertako odola gorria da.

Harri eta Herri liburuan erakutsi zigun Arestik Zorrozako moilean esplotazioak ez zuela diskriminatzen hizkuntzarik; baina, hala ere, bere kezka maiz agertzen zuen, usterik mespretsuko lanak etorkinentzat gehiago zirela. Uste horrekin agertu zuen bere poema batean:

> Hiltzen naizenean egonen da
> nire lauzaren gainean eskribu hau:
> *Hemen datza Gabriel Aresti Segurola. Goian bego.*
> *Pérez y López. Marmolistas. Derio.*

Baina hau da parabola. Gu, zibil partea non zen galdezka joan gintzaion marmolista deitura jatordun euskalduna zen. Gure poeta maitearen gorpua hobiratzean, adiskideok elkarri gure nahigabea eta dolumina agertzen genuen bitartean, lauza jartzen ari ziren igeltseroak elkarrekin euskaraz mintzo ziren.

J. S. M.

ARITZETA eta ARITXULEGI.—Donostiatik Bilbo aldera autopistaz irtetzean guziok irakurtzen dugu *Arriceta*. Ez dakigu zergatik, baina euskararik ez dakitenen artean bada *r* soila *rr* doble bihurtzeko joera. Gainera ezagunagoa zaie *(h)arri* = *piedra*, eta ez hainbeste *(h)aritz* = *roble*. Bestalde leku izenak esan nahira hurbildu nahizko joera dute eta etimologia okerretan erortzen dira maizenik. *Arriceta* jarri den toki horri, inguruko euskaldunek, *Aritzeta* deitzen diote. Egotez, Usurbilgo mugan dago eta Luis Murugarrenen *Usurbil* (1975) monografiaren 216. orrialdean agertzen da *Ariceta* bezala 1625 eta 1864. urteetan dokumentaturik dagoenez.

E. Knörr-ek onomastikazko txosten batean ongi zionez: «*Arriceta* nardagarria, milaka gidarik egunero ikusten dutena, 1625ean *Ariceta* zena». Egia esan, hizkuntz ikerketari eta tokiaren historiari ez diote onik egiten holako jarrerak. Diputazioan eta Jaurlaritzan bideez eta garraioez arduratzen direnek badute hor zereginik.

Gauza bera gertatzen da Aritxulegikin ere. Bilbo-Behobia autopistako Aritzeta haina erabiliko ez bada ere, Oiartzun eta Lesakaren mugan egoteak, auto-bidea igarotzen den lepoan gainera, ez da guti erabili beharrekoa. Zenbait gida-liburutan *Arritxulegi* eta *Arritzulegi* irakurria dugu. Oraindik denbora guti dela, *Egan* argitaratzen den inprimategitik egin ziguten galdea, ea genkien era jatorra zein zen: *Aritxulegi*, esan genien. Baina, gero jakin genuenez, bakoitzak bere teoriak omen dituela eta, egile harek zegoenean uzteko agindua eman omen zuen: *Arritxulegi*.

Oiartzungo toki izenak aspaldi bildu zituen Adolfo Leibarrek *Aritxulegi* zekarren, *Basarriren bertso-sorta*-n (1950) ere hala zekarren, bertako seme izan eta historiarik sakonena idatzi zuen Manuel Lekuonak ere, *Del Oyarzun antiguo* (1959) obraren lehen edizioko 36, 215 eta 217. orrialdeetan *Aritxulegi* (Arichulegi) dakar, eta gauza bera L. Silván-ek *Oyarzun* (1970) monografiaren 34. orrialdean.

LIBURUAK

PATRI URKIZU.—*Euskal Antzertia.* Euskadiko Antzerti Zerbitzua (Antzerki Saioak 1). Eusko Jaurlaritza - Kultur Saila. 1984.

Eusko Jaurlaritzaren Kultur Saileko Antzerti Zerbitzuak plazaraturik dator Patri Urkizuren *Euskal Antzertia* deritzan liburua. Bere hitzaurrean ajerik gabe dio egileak lehenagoko *Euskal Teatroaren Historia* (1975ean Agora saria irabazi zuena) oinarritzen dela oraingo hau. Egia esan, lehengo hura goitik beherako zuzenketaz osatua eta gehigarriz aberastua dator. Ongi dion bezala: «Oraingo kronika honetan saio haren zenbait hutsune eta akats betetzen eta zuzentzen, desitxurak dotoretzen eta apaintzen ahaleginak egingo ditugu, baina aldez aurretik jakinik honek ere, tamalez, izango dituela bereak, eta ene indar apalen arabera ezin zela bestela izan».

Ondotik, ausart eta arrazoiz dio: «euskaldun lotien eta ezjakinen nagiak astindu eta erna daitezen eta gure ikastetxeetako gaztetxoak ere kulturaren zati garrantzitsuenetakoa den Antzertiaz jabe daitezen». Teatrogintzan askok uste baino tradizio handiagoa dugun uste hori oso zuzena da. Egia esan, geure kulturan maizago murgildu beharra dugu zer dagoen edo zer ez dagoen jakiteko.

Bi parte ditu liburuak. Lehen partean alderdi teknikoak eta tradiziozko moten bereizketak datoz: antzertikideak, pastoralak, astolasterrak eta Ihauterietako trajikomeriak. Bigarrenean Hegoaldeko teatro zaharra, antzerti pizkundea eta euskal antzertia, garai eta egile bakoitzaren historia eta jokerak aztertuz. Amaitzeko, antzerkien katalogoa, itzulpenen zerrenda eta bibliografia erantsirik.

Gauzak erraz aurkitzeko bezala dator liburua, bai didaktika aldetik eta bai informaketaz erabilgarria da. Bertan ematen dituen aburuak ere ondo oinarrituak, jakinaren gainekoak direla esango nuke. Behar bada, tituluen ugaritasuna eta kalitatea neurtze orduan desoreka agertuko zaigu bigarrenaren kaltean. Hori ere esan beharra dago.

Dena dela, gure antzertiaren edukina hor dago, antzerlari taldeeri begira. Entzulegoak ere izanen du zer esanik, baina baita ere euskal telebistak zer emanik. Antolatzea eta koordinatzea da kontua.

Kantitatea eta kalitatea gutitan datoz elkarrekin ados. Gure antzerkiari ere hori bedori gertatzen zaio. Baina liburu honetan biltzen den ugaritasun horren barnean inork uka ezinezkoa da kalitatezkorik ere badela. Gainera, publikoak, era guzietakoak eta maila guzietakoak behar ditu, jostailu erazko entretenigarriak eta gogozko barne-jardunetan pentsaraziko duten obra seriosak. Era berean irri egitekoak eta nigar egitekoak. Gai errazak gehiengoentzat eta abangoardiazkoak literatura munduan sartua dabilenarentzat. Eta, guzak horrela direlarik, soberazkorik guti izanen da gure antzertiaren kopuruan. Bestalde, itzulpenak ere era guzietakoak ditugu aintzinako greziarrengandik hasi eta Dürrenmatt eta Ionesco-ra arte.

Drama-arte eskola on baten beharra nabari da, antzerki talde egokiak lortzeko eta hor azaltzen zaigun edukinetik aurkezpen onak egiteko. Horrek bere ondorioz lekarke euskarazko zinemagintzarako jendea prestatzea eta ETB beraren hobekuntza. Drama-arte eskola on baten arabera dago egile sortzaile edo itzulpenetatik entzulegoari egoki aurkeztea, azpiegituraren ardatza denez.

Poliki joanaz lortu beharrezko helburuak dira eta Patri Urkizuren liburu honek asko lagundu lezake, zer, nolako, non adibideak ematen dituanez.

Baina, egileari zenbait ohar egingo dizkiot, garrantzi gutikoak baina bai beste hirugarren batean gogoan izan ditzan. Lehen partean, bertsolaritza adieraztean koblakaritza berezi beharra zuen, zeren lege desberdinetan mugitzen dira eta Zuberoako pastoralak bigarren honekin zer ikusi gehiago dute.

Oso ondo iduritu zait Peñaflorida kondeak Sor Luisa izenpean eman zuen *Gabon-sariak*, J. Lakarraren eritzia jarraituz, oilantziko gisako estanpa plastikatzat hartzea.

P. I. Barrutiaren antzerkiak ere argitasunezko ohartxo bat merezi du, falta diren zatiak hornitzeko. Hortaz, ikus *Egan*

(1984) 3-4 zenbakiaren 161-163 orrialdeak. Baita ere, esan behar dut, aldizkari hau B.R.S.V.A.P.-en babespean 1948 elebidun sortu bazen ere (135 orrialdian dion bezala) Julio Urkixo Euskal Filologi Mintegia sortzeaz eta *Egan*-en erredazio burutza hartu, 1954tik euskara hutsean argitaratu dela.

Aldizkariak ikutzean, literatur mugimenduak horien inguruan zer ikusirik aski dutela aitortu behar, eta ez dut uste lan hori burutzeko sistematikoki begiratu dituenik, eta horien erreferentziak lanak aurkitzeko lagungarri izango ziren. Esate baterako, *Euzko-gogoa* aldizkaria aipatzen du 135. orrialdean, bertan argia ikusi zuten zenbait lan ere bai, baina besteak beste, hor argitaratu ziren Etxaideren *Amaiur* (1951), «Ibargi» izenpean Labayenek *Lurrikara* (1955) eta *Jostuna* (1957). Horrela jakinen zuen Monzonen *Lau kantari eta xori bat* (1957) egile ber-beraren *Zurgin zaharra*-tik hartutako zati bai baizik ez dela. Monzonen *Menditarrak* (1958) deritzana ere aldizkari berean argitaratu zen. *Karmel* aldizkariak ere lehengo urte haietan zenbait antzerki argitaratu zituen, bereziki Anastasio Albizu «Sustraitz»-enak.

Liburu sailak ere beste horrenbeste merezi zuten, zeren non argitaratu ziren jarri gabe sartuak bai daude Zarauzko Itxaropenaren «Kulixka sorta»n emanak: N. Etxanizen *Euskal Antzerkiak* (1958) zeritzan liburuan *Gabak zekarren eguna, Maitere... neurriz, Zotzean bizia* eta *Gabon zauria*. A. M. Labayenek: *Jokua ez da errenta* (1960), *Domenjon de Andia* (1965) eta *Kalifornia... kuku!* (1969). M. Lekuonak: *Zigor* opera (1963), *Eun dukat, Ameriketako osaba* (1965). Eta Auspoa liburu sailean P. Larzabalen: *Bordatxuri* (1962), *Iru ziren* (1962), *Senperen gertatua* (1964), *Hilla esposatu* (1965) eta *Herriko bozak edo nor alkate* (1962). Horiez gainera birargitaratuak Auspoa berak: T. Altzaga, M. Soroa, Barrutia, eta Munibe. Azkenon aipamena egiten badu ere, bijoaz oharrok urrengorako lagungarri.

Aldizkariak sistematikoki ez aztertzearen ondoriozkoa da «Edozein» izenordez (behar bada A. Ibiñagabeitia zen) 1954-55-ko *Euzko-gogoa*-n argitaratu zen J. Benabenteren *Gaitzetsia* ez katalogatzea, edo bibliografian ez biltzea Joseba Rezolak aldiz-

kari hortan 1954n eman zuen «Euzkel-Antzerkiari buruz» deritzan lana sartu gabe gelditzea.

Liburuaren bosgarren kapituluan ez dakar lehenagoko liburuaren hirurogeta hamabostgarren orrialdean zekarren aipamena, K. Mitxelenak A. Azpiazuren eritzieri jarraituz, aintzina herriz herri ohi ziren antzerkiak ematen zirela edo emango zirela esanaz. Egia da eskuartean materialik ez dugun artean hori ziurtatzea arrisgutsua dela, baina aipatze soilak bederen ikerketa kezka mantentzen du, eta oraingoan lehen baino arrazoi gehiagoz aipa zezakean. Hor dugu gehigarrien arteko Lesakan 1566. urtean antzeztu zen *La Pasión Trovada* zelakoa, zeina ez genuen ezagutzen E. Esparzak 1945ean ezagutarazi arte. Baina bada besterik ere, Piarres Lafittek Elémir Bourges-en *Gonzalve edo ostatu betea* itzulita argitaratzean jarri zion hitzaurre hartan zionez, egileagan ez ezik J. Variot-en *Théâtre de Tradition populaire* lanean oinarriturik esaten bai du E. Bourges berak aitortzen zuela Euskal Herrian hiriz hiri ibiltzen ziren antzerki talde bat ikusteaz oinarritu zela obra hori egiteko. Gaiz eta egituraz era beretsuan, eta horiek bazutela gazteleraz «entremeses» esan ohi diren antzerkien kutsua.

Oraindik badago zer aztertu. Horregatik, P. Urkizuren liburua ondo hornitua egonarren eta egungo hutsune nabarmen bat bete, bilketok jarraitzea eskatuko genioke egileari edo Antzerti Zerbitzuari. Lanik hoberenak ere ez dira hobetu ezinezkoak eta holako liburuak beti eskuartean behar diren horietakoak direnez gero, hobekuntzak izango dute aukera.

Ematen dituen aburuen aldetik erabat nator egilearekin, kritika funtsezkoak bai dira, eta liburuaren edukinean ez da parterik txarrena. Zoritxarrez, euskal liburuetan gutitan esan genezake holakorik.

Juan San Martín

PAKO ARISTI.—*Kcappo (Tempo di tremolo)*. Erein literatura 23. Donostia, 1985.

Pako Aristi-ren «Kcappo» nobela notizi on bat da, alderdi askotatik begiraturik: idazle trebe bat plazaratu zaigulako, euskal letretan ohizkoa ez den moduko nobela kaleratu digulako eta zenbait gai ausardiaz eta zuzen lumaratzen jakin duelako.

«Kcappo» nobela, egituraren aldetik, guztiz tradizionala da, linealitatea azken muturreraino daramana, nahiz denboraren aldetik, nahiz tramaren garapenaren aldetik. Zentzu honetan, Pakoren nobelan oso gutxi dago berrikuntzatik, eta arazo formalei buruzko begiradatik; gehiago oraindik, hortik ihesten saiatu dela deritzaigu Pako, esanaz bezala ez dela ezinbestekoa gazte-formalkeria bikotea, eta gazte batek, egituraren aldetik, nobela tradizional bat tajutu dezakeela agertuz.

Bestetik, Pakoren nobelak ixtorio osatu bat kontatzen digu, ixtorioak harrapaturik du orrialde bakoitza, lerro bakoitza, hitz bakoitza, abstratokeria guztiak bazterturik, kontakizunari toki guztia eskainiz, ixtoriak irakurleok harrapa gaitzala saiatuz.

Ixtorio horiek, gainera, badute oinarria bere ingurunean bildutakoak bait dira. Pakok kontatzen digun gauza asko eta asko entzuna eta ezaguna genuen. Baina handik eta hemendik bildu ditu Aristik oihalak, eta oihal horiez, toki desberdinetatik jasotako pasadizoez, soineko eder bat josi digu, puzzle tankerako bat zena, koherentzi osoz eskainiz.

Egia da tremendismoaren presentzia etengabea dela nobela honetan. Lakrimositatearen arriskuaz, drama estuegien aldapan dabilkigularik nobelagilea. Baina egia da, sarritan, tremendismo hori nahita eskaini digula egileak, egoeren bestekaldeaz ohar gaitezen, egoera horien atzean izkutatzen den seksu indarkeriaz edo beste edozein moetetako indarkeriaz jabetu gaitezen.

Era honetan, sintzeritatea eskertzen zaio Aristiri. Gauzak eta arazoak ez saihestea. Nobela bat ez dela ideia ederrez, gertakizunez baizik erakustea.

Eta darabilkien euskarari buruz ere esan nahi genuke zertxobait: Pakok ongixe daki herrian oinarritutako ixtorien puzzlea sinesgarri bihurtuko baldin bada, berosimila izango baldin bada, herri horren hizkerarengandik oso gertu ibili behar duela. Eta horretan saiatu da (saiatu da, ala bere-berea da hizkera hori? Pko, eta liburu guztian zehar eskertzen den kontua da.

Noski testuan zehar injenuitateak badaudela. Noski badirela sineskaitzak suertatzen diren elementuak ere.

Baina Ernestok bere aita hiltzea, eta gero Ernesto urkamendira eramana izatea gure inguruan gertatutako ixtoria da, bertsotan bildutakoa, taberna zulotan kontatutakoa,gure talde-oroimenean txertatutakoa. Eta horretaz baliaturik osatu du Pakok bere eleberria.

Anjel Lertxundi

JOSE MARI VELEZ DE MENDIZABAL.—*Lainopean kantari* (Artículos periodísticos sobre Alava). Diputación Foral de Alava - Departamento de Publicaciones. Vitoria-Gasteiz, 1984.

Liburu hau, izenburuaren ondotik jartzen diren hitzak heurak diotenez, prentsaren bidez Arabari buruz agertutako artikulu bilduma soila da. Hasieran E. Knörr-en solas laburra dakar, «Hitzaurre gisa» egina. Honetan, ondo dio, «Ozen mintzo zaizkigu liburu honetan Jose Mari Velez de Mendizabalen gogo-bihotzak. Izangoa (edo errealitatea) ikusi eta erakusteaz gainera, egileak sentipenak agerrarazten ditu, ez haatik burrustan, baina ezta ere tantaka». Solas beraren azken parrafoan aramaioarrek: «Arabara noa» esatea ez da gauza harrigarria. Holakorik aski bada Debarruko herrietan. Adibidez, oiñatiarrentzat giputzak Brinkolatik harantzakoak; eibartar zaharrentzat giputza Itziartik harunzkoa eta abar. Oroi andre Milia Lasturkoaren aizpak bere burua gipuzkoartzak zuela XV. mende hartan, baina ez ordea mondragoarrak. Hauek beste zerbait ziren. Haatik zion eresi hartan:

Mondragoeri artu deusat gorroto
Guipuç andraoc artu ditu gaxtoto
Yturrioç calean andra Maria Baldaco,
Artecalean andra Osanda Gabiolaco
Erribalian andra Milia Lasturco.

Horien zenbait berri eman nuen *Oñatiko Historia eta Arte bilduma* (1982) liburuaren hitzaurrean. *Vardulo* eta *Caristio* mugaren iraupena noski.

Baina nihoan zuzenago liburuaren mamira. Artikulu bilduma gaietan sailkatua dator: Barnekoak, Etnologia, Historia, Biografia eta Zenbait gai. *Deia* eta *Zeruko Argia*-n 1977tik

1979ra bitartean idatzitako guti batzuez gainera *Gasteiz* eta *Txoisa* Elkarteko aldizkarietan idatzitako banakaren bat ere badator, baina gehien gehienak Donostiako *Hoja del Lunes*-ean 1980tik 1983ra bitartean argitaratu zituenak dira. Hauek artikulu bakoitzaren erdarazko laburpenez emanak dira. Guztiz: 88 artikulu, 293 orrialdedun liburua hornitzen dutenak.

Gai edo idazki asko lehen eskutikakoak dira eta tarteka marteka iker lanik ere bada. Orokorki, irakurgai atsegina eta kultur autoktonoaren erakuslea. Irakurleak nonnahitik hasteko eta uzteko aukera du, artikulu bakoitzak bere gai eta egitura propioak dituenez, eta, orokorki elkarrekin zer ikusirik batute ere, askatasun hori eskaintzen du. Baina, lastima da aurkibiderik eza. Beti ere lagungarri bait da liburuaren aurkibidea.

Hala ere, liburu horrek badu bestelako huts bat, egileak berak zer ikusirik gabekoa. Hau da, Europako mundu zibilizatuan behinik-pehin ez da egiten libururik ataurrekorik gabe, «portadilla» esan ohi dena, zeinetan jartzen diren adibiderik nagusienak, liburu batean beharrezko diren titulu, egile, argitaratzaile, hiri eta urtea. Liburugintzan ari diren argitaletxeek jakin beharrezkoa eta bete beharrezkoa, kasu honetan Diputación Foral de Alava - Departamento de Publicaciones (azken orrian agertzen denak) edo inprimategiak berak, ohizko baldintza horiek horrela direnez.

Horrez gainera, Vélez de Mendizabal egile adiskideari dagokion parte batean zenbait ohartxo ere egingo dizkiot, historia, azterketak eta aburuak bitarteko daudenean, eskuetan erabiltzen diren materialekin ikustekorik baldin badute arretaz zaindu beharrezkoak, nere eritziz, eta behar diren zuzenketak egitera ahalegindu: «Añana Gesaltza...» (97 orr.) izenaren zuzenketa behar zuen, batez ere Saturnino Ruiz de Loizagak «Los nombres de nuestros pueblos» (Bol. R.S.B.A.P., XXXIX, 1983, 772-777 orr.) idatzi ondorean berrikusketa komeni zelako Salinas de Añana kontuan. Badakit txikikeriak direla, baina gure artean txikikeri horiekin ikaragarrizko iskanbilak sortzen bai ditugu.

Bestalde, beste txikikeri bat da, Jose Mariri uste gabean pasatu zaiona, «Foronda? Mundura zabalik» (221 orr.) artikulua Donostiako *Hoja del Lunes*-ean argitaratu zuenean ahoz aditzera eman nion Forondako parrokian dagoen erretaula nagusian Trinitatea aurkezten duen atikoa soilik zela Juan Bautista Mendizabal eibartarrarena, gainerako eskultura guziak Valdivielsok eginak direnez, baina liburu hontan ez dut ikusten zuzenketarik.

Txikikeria horiek irakurleak alde batera utzi beharko ditu. Gainerakoan liburu ederra da eta egileak ondo ere ondo egin du artikuluok liburu batean bildurik ematea.

J. S. M.

FRANÇOIS BUCHER.—*The Pamplona Bibles. A facsimile* compiled from two picture Bibles with martyrologies commissioned by King Sancho el Fuerte of Navarra (1194-1234) Amiens Manuscript Latin 108 and Harburg MS. I, 2, lat. 4.°, 15. New Haven and London: Yale University Press, 1970.

Bibliak euskal literaturan duen garrantziagatik, gure artean hain guti ezagutzen den liburu baten berri eman nahi dugu. Egia esan, obra hau, J. Goñi Gaztanbidek adierazi zuen 1971n *Principe de Viana* aldizkarian, eta Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographia*-n ere aipatzen da, IX. tomoko 22 eta 69. orrialdeetan. Hala ere, gure artean oso guti ezagutzen dela aitortuko dugu.

Bi tomotan argitaratu zen obra hau Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekan ikusi dugu. Telaz enkuadernatua, 30,5 x 20 zm. neurriz. Lehen tomoa testo hutsa da, ikerketaz, oharrez eta orijinalaren itzulpenez. 382 orrialde ditu. Bigarren tomoa faksimilez da, Nafarroako Santxo Azkarraren Biblia osoa, irudiz osatua, bostehundik gora planatakoa. Irudiok latinez adieraziak dira eta ingleserako itzulpena lehen tomoan dator.

Azterketaren lagungarri Erdi-Aroan horren antzerako Biblietatik jasotako 108 irudi datoz. Beraz, Bibliaren informaketa haina artearena dator. Baina, gure kasoan bere garrantzia du XIII. mendean Nafarroako erregeren kortean era horretako Bibliak ezagutzen zirela jakiteak. Era berean, gure herrietan zer-nolako ezagutza zuenaren aztarna ematen digunez. Leizarraga bera eta inprimategiaren sorkuntza baino lehenago ere bazen Biblia ezagutzen zuenik, eta gai hori erabiltzen duenarentzat kontuan hartu beharrezkoa iduritzen zaigu.

MALORES ETXEBERRIA, IÑAKI GLEZ. DE GARAY, BEGOÑA MENDIGUTXIA, JUANJO RUIZ eta ALIZIA STÜRTZE.—*Sorginak eta errepresioa Euskal Herrian (bi kultur molde aurrez-aurre).* Gordailu. Donostia, 1984.

Elkar lanean prestatutako liburu hau Xosé Estévez historiagilearen hitzaurrez dator. Horrez gainera, historiagile horren eta Jaxinto F. Setienen gainbegiratuarekin.

Historia saiaerazko libururik gehienek bezala, honek ere, bere alde onak eta txarrak soinean daramazki. Titulua eta parentesi tartean daroana irakurri ondoren, edonork pentsatuko luke Euskal Herriko kultura zaharraren errepresioa izan zela hemen XVII. mendearen haseran gertatu zena. Sorgin kontua supertizioaren munduan eman dena eta ematen dena da, kristautasuna baino haruntzago doana. Hori jakiteko aski da Testamentu Zaharra irakurtzea edo kristautasunik iritsi ez den herrietako sineskerak aztertzea. Hala ere, liburu horretan aurkitzen dudanik txarrena, zera da, sineskera zaharretako mitolojia eta sorginkeria nahastea. Etnologo eta historiagileek aspalditik hainbeste lan egin dute gai horiek elkarrengandik bereizten eta orain, gezurra badirudi ere, bat batean eta historia ikertzaile izenean hor berriz ere elkar nahasirik. Akelarre zinemara eroateak nahasmendurik aski ekarri ez balu bezala.

Informatzaileak lehenik berak informatu beharra du gero besteeri adierazteko, sorginez aritzean sorginkerietan erori ez dadin.

Bibliografia irakurtzean, badirudi, oinarri-oinarrizko iturrietara jo dutela. Baina iturri horiek zehaztasunez begiratu beharrezkoak dira, bestela itsasontziaren aingurarena gertatzen da, mundu guzian ibili baina ezer ikusi ez. Kasu honetan bibliografia berak erakusten digu beraren erabilera. Adibidez, lehen lerroan datorren *Las brujas y su mundo* J. M. Barandiaranena dela uste izatean. Sorginetaz idatzi diren liburu xorta hartu eta edonola jartzeak erakusten digu lanaren axolakabekeria.

Baina, hori ere gaitzerdi bestelako nahasmendurik ez balekar. Adibidez, 17. orrialdean badirudi Servet ere katolikoak erre zutela. Ez bai dute Galileo eta Servet-en artean bereizkuntzarik egiten. Gero, 19.ean, aberats eta pobre, boteretsu eta jopu «Testu inguru sozio-ekonomiko honetan kokatu beharko genuke sorginen arazoa ere». Bapo! Jules Michelet-ek 1862. urtean argitaratu zuen *La Sorcière* liburuan (hauen bibliografian ez datorrena) eman zituen aburuak hara hor non datozen. Gustav Henningsen-en lehen kapitulua behar bezala irakurri bazuten (bibliografia zerrendan jartzea ez da aski), gutienez ere zalantza izanen zuten eta holako egiztapenetatik ihes eginen zuten. Kezka izpirik izan balute, ez garai haretako elizak eta ez lehenagokoak deus ikustekorik ez zuela aintzinago Deuteronomio-k azaldu zuen edo salatu zuenarekin: «Ez bedi zurean aurkitu bere seme edo alaba sutan barna igaro-erazi dutenik, ez asmaginik, ez aztirik, ez sorginik» (Deut. XVIII, 10). Beraz, zertara dator 32-33. orrialdeetan adierazten dena? Liburuak idaztean kontu gehiago izan behar dugu. Grezia zaharreko pentsatzaileek ezer erakutsi baziguten analitikoak izatean datza.

Aurrerago, 41. orrialdetik, gauzak serioago datoz. Hor ere, pundu batzutan ohitura zaharrekin parekatu nahi badute ere. Ohiturak ere berezi beharrezkoak dira. Sorginkeriak toki segururik izatekotan supertizioarena da. Supertizio hori, sorgintzat hartuengandik baino gehiago beste nornahik sorgina ote zen susmotikakoagoa zen. Eta, historian argi dugu gorrotozko txarkeriak egiteko aprobetxatu zutela anitzek.

Gertakariak historiatzean lan hobea burutzen dute egileek. Hala ere, zenbait pundutan ez gaude akort. Adibidez, 73. orrialdean, Inkisizioaren adierazpenak ematean, «Inkisizioa delako eliz aginteak (azken batean botere zentralaren zerbitzuan) eraman zuen aurrera». Baina, bestelako botererik ba ote zen? Hori irakurtzean, badirudi, zentralismoaren errepresioa izan zela. Gainera, liburuaren izenburuak ere uste hortarako bidea ematen bai digu.

Inon ez du aditzera ematen sorginen salatzaile herriko jende xehea zela, populua bera jaunei, elizako erretoreari edo

goragoko agintariei salakuntzak egiten zitzaienak, jaun horiek Inkisizioko tribunalari parte eman zezaten. Ez da gauza berria sorgin ihiza, eta edonork daki ihizariak auzoan zirela, etxe berean ez zirenean. Baina, maila bereko jentea. Lancre-ren aurrez aurre Etxauzek hartu zuen jarrera adierazten du, baina baita ere adierazi beharrekoa zen burgostarra zela Logroñoko auziak zuzenak ez izatea salatu zuena: Alonso de Salazar Frías. Gure herriaren eta gure kulturaren errepresiorik horrek ez du erakusten. Bestalde, Zugarramurdin «salaketa pila jaso ahal» izatean (82.orr.) nork salatuak ordea?

Hala ere, liburuaren parte batzuk interesgarriak dira. Lancre-ren iritziak oso ondo jasoak daude 75. orrialdetik aurrera.

Sorginen kontuak, XV. mendetik, erlijioak elkarrekin borrokatzeaz badu zer ikusirik. Euskal Herrian kolektiboki eman zen fenomeno hura lehenago Frantzian, Alemanian, Austrian eta Italiako ifarraldean emanaren antzerakoa zen. Bere era klasikoan «Malleus maleficarum» araura agertu zen (ikus, J. Caro Baroja, *El Señor Inquisidor y otras vidas por oficio*, lehen kapituluko zazpigarren partean).

Lapurdi aldean XVII. mendearen haseran eman zen, 1609. urtean epaitzeko. Aintzinago Nafarroako zenbait tokitan ere bai, bereziki ekaldean. Ez dugu aski ageri horietara kalbindarren mugimendua iritsi zen, baina bai Zuberoara. Gogoan izan Lancre epailariak euskaldunak berez gorrotogarri bazituen ere, idazkietatik agiri denez, hugonoteak sarrera izategatik ere guretarrentzat mesfidantza zuela. Baina, bestalde, oroi Leizarragaren garaiko jauntxoak kalbinismoaren aldekoak zirela, baina ez herria. Hor ere, gure historiaren arabera, Michelet-egandik datozen teoriak ez dute balio, eta elkar lanean euskaraz egin den liburu honek, zuzenki ez bada zeharka, egile horrek barreiatu zituen eritzietan du argudiozko egitura.

1609. urtean, Lancre-ren epaiketak hots handia atera zuten, psikosis-kolektibo izugarria sortu ere bai eta beldurtuak ihesari eman. Handik datoz lehen sorginak Zugarramurdira. Sorginak? Hobeto esango genuke sorgintzat hartuko zituzten beldurrez. Baina ordurako adi zeuden muga inguruko herriak eta beldurrez heurak kutsatuko ote ziren.

Hori zen Logroñoko Tribunalaren hasiera. Baina, 1611.ean bat batean uzteak ere zerbait esan nahi du. Botere «zentral» hori izan zen apaiketak finitu zituena, erregeren eskua erakutsiaz. Beraz, gauzak ez dira, puntu horretan behinik-pehin, liburuan kontatzen diren bezala.

* * *

Negatiboki jardungo ez banaiz, sorginkerieri buruz nerekiko eritziak agertzea premiazko iduritzen zait.

Zer ziren Sorginkeriari buruzko eritziak? Sorgina, Naturalezaren gainetik dagoen zerbait bezala hartzen zen: hegan egiteko ahalmena, zein giltziaren zulotik sartzeko ere. Bestalde, herexia mailetarako garrantzizkoagoa, Satanen taldekoak. Akelarre bilerak, aintzinako *sabbat* legez: meza beltza, aker gurtzea eta abar. Horietatik zetozten gaitzak: begizkoak, gaixotzeak, haurren heriotzak, ondare edo soroeri gaitza sartzeak eta abar.

Jules Michelet-en teoriaz (1862), errebelde taldea, Erdi Arotik elizarekin deskontent zeudenak osatua. Herexiaren funtsa hortikakoa du. Bere ideak hedakunde handia izan zuten, eta geroago marxismoa eta feminismoa aprobetxatu ziren, bakoitzak bere neurrira eroanaz. Baina, bere teoria horiek, erromantikoen joera fantastikoez zeharo kutsaturik zeuden. Margaret Murray egiptologari (1921) ez zion on handirik egin Michelet-en teoriak, sorginkeriak kulto zaharren jarraitzaile zirela sinesteko eta esanerazteko.

Gero, Montague Summers (1926) etorriko zen, Pierre Lancre-ri irakurriaz ondore hau ateratzeko: sorginak satanistak zirela. Baina, Sorginekiko ikuspegia, gure egunotan, beste era batera begiratu beharra dugu, bereziki Julio Caro Barojak 1933an *Anuario de «Eusko-Folklore»* urtekarian eman zituen agirien arabera. Han azaldu bai zituen Inkisizioko epaiketen zenbait agiri.

Hala ere, azken azterketarik sakonena, zalantzarik gabe, G. Henningsen-i zor diogu, *The Witches' Advocate. Basquet Witcheraft and the Spanish Inquisition* (1980). Gazteleraz 1981ean argitaratu zena: *El abogado de las brujas*, eta Alonso de Salazar Frías inkisitore zenari eskainia, sorgintzat epaituen alde ondo jokatu zuelako. Hau izan bai zen, Logroñon inkisizioko epailarietariko bat sorginez sinesten ez zuena eta auzirik ez egiteko lanean aritu zena.

Kontu izan, auziak 1609-1611 horietan, bi urteren buruan, egin zirela gero bat batean uzteko.

Gero, oroi, behin eta berriz errepikatu behar badugu ere, Ifar Euskal Herritik ihesik etorri zirela lehenak, Pierre Lancre-ren pertsekuzioarekin izuturik, Zugarramurdi eta Urdazubin kokatzeko.

Ordurako erlijiozko gerrateak iraganak eta juduak Espainiatik deserrituak baziren ere, ez ahaztu Trentoko Kontsilioaren eraginez (1545-46) profano edo jentil ekintzen kontra hartu ziren erabakiak, ezta ere ez ahaztu 1609an bota zirela Espainiatik azken arabeak. Beraz, giro hori da garaia haretakoa. Ezer guti behar zen jende artean psikosiza sortzeko eta guziak sorgin ihizari hasteko. Herbesteko edozerk edo edonork sortzen zuen susmo iluna, sospetxa.

Horregatik, sorginak inon kokatzekotan, superstizioaren munduan kokatu behar dira eta ez aintzinako beste kultura baten sineskeretan. Sorginkeriaren sineskerak mundu guzian zabalduak daude, mendeak zehar ,gure egunokarteko iraupenez. Gezurra badirudi ere, oraindik ere badira sorginekin sinesten dutenak, eta sorginkeriekin nik neuk ere bai. Zenbait liburu irakurri besterik ez dago.

Baina, sorginekin mende guzietan sinistuarren, gertakizunen gora-beheragatik, XVII. mende haseratik XVIII.aren bukaerara arte, Inkisizioa bere indarrean iraunarren ez zen beste epaiketarik gai horretaz.

Mito eta kondaira zaharrekin inoiz nahasian agertu bazaizkigu ere, sorginak heuren izate propioaren jabe dira, horietan

sinesten duenaren baitan. Akelarrea ordea, aintzinako orgiak eta fertilitate erritoekin bere funtsean. Nolabaiteko erromes tokiak. Adibidez, honetan oinarritzen nuen «Arratzen sortzen da bizitza» deitu lana (ikus, *Iker-2. Piarres Lafitte-ri omenaldia*, 849-866 or.) Baina, akelarreak, gehienen baitan amets hutsak, eta ohetik mugitu gabeko harat-hunatko ibilerak. Hango praktikak, suaren inguruko dantzak, aker, apo, unjento, posoin, sorgin salda..., amets hutsak. Eginetan edo egitezkoan baino entzutezkoan gehiago oinarritzen direnak.

Esamesetan herejia kutsurik ere bada, bereziki Satanen, eta Elizaren kondena dator, Ofizio Santuak ere bere egitekoa bete beharrez. Azkenerako, hori, «ofizioa» bete.

Valle, Becerra eta Salazar Frías inkisitoreen txostenak ere irakurtzekoak dira. Agiriok bost mila aletan daude, eskuizkribuz, Archivo Histórico Nacional-en, Santo Oficio-ko bezala, Simancas-etik hara eramanak eta G. Henningsen-ek banan bada begiratuak. Michelet, Murray eta Summers ez ziren iritsi agiri horiek ezagutzera. Beraz, gaur egun, balio kaxkarra eskainiko digute, Euskal Herriko sorgineri buruz, horien eritzietan oinarrituriko lanak.

Epailariek nahi zutena aitortzera eroaten zuten salatu-atxilotua torturaren bidez. Gainera, epailariek ez zekiten euskararik eta itzultzaileen bidez ibili beharra zuten. Agiriok erakusten digute, sorginak, gizajo inozente batzuk baizik ez zirela.

Horregatik, ez dezagun beste era bateko mitorik sortu «bi kultur molde aurrez aurre» ikusi nahirik. Zeren, jokaera hori, inkisitore txarren parekoa litzake.

J. San Martin

KOLDO IZAGIRRE.—*Euskadi merezi zuten.* Hordago Publikapenak. Donostia, 1984.

Aresti liburu sailean Hordagok argitaratutako eleberri gisara idatzitako narrazioa.

Goiko botereetatik gertakizun eraginkorrak datozenean herri apalak nola hartzen eta eroaten dituen jakiteko liburu aproposa.

Egilea, bildutako gertakariz eta kondairaz baliatzen da. Berak zuzenki ezagutu etzuen garai jakin batean gertatuez, Errepublika etortzetik frankisten gerra bukatu arte. Zatikaturik eroaten du bere kontakizuna, baina zatiok ez daude horizontalki edo era linealean kontatuak, han-hemenkakoak sare batean harturik bezala baizik. Hala ere, denak dute elkarrekin zer ikusia, giro berak lotzen dituenez. Kronolojia zainduarren, tokiz eta pertsonaiez alderantziak dakarzki. Gaur egun asko erabiltzen den egitura da, baina irakurleari haria erraz joaten zaiona. Horregatik, egitura horrek ez gaitu gehiegi betetzen. Idazkera aberatza du hitzez, irudimenez eta estiloz eta horrek laguntzen dio irakurgai atsegina izatera.

Euskal literaturan, zoritxarrez, gutiegi baliatu gara anaiarteko gerrate hortaz eta bere inguruaz. Baina materialik ez zen falta. Urteak igaro ondorean, nork pentsatuko zuen Koldo Izagirre bezalako gazte batek holako narratiba eskaini behar zigunik? Normalagoa zen garai berekoek idaztea, baina ezer guti egin da. J. Eizagirrek utzi zigun *Ekaitzpean* (1948an Buenos Aires-en argitaratua), S. Salaberriak *Neronek tirako nizkin* (1964an Tolosako Auspoak), baina gainerontzean zer? Garapen ahula izan du gure literaturan zuzenean hainbeste ikutu gaituan gerra harek. Alde horretatik ere badu meriturik egileak. Ez baita edonolako bilketa. Liburuaren barna pasarte interesgarri asko adierazten ditu, eta holako gai bat tenple hortan idazteak ere baditu bere alde onak. Egileak bere burua ondo gordetzen du taldeetara irauli gabe, gaiak berak hortarako tentasiorik ematen badu ere.

J. S. M.

ANTZERKIA

ALEJANDRO TAPIA PERURENA EUSKAL IDAZLEA

Aurkezpena

Jose M. SATRUSTEGI

Euskal idazleen kopurua ez delarik hain ugaria, izan ditugunak ere ez dira une honetan behar bezala ezagutzen. Akatsaren zergatia aztertzeak nere lantxo honen mugak baino zabalagoko hedadura eskatuko luke, eta oraingoz ezin.

Baina, besteak beste, hogeita hamaseieko gertakizun tamalgarriek itxaropen askoren zeru urdina hankaztatu zuten eta sorketa amets guzien izarra gau beltzean desagertarazi izpirituaren hego lainotsuak bertan betirako etenik.

Aurkipen xume baten ildotik datorkit bat-batean desagertutakoen oihu isila. Duela pare bat urte, esku izkribu mordoska aurkitu nuen Iruñeko liburudenda batean. Erdarazko zirriborroen artean bazen euskal iskione frango eta, bertan, baserri giroan burututako antzerki ez-ezagun baten orri arruntak, zuzenketaz beterik. Niretzat arrotza zen Alejandro Tapia Perurena baten izena agertzen zen gutun eta aldizkariren baten harpide txartelean. Filosofi-gai eta burubide sakonik ere bazen paper haietan eta egilea gizon ikasia zela ageri zen. Kezkati hasi nintzen aztarnen bila nere ez-jakintzaren hutsunea betetzeko asmoz.

Jon Bilbaoren bibliografian bere hogeita bost bat idazlanen aipamena aurkitu nuen. Olerkiak ia denak. Aita S. Onaindiak aipamen baikor hau eskaintzen zion olerki batzuren au-

rretik: «Gizon jakitun honek giartasunez josita dakarskuz bere sorpen guztiak, ileta min ta biotz-intzirak geien bat. Olermen-ego zabal dabilkigu aldi oro; ezta ibar zale txepetx antzera, zeru oztin zale bai arrano lez. Eusko-olerti gudu ta jaietara sarri bialdu ebazan bai olerkiak bai poematxoak» [1].

A. Irigaray jaunak ezagutu zukeela bururatu zitzaidan halako batez, eta bere liburu eta idazlanetara jo nuen berri bila. Olerkariaren bizi eta nortasunaz zerbait ba zekarren. Euskal idazle txukun eta olerkari apaina zela, dio besteak beste. Gizon apala eta bihotz onekoa omen zen. Iruñean jaio eta euskaldunberri izanik, herri kutsuko euskara ederrean idazten zuela aitortzen du. Eta jakintza aldetik, hizkuntza arrotzak ere mintzo zituen. Doitxeratik, esate baterako, zuzenean itzuli omen zituen olerkari erromantikoen zenbait lan [2].

J. San Martín dugu euskal idazle eta literatur gaietan no rabide baliagarririk eskaini ohi digun gizon prestua. Tapiaz dioena, zein aldizkaritan argitaratu zituen bere lanak, eta gerra ondoren ez zela gizon honen berririk. Bere ustez, 1940 inguruan hila zatekeen [3]. A. Irigaray jaunak ez zuen zehaztasun hurbilagorik eman, «muerto hace unos años» zioelarik, besterik gabe, 1974-ean.

Gezurra badirudi ere, euskaldunok geure gizarteko idazleen nortasun txartela edo agiria betetzeko gauza ez gara izan. Horrela, edonor gure artean arrotz gerta daiteke itzali orduko. Euskal Idazleen Elkarteak badu arlo honetan zereginik.

---

1. S. Onaindia. *Milla Euskal Olerki Eder* (Larrea, 1954) 1036. or.

2. «Tapia fue un atildado escritor eúscaro y delicado poeta en la misma lengua. Muerto hace unos años en Pamplona, su ciudad natal, publicó poesías de elevado lirismo. Hombre humilde y de delicados sentimientos, escribió en un hermoso vasc. (que no le venía de la cuna), sin alejarse del acento popular. Poseía una cultura poco común, y tradujo del alemán directamente al vasc. (lo cual no es corriente entre poetas castellanos), algunas poesías de Uhland, y otros románticos germanos». A. Apat-Echebarne. *Una geografía diacrónica del euskera en Navarra*, 1974, p. 42.

3. «Nació en Pamplona. Poeta. Colaboró en "Yakintza" los años 1933-36. Algunos de sus poemas vieron la luz en los volúmenes "Eusko Olerkiak" (Poesías vascas) Tomos I y III, años 1930 y 1933. No se han sabido noticias suyas en la post-guerra. Se cree que murió hacia el año 1940». J. San Martín. *Escritores euskéricos*, 1968, p. 103.

Honela piztu zen nigan A. Tapia Perurena nafar idazlearen biziko gora-behera nagusien berri ikasteko asmoa. F. Ondarra euskaltzainari esker eskuratu nituen gerra aurreko aldizkarietan argitaratu zituen lanen kopiak. Eguneroko berriak, aldiz, haren alargunarengandik zuzenean jaso ditut.

Irakaslea eta gizona

Korpus Laquidain anderea, Ezkabarte bailarako Orrio herriskan jaio zen, Iruñerrian, eta Alejandro baino askoz gazteago da. Tapiatarrek katedrale ondoko Navarrería kalean zuten dendan ezagutu zuen neskatillak bere senarra izango zen gizona. Argizari eta txokolate botiga hura Iruñean zaharrenetako bat omen zen. Oso etxe ezaguna, noski.

Alejandro, bost senidetan hirugarrena, 1899-ko abuztuaren 11an jaio zen. Dirudunak zirenez gurasoak, hezkuntza apartekoa izan zuen mutilak. Iruñeko eskolak amaitu orduko, hiru urte igaro zituen Parisen frantsesa ikasten, eta beste bost Alemanian. Euskara Iruñean ikasi zuen.

Ilundain, irinen merkataria, lehengusua zuen eta kontuak Alejandrok eramaten zizkion. Ez atsegin zitzaiolakoz, noski; «berea ez zen hori, dio emazteak, ezin bestean egiten zuen. Liburuak eta irakaskintzako mundua zen bere gogokoa». Eskolak ematen zituen bere etxean nahiz ikasleen etxeetan. Orduko batxiller ikastaroetan sartzen ziren gai guziak: gramatika, matematikak, geografia, frantses. Beste batzu aleman eta euskara ikastera etortzen zitzaizkion etxera. Euskarazko eskoletan adinetako jendeak ere baziren.

Lekarozko helbidea aurkitu dudala bere eskutitz eta aldizkari zorroetan, aditzera eman diot Korpusi. Berak uste duenez, hiru bat urtez egon zen Baztango ikastetxe ospetsuan euskara irakasten, maisu alegia. Lekarozko gutun horietako bat, «Juventud Vasca» aldizkariaren zuzendariari egin zion eta 1921.eko apirilaren 25ekoa da.

Kazetaritza ere zaindu omen zuen une batean. Atzerrian egon omen zen ofizio honetako egin beharrak betetzen. Ezkon-

du aurreko ibilerak direnez, ez daki alargunak beste xehetasunik. Lau-bost hizkuntza jakiteak irtenbide asko ekartzen zion Alejandrori.

Tapia berandu ezkondu zen; alargunak dioenez, hamar bat urte egin zuten elkarrekin eta lau urteko alaba utzi zion, María Jesus, 1957-ko maiatzaren 11-an itzali zelarik. Geroztik, ama-alabak bizi dira, Alejandrorekin zuten Aldapa kaleko etxe berean [4].

Adimen eta jakintzaz landa, gizon oso etxekoia eta izaera atseginekoa zela, dio Korpusek. Ezkondu aurretik olerki hunkigarriak idazten omen zizkion berari. Euskarazkoak itzuli egiten zizkioten, ez bait zituen ulertzen. Asko goratzen omen zuten bere lana. Ba omen zen etxean liburu eta paper frango, baina nagusia hiltzean emazteak izan zuen krisialdian baserrira joan behar izan zuen, eta ez daki nola joan ziren gauzak sakabanatzen.

Iruñeko abertzaleekin bildu ohi zen egunero gerra aurrean. Gerra hasi zenean beldur haundia sartu zitzaien eta ez zegoen biltzerik. Azkeneraino jarrai zitzaizkionen artean bi adiskide min aipatu ditu Korpusek: Jose Agerre eta Jose Perurena, Leitzako sekretario izana, bere lehengusua.

Nondik nora ibili diren inork ez dakien paper horien bilduma da noizbait nere eskuetara etorri zena. Beste gauza askoren artean paper oriska, merke eta latzetan dator aipaturiko antzerkia. Kazetari denboran edo, arkatzez idatzia dute zerbait alde batetik. Ulerkaitz eta oso iluna da hor dioena. Bigarren alderdian dator euskal antzerkia eta tinta urdinez idatzirik dago aisa ulertzeko moduan. Zuzenketa asko egin zizkion idazleak eta denak kontuan izan ditugu oraiko argitalpen honetan. Itxuraz lehen zirriborroa da, eta ezagutzen dugun bakarra.

Dagoen dagoenean emango dugu, *rr* eta *ll* bikoitzak sartuz, hala nola *tt*, gaurko ortografiari dagokionez...

---

4. Iruñean parte zaharreko Aldapa kalean, 3-2, eskubi, bizi zen ezkondu zenetik, eta bertan jarraitzen dute bere emazte eta alabak. Ezkondu aurretik ostaturen batean egon ohi zen.

KATTALIN UMEZURTZA

Alejandro Tapia Perurena-ren antzerkia.
Jose M. Satrustegi-k jaso eta plazaratua.

EGILEAREN OHARRAK:

(Escenario) Portalón de entrada de un caserio.
(Lehen ekitaldia) I Kattalin sola: «Nere amatxo...»
Lamenta su triste vida.

Gure mendietako xoko polit bat. Belai mardul bat zenbait sagarrondoekin.

Ezker aldera baserri bateko atari galanta. Pareta (orma) ondoan, zumbil aundi bat, ta aren gañean yarria, Kattalin.

— I —

KATTALIN.—*(Zapia altxatzen delarik, abesten ari da, zangoekin eres-neurria eramanez).*

Ene amatxo biotzekoa,
gogoan zaukedazana:
urrunago ta indartsuago
maitatzen zaitudazana.

(Burua paretan irozo (apoyar) ta, begiak zerurontz jasotzen ditu, ta onela dio:)

KATTALIN.—Ene amatxo maitea: zein illun utzi nauzun mundu beltzuri ontan. Zu emen zinela, zorionekoa nintzen. Goizean esnatzen nintzelarik an ziñen zu, nere aurpegia musu gozoaz yazteko. Eskolatik itzultzen nintzelarik, ongi goxoak izaten ziren zure beso maitekorren besarkak. Ta arratsean, bildurti, geratzen nintzenean, zu nere ondoan baziñan, etzan batere bildurrik. Eta kantatzen ari zinela nere oatze bazterrean; pixkaka-pixkaka loak artzen ninduen.

Orain ordea, nere amatxo gaxoa galdu dut. Neretako ezta besarkarik, ez musurik. Beste umeak etxera itzultzen direlarik badakite an zai dagokiela amatxo. ¡Ta nolako pozarekin yoaten diran aren magalera! Ni, berriz, etxeko garaia datorrela, illun-illunik kezkati ta bildurrez betea etortzen naiz.

Nere amatxo gaxoa il ondoan, aitatxok egun batez esan zidan: Kattalin, laister ekarriko ditzut beste amatxo. —¿Beste amatxo?— egin nion nik— Bai, beste amatxo. ¡Ez duzu esaten zure lagun guziek amatxo badutela ta zuk ez? Orra ba; egun batzuen buruan, zuk ere izango duzu amatxo bat. ¿Nola liteke ori, ordea? Nere amatxo zeruan dago: beste amatxo ez zen nere amatxo izango.

Aitatxo oldozkor gelditu zen, ta gero belaunetan artu ninduen ta musu bat eman zidan esanaz... ¡gaxo Kattalin!

Egun batez, amatxo berria etorri zen. Berakin, nexka bat eta mutiko bat ekarri zituen. Baño amatxo berriak okendako zituen musu ta maiteki guziak. Bein mutiltxoa magalean zeukala, urbildu nintzaion ni ere, ta esan nion: amatxo! Ta ark, burua nereganantz itzuli ta esan zidan gogorki: «i ez aiz ene alaba». Isil-ixilik atera nintzen sukaldetik, sartu nintzen xoko batean ta negarrari eman nion. Len, amatxorik ez nuen. Orain, berriz, maite ez nauen amatxo daukat.

Ene amatxo gaxoa, ene egizko amatxo, zeruan zauden amatxo kutuna: zure alabatxo gizaxo au, etxe ontako neskamea bilakatu da. Ez dut egon nai zugandik urrun. Zure neskatikoa ainbeste maite zenuen amatxo orrek: enaramazu zure gana. Emen, beti illun ta negargale nago ta. *(Negarrez asten da).*

— II —

KATTALIN, JOXE

JOXE *(etxetik ateratzean).*—Negarrez, orain ere, illupe ori. Errango zionat gero, amatxori. Obe unan lana egiten baun, alper aundi orrek!

KATTALIN *(Arin zutitzen da).*—Ez, otoi, ez erran amatxori negar egin diatela *(Mantalakin begiak idortzen ditu).*

JOXE *(Iseka eginez).*—Ez erran amatxori... ¿Zertaz egiten din ba, zatar alaena?

KATTALIN.—¿Zertaz egiten diaten? Ez dakit ba. Len ongi alaia nintzen. ¡Zenbait aldiz, nere amatxo zenak erran zidakan etxe ontako alaitasuna nindukala. Orai, berriz, nere alaitasuna ¡tokitan dago!

JOXE.—No! Asi adi, berriz ere negarrez! Zeñek du kulpa negarontzi bat bai aiz?

KATTALIN *(Aserretzen asten da).*—¡Len ez nindukan ba! Norbaitengatik izain dek ¡orra!

JOXE *(Iseka eginez).*—Norbaitengatik izain dek... Zarpail-zikiña. Gaie emendik zerri-bazka prestatzera. Ez aiz lotsatzen olako (soñe) —mantal zatar— zikiñokin etxeko atean egoten. ¡Jendeak zer esan bear duten ere, alako kitokume ate-ondoan ikusi-ta!

KATTALIN *(Aserre bizian).*—¡Ni kito-kume! Ez dek emen nere amatxo gaxoa...! Ta zeñek dik kulpe esango diat nik ere, nere mantala zar, zarpail ta zikin ba zegok! Ondo zekik bañan ez ziot esango. ¡Tori! (zure arreba balitz...).

JOXE.—¿Nork izan bear din? ¡Ik, ik, alper alaena! ¡Kito-kume zikina!

KATTALIN *(Aserre izugarriaki).*—¡Ni kito-kume! Gezurra, gezurra!! Ta, i ¿zerr iaiz? ¡Astaputz andi bat! orra... ¡Astaputz, astaputza!

JOXE *(Zematuz).*—Jo ta botako aut! ¡Ixillik gero!

KATTALIN.—¡Ez diat nai! ¡Astaputza, astaputza! Ta gañera bare-yale, orrela deitzen aute (dikitek) zure lagunek. ¡Bare-yale, bare-yale!

JOXE.—¡No! ¡Kito-kume zarpaila! *(Yoka asten zaio. Neskatikoa(k) bere burua zaitzen du).*

KATTALIN.—¡Berdin dek! ¡Ez nauk izituko ta ez nauk ezta ixilduko! ¡¡Kito-kume!! ¡Bareyale!

— III —

KATTALIN, JOXE, PATXIKO

Lengoak, Patxiko ta mutiko (ume) mordoska bat. *(eskuin al detik agertzen da Patxiko).*

PATXIKO.—¡Jo! Orra gure Joxe azkarra *(atari dan lekurontz itzulita)* Aizue, adiskideak!, ¡atozte abudo. Orra non dagon Joxe, ongi arazotua (ocupatua) gañera! ¡¡Atozte abudo...!!

MUTIKUAK *(urrundik).*—¡¡Eldu gaituk...!!

PATXIKO *(onen oiuak entzutean, Joxek Kattalin utzi du bakean. Au negarrez asten da).*

PATXIKO *(isekaz).*—Banekikan «balientia» itzela bañan ongi aski zekusat (ikusten diat), ire «balentia» guziak neskatikoak izitzeko gordetzen dekala. Mutikuekin, ez augu ikusten (akusgu) orren ausarta, aatik; *(Urbiltzen da)* ¿Zer egin diok Kattalin-i?

JOXE.—¿Iri zer? Ez duk emen egitekorik.

PATXIKO.—Jo nere solasak iretsi bearren naurek. Uste nikan baño bioztuna aiz. ¿Zertaz jo duk Kattalin?

JOXE.—Gogoa etorri zaidakelako. Gaie emendik. Ez duk emen ikustekorik.

PATXIKO.—Aizak, i ¡Kontuz ibili gero! Badiat emen ikustekorik. Len, neskatiko polit bati mintzen dikan biurri zitalari ibazi (merezi) bikaiña emateko... Ta gero, atzendu zaik Kattalin nere lengusiñe dekala?

JOXE.—¡Bai nai badik!

PATXIKO *(Kattalin'i urbiltzen zaio).*—Zer egin dikin astakirten orrek?

KATTALIN.—O, ez duk ezer. Biok aserretu gaituk. Arrek kitakume deitu niauk, ta nik berriz bareyale. Ordun yoka asi zai-

dak. Baño ez kasorik egin. Ni naiz erruduna; ez nioken orrelakorik erran bear.

PATXIKO *(Kattalin'i).*—I aiz erruduna! I beti bertzien gaiztakeriak ire gain artzen! Ez, i ez aiz erruduna. Bazekiat ongi aski nor deken emen erruduna; kaiku ori, ta orrekin batean etxe ortan sartu ditukenak.

KATTALIN.—Ixo, Patxiko, ixo, Jainkoaren izenean.

PATXIKO *(Joxe besotik atzi ta gogorki iñarrasten du).*—Aizak, kaiku: berriz ile bat ukitzen ba diok Kattalin'i xeatuko aut.

JOXE.—Utzak. Zer zaik iri. *(Bultzada batez baztartzen da).* Nik egiñen diat nai diatena. Ta gogoa etortzen ba zaidak zanpatuko diat kitakume ori.

PATXIKO.—Oraintxe ikusiko diagu nor izain deken zanpatua *(Joxe'n gana doa aserre bizian).*

KATTALIN *(Bien artean yarrita).*—¡Patxiko, Patxiko, otoi, ez yo!

— IV —

LENGOAK TA MUTIKO MORDOSKA BAT

(Mutikoak sartzen dira laisterka eskuin aldetik).

MUTIKO I.—Kaxo. Eldu gaituk. Bañan zer ari zerate? Auxen duk komedi! ¿Mutur yoka? ¡Tira, tira emen ez dugu aserren bearrik! ¡Tira, baketu, ta gauden adiskide!

II.N MUTIKO *(Parretsuki).*—¡Ori duk! Ta aserretu nai duenak, nerekin kontuk garbitu bearra izain du.

BESTE MUTIKOAK.—Ederki errana! ¡Gora gure buruzagia!

III-MUTIKO BAT.—¡Gora gure kaligorri *(luze)*!

II-MUTIKO.—E! ze erran duk? ¡Mille demonioa! *(Beti irritsuki, maukak goratzen ditu okondoraño ta ayeruka (kiñuka) II. mutikua arrapatzera doa. Bat-batez, yauzi aundi bat dagi, baño une berean III m. lurrera botatzen da, ta onekin trabatu ta, II m. zalapartaka erortzen da). III m. gana doala dio:* Madarikatua! oraintxe ikusiko duk zer dituken atzapar ok. ¡Arri! *(yauzi dagi ta erortzen da).*

GUZIOK *(oyuka ta zalapartaka).*—¡Gora gure buru zagi! ¡Gora gure errege I'go kaligorria! *(II m. zilipurdi bat egiñik zutitzen da).*

MUTIKO BAT.—Aizak, adiskidea, atzeko aldean zilo galanta baduk.

II M.—¡Ene! ¿Ageri alda?

MUTIKOAK *(oiuka).*—¡Errege zarpala! ¡Gure erregea atzeko aldetik urratu da! ¡Bestelako erregea! ¿Nola egin duk zarratako ori?

II M.—¿Nola egin diaten? Errango ditzuet.
Baño... adiskideak, onezkero eskola-garaia duk. Tira, erregeak agintzen ditzue! ¡Guziak eskolara! ¡Abudo gero!

JOXE.—¡Ez motel! ¡Zer eskola ta zer eskolondo! ¡Egin dezagun piper!

PATXIKO.—¡Ez yauna! ¡Eskolara yoan bear gaituk!

II M. *(Erramuni).*—¡Gogorakada[1] (gogorapen) bat!

PATXIKO.—Ia ba, kaligorri ortatik ateratzen dan gogorakada ez da gauza onik izain.

ERRAMUN.—¡Ik zer dakik! Ona nere gogorakada: ¡goazen sagarrak ebastera!

GUZIAK.—¡Gora zu! ¡Iupa! ¡Gora kaligorria!

PATXIKO.—¡Banean kaska gogor ortatik ez litzakakela gauza onik aterako!

---

1. Lit.: Gogorakaka.

JOXE.—Aizak ik; baño ¿non dituk sagarrak?

ERRAMUN.—Bazekiat, bai non dituken ¡ongi ederrak alere! ¡Nere kasko adiñekoak!!

JOXE.—Orren gogorrak ere baldin ba dituk, ez dik balio.

ERRAMUN.—Joxe... kontuz ibilli gero! Gorri-gorriak ta gozo-gozoak...

JOXE.—Jo, nai ago diat samiñak...

ERRAMUN.—Guzitatik baduk... ¡Tira, nai duzute jakin non diren ala ez!

GUZIOK.—¿Non, non? *(Erramun inguratzen dute).*

ERRAMUN *(Arro, arro, beatza erabiltzen, ta abots aztunaz).*—Mis queridos niños, gure maisu gaizoak dion bezala...

JOXE.—¡Bai! ao betez «mis queridos niños», ta gero zigarro(a) artu ta gibeleko (atzeko) aldea xautu.

ERRAMUN.—Iri bai, ¡astaputz alaena! ¡Galtza-gorri makurrago baiaiz!

JOXE.—¡Jo, i ere ez ago urrun!

MUTIKO BATEK.—¡Tira, tira... ¡zer ai gaituk emen denbora galtzen! Atso berritxinak dirudizue. ¿Non dituk ire sagarrak?

ERRAMUN.—«Mis queridos niños...».

JOXE.—¡Bego erdera zatar ori! ¡Naikoa diagu eskolan!

ERRAMUN.—Gaye, gaye; erraiok ori don Restituto'ri.

JOXE.—Bai ba; ez diat batere bildurrik.

ERRAMUN.—¿Ik? ¡Ziriñe!

MUTIKO BATEK.—Asi gaituk, berriz ere? ¡Demoni berritxuek! ¡Sagarrak bela! ¡Gañerakoan, ba-nik!

JOXE.—Gaye nai baduk. Ez dugu kontra egiten.

MUTIKO BATEK.—Ba nik ba. Zoazte zuen berritxukeriekin.

ERRAMUN.—Ago, ago. Bazetozek sagarrak. «Mis queridos niños» erran gabe gañera.

MUTIKO BATEK.—Tira ba, gelditzen nauk.

GUZIAK.—¿Non dituk, non dituk? *(inguratzen dute).*

ERRAMUN.—Larraldeko bordan.

JOXE.—¡Tokitan zeok!

ERRAMUN.—Ago ixillik tetela! Bai baita belai borobil bat «Apeziturri» ko bidean, bordaren arateko aldean! An dituk «nere» sagar galantak.

JOXE.—¿«ireak» diok?

ERRAMUN.—Bai, gizona. Ikusiko duk istant batez.

PATXIKO.—Sagarrak galantak izain dituk; baño zakurra ere ongi galanta duk... ¿Aantzi al duk?

ERRAMUN.—¡To, egia! Ta ezta errex nik aanztea. Ark egin bait zidekan gibeleko aldeko tarrata.

PATXIKO.—¡Ederki egiña! ¿Zertaz sartu[2] bear intzen besteen sagarrak ebastera?

ERRAMUN.—¿Zer zaik iri? Joanden igandean ukan. Bezpetara piper egin-da, abiatu nindukan Larraldeko bordako sagastira. Nere baitan egin nikan: gaur, igandea, aitatxi zaar ez beste guziak errian izain dituk, bezpetara etorriak. Bear baduk amona ere an izain duk; bañan ainbat axolik neri zaar oien gatik. Zakurra duk makurrena. Otso uzu bezain azkar omen duk. Bildurgarria duk oso. Artemintan, mandatu batekin yoan nindukela, ¡ene izialdia! erra guziakin saingaka asi zitzaidakela. ¡Nolako ortz zorrotzak! Mingain gorri ta apartsu ageri zitzaiokan, ta bazirudiekan begi izigarri aitatik sua botatzen zikela. ¡Bearrik lotua zegokela! Pasatzerakoan, nere kolkora: ¡atx! oraintxe katea autsiko balikek... ¡gaxo Erramun! Bañan bear

2. Lit.: zartu.

baduk, gaur ere, lotua izain duk nere kolkorako esanik, yarraitu niokan bideari. Eldu naiz belai esiko elorrietara. Kirika egoten nauk luzaro. Ez duk iñor ageri. ¿Non ote duk zakur izigarria? An dituk sagar galantak, gorri-gorriak, nere kasko adiñekoak. Ortxe zegok balengoa; baño gauez igarotzen ba nauk ikus nazaketek. Azpiko ola poliki-poliki ateratzen diat, ta arrastaka ba nik(noak) belar luze artean esi-ondotik. Ona sagarrondo bat, ongi ederra gañera. Pisuakin (azta) ia lurra ukitzeraño makurtzen dira adarrak baño obe izain duk sagarrondora igotea. Betireki batez gañean nauk.

Asten nauk, ariñeketan, ta instant batez kolkoa bete-bete daukat. Arranoa! galdua nauk! Norbait eldu duk. ¿Nor ote? ¡Orra! Patxiriko Txomin duk. Zakurra saingaka asi zaiok urrundik. Igaro duk. Ez nauk ikusi. Oberena, zakurra T(x)omin 'ekin ari dukela itzuri. Sagarrondotik yautsi ta tarrapataka abiatzen nauk, tximista bezala, balengorontz; baño arbazta batekin zangoak trabatu ta buruz beiti erortzen nauk. Nere lapurketaren erdiak kolkotik iges egiten zidak. Altxatzen nauk. Sudurratik odola zetorkit. ¡Ene, galdua nauk! zakurrak ikusi niauk. Ba zetorkidak yauzika belar luze artean. ¡Tira, balengora! Emen duk, emen duk! Yauzi batez igarotzen diat balengoa baño ¡zakurra madarikatua! olen artetik muturra atera-ta ¡rau! atseki bat botatzen zidak.

MUTIKO BATZUEK *(izituak)*.—¿Ta arrapatu induan?

ERRAMUN.—Bai ta ez.

JOXE.—¡Gezurra duk! ¿Nola litekek?

ERRAMUN.—Aixe, Ara: ¡rau! bota zidakan atsekia, ta gibeleko aldetik zerrenda bat eraman zidaken ortzeen artean. Laisterrari utzi gabe, gibelera beatzen diat. Ortzetatik nere praken zerrenda askatu gabe, iñel guzian eragiten ziokan grru... egiten zikela. Irulegi'ko malda igoraño ez nindukan gelditu, ta andik arrika eman niokan.

PATXI.—Ta gero, etxera joan da, amak, makilekin, gibeleko aldea berotu.

ERRAMUN.—¡Bai to! Beiak bazkatzen ari nindukela, iltze batekin egiña ukela erran bai niokan.

PATXI.—Sobera luze duk ire kontua, egia izatekotz.

ERRAMUN.—Ez jauna.¿ Zer uste duk gezurti bat neukela?

PATXI.—To, ez zekiat batere, baño amari beintzat, ziri ederra sartu iokan.

ERRAMUN.—*(arras bero)* Ori beste gauza (bat) duk!

JOXE.—Baño ¿zer ari gaituk emen? Jo dezagun norabait.

ERRAMUN.—¡Ni nauk emen buruzagia! ¡Tira, guziok Larralde'ko bordara.

JOXE.—Ik zakurrari kont-egiten badiok, bai.

ERRAMUN.—¡Demoni kikila! ¿Bildur aiz? ¡Geldi adi gauza ez baiaiz!

JOXE.—¿Ni bildurra? Tira guazen ikusiko diagu nor duken «balientia».

ERRAMUN.—¡Marchen! gure maisuak dion bezala. ¡Guziak sagarrak ebastera!

PATXIKO.—Ez, ni, eskolara!

BI MUTIKO.—Ni ere bai. Ni ere bai. *(Erramunen gana doazi).*

ERRAMUN.—Bai nai baduzue. Goraintzik don Restituto'ri. Tira, marchen!

(Erramun ta bere jarraitzaleak eskuin aldera abiatzen dira. Patxi ta bere aldekoak, ezker aldera. Une ontan, eskale bat agertzen da. Guziak gelditzen dire).

— V —

(LENGOAK TA ESKALE BAT)

JOXE.—To, emen duk «kamisika».
(Kattalin yarria dago ate ondoan. Eskalea ikusirik etxean sartzen da. Eskalea ate aurrean gelditzen da).

ESKALEA.—¡Ai Mari Puisima!
(Mutikoak ari begira irri egiten dute) ¡Ai Mai Puisima!

ERRAMUN.—Sordos también si son ya te oirán!

KATTALIN *(Arta buru bat ematen dio).*—Tori.

ESKALEA.—Gracias, guapa *(zorroan sartzen du).* Anda, salada, dile a tu madre a ver si tiene una camisica o un pantalonico. *(Kattalin sartzen da).*

JOXE *(Erramun'i).*—Aizak emayok ire prakak, berdin zulatuak bai dituk.

ERRAMUN.—Bai to, ortaxeko dizkiat. Berri-berri dituk. Amak konponduko zizkidak.

KATTALIN *(eskaleari etxetik ateratzen).*—Amatxok esan dit deusere ez dugula.

ESKALEA.—¿Qué dices? No entiendo.

ERRAMUN.—Pa ti que no tiene camisicas.

ESKALEA.—A tí quién te manda meterte donde no te llaman ¡gandul! ¡Demasiau intiendo lo que me ice!

ERRAMUN.—¿Cuántas camisicas te necesitas pues tú, en todos las casas: una camisica, una camisica.

GUZIAK *(mutikuak irriz aja asten dira).*—¡kamisica, kamisica!

ESKALEA *(arrunt aserre).*—¡A la escuela holgazanes! ¡Sinvergüenzas, vaya una educación que os dan!

ERRAMUN.—No entender nosotros esa lengua: En baskuentze si no te hablas, igual es si te calla.

GUZIAK IRRIZ.—No entender, no entender. ¡kamisica, zarpalu!

ESKALEA.—¡Granujas, al primero que agarre le voy a romper las costillas. *(Makilakin lurrean, jotzen du iñal guziz, ta mutiko guziak laisterrari ematen diote. Eskalea ayen gibeletik /ondotik/doa).*

MUTIKOAK *(Urruntzen).*—Kamisica, belarrimotza, zarpalu, zorritzu!

ESKALEA *(Ayenatzen da esanez).*—¡Malditos! Como os coja, ya os enseñaré yo a burlaros de los pobres...

— VI —

KATTALIN, MIKELA *(ugazama)*

KATTALIN *(Ayenatu diren aldera joanik begira gelditzen da').*—Diabrua bano makurragoak dira mutil biurri oyek. Piper egin, sagarrak ebatsi, eskaleei iseka egin... ¡Ene! ¿Ez zaizkio, ba, anker oiek arrika asi?

MIKELA *(etxetik ateratzen).*—¡Ori dun! ¡Oixe dun patxada! ¿Olaxen egoten dun alperkerian goiz guzian? Ba-zirudin etxean lanik ez dunela. ¿Olloei eman dien bazka?

KATTALIN *(Eztitsu).*—Bai andre, bai, aspaldi.

MIKELA.—Piroak eraman ditun errekara?

KATTALIN.—Bai andre, baita.

MIKELA.—No bada: Galtzerdi oiek konpondu. Baño... arin ibili! Eguerdiko egiñak ez paditun... ¡xeatuko aut! *(Galtzerdiak ematen dizkio).*

KATTALIN.—Bai andre, bai.

MIKELA.—Zer unan emen aixtian?

KATTALIN *(izitua)*.—Mutiko aldra baitzen emen. Eskale bat etorri da ta aiek iseka ein diote ta...

MIKELA.—Ta... ta... ta... ¡Toteldu aiz ala! ¡Ez diñat ori erran nai! ¿Ta eskalea etorri baño len?

KATTALIN.—Ordun... Joxe'kin ari nintzen.

MIKELA.—¡A, Joxe'kin ari unan! ¿Berriz ere aserrazi dun? Bañan... ¡ik negar ein dun! ¡Ez dikiñat erraten negar ez egiteko! Erran, ¿negar egin dun?

KATTALIN.—Oi, ama, barkatu...

MIKELA.—Ordun, egia dun ¿e?

KATTALIN.—Bai andre.

MIKELA.—¡Sutsune, ez dena (duna)! ¿Ta zertaz egin dun?

KATTALIN.—Joxe ta biok aserretu gera.

MIKELA.—¡Yakina! Ik zirikatu-ta...

KATTALIN *(ausarki)*.—¡Ez ama, ori ez!

MIKELA.—¡Ago ixillik! Ik zirikatu, ta gero negar egin.

KATTALIN.—Oi ama, au lana!

MIKELA.—Bai, asi, asi negarrez, berriz ere. Nai dun sapaiko gela illunean sartzea? Milla aldiz bedere erran dikiñat etxetik bialiko autela negar egiten ba dun.

KATTALIN.—Ez, ama, ez dut eginen.

MIKELA.—Erran ba, ¿Zer egin dion Joxe'ri?

KATTALIN.—Ez naiz ausartzen.

MIKELA.—Tira abudo, bestela sapaira.

KATTALIN.—Biok aserretu gera ta ...

MIKELA.—¿Ta zer?

KATTALIN.—Ta yoka asi zait.

MIKELA.—Oixen, ik deusere egin gabe yoka asi zain. ¡Zein ederki antolatzen ditun gauzak! Ik ere zerbait egingo ionan. ¿Zer egin dion?

KATTALIN.—Ura asi da.

MIKELA.—¡Aski dun! ¡Erran, bereala, zer egin dionan!

KATTALIN.—Ark kitokume esan dit...

MIKELA.—¿Kitokume? *(irriz)* ja, ja, ja... Ongi errana dun. ¿Ta ik, zer erran dion?

KATTALIN.—Ordun, nik, amorratu naiz, ta esan diot astaputza, ta bareyale.

MIKELA.—Alke gabekoa; ori erran bear ionan ba? *(arrunt aserre).*

KATTALIN *(biziki).*—¡Ura asi da! ¡Aski zuen kitakume ez erratea!

MIKAELA.—¡Nabarmen alaena! ¿Olako amorruakin erantzuten dun? ¡No *(zartako bat ematen dio)* ikas zan ire miia (mingaina)ri kontu egiten *(etxean sartu dala).* ¿Zer ikusi bear ote dugu oraindik neska biurri onekin?

— VII —

KATTALIN, IRENE *(adiskidea)*

(Kattalin, yarririk, negarrez ari da. Irene agertzen da. Gelditurik, begiratzen dio, errukitasunez).

IRENE *(bere baitan).*—¡Gaxoa! Etxe ontan ez du gauz onik eginen. Olako neskatiko apal, bigun, ta polita ta etxe ontan ez dute ikusi nai. *(Urbiltzen zaio) (samurki)* Kaxo, Kattalin. ¿Zer dun? ¿Negarrez ari aiz? O, ez negar egin, ta esadan zer gertatzen zainan.

KATTALIN *(Ixiltzen da ta begiak idortzen ditu).*—Ongi etorri Irene maitea.

IRENE.—¿Zer dun, gaxoa? *(Aren ondora agertzen da ta maiteki egiten dio).* Tira, erraion zure adiskide maiteari.

KATTALIN.—Oi, Irene ¿zertako? Ez du balio. Ergela bat naiz. Ez niñan negar egin bear.

IRENE.—Baño negar egiteko zion bat izanen dun.

KATTALIN.—Ez da deus. Negarrontzi bat naunela diote, ta ez dun arritzekoa.

IRENE *(Besarkatzen du)* ¡Zein ona aizen! Badakit zer dunan. Ikusi diñat mazel gaxo ontan zartako galanta artu dunela.

KATTALIN.—O, egi, ¿ikusi al dun?

IRENE.—Bai, kuttuntxo ori, ikusi diñat. Baita entzun ere. Etxe ontan iñork ez au maite.

KATTALIN.—Alaxe dun (da). Neretzat maitasunik ez dun. Neretzat mukerkeri baizik ez dun.

IRENE.—¡Gaxoa! Bai urrikari enetxoa!

KATTALIN.—Esker milla, Irene. Zure solas ta maitekiak on egiten ziotek nere biotzari.

IRENE.—¡Zein zoritxarrekoa zeran!

KATTALIN.—Andrago banindu(o)n... baño neskatiko aul bat baizik ez naun.

IRENE.—¿Zer eginen uke?

KATTALIN.—Neska tarrotua banindu(o)n, etxe ontatik aterako ninduken betiko.

IRENE.—¿Baño nola? ¿Nora yoanen (yoango) intzake?

KATTALIN.—Neskame yoanen ninduken, Iruñera.

IRENE.—¡Ene! ¡Elizaldeko alaba, neskame!

KATTALIN.—Elizaldeko alaba, Elizalde'an neskame izatekotan, obe din bestekoenean egotea.

IRENE.—Tira, tira, gaurti burutik yogai txar oiek.

KATTALIN *(bere ariari yarraituz).*—Ez niñan alakorik pensatzen. ¡Nik Larraldea'tik iges egin! Zenbait aldiz erraten zidanan nere amatxo gaxoak: Katalin, i aiz etxe ontako erregiña, ta egun batez i izanen aiz Larralde'ko etxeko andrea. Ala izanen zitzakenan amatxo bizi balitzan; baño ura ilez gero etxean sartu ditunak ez niauk ikusi nai.. ¿Zer egin bear diñat, ba, guziok beti erristan ematen ari bazaizkidan?

IRENE.—Kattalin, entzun ondo: ez geiegi larritu. Izan adi beti ona. Kalte egiten badikiten, ez kasorik egin; kalte-ordez, ik beti ongi egin. Orixe bezelakorik ez dun besteen biotzak samurtzeko, ta Yainkoak ez au atzenduko. Uste diñat gauzak laister aldatuko ditunela etxe ontan.

KATTALIN.—Esker mille, Irene. Ire esanak (esan=esan on) beteko zitiñat. Nere amatxo gaxoak zerutik lagunduko niauk.

IRENE.—¡Oixen bai! ¿Nola galetsiko din bere alabatxo kuttuna?
(Zutitzen da. Kattalin ere, eskua artzen diola zutitzen da).

KATTALIN.—¿Baoa? ¡Au atsekabea! Ez zekin nolako laguntza ekarri dionan nere biotz gaxo oni. Orain, berriz bakarrik gelditu-ta, illunduko zaidan.

IRENE.—¡Biotz on! Itundasunak menperatzen baau, jaso begiak zerurontz. Pentsa ezan antxe dagola ire amatxo ta esaiozu aren omenez pozik artzen ditunala etorriko zaizkiñan naigabe guziak. Gogora zan zerutik irriño goxo bat egiten dikiñala ta bere eskuz Yainkoari eskeintzen zionala zure oparia. *(Gerritik elkar-artu-ta badoaz ezker aldera).*

KATTALIN.—Oi, zure solas ederrak biotz erdian yosiko zitiñat. Ez zaidan iñor zu bezala mintzatu. Indar berri bat etorri zaidan, ta nere amatxoz oroiturik, aisago yasango diñat nere zoritxarra.

IRENE.—Agur, enetxo *(musu bat ematen dio).*

KATTALIN.—Agur, ¿Etorriko aiz laister?

IRENE.—Bai, maitea, pozik etorriko naun.

KATTALIN.—Esker mille.

IRENE.—Agur, kuttun ori.

KATTALIN.—Agur, urrena arte.

— IX —

KATTALIN.—*(Berriz yartzen da ta galtzerdiak konpontzen asi).* Egia dio Irene'k. Kalte egiten badidate ere, nik, beti, ongi egin. Bañan ez diñat asmatzen nola. Joxe'kin edo Lolita, etxeko «señorite»kin yostetan asten banaiz, belaxe bialtzen naute, zatarra naizela esanaz. Erausian ari direla, eleketan sartzen banaiz: «ik ez dun emen ikustekorik» esanez ao zabalik uzten naute. Supazterrean ari direla, ni, zoko batean aaintzia bezela egon bear. Txakurtxoa, gure «Txiki» polita urbiltzen bazaie, besarka ta musuka ibilliko dute; neretzat, ordea, ezta musurik. Baño ez naiz aserre Txiki'kin ¡Ez oixe! ¡Ongi maitekorra da! Onek, bedere, besteak bezenbat maite nau. Noiz nai nereganatzen da, ta magalera xalto (yauzi) egin-da, ederkizka milikatzen dizkit mazelak. Gaixo, Tiki, onek, beintzat, musukatzen nau. Ta mandatuz igortzen nautela, nerekin etortzen da pozik xaltoka ta zalapartaka.

Egia errateko, aitatxok ere, noizbeinka belaunetan artuta, laztantzen nau; baño abudo aski etorriko zaizkio bertzek bekaizkeriz: «aitatxo, musu bat neri», ta ni, yakiña, alde egin bear.

Baño arrazoia du Irene'k: muxintzen banaiz, makurrago izain da. Kalteordez ongi egin. ¿Nola egin daiteke ordea ori? Irene'ri galde eginen diot.

Baño uste dut orrek auxe erran nai dula: erriatan ematen badidate, ez aserretu; illundu bearrean, alai egon. Jone burlazka asten bazait, nik ez kasorik egin. Baño ¡ene! berriz kitokume erraten ba dit... Amatxo, lagun zadazu olako gogorkeria eramaten.

BIGARREN ZATIA

— I —

(Lolita, ederki apaindua, etxetik ateratzen da).

LOLITA.—¿Ea zerbait aantzi zaidan? *(Bere buruari begiratuz).* Ez dut uste. Eraztuna... «pulsera» (eskumuturreko)... kollarea (lepoko)... sakeltaoa... ¡Arras ongi! Ederkisko nago soñeko berri onekin. Oñetakoak ere ez dira nolanaikoak. Orain... ¿aita or ote da? *(Ateari urbildu ta barnera begiratzen du)* Ez, ez da ageri. Tira ba, *(Sakeltaoa ideki ta ispilluari beiratuz, ezpainak gorritzen asten da, noizbeinka etxe barnera begiratzen dula)* ¡Ikusiko ba nindu...! ¡Utikan! Gizon zakar oiek ¡Zer dakite oraingo «modaz»? ¡Egongo gera neska ttuttunak bezala! ¡Alajaña! Ara Etxeniki'koak, ez dira ez plazan agertuko musua apain, apain egin gabe. Egia aberats okituak direla. Automobilla ere badute, ta uda amaituz gero, Madrillera yoaten dira bizitzera. ¡Oixen da suertia! Ta egon zaitez emen, beti bei ta txerri artean, mendi zoko ontan, noiz nai leporaño lokatzetan sartzen zarela. Ni ez, segurik; zerbait asmatuko dut emendik alde egiteko.

Baño besteak ere badakite beren buruak apaintzen; baita aurpegia poliki margotzen. Orra Iribarne'ko Lutxi. ¡Zer da neska potoka ori? Esne saltzale txar bat besterik ez da, ta arin-arin doaiela, panpin polita bezala, yende guziak itzulikatzen zaizkio. ¿Eta Martintxone'ko neskak? Noiz nai ikusiko dituzu landan (alorrian) artoyorran. Badakigu, ongi aski, zer diren Martintxoneko yendeak: nekazari kaxkar batzu baizik ez dira. Lanean ler-egin ta baba txar batxu ta gasna pittin bat yateko aña doi doi irabazten dute. Ta ikustekoak dira neskak, igandetan, plazan agertzen direla: soñeko izigarri politta, sedazko galtzer-

diak, oñetako xuriak, ille arro, ezpain gorri, aurpegi txukun... ¡tori! Lenengo mallako «señoritak» esango zenuke. Ta Larralde'ko alaba azalduko da neska erremexa bezala, ¿e? ¡Ez oixen! ¡Zer da Lutxi, zer Martitxonekoak ni baño geiago? Oien ondoan milla aldiz gorago naiz (nago).

(Urras batzu aditurik, gibelera beiratzen du, arras izitua. Tarrapataka etxerontz asten da, ta une ontan Kattalin, sone soinean aitzurra agertzen da).

— II —

LOLITA, KATTALIN.

KATTALIN.—¡Ene! ¿Zer dun, Lolita?

LOLITA.—¡Demoni ilupe! ¡Izialdi ederra eman didan! ¿I aiz?

KATTALIN.—¡Yesus...! ¿Orren itxusi naun, nigatik orrela izitzeko?

LOLITA *(Isekaz).*—¡Bai zera! ¡Ona etxeko aingeruñoa! ¡Utikan, zatar ori! Ez dun ori. Aita eldu unala uste bai niñan.

KATTALIN.—¡Auxen dun komedi! ¿Orrela izitzen aiz, aitatxon gatik? *(Arriturik urbiltzen zaio).* ¡Ene bada! ¡Egundano! ¡Au bai andereño apaña! ¡Errege baten alaba zirudin! Orain entenditzen diñat ire bildurra. Olako ille arro, ezpain gorri ta mazel izineztatuakin, ez aiz aitatxoren aitziñean azaltzera ausartzen ¿e?

LOLITA.—Ta iri ¿zer?

KATTALIN.—Deus ez neri. Baño, bildur izateko dun bai. ¿Aantzi al zain yoanden igandean aitatxok eman zikiñan «sermoia»?

LOLITA.—*(Arrunt aserre, zangoz lurra yotzen dula).* ¡Bai nai badin! Ta berriz kontu ori ateratzen (ba) didan... ¡xautuko aut!

KATTALIN.—¡Ene bada! Ikusteko litzaken alako «señorite» galanta, mutil kankail bezala, neska zirtzil bati yoka lotzea. Gañera... obe dun ez asi, esku zuri, legun, eder oiek zikinduko litzaketen nere zarpa zikiñekin. Obe din Larralde'ko andereño pertxentak bere lagun apainen gana yoaten ba dun...

LOLITA.—Yoanen naun, bai; ta i emen geldituko aiz bekaizkeriz amurratzen.

KATTALIN.—¿Bekaizkeriz? ¡ez noski! Ez diñat errain ez litzaidakenela atsegin izain nere burua apain-apain egin ta ederki yolastera yoatea, baño etxeko lanak egiten egotea agintzen bazidaten, emen geldituko naiz, batere zurrundu gabe.

LOLITA.—¿Apaindu dion? ¿kakamarro zikinen bat gauza al dun, ba, bere burua edertzeko?

KATTALIN.—No, kakamarroak ere, Yainkoak iñak ditun, ta Ark eman eginbearrak betetzen zitizten.

LOLITA.—Bai ba; yende guziak iguindu, ta ekin egiten dunena, irekin ere egin bear litzaken: ¡zango pean lertu!

KATTALIN.—Arritzekoa dun Lolita, zu bezelako andereko polita olako asmo biurri izatea. Baño ez uste, ez naun zapuztuko. Yolas-keta ederra opatzen dikiñat, zure lagunekin.

LOLITA *(Bere kolkorako).*—Ergeldu egin da noski *(Katalini).* Esker mille. Bañan ¿egia ote ez naunela gorrotatzen?

KATTALIN.—¿Gorrotatu? ¡Yesus, ori bai pekatu gogorra! ¿Nere aizpa gorrotatuko diñat ba? Nere aizparekiko maitasun baizik ez diñat.

LOLITA.—¡Gezurra dun! Badakin ongi aski nik ez autela maite-ta.

KATTALIN.—¿Gezurra? ¡Ezta...! Orra: nik zarpail bat baizik ez naiz... Ez zeuzkanat (zitiñat) ire soineko eder ta bitxi bikainak, baño badiñat zerbait iri eskeintzeko.

LOLITA.—¡Egundaño! ¿Egia ote? ¿Ta zer da?

KATTALIN.—Alorretik eldu nindunala, Yauregi'ko etxekoandrea ikusi diñat. Ark eman zizkidak bi goxo. No, bat iretzat dun; bestea Joxe'rentzat gordeko diñat.

LOLITA.—Bañan... ¿zer ari aiz? Goxo oiek iretako emanak ditun.

KATTALIN.—Nereak ditun, eiki (segurki); bañan nik ematen dizkitzuet. ¡Ez ezetsi, otoi, nereak ditunelako.

LOLITA.—¡Auxen dun «komedi»! Beti irainka ta yoka ari gatzaizkin, ta...

KATALIN.—Ez zaidan axolik. Tira, artu.

LOLITA.—Ez, ez diñat artuko. Arritzen naun.

KATTALIN.—Lolita, pittin-pittin bat maite banaun, artu. Ez aiz biotz gogorrekoa; artu, otoi. Egin zan amatxok ematen dikinela. Ark añako gogo samurrez eskeintzen dikiñat. *(Lolita ezbaian (zalantzan).*—Baña... ez zekiñat...

KATTALIN.—Artu, Lolita. Uko egiten ba didan... ittunez geldituko naun. Artu, otoi.

LOLITA.—Ikasbide ederra ematen zidan. Kattalin, gaurdanik nere gorrotoarenak egin dik. Tira, zure goxoa arrtuko diñat. *(Kattalin'ek eman goxoa, artzen du).*

KATTALIN.—Esker mille, Lolita. ¡Bai poz andia ematen didanena.

LOLITA.—Lotsaturik negon. Ni baño obeagokoa aiz. Une ontatik nere aizpa kutunatzat artzen aut *(Besarkatu ,ta musu ematen dio).*

KATTALIN.—Oi, Lolita, ¡nere zoriona! Baño... denbora galtzen ari naiz. Gaye, gaye orain ire lagunengana, ta ondo yolastu.

LOLITA.—Agur, Kattalin; gero arte.

KATTALIN.—Agur.

— III —

KATTALIN *(bakarrik)*

KATTALIN *(zerura begiratzuz).*—Zure gatik egin dut auxe, amatxo maitea. ¿Ez al da ongi egina? kostatu zait pittin bat; baño badirudit zerutik irriño bat egiten didazula. «kalte ordez, ik, beti, ongi egin». Auxe esan zidan Irene on utsak. Ta ongi ikusi dut, arrek esan bezala, biotz gogorrak biguntzeko orrek duen indarra. Baño izain dut naiko inderrik bide ontan irauteko? Joxe ostikala badatorkit zer eginen dut? ¡Ta kitokume esaten badit? ¡Amatxo, nere eritura guzietan zure gana yoko dut!

— IV —

KATTALIN TA UGAZAMA

UGAZAMA *(Etxetik ateratzen).*—¿Etorri aiz, neska?

KATTALIN *(eztiki).*—Bai, andre, aspaldi emen nago.

UGAZAMA.—¿Aspaldi dion? ¡Alper ez dena! ¿Zer ari aiz, ba, emen deus ere egin gabe?

KATTALIN.—Lolita'kin egon naiz.

UGAZAMA.—¡Oinen! Lolitakin. ¿Mokoka, orain ere ¿e?

KATTALIN.—Ez, andre; ez gera aserretu.

UGAZAMA.—¿Egon al zaitezkete (zerate) ba, aserretu gabe? Nik aserre baizik ez diñat ikusten zuen artean. Aise, bekaizkeriz beterik ago-ta.

KATTALIN.—Ni ez naiz, ba, geiago aserratuko Lolita'kin; ez ta Joxe'kin ere! benetan maite ditut eta.

UGAZAMA.—¡Yesus! ¡Ara nola saindutu zaigun gure neska motza! Deabrua baño makurrago da ta olako saindukerikin etortzea...! Ikusiko diagu Joxe datorrela nolako abegi ona egiten dionen. Naiko da elkar egotea, mokoka ta zalapartaka asteko.

KATTALIN.—Ni beintzat ez naiz asiko.

UGAZAMA.—¡Aski dun! Tira, an dun, sukaldean zare bat yantzi garbiketa egiteko. Arzan ta gaye bereala errekara.

KATTALIN.—Bai andre, banoa.

— V —

UGAZAMA *(bakarrik)*

UGAZAMA.—Neskatiko oni zerbait gertatzen zaio. Len, beti itun ta minker egoten zen. Gaur, ordea aurpegi argiago ta alaiago du. ¿Zer ote du? *(Une batzuk aldazkar egon ta)* Egia errateko, lana franko du etxe ontan gaxoak. Ez du emen maitasunik aurkitzen. Nere senarrak erraten dit, maizeski, gogorregi erabiltzen dugula. Ezautzen dut, ongi aski, buruauste ori badula; baño ni gogaiteragiteko bildurrez, edo (noski), ez da gogorkiago mintzatzen. Ta orrela yarraitzekotan, ziur nago, egun batez elkarrekin aserretuko giñakela... *(gogoetatsu gelditzen da).*

Ez, ori ez da gertatuko, iñondik ere. Kattalin'ek nere semeak dituzten eskubide berberak ditu etxe ontan. Gauzak zuzendu bear dira emen. Baño... eldu da. Itzal ditzagun, orain beintzat asmo ok.

— VI —

KATTALIN, UGAZAMA

KATTALIN *(Etxetik ateratzen da zare bat buruan daramala).*

UGAZAMA.—¿Eldu aiz? Tira, gaye arin, arin ta ba-dakin illundu baño len etxean bear aizela egon.

KATTALIN.—Bai andre, bai.

UGAZAMA.—A, ago pixka bat. ¿Yantzi guziak artu ditun?

KATTALIN.—Bai, andre.

UGAZAMA.—¿Jaboia ere bai?

KATTALIN.—Ez, aantzi egin zait.

UGAZAMA.—¡Ergela ez besterena! ¿Nola egin bear dun ba garbiketa? ¡Gaie tximista bezala!

KATTALIN.—Banoa *(badoa laisterka ta bidean erortzen zaio pardeltxo bat. Ugazama badoa pardeltxoa artzera).*

UGAZAMA.—¿Zer ote du papertxo ontan bildu?

— VII —

(papertxoa jaso ta idekitzen du)

UGAZAMA.—¡Et, et! ¿Ori ere badugu? ¡Orain ikusiko du sastraka orrek! ¡Gure saindue! ¡Arrasak arakatzen badaki aaitik, lapurreta egiteko! *(berriz papertxoari begiratzen* dio) Baño... ez, au ezta etxe ontakoa. Au Iruñe'n erosia da, ta aspaldi ez dugu ezer Iruñe'tik ekarri. ¿Nondik ote du ba? Ori yakin bear dut ba... Erne da.

— VIII —

(Katalin eldu da, zarea artzen du)

KATTALIN.—Banoa. Agur, gero arte.

UGAZAMA.—Ago, ago pitin bat. Ator unat.

KATTALIN *(zarea lurrean utzi ta urbiltzen zaio).*—¿Zer da ba?

UGAZAMA.—¿Zer den? Aistian, ire burua saindutu eginen unan, baña gaixtakeriak egiten ba dakin.

KATTALIN *(gorrituta).*—Zer egin dut ba, otoi?

UGAZAMA.—Arasak arakatzen ere badakin...

KATTALIN.—¡Ez andre, nik ez dut olakorik egin!

UGAZAMA.—¿Ez, e? ¿Nondik atera ditun sakelan zenitun gozoak?

KATTALIN *(Arras larritua, itoka).*—¡Ez, andre, ez andre! ¡ez ditut ebatsi!

UGAZAMA.—¿Nork sinetsi? Ebatsiak ezpaditun, ¿nondik zetozkik?

KATTALIN.—«Yauregi»'ko etxekoandreak eman dizkit alorretik eldu nintzela.

UGAZAMA.—Ta guziak iretsi ditun...

KATTALIN.—Bi baizik ez dizkit eman.

UGAZAMA.—¡Gaie ortik gezurti! Orrelaxe maite ditun ire anai-arreba.

KATTALIN *(Zalantzan gelditzen da zerbait erran nai balu bezela, baño iresten du).* Agur ba, gero arte.

— IX —

(Patxiko ta bere lagunak agertzen dira).

PATXIKO.—Emen ez duk iñor. ¿Zer egin ote ditek astakillo oiek? Ez bearren bat ez pa zaiek gertatu.

LAGUN BATEK.—Um... badaitekek. Oraindik iñor ez agertzea...

PATXI.—Itxo egin dezagukan emen.

LAGUN I.—Egin izan bear giñikana zen maixuari erran nola yoan dituken sagarrak ebastera.

PATXI.—¡Ez ta...! Besteen gaiztakeririk ez dik beñere salatu bear.

LAGUN I.—Egia errateko, obe duk bai. Erramun'en eskumuturrak ez dituk nolanaikoak...

PATXI.—Demoni illupe... *(arro, arro)* Uste duk Erramun'en bildur naukela? ¡Axola zaidak astakillo orren gatik! Betor, nai ba dik, bere lagun guziekin ez nauk izituko. Baño, alaere, nik ez diat beñere Erramun ta aren lagunak salatuko: ori itxuskeri andia da-ta.

LAGUN I.—Aizue, ta aien bidera gain (yoango) baginduk. Larralde'ko bordara ganak dituk. Bearbada, bidean atzemango zitiagu.

PATXI.—¡Ateraldi ona! Tira, goazen. Ola, lenago yakinen diagu zer gertatu zaieken.

LAGUNA I.—Baño ekin etortzen ikusten bagiautuztek, lapurretan ere ekin gindukela usteko ditek.

PATXI.—Bai nai ba ditek. Neri aski zaidak neronek yakitea ez naukela erruduna.

LAGUNAK.—Tira, ba, guazen Larralde'ko borda aldera. *(Badoazi).*

— X —

AITA TA UGAZAMA

AITA *(Arbi zare batekin dator. Etxean sartzen da, ta zarea utzirik, berriz atera ta zunbil gañean yartzen du. Ugazama ere agertzen da).*

UGAZAMA.—¿Etorri zara?

AITA.—Bai, oraintxe eldu naiz. ¿Non da Kattalin?

UGAZAMA.—Errekara yoanda, garbiketa egitera.

AITA.—Ta Joxe?

UGAZAMA.—Joxe eskolara yoana da.
(Ixillunea)

AITA *(Geldi, geldi).*—Ta... Lolita?

UGAZAMA *(pittin bat larrituta).*—Lolita... joan zen.

AITA.—¡Yoan zen! ¿Nora?

UGAZAMA.—Ez dakit... lagunen gana.

AITA.—Yostetara, lagunekin,e?

UGAZAMA.—¡Noski!

AITA *(Bere kolkorako bezala).*—¡Lolita etxeko andereño apaña! ¡Kattalin etxeko neskame zarpala!

UGAZAMA.—¿Zer diozu?

AITA.—Batzuek lanean ler egiten ta besteak yostetan. Ori ez da ondo. Emen guziendako bada lana.

UGAZAMA.—Uste dut ez duzula erabakiko Lolita alorrera bialtzea.

AITA.—Bere: Orain arte, ixillik egon naiz! baño ikusten dut gero ta gogorkiago egiten diozutela Kattalin'i. Ori akitu da ahatik. Emen guziak berdin bear da. Biar etxeko andere-

ñoa, bere ezpain gorri, betazal urdin, azkazal me pollit ta guzi, nerekin artayorran ariko da. ¿Ezta ba yoaten kalerietara, moda dela-ta aurpegi ta beso eguzkian beztera? Alorrean beztuko da ederki pertza bezenbat ere, naiez gero.

UGAZAMA *(geiago larrituz).*—Baño ez duzu ikusten ez dagola oitue.

AITA.—¡Tori! Ez nintzen oartzen. Oitu arte goizero yoango da nerekin.

UGAZAMA.—Baño ori eziña da. Ez pentsatu olakorik.

AITA.—Bere: Zure alabaz, nexka on ta langile egin nai dut. Orain arte bezala yarraitzen ba du, alper arrailla aterako da. Daraman bidea arrunt bide txarra da; bide onera ekarri nai dut. Eta arrek erabiltzen ditun nabarmenkeriak eten bear dira betiko.

UGAZAMA.—Baño, gizona, ez daiteke, ez daiteke.

AITA.—¿Nai duzu zure alaba zoritxarrekoa izatea?

UGAZAMA.—¡Ori ateraldia! ¿Nola naiko dut, ba nere alabaren zoritxarra?

AITA.—Orra ba: alperkerian azten bada, zoritxarrekoa izain da.

UGAZAMA.—¡Lolita alperra dela esatea ere! Ta zuk erran...

AITA.—¡Ots!, naikoa da. Banoa beiak deiztera. *(Etxean sartzen da. Ugazama iarraikitzen dio).*

UGAZAMA.—Lolita artayorran! ¡Ez ahal, ez ahal!

— XI —

(Erramun ta beste mutikoak sartzen dira Joxe soñean dakartela. Onek kopeta surtzapi batekin lotua dauka, ta musua odolez zikindua. Joxe arri baten gañean yartzen dute).

ERRAMUN.—¡Arranoa! ¡Ederra egin diagu! Ta ¿zer egin orain? *(Joxe'ri)* Erran zak: ¿nola ago orain?

JOXE.—Pasatzen ari zait.

ERRAMUN.—¡Obe duk ola! ¡Zakurra madarikatua! Pozoi eman bear diot! Baño ezurren bat ez al duk (daukak) autsi? *(Besoak erabiltzen (eragiten) dizkio).* Gizona, uste bai nikan illa itzela! Begi itxiak, sudur-aotik odol. ¡Arraiua! izitu nauk arras. ¡Eta... ez naiz gero nola nai izitzekoa (izitzen)...! ¿Ez duk ola i? *(beste mutikoari).*

BESTE MUTIKOA.—¡Yakiña! Ez aiz iñorekin izitzen... zakurrakin baizik.

ERRAMUN.—¡Mille demonioa! Beste aldian balitz damutuko litzaitzuke. Baño, une ontan, gure laguna ein its ortan izakita, ez du balio burrukan astea.

BESTE MUTIKO.—Gizona, gutxi aski zaik *(ola ez yarri).*

ERRAMUN.—Banintz «petrikillo» bedere! ixtant (une) batez sendatua intzake.

JOXE *(zutitzen da).*—Pasatu zait.

ERRAMUN.—¡Egia! ¡Gora zu! *(Berriz etzindurik).* ¡Au lana! ¿Zer egin bear diagu orain? Nola antolatu arazo au? *(Joxeri).* ¡Erranzak zerbait! ¡Tira asmazak gezurren bat abudo! Etxetik norbait ateratzen bada galduak gaituk.

BESTE MUTIKOA.—Asmazak ik; iregatik yoan gaituk. Gañera, ez duk erraten ain abille aizela? Tira ba, aterazak zerbait ire kalibizkor ortatik.

ERRAMUN.—¡Mingaina ire aotik da aterako diatena!

MUTIKO.—Ez aserretu gizona, nere asmoa ez duk amorraztea. To, orra non eldu dituken oiek.

ERRAMUN.—Oixe, ez ginikan oien bearrik orain.

— XII —

(Beste mutikoak eldu dira, erauntsi gogorrean)

ERRAMUN.—Zaozte ixillik astoak!

PATXI.—Besteen makurrengatik ez nauk alaituko, baño errain (errango) nikek ongi egin zaitzuela. Gaizki dabillena, gaizki amaituko. Eskolara etorri baziñate ez zitzaitzuekean ori gertatuko.

ERRAMUN.—Etorri aiz ire sermoiekin. Ire ikusteak min egiten zidak badakik?

PATXI.—¡Iretsi zak ba! ¡Emen nauk gogoa dutelako!

ERRAMUN.—Ago nai baduk; baño berriz asten ba aiz sermoia egiten...

PARXI.—Ordun... zer, zer? Burua makurtuta egon bear intzenean, olako arrokeriekin ator?

ERRAMUN.—¡Bai, iregatik! Utzi nazak bakean ta gaie emendik!

PATXI.—Ez nauk gain. Guziok yakin bear dute nor izan duken emen erruduna. Gaxo onek *(Joxeri zuzenduaz)* min artu baduk, iregatik.

ERRAMUN.—Zakurra lotu bazio ta balengotik salto egitean erori baduk, nik diat kulpe,e?

PATXI.—Bai yauna, ik eraman duk Joxe sagar ebastera. Baita beste guziek. Iregatik yoanak dituk. *(Mutikoengana itzuliz)* Ez duk ala?

MUTIKO BATZUEK.—¡Ez yauna!

BESTE MUTIKOAK.—¡Bai yauna!

MUTIKO BATEK.—Kaligorri kankal orrek zirikatu giantuk, bestela nori gogoratuko zitzaiokean sagar-ebastera yoatea?

ERRAMUN.—¡Illupe, aske itzen ez yoateko! Burruka nai ba duzute izain duk.

MUTIKO B.—¿Burruka? ¡Asto kankaila! ¿Zer uste duk beti ire pean egoin gaitukela?

ERRAMUN.—¡Jo ta botako aut!

MUTIKO B.—¡Jotzak, ez nauk bildur!

ERRAMUN.—...Jozak ik, ain ausarta baldin ba aiz.

MUTIKO B.—Jotzak ik, i asi aiz-ta.

ERRAMUN.—¡Agoaundi alaena!

MUTIKO B.—I bai agoaundi! Mutiko guziak ire atzetik eraman nai dituk beti. ¿Zer aiz ba i, gure buruzagia, edo? Ire yabegoak gaurdanik pot-egin dik. ¿Ire ausarkeriak non dituk? Or ago sagu bildurti bere zuloan bezala.

ERRAMUN.—¡Ago ixillik, gero...!

MUTIKO B.—¡Ez, iregatik! Gaye agintzera ire etxeko labezomorroen artean. Ek bezin nazkagarri aiz-ta!

MUTIKO BATZUEK.—¡Labe-zomorro, labezomorro!

ERRAMUN.—¡Ots, aski duk! *(Bultzada bat egiten dio)* ¡Gaye kakomarroen gana, zarpail ori! *(Mutiko b. doi-doi gelditzen da zutik).*

MUTIKO B.—¿Kakamarroen gana? ¡Ordun ire gana! *(Erramunen gana doa ta biok yoka asten dira. Gero elkar lotzen dute. Zenbait mutiko Erramuni aldeztera doaz, baño beste multzo batek eragozten die. Oiuka ta zalapartaka, guziok burrukan asten die).*

— XIII —

LENGOAK TA KATTALIN

(Iñal guzian burrukan ari direla, agertzen da Kattalin, buruan yantzi zarea daramala).

KATTALIN.—¡Ene! ¿Zer da au? ¿Eratu al zerate, guziok? *(Beire gelditzen da).*

PATXI *(arras larritua, besoak goratuz).*—¡Geldi, geldi guziok, otoi! Zaozte geldik! ¡Ez izan ain ankerrak!

JOXE *(Urbiltzen zaio).*—¿Zer diok, txaldar orrek? ¿Ez aiz ba i burruka auxe piztu dukena?

PATXI.—¡Nik, ez!

BESTE MUT. B. *(urbiltzen zaizkie).*—Bai, i aiz, i. Ta orain guziok liskarra ipiñita, bildurrez edo, ez aiz gauza burrukan sarteko. Sartu bearko, ba, nai ta naiez.

(Joxe ta biok lotzen zaizkio. Patxi'k beste mutiko b. lurrera botatzen du. Kattalin'ekin beaztapatuta, onen zarea lurrera daror).

KATTALIN.—¡Ene, ederra egin diagu! *(Ariñeketan jautziak biltzen ditu. Patxi'k Joxe lepotik atzematen du).*

PATXIK.—Ezbaintzen kolpatua xautuko indukedak.

JOXE.—¡Utzak geldi! ¡Arraputza!

PATXI.—Ez aut utziko.

JOXE.—¡Jo zak ba! *(Zartakoka asten zaio. Patxik erantzuten dio).*

KATTALIN *(yantziak biltzen amaitu ta).*—¡Patxi, utzak Joxe bakean!

PATXI.—¡Gel bedi bera! ¡Ta, i, gaye bereala emendik!

KATTALIN *(Patxi besotik artzen du, eltzen dio)* ¡Utzak Joxe bakean! ¿Ez duk aditzen? Nere anaya duk.

PATXI.—¿Ire anaya? Erran zan ire etsaia. Zanpateko ederrak bere arreba maitetxoari ematen ba zekik.

KATTALIN.—¡Nere anaia da, utzak geldik! *(Bien artean sartzen da).*

(Zenbait mutiko urbiltzen zaizkio).

MUTIKO B. *(Kattalin'i soñekotik iraitzi-ta).*—Alde emendik, suntsune!

KATTALIN.—Ez, ez naiz gain. Utzazue Joxe.

MUTIKO B.—¿Ezetz? Ikusiko diñagu. *(Bultzada batez bien artetik ateratzen du. Beste mutikoak inguratu dute ta zanpatzen dute gogorki).*

KATTALIN.—¡Olloak! ¡Txepelak! ¡Neskatiko baten aurka ausartzen zerate ala! ¡Basatiak! ¡Aite, aite...! *(Oiuak, zalapartak, iskanbille).*

— XIV —

LENGOAK, AITA TA UGAZAMA

(Zarata gogorra aditu-ta, aita ta ugazama agertzen dira).

AITA.—¡Egundeño! ¿Zeñek sortu du iskanbil gogor au? ¿Erotu zerate, edo...? ¡Geldi, geldi guziok, deabrukume zitalak!

UGAZAMA *(Joxe ikusirik).*—Jesus, Maria ta Jose. ¿Zeñek jo du nere semea?

AITA.—¡Madarikatuak! ¿Nere neskatikoari yoka? ¡Nik emain ditzuet ordaina!

(Badoa mutikoen gana arras sutua. Oiek, Kattalin askatu-ta beste mutikoen artean sartzen dire. Liskarra dirau (darrai). Aitek bere alaba laztantzen du ta ugazamak, bere semea).

— XV —

(Apeza dator).

APEZA.—¡Jesus, Jesus! ¿Zer gertatzen da emen? Inpernuko deabruak errian sartu zaizkigu, edo?

(Mutikuak, apeza ikusi orduko, gudualdia etentzen dute).

(Aita ta ugazamari).—Tira, esadazue ba zer gertatzen dan emen. ¿Nork nasi ditu sorti ok onelako katazka gogorrean?

AITA.—Ez bait dakigu. Iskanbilla sumatu-ta etorri gara ea zer gertatzen den ikustera. Basati ok berak mintza bitez.

APEZA *(Joxe'ri so egiten).*—Ots, ea zer derraigun! dioskun zantzail onek! ¡Otian! ¿zer du biurri onek kopetan?

UGAZAMA.—Kolpatu digute gure semea anker oiek! Baño ongi pagatu bearko dute!

AITA.—Ta nere alabatxoa bos-pa-sei mutikotzarren artean artuta, errukirik gabe zanpatu dute.

(Sutua zutitzen da).—¡Baño nik xautuko ditut zorri bezala!

APEZA *(Galerazten diola).*—Poliki, poliki. Yakin dezagun nola gertatu diran gauzak. Ots, Joxek edestuko (kontatuko) digu guzia.

(Eskutik artzen du).—Tira erraguzu: ¿zergatik aserretu zerate?

JOXE.—Erramun ta Patxi asi dira mokoka. Onek Patxi egiten zuen erruduna.

APEZAK.—Erruduna? Zeren erruduna, ordea?

(Joxe zalantzan gelditzen da).—Alo, alo, guzia yakin bear dugu. Obe duzu len-bai-len erratea.

JOXE.—Patxik erran dio Erramun'i onengatik yoanak garela...

APEZA.—Tira, tira yarrai, ¿nora?

JOXE *(Burua makurtuz).*—Sagarrak ebastera.

APEZA.—¡Deabru zikiñak! ¡Ez denentz bada lotsagarri! ¡Lapurretan! ¿Ta egia da? Erramun'engatik yoanak zerate?

ERRAMUN.—¡¡Ez yauna!!

ZENBAIT MUTIKO.—¡¡Bai yauna!!

BESTE MULTZO BAT.—¡¡Ez yauna!!

APEZA.—¡¡Ixillik!! ¿Ea berriz asten zeraten burrukan? Nik esaten dutena bakarrik nintza bedi *(Joxe'ri)*. Ta ik zer diok?

JOXEK.—Erramun'ek bururatu digu asmo ori. Auxe ez daike ukatu.

APEZA.—¡Erramun, beti biurri ori!

ERRAMUN.—Baño nik ez zaituztet beartu. Ea nai zenuten etorri besterik ez ditzuet erran.

APEZA.—¿Gutxi zaik zantzail ori? *(Joxeri)*. Ta zuek yoan,e?

JOXE.—Bai yauna. Multzo bat Erramun'ekin yoan gara. Besteak berriz, Patxi'ri yarraiki, eskolara.

APEZA.—Ordun, argi dago Erramun errudun dela. Baño baita zuek ere, aren asmoa onartu dezuelako. ¿Ta gero zer gertatu da?

JOXE.—Sartu gera Larraldeko sagastian. Aratokian, Mikelatxo etxeko alaba, ikusi dugu, ta guk galdetu: ¿ire etxean nor dun? ta arrek: Aitatxi bakar bakarrik. ¿Non ditun ba besteak? —Iratziketara yoanak dituk, Mailantz'era ta ni arratsaldekoakin (merendu) noai. Ta gu, yarraiki aitzinera. Sagardin sartzerakoan, ikusi dugu aitatxi kalerietan eguzkia artzen. Oiuka asi zaigu, baño ¡ainbat axolik zitzaigun agure xaar okitu arengatik! Aitatxii... erran diogu —zertako dituzu sagarrak? Ortzik ezta, nola yan bear dituzu?

APEZA.—¡Alkegabekoak, agure xaar batez nausatu.

ERRAMUN *(Joxe'ri)*.—Aizak, adiskide, ortan ere Erramun duk erruduna? I aiz irain ori bota diokena.

JOXE.—Egia, baño i ere ez aiz gibel gelditu. Ez duk ba erran, bizar zikin aiekin, gizon, antza baño artzarena bazula?

APEZA.—Artzainak samurtzen diranean, gaztak ayer. *(Joxe'ri)* ¿Eta gero?

JOXE.—Ez genuen batere bildurrik Larralde'ko aitatxirengatik, baño onek ongi asmatu du nola ondatu gure asmoak.

APEZA.—¿Zer egin du ba?

JOXE.—Zakurra azkatu ta axatu digu. Lau saltoz (yauziz) gure ondoan agertu da saingaka iñal guzian: Gutxik egin du ez pagera aren ortzetan aragi zerrendaren bat utzi. Norbaitek an zagon zaku zar bat bota dio ta ura urratzen gelditu da pitin bat. Anartean balengoaren gañetik yauzi egin ta atera gera. Ni azkena. Ain estu ibilli naiz non laisterrari eman bait diot itxuka ta, arbazta batean trabatuz, buruz beiti erori naiz ta kopetakin arri bat yo dut. Gero, korde gabetu naiz ta ezagumena berrartu detenean, emen nindagon, nere lagunen artean. Gero Erramun ta Patxi mokoka asi dira, besteak ere neri gera eztabaidan ta onela sortu da liskorra.

APEZA.—Eta Kattalin, gure Kattalin eztia, nola sartu da ikaragarrisko naasmas ontan? Bai ote? Ez aalda zuekin sagar-ebastera yoan?

KATTALIN *(Arras larritua).*—Ez, yauna, errekatik eldu nintzela, emen aurkitu ditut guziok aserre.

JOXE.—Ni Patxi'kin ai nintzen iñal guzian burrukan *(beakada itzal bat Patxi'ri zuzenduz)* ni baño aundiagokoa da, baño ez diot batere bildurrik.

APEZA.—Au motel; berriz yoka asteko goguan.

JOXE.—Ontan, Kattalin agertu da. Guregana etorri ta esan dio Erramun'i uzteko ni bakean. Nere alde asi da, ta ordun illupe oiek etorri dire ta zanpatu dute.

UGAZAMA.—Baño, zer diok, motell? Orrengatik yo dute Kattalin?

JOXE.—Bai, ama.

UGAZAMA.—Kattalin nere semea aldezten?

JOXE.—Bai, ama.

UGAZAMA.—O, neskatiko au aingeruñoa da. *(Kattalini)* Zatoz, maitea, nere besoetara. Gaurdanik, nere alaba kuttuna izango zara.

(Kattalin badoa ugazamarengana, ta onek gogotik laztantzen du. Gero, Kattalin ta Joxe besarkatzen ditu).

KATTALIN.—Au poza!

UGAZAMA.—Joxe, musu eman zure arrebatxo on utsari. *(Elkar musukatzen dute).*

KATALIN.—Tori Josetxo, zuretako altxatu dut goxo au. *(Goxoa ematen dio).*

UGAZAMA *(Berekiko)*.—Ta nola mindu diogun bizitza aingeruño oni, orain arte! Baño gaurdanik, auxe akitu da. *(Joxe ta Kattalini).* ¡Ederki olaxe, nere semetxoak; elkar maite ezazute egizko anai-arreba bezala. *(Aserre).* Baño mutil kazkar oiek, nere maitetxu ok yo dituzten oiek, oiek ordaindu bear dute ongi.

AITA *(Saminki, ukabile goratuaz).*—¡Bai oixe! ¡Nik...! *(ostiko).*

KATTALIN.—Aita, ez zigortu. Joxe ta biok barkatzen diegu. Baiba, Joxe,e?

JOXE.—Bai, ene arrebatxo, Patxi ez beste guziak.

KATTALIN.—Joxe, Patxi nere lengusua baita (da). Ez diozu (duzu) nere lengusuari barkatuko?

JOXE.—Tira, ba; zuk galdetuz geroz nola ukatu? Barkatzen diot.

APEZA.—Arrigarria da emen gertatzen dena. Neskatiko onek ikasbide ederra eman digu. Arrigarria da, benetan, ain neskatiko gaztea orren ederki ekitea. Guziak badakigu etxe ontan ez zela ain ongi ikusia. Ala ere, Kattalin'ek errarik ez du iñoendako, guziak maite ditu, ez da ala, kuttuntxoa? *(maiteki egiten dio).*

KATTALIN.—Bai yauna.

AITA.—Baño Josetxo ere bai? Ez da arras ona zuretako izan, aatik!

KATTALIN.—Bai Josetxo, ta baita Lolita ere. ¡Nere etxekoak ez ditut, ba, maite izango?

APEZAK.—Enetxoa, Yainkoa mintzatu zaigu zure aoz. Ikas dezagun ongi ikasgai au. *(mutikoei).* Ta zuek mutikotzar oiek, emen duzute eredua. Zuek, bela pizten (sortzen) duzute iskanbilla ta zalaparta. Den gauzarik xumena-(txikiena)rengatik zartakoka ta ostikoka asten zerate. Ikasi, ikasi Kattalin'engandik. Ortaz, bertzalde, gaur txarkeri itxusi bat egin duzute. Zigorgarriak egin zerate, ta egia errateko, yautsi zaitzue Yainkoaren zigorkada. Ara Joxe kopeta zilatua. Guziak zerate errudunak, baño i, Erramun, andiena; bestiak ik bultzatu bai dituk gaiztakeri ori egitera.

ERRAMUN.—Yauna, damutu zait gaiztakeri ortaz, neri beintzat, ta uste det oiek ere nerekin bat direla. ¿Ez da ala?

MUTIKO GUZIAK.—Bai, damuturik gaude.

APEZA.—Ez da, ordea, aski damua. Asmo sendoa ere bearrezkoa da. ¡Utziko dezute, betiko, txarkeri oiek?

MUTIKO BATEK.—Bai noski, gure sagar lapurketarenak egin du. Nik segurik, ez naiz gain. ¡Atz! izialdi ederra eman dit zakurtzar arrek...

BESTE MUTIKO.—Aise, sagurtxoa baño bildurtiago aiz da!

MUTIKO B.—Ta i zer aiz? ni baño geiago bildurtu aiz... Ikustekoa eikan nola eman iokan laisterrari.

BESTE MUTIKO.—Ori bai, baño ni baño firrinda aundiagoz eman ziotek Jesus, ta Peru, ta Pettan, ta... zoazi zenbatek.

MUTIKO BATZUEK *(Zalapartaka asten dira).* ¡Ez yauna! ¡Bai yauna!

APEZA *(Berekiko).*—¡Mutikoak beti muko! *(Zangoakin lurra yoaz).* ¡¡Aski!! ¿ortan dago zuen damua? Berriz asiko zerate mokoka?

ERRAMUN.—Tira geldik egon ta eskatu dezagun barkapena.

APEZAK *(Aita ta ugazamari).*—Zuen neskatikoa(k) eman digu ikasbidea. Barka ditzagun, damuturik bait daude mutil koxkor oiek. Gaur egun aundia da guretako. Kattalin, bere biotzeko edertasunaz, benetako amatxo bat aurkitu du. Lolita ta Joxen biotzak irabazi ditu. Orobat, gure mutiltxo oiek onaren bidean sartzeko asmoan daude. Bozkarioz bete bitez gure biotzak. Goraldu dezagun txarkerietatik ongiak ateratzen dituen Yainko ona, eta eman dezagun elkarri gentza ta maitasunezko besarka bat.

KATTALIN *(aurreratzen ta zerura begiratzen).*—¡Amatxo! Esker mila. ¡Pozik zaude zure alabatxoren egikeraz?

¡Bai egi andia Irene'k esana! Besteen biotzak irabazteko, ongi egitea bezelakorik ez da.

PUBLICACIONES
DE LA
REAL SOCIEDAD VASCONGADA
DE AMIGOS DEL PAIS

(Delegada del Consejo Superior de Investigaciones Científicas en Guipúzcoa)

REVISTAS

BOLETIN (de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País)

España

Suscripción anual	1.500	ptas.
Número suelto	800	»
Número atrasado	1.000	»

Extranjero

Suscripción anual	1.800	»
Número suelto	1.000	»
Número atrasado	1.200	»

EGAN (suplemento de literatura vasca)

España

Suscripción anual	500	ptas.
Número suelto	300	»

Extranjero

Suscripción anual	600	»
Número suelto	400	»

MUNIBE (del Grupo de Ciencias Naturales «Aranzadi»)

Precio por fascículo:

Socios y Colaboradores

Años 1949-1962	150	ptas.
Años 1962 y siguientes ...	200	»

Público en general

Años 1949-1962	250	»
Años 1962 y siguientes ...	300	»

Redacción: Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», Palacio de la Diputación Foral de Guipúzcoa

SAN SEBASTIAN